



*1990, 1991 eta 1992ko
azterketak*

61(079.1)

GLOTODIDAKTIKA-LANAK 40



© EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEAREN ADMINISTRAZIOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 GASTEIZ

Azala: Jesus Iturriza

Koordinatzailea: Xixa Gardner

Ardura akademikoa: EGAKo Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritza:

Koldo Biguri, Lurdes Auzmendi, Joseba Butron, Imanol Zurutuza. Azterketa Batzorde Ofizialeko kide desberdinek prestatu dute aztermaterial hauen lehen forma.

Fotokonposaketa: RALI S.A. Particular de Costa, 12-14 - 7.a - BILBO

Inprimatzailea: Estudios Gráficos Zure - Ctra. Asua-Erandio, 24-D - 48950 Erandio Goikoa

ISBN: 84-457-0210-6

Legezko gordailua: BI-2426-92

Lehenengo argitaldia: 1992ko abendua

Ale-kopurua: 2000

Liburu honek kaset bat dakar berekin

EGA

1990, 1991 eta 1992ko AZTERKETAK



HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES
E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ 1992

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
0. HITZAURREA	9
1. ATARIKO PROBAK	13
1.1. Oharrak	15
1.2. 1992/4/4	17
1.3. 1992/5/9	33
1.4. 1992/9/19	47
2. IDATZIZKO AZTERKETAK	63
2.1. Oharrak	65
2.1.1. 1990 eta 1991	66
2.1.2. 1992	67
2.2. 1990eko idatzizko azterketak	69
2.2.1. 1990/5/5	69
2.2.2. 1990/5/19	78
2.2.3. 1990/5/26	87
2.2.4. 1990/6/2	96
2.2.5. 1990/9/29	105
2.2.6. 1990/11/10	114
2.2.7. 1990/11/17	123
2.3. 1991ko idatzizko azterketak	133
2.3.1. 1991/5/4	133
2.3.2. 1991/5/18	142
2.3.3. 1991/5/25	151

2.3.4. 1991/9/28	160
2.3.5. 1991/10/5	169
2.4. 1992ko idatzizko azterketak	179
2.4.1. 1992/5/16	179
2.4.2. 1992/5/23	187
2.4.3. 1992/10/3	193
3. ERANTZUNAK & ENTZUTEZKO ULERMENENKO TESTUAK	199
3.1. Atariko probak	201
3.1.1. 1992/4/4	201
3.1.2. 1992/5/9	202
3.1.3. 1992/9/19	203
3.2. 1990eko idatzizko azterketak	205
3.2.1. 1990/5/5	205
3.2.2. 1990/5/19	209
3.2.3. 1990/5/26	212
3.2.4. 1990/6/2	215
3.2.5. 1990/9/29	219
3.2.6. 1990/11/10	223
3.2.7. 1990/11/17	226
3.3. 1991ko idatzizko azterketak	231
3.3.1. 1991/5/4	231
3.3.2. 1991/5/18	235
3.3.3. 1991/5/25	239
3.3.4. 1991/9/28	243
3.3.5. 1991/10/5	246
3.4. 1992ko idatzizko azterketak	251
3.4.1. 1992/5/16	251
3.4.2. 1992/5/23	255
3.4.3. 1992/10/3	257

HITZAURREA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere gain hartua duen EGAREN arduraren barruan, agiri horretarako prestatzen dituen azterketa materialak argitaratzeari ekin zion hasieratik, material horiek plazaratzean ikasteko tresna ere bihur zitezzen asmoz. Bada, asmo horri jarraituz, oraingo honetan bosgarren alea ematen da argitara, bertan 1990, 1991 eta 1992. urteetako azterketak bildurik. Sail honek lehenago apailatu eta argitaratu nahi izango zukeen ale hori, baina orain arte ezinezkoa gertatu zaio nahi hori gauzatzea, alde batetik 1990. urtean Azterketa Batzorde Ofizialaren zuzendaritza erabat berritzeaz gainera, talde berriak buru-belarri ekin bait zion EGA azterketa eredia bera aldatzeari, lehendik Sail honek eta aurreko zuzendaritza taldeak hartua zuten burubidea mamitzeko. Ahalegin horien emaitzak aurkitu ahalko ditu irakurleak, neurri batean behintzat, orain aurkezten dugun liburu honetan, bertan jasotzen bait dira Azterketa Batzorde Ofizialaren zuzendaritza 1991tik prestatzen hasi eta 1992ko azterketetan lehen aldiz erabili den atariko probari dagozkion materialak, orain arte eman izan diren idatzizko azterketekin batera.

Atariko Proba deitu izan duguna liburu honekin lehen aldiz jendearen eskura iristen denez gero, zuzen eta egokia da haren aurkezpen gisako bat egitea, eta hasteko esan beharko da EGAREN Azterketa Batzorde Ofizialaren zuzendaritzan eta egitarau osoaren alderdi teknikoaz arduratzen den Euskara Zerbitzuan aspalditik halako kezka bat bazegoela, lehengo EGA azterketa eredia finkatuegia ez ote zegoen eta, horrela, bere helburua ondo betetzen jarraitzen ote zuen. Garbi ikusten zen, beraz, urteen joan-etorriarekin zurrunduta geratua zen eredia berritu beharra. Horretaz gainera, azterketa bera antolatu eta burutzeak gero eta zailtasun tekniko gehiago ekartzen zituen, azterketari kopurua urtez urte handituz bait zihoan, lehen deialdietako azterketa irekietan batez ere, eta horrek azterketaren prozesu guztian (egunak,

azterketa egiteko lekuak, zuzentzaileak, zuzentzeko epeak...) eragin nabarmena zeukan.

Ondoan ematen dugun taulan ikus genezake liburu honek bere baitan hartzen dituen hiru urteetako lehen deialdietako azterketa irekiek zer nolako bilakabidea izan duten, bai kopuruz, bai ehunekoetan ere.

AZTERKETA IREKIAK (1. deialdia)

	Kopurua	Aurreko urtearen gaineko igoera	Hiru urteko hazkundea
1990	4.167	+ %24	—
1991	4.818	+ %16	—
1992	5.395	+ %12	+ %61

Arazo horiei aurre egiteko eta, esan bezala, azterketa eredua eguneratzeko sortu da, beraz, Atariko Proba; aukera anitzeko 100 galderez osatua dago beraz, eta bere bidez lehengo ereduarekin aztertu ezin zitezkeen hizkuntzaren alor gehiago ukitu eta neur daitezke, halatan non esan baitaiteke orain proba berriarekin azterketariak bere euskara mailaren froga osoagoa emateko aukera duela. Izan ere, besteak beste, honako hauek dira aztertzen diren jakintza gaiak:

- Entzutezko ulermena, benetako ahozko testuetan oinarritua.
- Ahozko hizkuntzaren adierazpide eta esakerak.
- Batuaren ezagupena.
- Lexikoa.
- Morfologia/egiturak.
- Hizkuntzaren egokitasuna.
- Esaerak eta esamoldeak.
- Idatzizko hizkuntzaren ulermena.
- Lokailuak/perpausen arteko erlazio-atzizkiak.
- Datuak/orduak: idazketaren konbentzio grafikoak.
- Besterik (puntuazio ikurrak, eskutitz formulak, hitzen ordena, esaldi okerren zuzenketa).

Atariko Probari esker, gainera, idatzizko azterketa (bigarren proba) laburtu ahal izan da. Guzti hori dela bitarte, Atariko Proba mekanikoki eta oso denbora laburrean zuzen daitekeenez gero, lehenagoko ereduak zekarren lan zama arindu eta prozesua bizkortu ahal izan da; horrela, EGAK inoiz baino azkarrago aztertu ahalko ditu azterketariak, lehen proban, bai eta hainbati

azken ondorioa berehala eman ere. Bestetik, aurre-azterketa honek aukera oso ona ematen digu azterlekuen arteko maila bateratzeko, aztertzaile guxtiago behar izateko eta, oro har, eta batez ere, EGArako prestakuntzan, bai ikasleek, bai irakasleek ere orain arte apur bat alde batera utzitako hizkuntzaren beste zenbait alorretan arreta gehiago ipintzeko. Horrek ez du inondik ere esan nahi azterketa zailagoa denik orain, baina bai, ordea, osoagoa dela eta, hortaz, azterketariaren euskara maila hobeto ispilatzen duela.

Hasierako proba berriarekikoak alde batera utzirik, liburu honek badakar berekin bestelako berritasunik ere, aurrekoen aldean. Batetik, Atariko Probako entzutezko ulermenaren zatian erabilitako ahozko testuak biltzen dituen kasetea erantsi diogu. Eta bestetik, lehenengo aldiz, materialak azterketa egunen arabera antolaturik daude, halatan non azterketa osoak batera eskaintzen bait dira, eta ez atalka, orain arte egiten zenaren alderantziz. Izan ere, iruditu zaigu liburu honen erabiltzaileek benetako azterketak edukitzeko aukera emanez, hobeto prestatu ahalko dituztela, materialak bere osotasunean aurkeztuz, eta ez zatika. Ziur gaude hemen eskaintzen ditugun lan eta ikastresnak lagungarri izango direla EGA prestatzen duten ikasle eta azterketari gero eta ugariagoentzat, bai eta irakasleentzat ere.

Gasteizen, 1992ko azaroaren 10ean.

AZTERKETA BATZORDE
OFIZIALAREN ZUZENDARITZA

1. ATARIKO PROBAK*

* Lehen atal honetan jasotzen dira 1992an azterketa irekietan (eta, zenbaitetan, bide batez hainbat ikastetxe onetsi eta homologatutan) burutu diren atariko probak.

1.1. OHARRAK

Ondoan jasotzen dira atariko probetako galdekizunen lehen orrian agertzen diren azterketarientzako oharrak, azterketariek aldeztatik ezagut dezaten ariketa berriaren moldea.

IRAKUR ITZAZU OHARROK

1. Galdera-orri hauen liburuskatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 21 galdera-orri dituela eta orriak ordena zuzenean daudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NAN zenbakia.

Izen-deiturak:	NAN:
----------------	------

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, behin entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriaren B atala.
6. Galdera bakoitzean erantzun *egokiena* aukeratu eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.

Bestetik, komeni da entutezko ulermeneko zatiaren (lehenengo 15+3 galderak) mekanika azaltzea: zati hori atal bat baino gehiagotan (normalean hirutan edo lautan) banatu ohi da, atal bakoitzari orri bana emanez. Lehen atalaren galderak irakurtzeko minutu erdia dute azterketariek; gero, galdera horiei dagokien zinta-zatia entzuten dute; minutu osoa dute jarraian lehen galdera-multzoari erantzuteko eta bigarrena irakurtzeko. Hurrengo atalen artean tarte berbera ematen zaie, baina azken atalari erantzuteko, jakina, minutu erdia soilik uzten da azterketaren bukaera arteko ordubetea kontatzen hasi baino lehen.

Azterketaren bukaeran, azkenik, honako ohar hau egiten zaie azterketariei beharrezko konprobazioak eta, egin ditzaten.

Azterketa bukatzen duzunean, konproba ezazu ongi markatu dituzula: (1) erantzunak; (2) NAN zenbakia eta eguna. Ez mugitu zure aulkitik arduradun batek horretarako gonbitea egin arte.

1.2. 1992/4/4

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. **Zein da zuzenena?**

- a) Europako Kontseiluaren gomendioek Suediako legea dute oinarri.
- b) Europako Kontseiluaren gomendioek lege balioa dute.
- c) Europako Kontseiluaren azalpenak gomendio mailakoak dira.

2. **Europa mailako zenbat lege aipatzen da hemen?**

- a) Lau.
- b) Hiru.
- c) Bi.

3. **Mataroko emakume horrek zergatik jo zuen epailearengana?**

- a) Legeak hala eskatzen ziolako.
- b) Medikuek hala gomendatu ziotelako.
- c) Ez dakigu bere arrazoen berri.

4. **Teknika hauetaz baliatzeko legeak...**

- a) ez du inolako baimenik eskatzen.
- b) zenbait baimen eskatzen ditu.
- c) epaile eta medikuen baimenak eskatzen ditu.

BIGARREN ATALA

5. **Mataroko emakumearen kasuak zera frogatzen du:**

- a) Espainiako legea ez dela behar bezain argia.
- b) patologia-kasu baten aurrean gaudela.
- c) Bartzelonako epailea teknika hauen aurka dagoela.

6. **Mataroko kasu honetan nork du arrazoia?**
- a) Mataroko epaileak.
 - b) Ez dakigu.
 - c) Bartzelonako epaileak.
7. **Emakume horren arrazoiaren aurrean zein da Bartzelonako epailearen jarrera?**
- a) Onartu egiten ditu.
 - b) Gaitzetsi egiten ditu.
 - c) Ez ditu aintzat hartzen.

HIRUGARREN ATALA

8. **Europako Kontseiluaren jokabidea eta Espainiako legea konparatuz,...**
- a) biak erabat berdinak dira.
 - b) Espainiako legea motz gelditzen da.
 - c) Espainiako legea aurrerago doa.
9. **Zein da erantzun zuzena?**
- a) Suediako legea Espainiakoa baino aurrerakoiagoa da.
 - b) Suediako legeak Espainiakoa iturri beretik edaten du.
 - c) Suediako legeak Espainiakoa erabat gainditzen du.
10. **Hiru legetatik Alemaniakoa da...**
- a) azkena.
 - b) laburrena.
 - c) hoberena.
11. ***Post mortem* intseminazioaren kasuan bat datoz.**
- a) Suediako legea eta Espainiakoa
 - b) Alemaniako legea eta Europako Kontseilua
 - c) Suediako legea eta Alemaniakoa
12. **Sei hilabeteen kontu horrek eragin handia du ernalkuntzaren...**
- a) garapenean.
 - b) ondorioetan.
 - c) kalitatean.

LAUGARREN ATALA

13. **Hiru ama-mota horietarik Espainiako legearentzat da benetako.**
- a) ama gestantea
 - b) ama soziala
 - c) ama genetiko

14. **Espainiako legeak ez du onartzen...**

- a) ama sozialik.
- b) ama alkilaturik.
- c) ama gestanterik.

15. **Zein da erantzun zuzena?**

- a) Honelako legeak etikaren aurka doaz.
- b) Honelako legeek jendea noraezean jartzen dute.
- c) Honelako legeek giza-balioak ukatzen dituzte.

16. **Jendeak beldur die manipulazio genetikoaren...**

- a) arazo etikoei.
- b) gehiegikeriei.
- c) erlijio-arazoei.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN ARIKETAREN AMAIERA

17. euriak harrapatu ninduen.

- a) Autobusatik jaistean
- b) Autobusetik jaistean
- c) Autobusetik jaiztean
- d) Autobusatik jeistean

18. Horrek mundu guztia maite du oso da eta.

- a) maitakorra
- b) maitagarria
- c) maitalea
- d) amorantea

19. **Aukera ezazu zuzena:**

- a) Zu ez ba zatoz, ez digute kasurik egingo.
- b) Zu ez bazatoz, ez digute kasurik egingo.
- c) Zu ezpazatoz, ez digute kasorik egingo.
- d) Zu ez bazatoz, ezdigute kasorik egingo.

20. Egun on! **esan du norbaitek. Hurrengo erantzunetatik bat desegokia da honi erantzuteko. Zein da?**

- a) Halan ekarri!
- b) Berdin!
- c) Urte askotan!
- d) Baita zeuri ere!

21. Aizue! Ordu erdi daramagu taberna honetan.

- a) Goaz beste batera!
- b) Goazen behingoz!
- c) Goaz ala zer?
- d) Alde hemendik, ba!

22. **Norbaiten kolkotik barre egitea:**

- a) Ziria sartu.
- b) Iruzur egin.
- c) Akuilatu.
- d) Adarra jo.

23. Oinetako horiek...

- a) zapatari horrek konponduak dira.
- b) zapatari hori konponduta dira.
- c) zapatari horrek konpondurik dira.
- d) zapatari horregatik konponduak dira.

24. Ez dut ondoegi entzun eta,...
- a) errepikatzen duzu berriro?
 - b) errepikatuko didazu?
 - c) berriz errepikatzen didazu?
 - d) beste bider esango duzu?
25. Egon zaitezte behar bezala eta...
- a) irakurriko dizuet.
 - b) irakurtzen dizuet.
 - c) irakurtzeko dizuet.
 - d) irakurri egingo dizuet.
26. Zenbat egiten duzu egunean?
- a) otordu
 - b) janari
 - c) bazkari
 - d) jan
27. **Gorputza oso nekaturik somatzen denean, zer esaten da?**
- a) Leher eginda nago.
 - b) Lehertuta nago.
 - c) Neke asko daukat.
 - d) Lur jota nago.
28. Ene, barka iezadazu, arren,...
- a) zindoazela uste nuen eta.
 - b) joaten zinela uste izan dut eta.
 - c) joaten ari zinela uste nuen eta.
 - d) bazindoazela uste nuen eta.
29. **Aukera ezazu zuzena:**
- a) Euritakoaren esker, ez nahiz busti.
 - b) Euritakoa esker, ez naiz busti.
 - c) Euritakoari esker, enaiz busti.
 - d) Euritakoari esker, ez naiz busti.
30. **Kaletik zoazela zure laguna erori egin da eta sudurra odoletan daukala ikusirik, zera diotsazu:**
- a) Jo! A zer kolpea eman zara!
 - b) Hori kolpea jo duzuna!
 - c) Zelako kolpea eman duzun!
 - d) A zer kolpea hartu duzun!
31. **Ume txiki bati nola esango zenioke zerbaitek erre egiten duela?**
- a) Ez, horrek txi-txi egiten du.
 - b) Ez, horrek pu-pu egiten du.

- c) Ez, horrek kosk egiten du.
 - d) Ez, horrek pupa egiten du.
32. Zergatik egiten duzu hori?
- a) Zeren nahi dut.
 - b) Nahi bait dut.
 - c) Nahi dudalako.
 - d) Nahi dut eta.
33. Eta orduan hegazkinaren atea ireki egin zen, benetan, gu barruan ginelat!
- a) Ez iezadazu ilea hartu.
 - b) Ez niri adarrik jo, gero!
 - c) Hori gezur bat da.
 - d) Nolako gezur handia esan didazula!
34. Itxaron apur batean, neuk eramango fardelak.
- a) dizut
 - b) zaitut
 - c) dizkizut
 - d) dizuet
35. Nik badakit hori, baina, egia esan, beste edonork ere jakin lezake. **Aukeratu baliokidea.**
- a) Nik izan ezik, beste edonork jakin lezake hori.
 - b) Nik izan ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.
 - c) Nik ezik, edonork ere jakin lezake hori.
 - d) Nik ez ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.
36. **Hona zer esan dizuten:** Horrek ez daki piperrik ere! **Nola adierazi zure ezadostasuna?**
- a) Ez, jakin barik!
 - b) Ezta pentsatu ere!
 - c) Ez, noski.
 - d) Bai dakiela!
37. Aizu! Ni azkarregia ere ez naiz, baina ez nazazu...
- a) tenteltzat har.
 - b) tentelagatik har.
 - c) tentelarengatik har.
 - d) tentel bezala har.
38. Hori ez luke egingo...
- a) ezta ere munduko urre guztiagatik!
 - b) ezta munduko urre guztiagatik ere!
 - c) munduko urre guztiagatik ere ez!
 - d) ezta munduko urre guztiagatik ere ez!

39. Kostako zaie ederki guk etxea edukitzea.
- a) adina
 - b) bezain
 - c) adinako
 - d) lain
40. **Poza adieraziz, animatzeko eta adorea emateko zer erabiltzen da?**
- a) Zer egingo diogu, ba!
 - b) Gureak egin du!
 - c) Hau bai ederra!
 - d) Hori duk eta!
41. Zure bestekoa izango zen, hortxe-hortxe.
- a) Zu askoz txikiagoa zinen.
 - b) Ia zure parekoa zen.
 - c) Zu askoz handiagoa zinen.
 - d) Biok berdin-berdinak zineten.
42. Konortetik gabe jausi ez zenean!
- a) Lurrera seko erori zen.
 - b) Jaustekotan egon zen.
 - c) Bertan erori zen.
 - d) Laguntzarik gabe egoteagatik, jausi egin zen.
43. Bake hitzarmenerako lehen urratsak emanak dira dagoeneko. **Zer esan nahi du?**
- a) Bakea lortzerik ez dagoela.
 - b) Bakerako gutxi falta dela.
 - c) Bakea lortzeko prozesuari hasiera eman zaiola.
 - d) Urratu egin dela akordioa hasiera-hasieratik.
44. **Lagun batek harira ez datorren jaialdi baten kontua aipatu berri dizu. Zer esango zenioke?**
- a) Zein jaialdi madarikatu?
 - b) Zein jaialdi, txotxolo?
 - c) Zer jaialdi eta zer jaialdi-ondo?
 - d) Baita zera ere!
45. Asmatuko ote dugu?
- a) Nor jakin lezake?
 - b) Batek daki!
 - c) Bai zaila dela!
 - d) Noski baietz!
46. geratu zen lagunekin.
- a) «Patxiku» jatetxean
 - b) Jatetxe Patxikun

- c) Patxiku jatetxe-an
 - d) Jatetxe «Patxiku»n
47. Ibil zaitez kontuz horrekin; , apurtu egingo da.
- a) gainerakoan
 - b) bestela
 - c) ordea
 - d) aitzitik
48. Lagun batek loteria tokatu zaiola esan dit, baina...
- a) gezurra delaren susmoa daukat.
 - b) gezurra deneko susmoa daukat.
 - c) gezurra dela susmoa daukat.
 - d) gezurra den susmoa daukat.
49. Astean lanordu gehiago sartu behar genuke. **Adieraz itzazu zeure ezadostasuna eta harridura.**
- a) Esatea ere!
 - b) Izan ere ez da beharrezko!
 - c) Hainbeste lantzea ere...!
 - d) Hainbat lan eginez gero...!
50. **Zuzena aukeratu.**
- a) Hauzo horretako gendeak oso humore txarra daduka.
 - b) Auzo horretako gendeak oso humore txarra dauka.
 - c) Auzo horretako jendeak oso umore txarra dauka.
 - d) Auzo horretako jendeak oso umore txarra daukate.
51. **Zein ez da animalia gazte bat?**
- a) Idia.
 - b) Txahala.
 - c) Txerrikumea.
 - d) Arkumea.
52. Nik sudur luzea edukiko dut, baina zuk...
- a) gehiago!
 - b) askoz gehiago!
 - c) makala!
 - d) ez duzu makala!
53. Nortzuk joan zineten jaialdira?
- a) Gugandik inor ere ez.
 - b) Gutako inor.
 - c) Ez zen joan gutako inor ere ez.
 - d) Gutako inor ere ez.

54. Edonor izanik ere, ez diot sartzen utziko.
- a) Edozein dela ere, ez diot sartzen utziko.
 - b) Norbait delarik ere, ez diot sartzen utziko.
 - c) Nor den ere, ez diot sartzen utziko.
 - d) Nornahi bada, ez diot sartzen utziko.
55. **Zein ez da fruitua?**
- a) Sagarra.
 - b) Madaria.
 - c) Intxaurra.
 - d) Geriza.
56. Datu guztiak aztertu ondoren atera dugu ondoriotzat.
- a) delakoa
 - b) honako hau
 - c) horrelako hori
 - d) dena delakoa
57. **Apostu egin nahi duzu -hamar mila pezeta, hain zuzen ere- zaldi beltz baten alde. Nola esango zenuke?**
- a) Hamar milagatik, beltzak irabaz dezala!
 - b) Hamar milaren truke, zaldi beltzak irabazi!
 - c) Hamar mila, baietz beltzak irabazi!
 - d) Baietz beltzak hamar mila irabazi!
58. **Zein da ondoko koloreen sailkapena argienetik ilunenera?**
- a) Zuria, gorria, horia, beltza.
 - b) Gorria, zuria, beltza, horia.
 - c) Zuria, horia, gorria, beltza.
 - d) Horia, gorria, zuria, beltza.
59. Gehienen ustez arrakastatsua izan da saio berria.
- a) Denek uste dute arrakasta izan duela.
 - b) Gehiagok uste du arrakasta txikia izan duela.
 - c) Ia denek uste dute porrota izan dela.
 - d) Ia denek uste dute arrakasta izan duela.
60. **Ismael ez duzu aspaldi ikusi. Kanean topatu, eta zer esango zenioke?**
- a) Bazen ordua!
 - b) Pozten naiz!
 - c) Hau nahigabea!
 - d) Ene, aspaldiko!
61. Dagoenean bon-bon eta ez dagoenean...
- a) egon.
 - b) hor konpon.

- c) ez jaramon.
- d) erosi.

62. **Hauetatik zein esango luke naturzale batek?**

- a) Zerbait egin beharko dugu natura ez hondatu nahi badugu.
- b) Zerbait egin beharko dugu natura ez nahi badugu hondatu.
- c) Zerbait egin beharko dugu natura hondatu nahi ez badugu.
- d) Zerbait egin beharko dugu natura hondatzen ez badugu.

63. «Gizalegea eta harreman itxiak» izan zen gaia hitzaldian. **Zertaz hitz egin zen?**

- a) Gizalegea eta harreman itxiari buruz.
- b) Gizalege eta harreman itxietaz.
- c) Gizalegea eta harreman itxien gainean.
- d) Gizalegeaz eta harreman itxiez.

64. **Zerbait barregarria gogora ekartzean:**

- a) Hura bai barrea!
- b) Ze barre egin dugu!
- c) Baietz barregarria zela!
- d) Hura bai barregarria!

65. Ezin nekatuago zegoen eta loak hartu zuen berehala.

- a) Hain nekatuta zegoenez, loak hartu zuela.
- b) Hain zegoelako nekatuta, loak hartu zuen.
- c) Hain zegoen nekatuta, non loak hartu zuela.
- d) Hain zegoen nekatuta, ezen loak hartu zuen.

66. Azkarra zara, gero!

- a) Azkarra zara orain eta izango zara gero ere.
- b) Izatez azkarra zara, baina...
- c) Benetan zara azkarra.
- d) Ez zara oso azkarra.

67. Horiek bakarrik ez,...

- a) guk ere bai dakigu.
- b) guk baita dakigu.
- c) geuk baita ere dakigu.
- d) geuk ere badakigu.

68. **Zure emaztearen amaren senarra zer da zurea?**

- a) Aitita.
- b) Osaba.
- c) Amaginarreba.
- d) Aitaginarreba.

69. Zer jan duzue?
- a) Jan ezer ere. Probatu dugu apurtxo bat.
 - b) Jan? Ezer ere ez. Probatu baino ez dugu egin.
 - c) Jan ez, probatu dugu.
 - d) Ez dugu jan, baizik eta probatu dugu.
70. Haiei entzundakoek mindu gaituzte. **Aukeratu baliokidea.**
- a) Mindu ditugu, entzun diegunagatik.
 - b) Gu minduta gaude, haiei entzun dizkiegun gauzak direla medio.
 - c) Haiei entzun dietenek badakite minduta gaudela.
 - d) Benetan mindu gaituzte entzun dietenek.
71. **Zuzena aukeratu.**
- a) Iruñatik Donostiruntz abiatu ziren.
 - b) Iruñetik Donostiarantz abiatu ziren.
 - c) Iruñeatik Donostiaruntz abiatu ziren.
 - d) Iruñeatik Donostirantz abiatu ziren.
72. Beti ibiltzen da izerdi patsetan, beraz...
- a) izerbera da.
 - b) odolberoa da.
 - c) patxadatsua da.
 - d) izerkaria da.
73. Zu ez zara hori egiteko gauza.
- a) Bai naizela!
 - b) Bai zera!
 - c) Ez, hori bai ezetz!
 - d) Izango ez naiz, ba!
74. Gezurretan eta azpijokoan ibiltzen al zara zu ere?
- a) denekoa
 - b) direnetakoa
 - c) dena
 - d) zarenetakoa
75. **Udaltzain Buruari eskutitza bidali diozu. Hona hasiera:**
- a) Jaun Txit Gorena:
 - b) Estimaten zaitut.
 - c) Kaixo, zer moduz?
 - d) Agur t'erdi:
76. Horrek lehengo lepotik du burua.
- a) Badaki zer egiten duen.
 - b) Zentzu handikoa da.
 - c) Ez da batere aldatu.

- d) Ez zaio ezer larririk gertatu.
77. Peru mendira doa...
- a) eta neu ere banoa.
 - b) baita ere ni noa.
 - c) eta neu baita.
 - d) eta neu ere bai noa.
78. **Ondoko zerrendetatik hiru ondo daude, baina batek tokiz kanpo-ko izen bat darama. Zein da zerrenda hori?**
- a) Karrika, errepidea, bidezidorra, autopista.
 - b) Izter-txokoa, ukondoa, bekokia, galtzarpea.
 - c) Elurra, kazkabarra, elur bustia, euria.
 - d) Haritza, pagoa, txepetxa, erramua.
79. Biok unibertsitate ikasi dugu.
- a) berdinean
 - b) berean
 - c) bertan
 - d) berdintsuan
80. Ez dut askorik ikasi; , gainditzea espero dut.
- a) beraz
 - b) behintzat
 - c) hortaz
 - d) alabaina
81. **Gauza agerikoa, jakina:**
- a) Denek ezagutua.
 - b) Argitaratua.
 - c) Begi bistakoa.
 - d) Begizkoa.
82. **Hitz hauetako zeinek ez du adierazten gizonezkoa?**
- a) Neba.
 - b) Aitita.
 - c) Lehengusina.
 - d) Osaba.
83. Txakur hori ardiak zaintzeko berezia da. Zer da?
- a) Artzain-txakurra.
 - b) Ardien txakurra.
 - c) Ardietarako txakurra.
 - d) Txakur artzaina.

84. **Zer adierazteko erabiliko genuke honako esaldi hau?** Giro zen gauean gure sukaldean!
- a) Giro hotza zegoela.
 - b) Alaitasun giroa zegoela.
 - c) Haserre giroa zegoela.
 - d) Ez zegoela ezertarako girorik.
85. Atzo ikusi ninduzun eta ez zenidan jaramonik egin.
- a) Barkatuko didazu, baina ez zintudan ikusi.
 - b) Barka nazakezu, baina presa neukan.
 - c) Barkatuko didazu, baina ez nizun ikusi.
 - d) Barkatzen didazu? Ez zintudan ikusi.
86. Eusko Legebiltzarrean, gaurko bilkuran...
- a) liskar itzelak sortu dira.
 - b) beroketa galantak gertatu dira.
 - c) eztabaida biziak izan dira.
 - d) sesio eta azpikeriatan egon da!
87. Ederki berdinduta altxatu ginen mahaitik. **Zer adierazi nahi da esaldi horrekin?**
- a) Denbora ugari eman ondoren altxatu ginela.
 - b) Ongi jan eta edanda altxatu ginela.
 - c) Bazkariarekin konforme altxatu ginela.
 - d) Ederki ordaindu eta gero altxatu ginela.
88. Ez dira, ba, biluzik jarri hondartza erdian!
- a) Lotsagabeak dira!
 - b) Lotsik gabeak dira.
 - c) Lotsatu behar!
 - d) Ez dute lotsarik!
89. **Zein da zuzena?**
- a) 1575ko abenduaren 5an jaio zen.
 - b) 1575aren abenduko 5an jaio zen.
 - c) 1575eko abenduaren 5ean jaio zen.
 - d) 1575ren abenduko 5ean jaio zen.
90. Ni ez beste guztiak joan ziren komunera.
- a) Ni izan ezik, denok ere joan ziren komunera.
 - b) Ni ez ezik, denok joan ziren komunera.
 - c) Denak joan ziren komunera, ni izan ezik.
 - d) Denak joan ziren komunera, ni baizik.
91. Nik badakit; uzten badut ez dut amaituko **esan zidan**.
- a) Uzten bazuen, bazekiela ez zuela amaituko esan zidan.
 - b) Uzten bazuela bazekiela ez zuela amaituko esan zidan.

- c) Esan zidan uzten bazuen ez zuela amaituko, bazekien.
d) Uzten bazuen bazekiela ez zuenik amaituko esan zidan.
92. Eguraldi honekin ez da etorriko, ni behintzat...
- a) ezetzean nago.
b) ezezkoan nago.
c) ezetz esango nuke.
d) ezetz ustean nago.
93. Bere kabuz egin du lan guztia.
- a) Norbaiten laguntzaz egin du lan.
b) Amaiera-amaieran egin du dena, azken unean.
c) Bere etxean egin du lan.
d) Inoren laguntzarik gabe ihardun du.
94. Droga arazoak direla eta urte luzeak eman beharko ditu Josuk kartze-
lan, bi kilo kokaina...
- a) berekin zeramatzanez, harrapatu egin bait dute.
b) berekin zituelakoan atxilotu dutelako.
c) berekin zituelako harrapatu bait zuten.
d) berekin zeramatzala harrapatu bait zuten.
95. **Zuzena aukeratu.**
- a) Honoko etxe hontan zeudeten.
b) Honoko etxe hontan zeuden.
c) Honako etxe honetan zeuden.
d) Honako etxe honetan zeudeten.
96. Zeozer egitekotan, ondo egin behar duzu.
- a) Bai, hobeto ez badakit egiten!
b) Hobeto egiten ez dakit, baina!
c) Ez dakit hobeto egin!
d) Baina, ez badakit!
97. **Zein da zuzena euskara batuaz?**
- a) Umeekin etorri bagara amamarengatik izan da.
b) Umeekaz etorri bagara amamagatik izan da.
c) Umeekin etorri ba gara amamarengatik izan da.
d) Umekin etorri bagara amamagaitik izan da.
98. gezurrak zirela kontatu gauza guztiak.
- a) Bagenekien ziguten
b) Bagenekien zizkiguten
c) Bagenekizkien ziguten

d) Bagenekizkien zizkiguten

99. **Zein data da 1894-7-31?**

- a) Mila bederatzehun eta laurogeita lauko ekainaren hogeita hamai-ka.
- b) Mila zortzihun eta laurogeita lauko azaroaren hogeita bata.
- c) Mila zortzihun eta hirurogeita hamalauko ekainaren hogeita ha-
maika.
- d) Mila zortzihun eta laurogeita hamalauko uztailaren hogeita ha-
maika.

100. Erratu egin zara, txo!

- a) Zeren zuk nahastu nauzulako.
- b) Egia bada!
- c) Okerra ni? Horrelakorik!
- d) Biok ibili gara oker, orduan.

1.3. 1992/5/9

ENTZUTEZKO ULERMENA

Azterketa honen lehenengo hamabi galderak eta aprilaren laueko azterketarenak berberak dira. Azterketa hau burutu zutenek zintaren lehenengo hiru atalak soilik entzun zituzten.

13. Nik badakit hori, baina, egia esan, beste edonork ere jakin lezake. **Aukeratu baliokidea.**
- a) Nik izan ezik, beste edonork jakin lezake hori.
 - b) Nik izan ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.
 - c) Nik ezik, edonork ere jakin lezake hori.
 - d) Nik ez ezik, beste edonork ere jakin lezake hori.
14. «Gizalegea eta harreman itxiak» izan zen gaia hitzaldian. **Zertaz hitz egin zen?**
- a) Gizalegea eta harreman itxiari buruz.
 - b) Gizalege eta harreman itxietaz.
 - c) Gizalegea eta harreman itxien gainean.
 - d) Gizalegeaz eta harreman itxiez.
15. Erratu egin zara, txo!
- a) Zeren zuk nahastu nauzulako.
 - b) Egia bada!
 - c) Okerra ni? Horrelakorik!
 - d) Biok ibili gara oker, orduan.
16. Zer egingo dute bihar mutikoek?
- a) Ez dakit nora doaz.
 - b) Ez dakit nora joateko diren.
 - c) Ez dakit nora joaten diren.
 - d) Ez dakit nora joaten ote diren.

17. **Zein da zuzena?**
- a) Hamairu urterekin ihes egiten badu, ba du meriturik.
 - b) Hamahiru urterekin iges egiten ba du, badu meriturik.
 - c) Hamahiru urterekin ihes egiten badu, badu meriturik.
 - d) Hamairu urterekin ies egiten badu, badu meriturik.
18. Zer gertatu zaizu horren zikin etortzeko?
- a) Erori naiz kalean.
 - b) Erori egin naiz.
 - c) Jausi naiz muturrez.
 - d) Bada, jausi naizela.
19. **Norbaitek hauxe diotsu:** Zeu zara egokiena lan honetarako. **Ez zaudede ados. Nola erantzun?**
- a) Nola ez, ba?
 - b) Bai, zera!
 - c) Hobe ez!
 - d) Noski ezetz!
20. **Ekintza baten arima eta eragile den pertsona:**
- a) suzeria.
 - b) sustagarria.
 - c) eratzailea.
 - d) sustatzailea.
21. Irakasleak ez du argitasun eman azterketa egiteko.
- a) handirik
 - b) beharrezkoa
 - c) handiegia
 - d) beharrezkorik
22. **Zer adierazteko erabiliko zenuke esaldi hau?** Hobe beharrean esan nion guztia.
- a) Gogorki esan niola.
 - b) Mesede egiteko asmotan esan niola.
 - c) Modu onean esan niola.
 - d) Hobe izan zedin esan niola.
23. Zer, ba al zatozte zinera?
- a) Goaz ba!
 - b) Goaz segituan!
 - c) Bai, zurekin joaten gara.
 - d) Bai, zaude piska batean.
24. Kultur ihardunaldiak antolatzeko saioa. **Esan beste era batera.**
- a) Ospakizunak prestatzeko entsaioa.
 - b) Kultur ekitaldiak eratzeko saioa.

- c) Kongresuak ospatzeko saiakera.
- d) Kultur egoitzak eraikitzeko entsegua.

25. **Zein da hurrengoetan sailkapena gazteenetik zaharreneira?**

- a) Haurra, jaioberria, agurea, gaztea, gizona.
- b) Jaioberria, gaztea, haurra, agurea, gizona.
- c) Jaioberria, haurra, gaztea, gizona, agurea.
- d) Agurea, gizona, gaztea, jaioberria, haurra.

26. Ez dugu astirik izan mokadutxo bat jateko...

- a) ez ezik.
- b) ere ez.
- c) bakarrik.
- d) baino.

27. Zuon aita ez dakit nolakoa izango den, baina...

- a) nirea ez da horrela.
- b) neurea ez da holan.
- c) gurea ez da horrelakoa.
- d) geurea ez da holakoa.

28. Su etena heltzear dago. **Esan beste era batera.**

- a) Armak laster isilduko dira.
- b) Sua laster itzaliko dute.
- c) Ez da sekula bakerik izango.
- d) Suzko eraso bat iritsiko da.

29. Mikel gure hautatu dugu denon artean.

- a) ordezkaria
- b) ordezkari bezala
- c) ordezkari
- d) ordezkari gisa

30. Azken orduko oztoporik datorren astean jarriko da martxan lehia-keta berria.

- a) egon ezean
- b) gabe
- c) ez egotekotan
- d) ez ezik

31. **Nola galdetu lagunei igandean mendira joan nahi duten?**

- a) Joango al gara mendira igandean?
- b) Igandean mendira joaten gara?
- c) Goaz mendira igandean?
- d) Mendira igandean joango gara?

32. **Itolarrian zebilen bere lanean idazkaria denboraldi hartan. Egunero-
roko leloa bihurtu zitzaion honako hau:**
- a) Bukatzen duzunerako badut beste lan bat.
 - b) Bukatu ahala beste lan bat dut.
 - c) Bukatuko bazenu beste zerbait bidaliko nizuke.
 - d) Hori bukatzen duzula, badut beste lan bat.
33. Okerreko begitik sartu zitzaion.
- a) Une txarrean harrapatu zuen.
 - b) Triste antzean zegoen.
 - c) Ez zitzaion batere gustatu.
 - d) Haserre bizian jarri zen.
34. **Nola galdetuko zenuke?**
- a) Mesedez, esango didazu non dagoen irteera?
 - b) Esadazu, mesedez, irteera.
 - c) Esaten didazu non dagoen irteera, mesedez?
 - d) Esango zenidan, mesedez, non dagoen irteera?
35. **Zein da zuzena?**
- a) Billera hortan gauza guztiez mintzatu da.
 - b) Bilera horretan gauz guztietaz mintzatu da.
 - c) Bilera hortan gauza guztietaz mintzatu da.
 - d) Bilera horretan gauza guztiez mintzatu da.
36. **Zerbaiti barregarri deritzozunean, zer esango zenuke?**
- a) Ze barre!
 - b) Hau barregura!
 - c) Zein barregura!
 - d) Zer barreak!
37. Ados zaude, ezta? Zer ari zara, , marmarrean?
- a) orduan
 - b) ostean
 - c) aldiz
 - d) haatik
38. Eskarmentua. **Zer esan nahi du?**
- a) Pertsona bati ikas dezan jartzen zaion zigorra.
 - b) Animaliek eduki ohi duten gaisotasun mota.
 - c) Ihardunean lortzen den esperientzia.
 - d) Esklabuek jasaten duten egoera larri eta krudela.
39. Den-denak «bikain» atera ditu ekainean Josuk.
- a) Ez da izango!
 - b) Bejondeizula!

- c) Bai, aurki.
- d) Hori duk eta!

40. **Aukeratu batuz zuzena dena.**

- a) Bai, zuk badinostazu baleike hori holan izatea.
- b) Bai, zuk badiostazu baliteke hori hola izatea.
- c) Bai, zuk badiostazu baliteke hori horrela izatea.
- d) Bai, zuk badiostazu baleike hori hola izatea.

41. **Ondoko zerrendetatik hiru ondo daude, baina batek tokiz kanpo-ko izen bat darama. Zein da zerrenda hori?**

- a) Onddoa, kuletoa, gibelurdina, galanperna.
- b) Ordezkaritza, egoitza nagusia, bulegoa, idazkaritza.
- c) Lepoa, sorbalda, laidoa, zangoa.
- d) Beruna, burdina, urrea, zilarra.

42. **Zer adierazteko erabiliko zenuke esaldi hau? Ogi gogorrari hagin zorrotza.**

- a) Gogoz ekin behar zaiela lan zailei.
- b) Alferrak zail aurkitzen duela edozein lan.
- c) Lan gogorrei kontu handiz ekin behar zaiela.
- d) Ogi gogorra jatekotan nolanhiko haginek ez dutela balio.

43. **Zein barregarria izan den pasadizo hori! Errepika ezazu. Konta ezazu...**

- a) ostean.
- b) beste behin ere.
- c) beste behin batean.
- d) berriz.

44. **Ezin piztu, gabe dago eta.**

- a) zigarroak sua
- b) zigarroa sua
- c) zigarrorik surik
- d) zigarroak suaren

45. **Guk behar duguna etxe berria da.**

- a) Zaharra berritzeagatik ez dugu ezer konponduko.
- b) Zaharra berritzearren ez dugu ezer konponduko.
- c) Zaharra berritzen ez dugu ezer konponduko.
- d) Zaharra berritu arren ez dugu ezer konponduko.

46. **Gizon baten gurasoen alaba zer da gizon horrekiko?**

- a) Ahizpa.
- b) Neba.
- c) Emaztegaia.
- d) Arreba.

47. Aititari bi mila pezeta tokatu zaizkie eta amamari beste horrenbeste.
- Aitita eta amamari pezeta berdina suertatu zaizkie.
 - Aitita eta amamari bi milana pezeta suertatu zaizkie.
 - Aitita eta amamari bi mila pezeta suertatu zaizkie.
 - Aitita eta amamari bina mila pezeta suertatu zaizkie.
48. Erloju hau apurtuta dago, ez dabil.
- Bai dabil, momorro!
 - Bai ibiltzen da.
 - Bai, badabil.
 - Ja konpondu da.
49. Atzekoz aurrera irakurri du.
- Birritan edo gehiagotan.
 - Norbaiten lepoaren gainetik edo atzetik.
 - Atzetik hasi eta hasierarantz.
 - Gelditu gabe, arnasa batean.
50. **Zein da zuzena?**
- Zer egingo luteke hoiak gure laguntzik ez baluteke?
 - Zer egingo lukete hoiak gure laguntzik ez balute?
 - Zer egingo lukete horiek gure laguntzarik ez balute?
 - Zer egingo leuke horrek gure laguntzarik ez balukete?
51. Gurean , auzoan izaten dira gatazkak.
- ez ezik ere
 - ezik bai
 - aldiz ere bai
 - hala ere bezalaxe
52. **Zerbait askotan esan duzula adierazteko:**
- Hogei bider esan dizut!
 - Ehun bider esana dizut!
 - Zazpi bider esan dizut!
 - Hamaika bider esan dizut!
53. Kokolo baten plantak egiten dituzu klasean beti.
- Klasean kokoloa egiten duzu beti.
 - Klasean kokoloarena egiten duzu beti.
 - Klasean kokoloarenak egiten duzu beti.
 - Klasean kokoloarenak egiten dituzu beti.
54. **EEBB. Zer esan nahi du?**
- Euskadi Buru Batzarra.
 - Europako Batasuna.
 - Estatu Batuak.

- d) Erresuma Batua.
55. Leher eginda dago neskato hori. **Zer esan nahi du?**
- a) Lehertuta dagoela.
 - b) Bereak egin duela.
 - c) Hilda dagoela.
 - d) Nekatuta dagoela.
56. Kirtenkeriarik, , ez esan.
- a) gutxienez
 - b) behintzat
 - c) bestela
 - d) izan ere
57. **Zuzena aukeratu.**
- a) XIX. Mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
 - b) XIX. mendeko autore batena da: Parnasorako bidea.
 - c) XIX-garren mendeko autore batena da «Parnasorako bidea».
 - d) XIX. mendeko autore batena da «Parnasorako bidea».
58. **Lantegi bateko zuzendariari lan eskaria egiteko eskutitzari hasiera emateko:**
- a) Aizu, zuzendari errukiorra:
 - b) Zuzendari jaun eta jabea:
 - c) Zuzendari jaun hori:
 - d) Har itzazu, zuzendari, nire goraintzirik bihozkorrenak:
59. Lehenengo tabernara joan zen eta gero handik etxera.
- a) Tabernara joan baino aurretik etxera joan zen.
 - b) Etxera joan aurretik tabernara joan zen.
 - c) Etxera zihoan baino lehen tabernara joan zen.
 - d) Etxera joaten zen, baina lehenago tabernara.
60. Mekanikaria haserretuta joan zen, nire autoa...
- a) hor konpon utzita.
 - b) kitto.
 - c) bertan behera utzita.
 - d) harri eta zur utzita.
61. **Bilera duela egun gutxi egin dela adierazteko:**
- a) Beste egunean.
 - b) Lehenengo egunean.
 - c) Beste egunen batean.
 - d) Lehenengo egunean.

62. **Zer adierazi nahi da esaldi honekin?** Etorri handikoa zen zure laguna.
- Bisita ugari egiten zizkigula.
 - Hitzegiteko trebetasun handikoa zela.
 - Jatorriz familia handikoa zela.
 - Lotsagabea eta hitzontzia zela.
63. Ez dut uste hori hor ondo dagoenik.
- Tokitik aldatu behar da.
 - Tokiz aldatu behar diogu.
 - Tokiz aldatu behar da.
 - Tokia aldatu behar zaio.
64. Atzo liburu bat utzi nizun.
- Noiz itzultzen didazu?
 - Noiz itzuliko didazu?
 - Noiz ematen didazu atzera?
 - Noiz emango didazu berriro?
65. Lortu zuen gainditzea, asko kostatu
- nahiz eta arren
 - nahiz eta bazitzaion ere
 - nahiz eta zitzaion
 - nahiz arren
66. **Zein da zuzena?**
- 1994garren Urriaren 2-a.
 - 1994, urriak 2.
 - 1994.eko urriaren 2.
 - 1994garreneko urriak 2-ean.
67. **Zein ez da emakumezkoa?**
- Izekoa.
 - Suhia.
 - Alaba.
 - Lehengusina.
68. **Nola agurtuko zenuke norbait 12:00etan?**
- Goizalde on!
 - Gabon!
 - Arratsalde on!
 - Eguerdi on!
69. konfidantza galtzerik nahi ez baduzu, esaiozu dakizun guztia.
- Zuregana
 - Zureganako

- c) Zurenganako
 - d) Zuri buruzko
70. Kopetilun zegoen buruzagia, eta kopetilun, halaber, bere jarraitzaile sutsuak. **Zer adierazi nahi da esaldi honekin?**
- a) Buruzagia kopetilun eta, halabeharrez, baita jarraitzaileak ere.
 - b) Buruzagia ezik, jarraitzaileak kopetilun zeudela.
 - c) Jarraitzaileak ez zeudela kopetilun, buruzagia baizik.
 - d) Buruzagia ez ezik jarraitzaileak ere kopetilun zeudela.
71. Gizaki modernoak hiria utzi eta itzuli behar du.
- a) izadiarengana
 - b) izadiagana
 - c) izadira
 - d) izadiara
72. Hor dago koska.
- a) Hara non datorren!
 - b) Hori da arazoaren muina.
 - c) Aurkitu dut soluzioa.
 - d) Hortik datoz gaitz guztiak.
73. **Hauetako zein da ur gezatakoa?**
- a) Marrazoa.
 - b) Legatza.
 - c) Izurdea.
 - d) Amuarraina.
74. **Aukera ezazu zuzena:**
- a) Jakin izan banu, ez nintzatekeen joango.
 - b) Jakin banuen, ez nintzateke joango.
 - c) Jakingo banuke, ez nintzateke joango.
 - d) Jakingo banu, ez nintzen joango.
75. Ezetz jakin nondik natorren!
- a) Baietz igarri!
 - b) Noski dakigula!
 - c) Hanka azpitik ere igarriko nuke hori!
 - d) Hori eginda dago!
76. Kaltegarria da erretzea; kaltegarria da edatea.
- a) ere bai
 - b) halaber
 - c) bebai
 - d) ere

77. Eskuak poltsikoan sartuta zeuzkan. Eta bidetik zetorren.
- a) Bidetik zetorren eskuekin poltsikoan sartuta.
 - b) Bidetik zetorren eskuak poltsikoan sartuta.
 - c) Eskuekin poltsikoan sartuta bidetik zetorren.
 - d) Bidetik zetorren eskuez poltsikoan sartuta.
78. Edateko zer nahi duzu?
- a) Ur baso bat.
 - b) Baso bat ur.
 - c) Piska bat ur.
 - d) Ura apur bat.
79. Ameriketara joan zen, han aberastu eta hemen etxe eder bat eraiki-
tzeko ametsetan. Baina hemen bizimoduak gora egin zuen eta...
- a) ametsak egia bihurtu zituen.
 - b) ametsak egia bihurtzeko lain ez zuen izan.
 - c) ez zuen pentsatzen zuen adina diru irabazi.
 - d) itzultzeko ametsa ezin izan zuen bete.
80. **Andoniren etxera telefonoz deitzean:**
- a) Andoni dago?
 - b) Andoni dago ala ez?
 - c) Andoni ez al dago?
 - d) Andoni hor al da?
81. Egin duzuna ez zait oso zuzena iruditzen.
- a) Bai, niretzat ere txarto dago.
 - b) Eske niretzako gaizki dago ere.
 - c) Nire ustez ere, gaizki dagoela.
 - d) Bai, nire ustez ere txarto dago.
82. **Negu gorrian kalera irtetekotan zaude eta alkandora besterik ez
duzu jantzi; hori ikusirik zer esan dizu amak?**
- a) Alkandorarekin bakarrik joango zara?
 - b) Alkandora hutsik joango zara?
 - c) Alkandora bakarrik eroango duzu?
 - d) Alkandora horrekin joaten zara soilik?
83. **Zuzena aukeratu.**
- a) Nigarrez hazi zen farre egin ziotenean.
 - b) Nigarrez hasi zen barre egin ziotenean.
 - c) Negarrez hazi zen parre egin ziotenean.
 - d) Negarrez hasi zen barre egin ziotenean.
84. Kaixo, Mikel, zelan zaude?
- a) Ni ez naizela Mikel!
 - b) Ez banaiz Mikel!

- c) Ez naiz Mikel, baina!
 - d) Ni Julen banaiz!
85. Ekin lanari denok batera!
- a) diezaiogun
 - b) dezagun
 - c) gatzaizkio
 - d) gaitezen
86. **Nola amaitzen dira ipuinak?** Eta hau hala bazan...
- a) sar dadila kalabazan.
 - b) ez zen gezurra izan.
 - c) halaxe izango zan.
 - d) sar dadila plazan.
87. Zer berri? **Zein da galdera honi dagokion erantzuna?**
- a) Ondo esan beharko!
 - b) Zaharrak berri!
 - c) Ondo eta zu?
 - d) Auskalo!
88. Zurea ederra da; neurri berean da zatarra nirea. **Zer esan nahi du goiko esaldiak?**
- a) Nirea zurea bezain ederra dela.
 - b) Zurea ederra den bezain zatarra dela nirea.
 - c) Nirea zurea baino zatarragoa dela.
 - d) Zurea nirea bezain zatarra dela.
89. **«Txerriki», «idiki», «odolki» hitzek zer adierazten dute?**
- a) Portaera desegoki bat.
 - b) Zenbait animaliarekiko konpainia.
 - c) Haragi edo janari mota bat.
 - d) Animalia gazteak, kumeak.
90. **Aukera ezazu zuzena:**
- a) Euskal Herriaren oinarria horretan datza, hain zuzen ere.
 - b) Euskal Herriaren oinarria hortan datza, hain zuzen ere.
 - c) Euskal Herriaren oinharria hortan datza, hain zuzen be.
 - d) Euskal Erriaren oinarria horretan datza, hain zuzen be.
91. **Jatetxeko zerbitzariari:**
- a) Besterik ez, eskerrik asko.
 - b) Ez, gehiago ezer!
 - c) Ez dugu nahi besterik ezer!
 - d) Besterik gabe, agur.

92. **Oso erraz atxeki edo eransten den gauza:**
- a) lokarria.
 - b) itsaskorra.
 - c) atxekigailua.
 - d) itsaskia.
93. **Partidu batean, etxekoek jokaldi on bat egitean:**
- a) Hori duk eta!
 - b) Horiek komeriak!
 - c) Horrelakorik!
 - d) Hori ere!
94. Irratian entzungo nuen berri bitxi hori.
- a) dirudienez
 - b) noski
 - c) nonbait
 - d) edo
95. Hamar milioi zazpiehun mila bostehun eta hirurogeita hamazazpi.
- a) 100.770
 - b) 10.700.577
 - c) 10.070.567
 - d) 10.700.597
96. Zure anaia afarira joan zen, eta zu?
- a) Neu ere bai.
 - b) Ere bai, noski.
 - c) Baita ere joan nintzen.
 - d) Bai joan egin nintzen.
97. **Alaba txikia loak hartu duenean beste alaba sartu da astrapala batean. Zer esango zenioke?**
- a) Isil zaitez, behingoz!
 - b) Ixo!
 - c) Ixo behintzat!
 - d) Isiltzen zara, mesedez?
98. Athletic-ek Liga irabazi behar zigula eta azkenean...
- a) zakurraren putza.
 - b) ahuntzaren gauerdiko eztula.
 - c) zaharrak berri.
 - d) dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon.
99. Ezin dut gehiago, ikasteaz.
- a) bizkarreraino nago
 - b) kokoteraino nago

- c) sudurretaraino nago
- d) nazka-nazka nago

100. Hau bai handia!; zer deritzozue?

- a) Guri esan nahi duzu?
- b) Ene, zer eritziko diogu ba!
- c) Niri ongi.
- d) Nik ondo deritzot hori.

1.4. 1992/9/19

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. **1966an...**

- a) Sebero Altubek ikastola sortu zuen Gernikan.
- b) Arana Martijak Sebero Altube ezagutu zuen.
- c) Gernikako ikastola sortu zen.

2. **1964ean...**

- a) lan bat plazaratu zuen euskaraz.
- b) Azkueren musikologiaz arduratzen hasi zen.
- c) euskaraz idazten hasi zen.

3. **Karmelo Etxegarai eta Sebero Altube...**

- a) biak Gernikan jaio ziren.
- b) biak euskaltzainak ziren.
- c) biek Gernikari buruz idatzi zuten.

4. **Arana Martijak, Sebero Altube eta Karmelo Etxegarai...**

- a) lankideak izan zituen bere lehen urratsetan.
- b) aztergai izan zituen bere ikerlanetan.
- c) Azkuerekin oso loturik ikusten zituen.

5. **Bizkaiari, berez, euskaltzain dagozkio.**

- a) zazpi
- b) sei
- c) bost

6. **Euskaltzain berria aukeratzekoan herrialdea...**

- a) kontuan hartu izan da beti.
- b) kontuan hartu izan da behin izan ezik.

- c) ez da kontuan hartzen.

BIGARREN ATALA

7. **Euskaltzaindiari ez omen zegozkion eginkizunotatik zein ez da aipatzen?**
 - a) Bertsolari-txapelketak.
 - b) Euskarazko tituluak.
 - c) Alfabetatze-euskalduntzea.
8. **Atlas linguistikoa dela eta zein da egia?**
 - a) Azkuek egin zuen lehendabizikoa.
 - b) 1924-25ean egin zen azkenengoa.
 - c) oraindik egiteke dago lehendabizikoa.
9. **Grabaketetarako herriak aukeratzeko erabilitako irizpideak...**
 - a) ez ditu ongi ezagutzen.
 - b) egokiak iruditzen zaizkio.
 - c) estuegiak iruditzen zaizkio.
10. **Euskal Hiztegi Historikoa burutzeko epeaz zer dio?**
 - a) Aurrikusitako epean burutuko dela.
 - b) Aurrikusitakoa gainditu egingo dela.
 - c) Hiruzpalau urte behar izan direla.
11. **Zer dela eta aipatzen du 1891ko data?**
 - a) Bonaparteren heriotzaren mendeurrena ospatu zelako.
 - b) Azkuek lan garrantzitsua plazaratu zuelako.
 - c) Bonapartek euskalkien mapa argitaratu zuelako.

HIRUGARREN ATALA

12. **Euskararen alor hauetatik zeinek kezkatzen du gehien?**
 - a) Irakurtzeak.
 - b) Mintzatzeak.
 - c) Argitaratzeak.
13. **Euskara Batuaren arazoa zertan datza A. Martijaren ustez?**
 - a) Ez dela euskara bizia, laborategikoa baino.
 - b) Bere onarpena ikuskizun dagoela oraindik.
 - c) Herriak ez dituela arau horiek jarraitzen.
14. **Zer iritzi du Jaurlaritzaren hizkuntz politikaz?**
 - a) Goraipatu egiten du.
 - b) Gogor salatzen du.

c) Atzerakada bat nabarmentzen du.

15. Euskalkien etorkizunaz nola ageri da?

- a) Ez dago arduratuta.
- b) Etsita dago.
- c) Kezkati ageri da.

16. Euskara Batuaren aurrean bizkaitarrek...

- a) aparteko ahalegina egin behar izan dute.
- b) ez dute amore eman nahi.
- c) aditza eta ahoskera gaitzesten dituzte.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN ARIKETAREN AMAIERA

17. Aizu! Zer nahi zuten horiek?
- a) Txominetaz galdetu dute.
 - b) Txomineri buruz galdetu dute.
 - c) Txominen galde egin dute.
 - d) Txomintaz galdetu dute.
18. **Zein da zuzena?**
- a) *Euskalerrriaren Yakintza* irakurtzen ari da.
 - b) (Euskalerrriaren Yakintza) irakurtzen ari da.
 - c) Euskalerrriaren Yakintza, irakurtzen ari da.
 - d) «Euskalerrriaren Yakintza», irakurtzen ari da.
19. **Zein jan ohi da egosi gabe?**
- a) Indabak.
 - b) Dilistak.
 - c) Mazustak.
 - d) Lekak.
20. **Zuzena aukeratu.**
- a) Zein liraina den koadro hori!
 - b) Zein pinpirina den koadro hori!
 - c) Zein ederra den koadro hori!
 - d) Zein lerdena den koadro hori!
21. **Zer esan nahi du honek?:** Dena nahi eta, ez lukainka, ez mutur geratu.
- a) Ezer gabe geratu zela.
 - b) Gosez geratu zela.
 - c) Azken postuan geratu zela.
 - d) Lehen baino hobeto geratu zela.
22. Gibraltarko gatazkak Europako Komunitateko barne mugen desagertpena oztopatzen du.
- a) Gibraltarko arazoari esker aisago eroriko dira mugak Europan.
 - b) Gibraltarren erruz Europako mugak desagertu egingo dira.
 - c) Gibraltarko arazoa dela eta, Europako mugak ez dira hain erraz desagertuko.
 - d) Gibraltarko akordioak Europako mugen desagertpena ekarriko du.
23. Pelotan, , ez da oso trebea.
- a) behintzat
 - b) gutxienez
 - c) besterik
 - d) gainontzekoan

24. **Harridura adierazteko:**

- a) Ez, horixe!
- b) Bai, horixe!
- c) Horra hor!
- d) Ene, bada!

25. **Aukera ezazu zuzena:**

- a) Kale hortatik datoz, poz-pozik.
- b) Kale hortatik datozte, poz pozik.
- c) Kale horretatik datozte, poz-pozik.
- d) Kale horretatik datoz, poz-pozik.

26. **Norbaitek zure osasunaz galdetzean, ez ondo eta ez gaizki zaudela adierazteko:**

- a) Gaizki-ondo.
- b) Ondo-gaizki.
- c) Ondoezik.
- d) Kili-kolo.

27. **Ondoko zerrendetatik hiru ondo daude, baina batek tokiz kanpoko izen bat darama. Zein da zerrenda hori?**

- a) Okela, ogia, fruta, satorra.
- b) Liburua, aldizkaria, egunkaria, txostena.
- c) Lapitza, luma, klariona, boligrafoa.
- d) Mendixka, muinoa, gaina, hegia.

28. **Argi ibili! entzundakoan, zer ulertu behar duzu?**

- a) Kale ezkutu eta ilunetan ez dela ibili behar.
- b) Norbait hizketan ari denean erne egon behar dela.
- c) Arretaz ibiltzea komeni dela.
- d) Zeure burua jantzi eta zuhur agertu behar duzula.

29. **Katutxoari etxekoandreak afaritzat...**

- a) esne katilu bat eman dio.
- b) katilu bat esne eman dio.
- c) esne litro bat eman dio.
- d) esnea katilukada bat eman dio.

30. **Zein da zuzena?**

- a) Soroan diharduen gizon zuhur hark aharia astindu du makila batez.
- b) Zoroan diharduen gizon suhur hark haria aztindu du makil batez.
- c) Soroan diharduen gizon zuhur hark aria astindu du makil batez.
- d) Zoroan diharduen gizon zuhur hark aharia aztindu du makil batez.

- c) laz erbesteratuak herenegun itzuli ziren itsasuntziz atzerritik.
d) laz herbesteratuak herenegun itzuli ziren itxasuntziz atzerritik.
39. Hain gaizki ikusi izan dudarik gabe etxera eramango
- a) banizue nizuen
b) bazintuztet zintuztekeen
c) bazintzaizkidate zintuzteket
d) bazintuztet zintuztedan
40. Kaixo, Joxe. Gaugiro ederra, ezta?
- a) Ederra gaua, bai.
b) Berdin, Inazio. Gabon.
c) Egia, ez dago halakorik hemengo inguruetan.
d) Tira, ba, oherako ordua.
41. **Tabernariari egin ahala eramaten dizkiote otartekoak:**
- a) Berehalaxe urritzen zaizkio.
b) Berehala saltzen ditu.
c) Merke ematen dizkie bezeroei.
d) Eramateko egiten ditu.
42. Zazpi eta huts irabazi omen du Athletic-ek!
- a) Ez da izango!
b) Irabaztea ere!
c) Hala bedi!
d) Sinesgarria!
43. Baiezkoan nago.
- a) Etsita nago.
b) Ezbaian nago.
c) Zalantzatan nago.
d) Baietz uste dut.
44. Egingo zenidake mesede bat?
- a) Egingo ez dizut, ba!
b) Zer arraio, moldatuko zara.
c) Bai, egiten dizut.
d) Noski, baietz!
45. Hitzaldiaren hasieran eztul egin zuen; amaieran...
- a) ere bai.
b) ere.
c) baita ere.
d) halaber.

46. Andonik daraman auto hori norena da?
- Andonirena berarena.
 - Andonirena berea.
 - Andoni berarena.
 - Andonirena bera.
47. Ez zuen etsi aukera guztiak agortu
- nahiz eta arte
 - baita ere
 - nahiz eta ere
 - harik eta arte
48. Beno, orain banoa; ea hurrengo batean ere...
- elkar ikusten dugun!
 - topatzen garen!
 - badugun denbora gehiago!
 - ikusten garen!
49. Denetarik duzula ere, niri...
- zer arraio!
 - bost axola!
 - axolik ez!
 - bost axola zaizkit!
50. **Duela gutxi gertatutako zerbait azaltzen hasteko:**
- Beste egunean
 - Lehengo egunean
 - Beste egun batean
 - Lehenengo egunean
51. Ona da neurritz jatea; ona da, , kirola egitea.
- ere bai
 - halaber
 - bebai
 - ere
52. **Zein da zuzena?**
- Ugazabak den dena ukatu digu, fitsik ere onartu gabe.
 - Ugazabak den-dena ukatu digu, fitzik ere onartu gabe.
 - Ugazabak den-dena ukatu digu, fitsik ere onartu gabe.
 - Ugasabak den-dena ukatu digu, fitzik ere onartu gabe.
53. Ondo esan beharko! **Zein da erantzun honi dagokion galdera?**
- Zer berri?
 - Zer moduz?
 - Zer diagu?

- d) Ba al gara?
54. Zer egingo dute bihar?
- a) Ez dakit nora doaz.
 - b) Ez dakit nora joatekoak diren.
 - c) Ez dakit nora joaten diren.
 - d) Ez dakit nora doazten.
55. **Zein da zuzena euskara batuaz?**
- a) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
 - b) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
 - c) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
 - d) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
56. Arratsalde on! **esan du norbaitek. Hurrengo erantzunetatik bat de-segokia da horri erantzuteko. Zein?**
- a) Halan ekarri!
 - b) Baita zeuri ere!
 - c) Hori, ba!
 - d) Berdin!
57. Ea, bada, txorakeriak utzi eta lanean...
- a) hasiko gara.
 - b) hasten gara.
 - c) hasteko gara.
 - d) hasi egingo gara.
58. **Norbait oso nekaturik ikusten duzunean, zer diozu?**
- a) Leher eginda dago.
 - b) Lur jota dago.
 - c) Bereak egin du.
 - d) Lehertuta dago.
59. Arazoa jadanik konponduta dagoela esan didate, baina...
- a) egia ez delaren susmoa daukat.
 - b) egia ez deneko susmoa daukat.
 - c) egia ez dela susmoa daukat.
 - d) egia ez den susmoa daukat.
60. Neskek soldaduzkara joan behar lukete. **Adieraz itzazu zeure eza-dostasuna eta harridura.**
- a) Esatea ere!
 - b) Nahitaezkoa!
 - c) Ezinbestekoa!
 - d) Hurrenez hurren.

61. Nortzuk joango zarete zinemara?
- Gugandik inor ere ez.
 - Gutako inor.
 - Ez da joango gutako inor ere ez.
 - Gutariko inor ere ez.
62. Edonor izanik ere, ez dut amore emango.
- Edozein dela ere, ez dut amore emango.
 - Norbait delarik ere, ez dut amore emango.
 - Inor ere den, ez dut amore emango.
 - Nornahi bada, ez dut amore emango.
63. Bizkai... Gipuzkoa... abiatu ziren.
- atik runtz
 - tik rantz
 - atik rantz
 - tik runtz
64. Gauzak dauden bezala ez da hona agertuko; gu, behintzat,...
- ezetzean gaude.
 - ezezkoan gaude.
 - ezetz esango genuke.
 - ezetz ustean gaude.
65. **Zein da zuzena?**
- Batek daki non dabilzaten edo non dautzan mukizu horiek.
 - Batek daki non dabilzatan edo non datzaten mukizu hoiek.
 - Batek daki non dabilzaten edo non datzaten mukizu horiek.
 - Batek daki non dabilzatan edo non dautzan mukizu horiek.
66. Ezusteko galanta eman , neska. Ez berriz egin, arren.
- digun iezagun
 - diguzu iezagun
 - diguzu iezaguk
 - diguk iezaguk
67. *Etiopia* eta *Obabakoak* idazle dira, baina ez daukate gai...
- berdinarenak berdina.
 - berarenak bera.
 - batarenak berdinak.
 - berarenak berdina.
68. Zuek gu ikusteko eta, bide batez, lagun bidali sendagileak.
- diezaguzuen dizue
 - zeniezagukeen zakizkigu
 - zeniezaizkigukeen zaituzte

76. Aitaren batean esnatu da. **Hau da:**
- a) Aitarekin batera esnatu da.
 - b) Aitarenean esnatu da.
 - c) Berehala esnatu da.
 - d) Larri nahiz ikaraz esnatu da.
77. Zuzen jokatzeko agindu genizuen eta ahalik eta azkarren ibiltzeko. **Bestela esanda:**
- a) Zuzen joka dezazuen eta ahalik eta azkarren ibil zinteztela agindu genizuen.
 - b) Zuzen joka zenezaten eta ahalik eta azkarren ibil zintezten agindu zintuztegun.
 - c) Zuzen joka zenitzatela eta ahalik eta azkarren zenbiltzatela agindu genizuen.
 - d) Zuzen joka zenezatela eta ahalik eta azkarren ibil zinteztela agindu genizuen.
78. Afaria ordaintzeaz , eskupeko on bat ere eman nion.
- a) ez ezik
 - b) gainera
 - c) baita
 - d) bestalde
79. Gobernu guztiei kargu hartu behar zaie amaitzen dutenean.
- a) agindua
 - b) jaurlaritza
 - c) agintaldia
 - d) mandatua
80. Berehala irtengo da tren.
- a) Donostiarekiko
 - b) Donostiarengandik
 - c) Donostiarako
 - d) Donostitik
81. Fundamentalismoa gora doa Estatu Batuetan gerra hasi...
- a) zenetatik.
 - b) zenez hona.
 - c) zenetik.
 - d) zen bezalakoa.
82. Gehienez ere, hogeit hamar urte edo izango ditu. **Beste era batera esanda:**
- a) Oso goitik jota, hogeit hamar urte izango ditu.
 - b) Goia jota, hogeit hamar urte izango ditu.
 - c) Gehiena jota, hogeit hamar urte izango ditu.
 - d) Goien jota, hogeit hamar urte izango ditu.

83. Alemania erdibituak berrogei urte igaro eta gero bakarrik iritsi du batasuna. **Edo, bestela:** Alemania erdibituak iritsi du batasuna.
- berrogei urte barru
 - berrogei urteen buruan
 - berrogei urteren buruan
 - berrogei urteko buruan
84. Gure aldizkariak mila lortu ditu dagoeneko.
- erostari
 - harpidedun
 - bazkide
 - harpide
85. Hara heldu sumatzen genuen zerbait.
- momentuan
 - orduko
 - momentuko
 - bakoitzeko
86. **Irakasleari ez natzaio gehiegi gustatu eta, beraz, honela adieraziko dut:**
- Begi txarrekin hartu nau irakasleak.
 - Begitan hartu nau irakasleak.
 - Begietan hartu nau irakasleak.
 - Begikoa nau irakasleak.
87. Amaren esana egin zenuenean kalera ateratzeko baimena eman zizun. **Beste era batera:**
- Amaren esana egitekoan kalera atera zaitezten baimena eman zizun.
 - Amaren esana egitean kalera atera zintezelako baimena eman zizun.
 - Amaren esana egin eta gero kalera atera zintezelako baimena eman zizun.
 - Amaren esana egindakoan kalera atera zintezten baimena eman zizun.
88. Ikasle ona da eta kurtso bukaerarako gurasoek oparia diote.
- agindu
 - oparitu
 - opa
 - baieztatu
89. hauteskundeetara aurkeztuko zarena.
- Baliteke
 - Badakit
 - Uste dut

- d) Ez nago ziur
90. Berekiko esan du. **Aukeratu baliokidea:**
- a) Berez esan du.
 - b) Beragatik esan du.
 - c) Berari buruz esan du.
 - d) Bere artean esan du.
91. Bateko haurrak, besteko gurasoak, leher eginda nago. **Edo, berdintsu dena:**
- a) Haurrak direlakoan, gurasoak direlakoan...
 - b) Haurrak direla, gurasoak direla...
 - c) Haurrak haur, gurasoak guraso...
 - d) Haurrak direlako, gurasoak direlako...
92. Katramilak sortuko zaizkizu, gai hori nahikoa bait da.
- a) zaildua
 - b) nahaste-borraste
 - c) korapilotsua
 - d) nahasmendua
93. Karmenen leiho azpitik lorepote bat bota ziguten.
- a) gindoazela
 - b) gindoazen ordurako
 - c) joaten ginenean
 - d) ibiltzen ginela
94. Idia jango nuke, adar eta guzti! **Hori dioena:**
- a) Goseak hilik dago.
 - b) Ez da erraz asetzen.
 - c) Haragizale amorratua da.
 - d) Amorratuta dago, oso haserre.
95. Loterian, hogeit mila hogerleko irabazi ditu Jonek; Mirenek ere hogeit mila duro irabazi ditu. **Edo bestela:**
- a) Jonek eta Mirenek hogeit milana hogerleko irabazi dute.
 - b) Jonek eta Mirenek hogeit milana hogerleko irabazi dituzte.
 - c) Jonek eta Mirenek hogeit mila hogerleko irabazi dute.
 - d) Jonek eta Mirenek hogeit milana hogerleko irabazi dituzte.
96. Belar ustelari egiten dio gure behiak.
- a) hausnar
 - b) muzin
 - c) nazka
 - d) arrenkura

97. Zenbaitek droga dendetan saltzea ontzat ematen du. **Nola esan daiteke beste era batera?**
- a) Zenbaitek droga dendetan saltzeari on deritzo.
 - b) Zenbait droga dendetan saltzea ontzat derizte.
 - c) Zenbaitek droga dendetan saltzeari ontzat deritzo.
 - d) Zenbait droga dendetan saltzeari on deritzate.
98. Uholdeak eraman zion artaldea. Bera ez zen ito, ordea.
- a) Eskerrak horri.
 - b) Gaitz erdi!
 - c) Zein abagunea!
 - d) Bejondeiola, behintzat!
99. Liburua utzi nizunean garaiz itzultzea espero nuen. **Bestela esanda:** Liburua utzi nizunean...
- a) garaiz itzuliko zeniezdala nengoen.
 - b) garaiz itzultzen zenidalakoan nengoen.
 - c) garaiz itzuliko zenidalakoan nengoen.
 - d) garaiz itzul zeniezdadan nengoen.
100. Zaude isilik,...
- a) gezur ugari esaten duzu baina!
 - b) gezurrak baino ez dituzu esaten eta!
 - c) bai esaten dituzula gezurrak!
 - d) gezurrak eta, esaten dituzula!

2. IDATZIZKO AZTERKETAK*

* Atal honetan azken hiru urteotako, hots, 1990-2020eko, idatzizko azterketak eta, horiekin batean, goiz berean bakoitzaren aurretik egin ohi den entutezko ulermeneko ariketa jasotzen dira.

2.1. OHARRAK

1992ko azterketetan azterketa-atal berri bat sartzearen ondorioz idatzizko eta ahozko ataletan hainbat aldaketa egin dira, atal horiek arinduz. Aldaketa horien xehetasunik nahi duenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren honako ale hauetara jo beza: 231 zkia., (1991ko azaroaren 15ekoa); bertan agertzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Agindua, 1991ko urriaren 4ekoa. 238 zenbakian (azaroaren 26koan, hain zuzen ere) lehen Agindu horren zuzenketa batzuk agertzen dira.

Ondoko bi azpi-ataletan jasotzen dira, lehendabizikoan, 1990 eta 1991 urteetako azterketa idatzietan azterketariei jarri zitzaaien oharra eta, ondokoan, 1992koa, aldaketak argiago gera daitezen.

2.1.1. 1990 eta 1991

OHARRA: 3 ordu eta laurden duzu idatzizko azterketa hau burutzeko. Libre zara denbora nahi duzun moduan banatzeko eta azterketa nahi duzun ordenan egiteko, baina gogoan izan aztertzailleek aurrez pentsatutako denbora eta puntu banaketa:

Azpiatala	Gehienezko puntuazioa		Gutxienezko puntuazioa	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	—		—	5 min.
1. Idazlana: Ortografia	5	30	15	55 min.
Idazlana bera	25			
2. Eskutitza edo Laburpena	10		5	25 min.
3. 1. Ariketa	5		2,5	25 min.
4. 2. Ariketa	5		2,5	25 min.
5. Irakurmena	10		5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	—		—	15 min.
Denera	60		35	3 1/4 ordu

Idatz ezazu garbi eta tintaz: aztertzailleek ez dute irakurri ezinezkorik zuzenduko. Ariketa guztietan atera behar duzu gutxienezko puntuazioa azterketa gainditzeko.

2.1.2. 1992

Atariko Probaren sorreraren ondorioz, azterketariei ematen zaien azterketa idatziari buruzko oharra egokitu da. Hona hemen, bada, 1992an eman den oharra.

OHARRA: 2 ordu eta 20 minutu dituzu idatzizko azterketa hau burutzeko. Libre zara denbora nahi duzun moduan banatzeko eta azterketa nahi duzun ordenan egiteko, baina gogoan izan aztertzaileek aurrez pentsatutako denbora eta puntu-banaketa:

Azpiatala	Gehienezko puntuazioa	Gutxienezko puntuazioa	Proposaturiko denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	—	—	3 min.
1. Idazlana: idazlana	25	15	55 min.
ortografia	5	—	
2. Eskutitza, Laburpena, Esaldiak berridatzi edo Sinonimoak	10	5	25 min.
3. Irakurmena	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	—	—	12 min.
Denera	50	29	2 or. 20 min.

Idatz ezazu garbi eta tintaz: aztertzaileek ez dute irakurri ezinezkorik zuzenduko. Ariketa guztietan atera behar duzu gutxienezko puntuazioa azterketa gainditzeko.

2.2. 1990EKO AZTERKETAK

2.2.1. 1990/5/5

AHOZKOAREN ULERMENA I

- 1. Zer dio Benito Lertxundik bere azken diskoak musika zeltaren eragina duela esaten zaionean?**
 - a) Zalantzan jartzen du.
 - b) Ezetz esaten du.
 - c) Nafarroako musika dela batik bat aitortzen du.
 - d) Ez du ezezkorik esaten.

- 2. Ikusten denez, bere diskoko Nafarroako doinuak:**
 - a) Musika zeltarekin pareka daitezke.
 - b) Nafarroakoak diren zalantzan jar daiteke.
 - c) «O'Carolan» ahaire ezagunaren bertsio berriak dira.
 - d) Zeltak dira goitik behera.

- 3. Zein izan zen Francisco Gascueren teoria?**
 - a) Euskaldunok ez dugula ezer jatorrizkorik.
 - b) Euskaldunon jatorria bera ere ez dela hemengoa.
 - c) Euskaldunok dena kanpora begira egiten dugula.
 - d) Euskaldunon musikak kanpoan sortu zirela.

- 4. Zein izan zen Azkuek emandako kontrako argudioa?**
 - a) Batzuentzat nahikoa dela antzekoak izatea berdinak garelako esateko.
 - b) Besteak hornitu direla gure kulturaz.
 - c) Beste kulturetan bezala gurean ere gauza bitxiak daudela.
 - d) Antzekotasunak ez duela besteen zerbitzuan egon izana frogatzen.

5. **Zer da Zuberoako kantagintza Benitorentzat?**

- a) Musikologoek aztertu behar luketen arloa.
- b) Musikologoei esker eskuratu zuen musika mota.
- c) Bizirik segi dezan musikologoek arreta eskatzen duena.
- d) Musikologoek aztergai izateaz gain bizirik dagoen zerbait.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Zer dela dio galdetzaileak Benito Lertxundi?**

- a) Herri-musikaren aitzindari.
- b) Herri-musika lantzen duen profeta.
- c) Herri-musika landu duen azken hondarretakoa.
- d) Herri-musika profeta gisa kantatu duen abeslaria.

7. **Zer gertatzen ari da mundu zeltan herri-musikarekin?**

- a) Galtzeko bidean dagoela.
- b) Desagertu dela jadanik.
- c) Kale kantoietako musikoek bakarrik jotzen dutela.
- d) Diruaren truke saldu dela.

8. **Norentzat izango da beti herri-musika?**

- a) Gutxi batzuentzat.
- b) Eliteko minoria batentzat.
- c) Gustatzen zaientzat.
- d) Herriaren historia ezagutzen dutentzat.

9. **Zertan datza ekitaldien antolakuntzan izan den aldaketa?**

- a) Instituzioek kantariak ordezkatzean.
- b) Musikarien bizimoldeen aldakuntzan.
- c) Erakundeek beren baitan dituzten konpromezu politikoetan.
- d) Instituzioek herriko talde naturalak ordezkatzean.

10. **Zer frogatzen du, Lertxundiren iritziz, Basauriko gertaerak?**

- a) «Herriz herri» antolakuntzak porrot egin zuela.
- b) Erakundeek ez dutela ardura eta sentsibiltate izpirik.
- c) Zinegotzi gehienek axolagabekeria.
- d) Erakundeek ez dutela musika mundua ezagutzen.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Gizakiak bizitzaren lehen zatia osasuna hondatzen iragaten du eta bigarrena, berriz, hondatutakoa sendatzen.
2. Ez da gozoa eta ederra izango meategiko lana!
3. Egin ezazu azkenaldian zuretzat interesgarri izan diren albiste edo gertakarien komentarioa.
4. Gaur ere ba omen dira aztiak eta sorginak.

ESKUTITZA

Orain arte zure neska/mutil laguna izan dena uztea erabaki duzu, eta horren berri emateko bide bakarra eskutitz bat idaztea duzu.

Idatz iezaiozu eskutitz hori, erabaki hori hartzeko izan dituzun arrazoiak adierazteko, eta hemendik aurrerako zuen arteko harremanen nondik-norakoak argituz.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Irakaslearen rol-ean sortzen diren gatazkak dira lantxo honen aztergaia.

_____ ditu _____

2. Latinamerikan egin nuen egonaldi luzeak ematen zuen oinarririk bertako arazoez jabetzeko.

_____ jabe _____

3. Zer eragin izan dezake txosten honek Pereda presidentearengan?

_____ daiteke _____

4. Ameriketara joan zirenean, Mattin eta Xalbadorrek Xarles Iriart zuten beren gidaria.

_____ zen _____

5. Txakurra ez zen mugitu traktorraren ondotik, semeak tresna hura etxera ekarri arte.

_____ bitartean _____

6. Isilik utzi nuen, Frantziako ministroari idazten ari zela bait zirudien.

_____ ematen _____

7. Berak kantatutako bertsoak erakutsi nahi nizkion, magnetofonotik paperera xuxen kopiatuak ote ziren esateko.

_____ esan _____

8. Ongi hartuak izan ginen Baionako etxe hartan.

_____ hartu _____

9. Bere amaren bitxiak, punta-puntakoak ez baziren ere, banaka-banaka ahitzen ari ziren.

_____...agatik _____

10. Behin batean, hala galdetu zion Santiren aitak Iñakiri: Nabaritzen al diozue ezer estrainurik nire semeari?

_____ ea _____

11. Droga hartzaile egin da eta ez da horrentzat erraza izango, behin sartu denean, hortik ateratzea.

_____ kostako _____

12. Irakurri nueneko, halako nazka bat eman zidan neuri ere.
_____ bezain _____
13. Inork ez du esango nagi batzuen aitzakia denik.
Ez dago _____
14. Horri alferkeria deitzen dionak ez du bururik.
_____ deitzea _____
15. Aguro joan ziren, bestela agian hurrengoan etxean utziko zituzten eta.
_____ utz _____
16. Azokan gizonak batera eta emazteak bestera ibili baziren ere, tabernan ez.
_____ bezala _____
17. Erasotzera zihoan baina lagun gehiago zetozela ikusi zuenean droga zabaltzailea erretiratu egin zen.
_____ egin zuen.
18. Mutiko bat hurbildu zitzaigun, argala, bizia eta alaia.
_____ mutikoa.
19. Gorago igotzen zen Teresa Jainkoaren bideetan, eta goragotik eta argiago ikusten zuen Jainkoaren Grazia berbera zela.
Zenbat _____
20. Bere diru apur guztiak eman zizkigun; bestela, ez genuen onartuko gure lagunartean.
_____ eman izan _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Beste estatu bateko errepideetan zebilen: zolu hobe, bazterrak garbiago eta etxebizitzak lorategiz inguraturik ageri ziren. Han ezin zitekeen ikusi berak atzean lagatakoak bezalako porlanezko eraikuntzarik: leiho ezber-

din ugariko munstro erraldoiak, bata bestearen alboan, desorekan, elkarri argia, haizea eta **arnasa lapurtuaz**, zatarkeriaren **erreinuko** herensuge diren tximinia ketiekin **borrokan**.

Han ez. Paisaiak berak ere beste bat zirudien hain kilometro gutxitako aldean: uda bezperako haize beroak berdetasuna **areagotuta** zeukan ezin gehiago **belardietan**. Kosta aldeko bide hartan, arboladiak **sasirik** gabe, garbi, zekuskien Mikel Zuluetak, eta **bihurguneren** baten ondotik, hondartza txiki bateko **olatu** zuriek hausten zuten itsasoko urdin **hedatua**, eta gero etxe bat ageri zen urrutira arroka artean. Eta gero beste bat harantzago, eta beste bat eta beste bat, guztiak armoniaren orekan.

Zelda zuloan utzitako gizon beltzaz oroitu zen **supituki**: urrutiko lurretan, **sosik** gabe, hizkuntza ere ezagutzeke. **Beharbada**, bere lurralderantzako bidea zeraman untziren batean bueltatuko zuten Afrikara, edo akaso zelda **umelean** jarraituko zuen dardarti, guztien ahanzturaz eta tabakorik ere gabe.

Auto ilada bat ikusi zuen eskubiko errepidean semaforo gorria noiz berdetuko zain. Berea baino auto hobeak ziren han zeuden gehienak, goragoko diru mailaren adierazle **ozenak**. Eskubiko bide haietxetatik Natirekin Peyhoradera egindako bidaian hitzegindakoak eta elkarri eginiko bizitza berri baten promesak etorri zitzaizkion **gogora**.

Nahikoa zen berarentzat Nati alboan edukitzeak ematen zion epela gazi-gezak oro **alboratzeko**, eta haurgaltzerako bidaia hura ere **txango** izan zen berarentzat.

H. ETXEBERRIA (1989)
Mugetan, Donostia, Elkar, 81-82 orr.
(moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

ESPERANTOA ETA ITZULPENGINTZA

Aurten bete dira ehun urte L. L. Zamenhof-ek esperantoa sortu zuela, edo zehatzago esateko, bere «lingvo internacia»ri buruzko lehen obra argitara eman zuela: errusieraz lehendabizi eta polonieraz, frantsesez, alemanez eta ingelesez ondoren.

Sarreran bertan Zamenhof-ek dio denbora, diru eta lan ugari kostatzen dela hizkuntza bat ikastea eta aberastasun handia izango litzatekeela nazio desberdinetako gauzarik hoberenak adierazteko hizkuntza amankomun bat izatea. Bi hizkuntza bakarrik ikasteak -ama-hizkuntza eta nazioartekoa-

lehendabizikoa sakontzeko aukera handiagoa emango omen luke eta gainerrako guztiak berdintasunez tratatzeko era ere bai.

Hurrengo urtean, 1888an, Zamenhof okulista judu-poloniarrek *Nazioarteko Hizkuntzaren Bigarren Liburua* argitaratzen du eta urte bete geroago *Bigarren Liburuaren Osagarria*. Familiako ezbeharrak eta larrialdi ekonomiko guztiak gora-behera, 1894ean *Universala Vortaro* (Hiztegi Unibertsala) agertzen da, hitzen itzulpena bost hizkuntzatan dakarrela. Geroxeago *Ekzer-caro* (Ariketa-bilduma) eta 1903an *Fundamenta Krestomatio* (Oinarrizko Antologia) argitaratzen ditu; azken liburu hau artikuluz, poemaz eta prosazko atal jatorrizko eta itzuliz eraturiko antologia bat da. 1905ean *Fundamento de esperanto* sonatuak, bere hamasei arauko gramatikarekin, lehen aldiko gailurra ezarri zion esperantogintzari.

Nabari denez, esperantoaren sortzailearen asmoak ez ezik egintzak ere hasieratik bertatik itzulpen-praktikari lotuak ageri zaizkigu eta gramatika zehatz bat egin ordez, L.L. Zamenhof-ek nahiago izan zuen ahalik eta maisulan literario gehien itzultzea esperantora hizkuntza asmatuberria aberasteko. Eta honela epe laburrean Shakespeare-ren *Hamlet* (1894), Goetheren *Ifigenia Tauriden* (1908), Schillerren *Bandidoak* (1908), Molière-ren *George Dandin*, Gogolen *Inspetorea* eta E. Orzeszkowaren *Marta* (1910) itzuli zituen, geroago Andersen en zenbait ipuin eta Bibliaren Itun Zaharra jatorrizko hebraieratik esperantoratzeko.

Zamenhof-en eritzian, itzulpengintza on zitzaien esperantoiari hizkuntza naturalen sotiltasunaz eta ñabardurez jabetzeko eta horregatik garrantzizko obrak hautatzeko eta leialtasunezko helburuari atxikitzeko gomendatzen zien itzultzaile esperantistei, inolako hizkuntz zailtasun edo eragozpeni iskitxo egin gabe. Hasierako lan eskerga honen emaitza eta ondorioa, hitz-altxorraren aberaste harrigarria izan zen. 1887an zituen 912 monemata 2.126tara igarotzen da hizkuntza sortuberria, eta era berean 1.294 hizperri edo neologismo sortu bide zituen Zamenhof-ek itzulpengintzari esker, 1908 eta bere heriotza bitartean.

1970ean argitaratu zen *Plena Ilustrita Vortaro* hiztegiak 15.250 sarre- ra ditu, eta bertan termino tekniko eta izen berezi ugari badago ere, gehienak hitz berriak dira. Literaturgileek begi onez ikusten dituzte ugaltze hauek, baina beste zenbait beldur da edozein klasizismok berekin dakartzan joritasun eta oparotasun hauek kalte ez ote dioten egingo esperantoaren sinpletasun eta ikaserraztasunari.

Esperantoak beste hizkuntzetako nazio-literaturak itzultzerakoan gainditu behar izan duen erronkatik atera duen probetxu eta etekina adierazkortasuna eta nortasuna areagotzea izan da. Zamenhof-ek aurrez ikusten zenez, ez da aski izan hitz berriak asmatzea, moldatu eta egokitu egin behar izan dira obra handietan irudikaturik dauden sentimentu eta ideien adierazpen zehatzago bat lortzeko. Horretarako esperantoak berezkoak dituen baliabideak erabili behar izan ditu eta harremanetarako hizkuntza izatetik artehizkuntza nabari izatera iritsi da.

10.000tik gora jotzen dira esperantora itzulitako obrak; izan ere sorreratik bertatik hasita attergabe ekin bait zitzaion itzulpengintzari bi mundu-

gerrateek ezinbestez sortutako etenaldiak salbu. Jendemasen erabilerarako inoiz burutu den kultura unibertsalaren antologia zabalena bihurtu dira itzulpen hauek. Letra Ederren sailari dagozkio gehienak eta ia ez dago literatur obra entzutetsurik Viena, Rotterdam, Praga, Londres edo Tokyoko liburutegi esperantistetan itzulpen bat ez duenik. Itzulpen-masa hau oraindik irakurle gutxiren eskuetara iristen bada ere, harrigarria gertatzen da ekintza honen handinahia. Seguraski ezinezkoa gertatuko zaio irakurle bati inongo hizkuntzatan Lermontov-en *Ipuin Kaukasiarrak*, finlandiarren *Kalevala*, Ihara Saikaku-ren *Bost gortesanak*, Lu Sin-en *Nobela Laburrak*, Imre Madach-en *Giza tragedia* eta abar irakurtzea *Fausto*, *Otelo*, *Edipo Errege*, eta *Komedia Jainkotiarra*-z gainera.

Bestalde, esan beharra dago, Mendebaldeko herrialde askotan ere ez dela erraza izango aurkitzea itzulirik esperantoak bere baitan dituen obra asko eta asko. Honela, bada, esperantistak gizateriak sortu dituen literatur obra nagusien aukeramen orekatu bat dauka bere eskura, eta gertaera hau, elebitasun eta hirueletasun guztiak gora-behera, kultura unibertsalerantz munduan eman den urratsik sendoenetako bat da.

X. MENDIGUREN
Senez aldizkaria, 2-3, 1986.
(moldaturik)

1. **«Lingvo internaci»ri buruzko lehen obra(k)**
 - a) esperantoz idatzia dago.
 - b) esperantoari kritika egiten dio.
 - c) esperantoa aurkezten du.
 - d) Zamenhof-ez hitz egiten digu.
2. **Zamenhof-en proposamena, zein da?**
 - a) Hizkuntzak modu errazago batean ikastea.
 - b) Hizkuntza mordo bat ikasten ibili beharra ebitatzea.
 - c) Ama-hizkuntza gero eta gutxiago erabiltzea.
 - d) Hizkuntzak ikasten diru asko inbertitzea.
3. ***Fundamenta Krestomatio*. Zertaz hitz egiten digu?**
 - a) Esperantoaz.
 - b) Esperantoaren gramatika eta arauak.
 - c) Esperantoaren hiztegiak.
 - d) Gai desberdinez.
4. **Zein izan ziren Zamenhof-en nahi eta asmoak?**
 - a) Literatur lanak esperantora itzultzea.
 - b) Literatur lanak esperantoz sortzea.
 - c) Esperantoz literaturarik ez sortzea.
 - d) Esperantotik beste hizkuntza batzuetara itzultzea.
5. **Zer falta zitzaion esperantoari?**
 - a) Hizkuntza naturalen ñabardurak.
 - b) Hitzak eta gramatika arauak.

- c) Itzultzaileak.
- d) Neologismoak eta gramatika arauak.

6. Zein da esperantoaren abantailarik handiena?

- a) Hitz asko dituela.
- b) Termino tekniko eta izen berezi asko duela.
- c) Jori eta oparoa dela.
- d) Erraza dela.

7. Maisulanen itzulpenekin, zer gertatu zaio esperantolari?

- a) Sinpletu egin da.
- b) Zaildu egin da.
- c) Aberastu egin da.
- d) Eskastu egin da.

8. Noiz ez dira literatur lanak esperantora itzulita argitaratu?

- a) 1903a baino lehen.
- b) Zamenhof bizi zen artean.
- c) Munduko bi gerrateetan.
- d) Lehen munduko gerratera arte.

9. Esperantora itzultako munduko literatura:

- a) Obra asko baina irakurle gutxi.
- b) Beste hizkuntzetara itzuliak bakarrik itzultzen dira.
- c) Ezin aurki daiteke munduko hiri handietan.
- d) Literatura asko itzuli da, baina teknika gehiago.

10. Esperantoak urrats sendoa eman du kultura unibertsalerantz...

- a) mendebaldeko herrialde guztietan liburutegi handiak sortuz.
- b) era guztietako elebitasun eta hirueletasunak bultzatuz.
- c) literatura obra nagusiak aukeratu eta itzuliz.
- d) bere obrak beste hizkuntza batzuetara itzuliz.

2.2.2. 1990/5/19

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zer leporatzen die EKI taldeak erakundeei?**
 - a) Diru gutxi ematen dutela enpresen kalteak konpontzeko.
 - b) Ez dituztela behar adinako zigorrak jartzen.
 - c) Zigor gogorregiak ezartzen dituztela.
 - d) Ez direla ekologiari batere arduratzen.

2. **Zeinen kontura joaten da kalteen konponketa?**
 - a) Diru publikoaren kontura.
 - b) Kaltea egiten duenaren kontura.
 - c) Inguruko enpresen kontura.
 - d) Udaletxeen kontura.

3. **Zergatik da zaila interes ekonomikoak eta ekologikoak bateratzea?**
 - a) Ez da zaila, ezinezkoa baizik.
 - b) Interes ekologikoa nagusitzen delako.
 - c) Diruak agintzen duelako.
 - d) Egindako kalte bat bera ere konpontzen ez delako.

4. **EKI taldea azken lege orokorarekin ez dator bat...**
 - a) Urdaibai erreserba natural bihurtzen ez duelako.
 - b) zenbait hutsune nabarmen dituelako.
 - c) ez delako interes partikularrez arduratzen.
 - d) urbanizazio-plana azaletik ikutzen duelako.

5. **Zein da elkarrizketatuaren eritzia erreserba naturalei buruz?**
 - a) Museo biologikoak direla.
 - b) Uhartea bezala zaindu behar direla.
 - c) Zaindu beharrekoak direla.
 - d) Ikusteko besterik ez dutela balio.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Elkarrizketatuaren ustez, sentimendu ekologikoa...**
 - a) gorantz doa.
 - b) ez da benetakoa.
 - c) ez da guztien gogokoa.
 - d) errealitatearen atzetik dabil.

7. Ekologian, zelako iritzia du 1992. urtearen aurrean?

- a) Europan sartu arren, ezer ez dela aldatuko.
- b) Esperantza bizia azaltzen du.
- c) Esperantza gutxi, gizartearekin batera doalako.
- d) Abantaila asko izango direla.

8. Zer dio elkarrizketatuak heziketa ekologikoari buruz?

- a) Ez dela ezer egiten eskoletan.
- b) Eskolako erakundeek ekintzaz osatu behar dela.
- c) Erakundeek exenplua nahikoa dela.
- d) Nagusiengan dagoela arazorik larriena.

9. Eta zer egin behar dute erakundeek?

- a) Eskoletako heziketa ekologikoaz arduratu.
- b) Jende nagusiaren heziketa zaindu.
- c) Biztanlegoa kontzientziatu.
- d) Exenplua eman, ohiturak aldatu.

10. Arazo ekologikoaren konponbidea...

- a) lehentasunak finkatuz etorriko da.
- b) erakundeek bidetik etorriko da.
- c) borrokan datza.
- d) jendea kontzientziazatzen datza.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Zerk galerazten dizu eguneroko loa?
2. Zertan ematen dugu denbora librea? Horretarako ere heziketa behar ote da?
3. Unibertsitate ikasketak dituen jende gehiegi omen dago eta Lanbide Heziketa burutu duten profesional egokiak behar omen dira.
4. Zertan da erlijioa gure gizartean?

ESKUTITZA

Zure herrian eraiki berria den polikiroldegian soinketa eta igeriketa zuzentzeko eta irakasteko monitore bat eskatzen da. Eskabideak Udaletxean aurkeztu behar dira eskutitz baten bidez.

Idatz ezazu eskutitz hori, eta adierazi bertan lan hori lortzeko dituzun merituak eta gaitasunak.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Urtez urte Gabonetako oporretan soilik ikusten genuen gure izeba zaharra.

_____ besterik _____

2. «Zer habil tuntunarena egiten? Non daukan burua?» -galdegin zidan amak konplizitate irriño batez.

Ea _____

3. Adierazpen guztiek sortzen dute gure artean zeresana eta eztabaida.

Edozein _____

4. Hautzarora ihes egin nahian bezala jolasean hasi ginen, zoriontsu izan nahiari jolasa dei badiezaiokegu.

_____ ba... _____
_____ deitzerik _____

5. «Babiloniako maiorazgoarekin ezkondu behar duzu eta segi nire kolonia hori ematen». Horixe esan zidan amonak.
- _____ esan zidan amonak.
6. Oroitzen naiz behin Lurruspeko kobazulora joan zela, amonaren itzalak hara bidalita.
- _____ nola _____
 _____ ...larik.
7. Behin betirako lanak bukatuz gero bake ederra emango luke!
- A zer _____ ba... _____
8. Nik banekien karlista asko zegoela trenbidearen aurka, baina ezin ahaztu jende askori ematen ziola lana.
- _____ arren, nola _____

9. Arazoak egunkarietan azaldu behar izan du, bazkideak elkarte hori azpijokoan zebilela konturatzeko.
- Harik eta _____

10. Dagoeneko azterketari guztiek jakingo dute azterketa nola egin behar den.
- Ez _____
11. Bazituen hiru edo lau gauzatxo mingain puntan berari esateko, baina bere ahots lehorrak aurea hartu zion.
- _____ ... gatik _____

12. Tabernara sartu eta semea bero-bero eginda kantuan aurkitu ez du ba!
- _____ hara non _____
13. Aspaldiko lagunak dira? Elkar ezagutzen dute? Guk ez dakigu.
- _____ ezta _____
14. Gauean bidera atera eta senide guztien artean jo egin zuten auzoko Patxi.
- _____ jipoia _____
15. Ez diogu gutxitan esan jarrera aldatu behar duela, baina alferrik!
- Zenbat _____!

16. Ez genuen pentsatzen horrelako gizon langile eta eraginkor bati era horretako depresioa sortzerik zegoenik.

_____ sor _____

17. Kanpokoek ederki zekiten haren ibileren berri; etxekeek ez hainbeste.

_____ baino _____

18. Oraingoan ere ederki kostako zaio Tolosari Retegiri irabaztea.

_____ lanak izan... _____

19. Goiko eserlekuetatik deabruak hartutako kristauen traza hartzen zitzaien dantzan zebiltzanei.

_____ ziruditen _____

20. Agian aurten ere egingo dugu Europa alderako bidaiia luze eta eder hori.

Baliteke _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Txingurri nimiño bat baino ez nintzen egun haietan, beste milakaren artean. Helsinkiko urian bizitzera (patuak halaxe nahita) beharturik bizi zen gizontxoa. Jakina, ni ez nintzen munduko ardatzik garrantzitsuena, gizateriaren txilborra, gaitz guztien hartzaile bakarra, garai hartan halaxe uste barenen ere. Milioika ziren ni baino askozaz okerrago mundu osoan, Europan bertan, Euskalerrian nola Finlandian, eta, gertu-gertutik, baita Helsinkin ere, hain zuzen.

Helsinkin bertan ere izua zen kalean, jendearengan, nonahi. Giroan berehalaxe nabari zitekeen zerbait zen. Errusoek osoturiko sarraskiaren ondorio bat (beste askoren artean, bat gehiago) finlandiarren artean barreiaturiko izua zen. Terrore giroa zegoen osotoro zabaldua urian eta honek beti dakar berarekin beldurraldia. Eta beldurrak isiltasun giroa ezartzen du jendearengan, nahi eta nahiezko baldintza bezala. Mutu uzten du biztanlegoa, beste nonbaiteko lekuko arrotzak bailiran. Izua bihotzetara hurbiltzen denean, terrore giroa nagusi delarik, isiltasunezko zigilu zamatsua ezartzen zaie gizakien ahoei, pisutsu, lekuko mutu bilakatuz.

Albiste ofizialen beharrean zurrumuruak egunero sortzen ziren, bata bestearen atzean, urian zehar. Bat entzun orduko hurrengoa zabaltzen zen, horrela jendeak elikatzen zuelarik bere eguneroko bizimodua. Albistek na-

hasiak zetozen beti eta batzuetan ez zen zaila izaten nondik, edota nork zabaldua zetozen jakitea. Askotan berehalaxe jakin zitekeen zein partidu politikok barreiatua zuen zurrumuru berria, ez bazegoen jakiterik ere inoiz asmakizun haren **zergatia** edo **helburu** zehatza. Bestetan, berriz, alderantziz gertatu ohi zen, hau da, berehalaxe **asma** zitekeela zein albiste mota sortuko zuen halako partidu politikoak beste batek barreiatutakoari **erantzuna** eman nahiz.

J. ITURRALDE
(1989) *Izua Hemen* Bizkaiko Foru Aldundia,
115-116 orr. (moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

JESUS INSAUSTI, UZTURRE: «ABERTZALEEN ARTEKO ZUBI BERRIAK ERAIKI BEHAR DIRA»

Uzturre goitizenak Tolosako jatorria salatzen badu ere, Bizkaiko Belendizen, alde batera itsasoa eta bestera Oiz erakusten dituen txalet koskorrean hartu gaitu Jesus Insaustik.

Euskaldun ikasi zaharrek erabiltzen duten doinu gipuzkoarrean, eus-kara pausatu eta dotorean, mintzatu zaigu Primo de Riveraren garaiko militantzia, atzerria eta EAJko EBBko buruzagitzia ezagutu dituen 78 urteko gizona.

Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan --1928 inguruan-- ekin zion Jesus Insaustik militantzia nazionalistari, 16-17 urte zituenean. Bitan zatituta zegoen, urte haietan, gerora bere betiko alderdia izan den EAJ: berak «Aberri»koengana jo zuen. «Nahiago izan nuen «Aberri», bertan langileak eta herriko jendea biltzen bait ziren; «Comuni3n»ekoak beste maila batetakoak ziren, abokatuak eta horrelakoak». Nazionalista eta sozialisten arteko borroka latzak gogoratzen ditu batez ere: oraingo sozialista erregionalisten antzik ez omen zuten ordukoek «zeharo zentralistak ziren haiek, antieuskaldunak».

Sozialistekin izaten zituzten istilu eta iskanbilak ez ziren txantxetakoak, Uzturrek kontatzen digunez; alde bateko zein bestekoak pistola zutela ibiltzen omen ziren, badaezpada ere. «Esate baterako, ni ELAn sartu nintzenean, lehenengo egunean Uzturre mendira eraman eta pistolak erabiltzen irakatsi zidaten, gerta zitekeenaren aurrean prestatuta egon behar bait genuen».

G).--Sozialistak desberdinak zirela diozu. Primo de Riveraren garaiko abertzaletasuna ere desberdina izango zen, noski.

- E).—Bai, orduko abertzaletasuna euskaltzaletasuna zen gehiago. Euskal Pizkundearen garaia zen hura. Orduan izan ziren olerkiaren pizkundera, lehen Bertsolari Txapelketa eta euskararen inguruko hainbat ekintza, folkloerari lotuta gehienak. Urte haietan euskara eta kulturaren inguruan zebilen jendea Errepublika iristean abertzale bihurtu zen, mugimendu politikoago bilakatu zen.
- G).—Gerra garaian atera zenuten euskarazko egunkaria.
- E).—Bai, baina ideia lehenagotik zetorren. Mendilauta eta Lizardik idatzi zuten horretaz, proiektua eta dena zuten: irakurlegoa, ze diru beharko zen, halako eta honelakoa izango zela... *Itz-lauz* liburuan jasota daude Lizardik honi buruz idatzitakoak. Kolaboratzaile bezala aritu nintzen ni. Baina hori Jaurlearitzak horretarako dirua eman zuelako izan zen, ez zen izan euskaltzaleok bultzatu genuelako.
- G).—Halako egoera larri eta baldintza eskasetan atera zenutena zergatik ez da orain egiten?
- E).—Baina ez dut uste gauzak horrela egin behar direnik. Ni orduan ere ez nengoen egunkaria horrela ateratzearen alde. Hori artifizial jokatzea da. Euskaldunok benetan euskarazko egunkaria nahi badugu, atera dezagun erakundeen laguntzaren zain egon gabe. Hori geure adorez atera behar dugu. Eta euskararen arazoa ere hori da, euskaldunok ez dugula geure kabuz aurrera egiten. Gero eta euskaldunberri gehiago dago, ikastoletatik gero eta haur euskaldun gehiago ateratzen da, baina kalean gero eta euskara gutxiago entzuten da. Arazoa politikoa ere bada; helburu bezala elebitasuna izatea akats izugarria da, horrek euskararen heriotza ekarriko luke. Flamendarren adibidea dugu hor: lehen, zona batzuetan, flamendarra % 80ak hitzegiten zuen, baina elebitasunerantz jo dutenez, eta frantsesak indar handiagoa duenez, honek flamendarrari lekua jan dio eta orain % 10ak baino ez du flamendarez hitzegiten. Gizarte elebidunean hizkuntza indartsuak ahulari tokia jaten dio.
- G).—Hor alderdi politikoek badute erantzunkizunik.
- E).—Hara, gauza bat esango dizut, beti partiduei botatzen diegu errua, baina norberak izan behar du euskaltzale; euskaraz mintzatu, irakurri eta bultzatzeko prest egon. Partiduak pertsonen osaturik daude.
- G).—Sar gaitezen politika munduan. Ikuspegi abertzaletik EAJ eta PSOEn arteko hitzarmena ez al da kritikagarria?
- E).—Iparririk galtzen ez den bitartean alderdi batek momentu batean dagokion pakto bat egitea ez da kaltegarri; baina iparra galtzen ez baldin bada, bere azken helburuak tinko dauzkan bitartean. Bestetik, askotan gogoratzen dut Irujo zenaren teoria. Hara, herri honek urteetan bere nortasuna zaindu baldin badu ez da izan borroka bidez, ez da izan gerra bidez, pakto bidez izan da. Azken berrehun

urte hauetan hiru gerra egin ditugu, eta hiru gerretatik kakaztuta atera gara, eta laugarrena egingo bagenu oraindik eta kakaztuago aterako ginateke. Herri honetan azeritasunez jokatu beharra dago.

J. INSAUSTI
«Uzturrerekin hizketan», Argia,
1.272, 89/XII-17

1. **Nongoa da Uzturre?**

- a) Uzturrekoa.
- b) Tolosakoa.
- c) Belendizekoa.
- d) Oizekoa.

2. **Zer ziren «Comunión»ekoak?**

- a) Sozialista erregionalistak.
- b) Sozialista zentralistak.
- c) Profesionalak, ez politikoak.
- d) Nazionalistak.

3. **Pistola erabiltzen ikasi zuen...**

- a) Uzturre izeneko mendian.
- b) ELAkoen kontra zebilenean.
- c) Sozialistekin batera ibili zenean.
- d) Iskanbilak amaitu zirenean.

4. **Errepublika iristearekin...**

- a) euskaltzaleak abertzaletu egin ziren.
- b) abertzaleak euskaltzaletu egin ziren.
- c) euskaltzaletasuna indartu zen.
- d) sozialistak euskaltzaletu ziren.

5. **Euskarazko egunkaria...**

- a) gerra baino lehenago atera zen.
- b) Mendilauta eta Lizardik atera zuten.
- c) Jaurlaritzaren laguntzarekin atera zen.
- d) Uzturreren ideari esker atera zen.

6. **Zer egin behar du euskaltzaleak euskarazko egunkariaren aurrean?**

- a) Erakundeen laguntzaren zain egon.
- b) Erakundeei aurrea hartu.
- c) Erakundeen laguntzari uko egin.
- d) Erakundeen iniziatibari erantzun.

7. **Elebitasuna helburutzat hartzea, Uzturreren ustez...**
- a) erdararen kalterako da.
 - b) euskararen onerako da.
 - c) euskararen kalterako da.
 - d) euskararen eta erdararen onerako da.
8. **Ba ote dute partiduek erantzunkizunik euskararen arazoan?**
- a) Bai, pertsonak baino gehiago.
 - b) Bai, pertsoez osaturik dauden heinean.
 - c) Bai, errurik botatzen ez zaien arren.
 - d) Bai, barnean euskaltzalerek ez dutelako.
9. **Zein da alderdi baten iparra?**
- a) Egindako paktua.
 - b) Bere nortasuna.
 - c) Egina duen hitzarmena.
 - d) Bere azken helburua.
10. **Uzturreren ustez azeritasunez jokatu beharra dugu...**
- a) hitzarmenak eginez.
 - b) teoria eginez.
 - c) borroka eginez.
 - d) gerra eginez.

2.2.3. 1990/5/26

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zein da Udako Euskal Unibertsitatearen zeregin nagusia?**
 - a) Euskal Unibertsitate bilakatzea.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitateen euskalduntzea bultzatzea.
 - c) Euskal Herriko Unibertsitatea finkatzea.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketak biltzea.

2. **Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak...**
 - a) ez dute harremanik izan.
 - b) elkarlanerako bideak urratzen dihardute.
 - c) ez dute elkarlanerako harremanik.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatearen etorkizuna bideratzen dihardute.

3. **Udako Euskal Unibertsitateko irakasleak...**
 - a) Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira neurri batean.
 - b) Udako Euskal Unibertsitatekoak bertakoak dira.
 - c) atzerritarrak dira.
 - d) Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira denak.

4. **Zergatik harrotzen da elkarrizketatua?**
 - a) Udako Euskal Unibertsitateko irakasleak Euskal Herriko Unibertsitatean trebatu direlako.
 - b) Udako Euskal Unibertsitateko materialak Euskal Herriko Unibertsitatean erabiltzen direlako.
 - c) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle zenbait Udako Euskal Unibertsitatean trebatu direlako.
 - d) Udako Euskal Unibertsitateara jende asko etortzen delako.

5. **Nafarroako unibertsitatearekin...**
 - a) hitzegiteko prest daude.
 - b) lanean hasteko prest daude.
 - c) harremanik ez dute.
 - d) elkarlanik ezin dute burutu.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak eta Udako Euskal Unibertsitatearenak...**
 - a) elkarren lehian dabilta.
 - b) helburu berekoak dira.

- c) diferenteak dira.
 - d) ezin dira elkartu.
7. **Elkarrizketatuaren hitzetan, Donostiako Udako ikastaroak...**
- a) turismoa erakartzeko antolatzen dira gaur egun, batez ere.
 - b) kultur edukinei ematen die lehentasuna gaur egun.
 - c) kultur edukinari eman zion hasieratik lehentasuna.
 - d) ez du kultur edukina aintzakotzat hartzen.
8. **Zergatik sortu zen Udako Euskal Unibertsitatea?**
- a) Euskal Herrian unibertsitaterik ez zegoelako.
 - b) Euskara irakasteko.
 - c) Euskal Unibertsitatea behar zelako.
 - d) Irakasle abertzaleak biltzeko.
9. **Donostiako ikastaroetan...**
- a) % 10-20a euskaraz egiten da.
 - b) dena erdaraz egiten da.
 - c) dena euskaraz egiten da.
 - d) % 80-90a euskaraz egiten da.
10. **Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan...**
- a) euskararen inguruko gaiak dira nagusi.
 - b) euskaraz egiten da lan.
 - c) euskaraz egiten delako parte hartzen du jendeak.
 - d) ez du jendea gaiak erakartzen.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Euskal egunkariaren inguruko eztabaida: beharrezkoa al da? Nork irakurriko du? Nolakoa nahi zenuke?
2. Lithuania.
3. Hona hemen inkesta baten datuak: Bartzelonako unibertsitarien artean % 68ak emakumea ezkontzara birjina irits dadin nahi du.
4. Non eta nola ikusten duzu zeure burua hemendik hamar-hamabost urtera? Zer espero duzu etorkizunean?

ESKUTITZA

Urte batzuk badira aldizkari baten harpidedun zarela. Azkenaldi honetan ez da batere zure gustukoa gertatzen ari aldizkari horren edukina. Idatz iezaiozu zuzendariari zure adostasunik ezaren berri emateko, eta bertan zure kexak sortarazi dituzten arrazoiak argi eta garbi adierazi.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Nahikoa lan bazuen egunean zehar etxean amari laguntzen, mandatuak egin eta jolasten, beste ezerekin akordatzeko.

Horrenbeste _____
_____ non _____

2. Eskukada bat gatz sutara jaurti eta keinu egingo zion amandreak Martini, inguratzeko.

_____ ingura _____

3. Keinu egingo zion amandreak Martini, inguratzeko. Haretxen zain egoten zen Martin.

Martin _____

4. Ez zen afari hura Martinek nahi bezain azkar amaitu.

_____ baino _____

5. Amandreak esanda zekien, Mari hura zela, Martin bera salbu, bere lagunik onena.
 _____ hoberik

6. Berari behintzat esango ahal zion amandreak norako asmotan aldegin zuen! Esperantza horretan abiatu zen Martin.

 _____ ...lakoan _____
7. Eta zu nor zara, jakiterik baldin badago?
 _____ jakin _____
8. Urrunean berrogei bat zaldizko ikus zitezkeen.
 _____ inguru _____
9. Heriotzaren hurbiltasunak zuzpertz egiten du gizon jakintsua, ez ikaratu.
 _____ baizik.
10. Ez da izen beharrik izateko.
 _____ zertan _____
11. Igandea izaki egun hura, badaiteke gogo handirik ez izatea egunero-koan idazten hasteko.
 _____ ...lako _____

12. Beste era batetara distrai daitekeela pentsatu ere, pentsatzen du noiz edo noiz.
 _____ behintzat _____

13. Euskara laneko hizkuntza bihurtuko bada, lanerako tresna eroso eta adierazkor izan behar du.
 _____ nahi _____
14. Urte hauetan, ez guk nahi adina baina, asko aurreratu da alor honetan.
 _____ arren _____
15. Uste genuen gehiago aterkiaren beharrik ez genuela izango.
 _____ ...koan _____

16. Gauzak zerbait aldatuko ote dira hurrengoan? Hala izan ezik, komeri txarrak dauzkagu.

_____ ba... _____

17. Gure herriaren historiaren berri izan behar dugu lehenengo. Eta handik aurrera hitzegin.

_____ izanda _____

18. Pentsatutakoa egingo al du Larretxeak? Utziko al dio Olasagastik?

_____ egiten?

19. Azkenean indarrak neurtuko dituzte. Milioi bana jarri behar izan dute horretarako.

Behin _____

20. Guk zer asmo dituzten ez daukagu asmatzerik, aztiak ez gara eta.

_____ dezakegu _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Aitonak hori esaten zuen, sugea zeharo gaiztoa zela, eta hil egiten duela txoria, eta burua puzten diela zakurrei, eta irrintzika jartzen dituela zaldiak, eta esnea **lapurtzen** diela behiei, baina oiloen aurrean ez daukate zereginik, oiloak espezialistak direla sugeak **hiltzen**.

Eta holaxe ibili ginen azken udaran ere, Toby, Frankie, Kent, aitona eta bostok, aitona Kent-en ganean eta ni neure **bastoi** txuriarekin. Eta gero udazkena etorri zen, eta Frankie etxean uzten genuen, eta holaxe genbiltzan paseatuz, ezta?, herrian zaldiak **azaldu** ziren egunerarte.

Egun hartan eskolan geunden, eta maistrak aritmetika **esplikatu** zingun, eta denok ondo portatu ginen, Vincent ere bai. Eta maistrari asko gus-tatu zitzaion hori, eta azken orduan jai egingo genuela esan zuen, eta herriaren **iskinan** dagoen tren geltokira joango ginela, geltokian zaldiak zeudelako, zaldi asko trenaren zain. Eta hala joan ginen, eta nik ez dut **sekula** ikusi hainbeste zaldi batera, eta hesietan zeuden, gutxienez bostehun zaldi, eta denak **urduri**, eta nola hotz piska bat egiten zuen bada lurruna botatzen zuten, eta laino bat bezala ikusten zen geltokiaren inguruan. Ni begira-begira egon nintzen denbora **askoan**, eta ene artean zaldi bakoitza Kent-ekin **gonbaratzen** nuen, eta niretzat han ez zegoen Kent baino politagoa zenik.

Vincent nire ondotik zebilen egun hartan ere, nik esaten diot apartatzeko, alde egiteko nire ingurutik, baina berak ez dit jaramonik egiten, eta nire atzetik ibiltzen da beti, bada hori, egun hartan ere etorri egin zitzaidan, eta nire ondotik zebilen, txorakeriak esaten noski, maistra Margarethe treneko gizonarekin ikusi zuela, musuka eta horrela, eta nik zaldi haiek norako ziren galdetu nion, eta berak:

– Hamburgora eramango dizkinate, Hamburgora.

– Eta zergatik Hamburgora? --esan nion nik.

– Ameriketara bidaltzeko barkuan.

– Ameriketara?

Galdetu nion, zergatik ez nuen hura entenitzen. Eta Vincent-ek ko-peta hainbeste ez zimurtzeko esan zidan, itsusi egiten ninduela horrek, eta gero zaldiei begiratu zien:

– Ameriketara zaldiki asko jaten omen dinete.

Eta orduan konprenitu egin nuen, zaldi guzti haiek mataderorako zirela, biajea egin eta gero hil egingo zituztela, eta handik aurrera ez nuen han segitu nahi izan, eta eskolara bueltatu nintzen, eta maleta hartu eta etxerako bidean jarri nintzen mantxo-mantxo.

B. ATXAGA

Gauero aterako nintzateke paseatzera
OBABAKOAK (moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Hasieran aipatzen genuen bezala, industriaren eginkizuna, urteetan, <produzitzen zena saltzea> izan da. Eskaintza baino haundiagoa zen eskaria eta laneskua ahal zen ondoen erabili behar zen etengabe beti produzitzeko.

Baina industria eskasia egoeratik soberakin-egoerara pasa da. Hala ere, soberakinak kudeatzeko, eskasiaren garaiko erizpide eta tresna berberekin jarraitzen du.

Orain helburu nagusi bat lehiakortasuna da, eta berau ez da produktioko kostuen mailan bakarrik oinarritzen. Beste faktore asko hobere du edo optimizatu behar du: kalitatea, langileen motibazioa eta sormena, bizkortasuna epeetan, teknologia bera.

Hau izango da, seguraski, kultur aldaketa beharraren arrazoi nagusia: ez dela faktore bakar bat kudeatu behar, baizik eta hain elkarterrazak ez diren hainbat faktore.

Guzti honekin esan nahi duguna zera da, industri inbertsioak ezin daitezkeela produkzio teknologietara bakarrik mugatu, baizik eta erabakien aurretik ikuspegi bilaketa eta hausnarketa orokor bat egitea gomendagarria dela.

Inbertsioak enpresen lehiakortasuna eta oparoaldia bikaintzea du xedezat. Baina lehiakortasunaren faktore nagusiak hauek dira: produktuak, erakuntza, langileak eta produkzio teknologia.

Lau faktore hauetariko bat bera ere ezin da baztertu. Produktuak bezeroen gustukoak ez badira, alferrik da ondo eraturako lantegi moderno eta aurreratua izatea. Teknologia berriek ezer gutxi balio dute, langileek efikaziaz erabiltzen ez badakite. Erakuntza on batek ezin du teknologia zaharkitua konpentsatu. Eta, alderantziz, erakuntza desegoki batek lehiakortasun itxaropenei porrot egin eraz diezaieke.

Teknologien sarrerak, beraz, arrazoi on batzuetan oinarritua behar du izan, enpresaren errealitatea kontutan izanik; eta nola ez, pertsonen prestakuntza egokia antolatuz, gai izan daitezen makina eta tresneria berriek espero izandako emaitzak eman ditzaten, horretarako behar den gaitasun teknikoaren jabe izanez eta kalitatea eta fidagarritasuna kudeatzen jakinez, lehiakortasunaren exigentzia berriak konprenituz: efikazia, biltegi eta epe minimoak, kalitatea, bizkortasuna, kostu txikiak...

Garrantzia eman behar zaio berrikuntz egitasmoari, enpresak berrikuntza bere esku hartuz, besteen esku utzi gabe, soluzioa beharrei egokituz eta ez beharrak soluzioari. Eta emankortasunaren aurrerakuntzak ahal den eta bateratsuen eman behar dira, hots, duela berrogeita hamar urteko eta bihar-ko eguneko teknikak leku berean nahastu gabe.

P. ETXABE ETXABE
(Teknologia berrien ekarpena)
JAKIN, 54 zkia. 1989, iraila-urria

1. **Zer dio egileak emaitzen kostuz, industriaren lehiakortasunaz ari denean?**
 - a) Lehen mailako oinarria dela.
 - b) Horretaz gain badirela kostu gehiago ere.
 - c) Hori ez ezik oinarrizko beste faktore batzuk ere badirela.
 - d) Horren aldean beste faktore batzuk direla nagusi.

2. **Zer izan behar da kontutan inbertsioak egiterakoan?**
 - a) Lehiakortasunean esku hartzen duen faktore multzoa.
 - b) Langileen lehiakortasuna bultzatzea.
 - c) Teknologia ahalik eta berriena dela garrantzitsuena.

- d) Lehiakortasuna bultzatzeko oinarrizkoak diren faktore guztiek ez dutela lehentasun berbera.
3. **«Produktuak, langileak, erakuntza eta teknologia», lau zutabe hauek...**
- a) enpresen lehiakortasuna bikoiztea dute helburutzat.
 - b) ez dira elkarterrazak lehiakortasunarekin.
 - c) enpresen lehiakortasuna zaildu egiten dute.
 - d) enpresen lehiakortasuna baldintzatzen dute.
4. **Produktua(k) egokia izateko...**
- a) erosleak onartu egin behar du.
 - b) erosleak modernotzat jo behar du.
 - c) gustu onekoa izan behar du.
 - d) modernoa eta aurreratua izan behar du.
5. **Non dago teknologia berriaren gakoa?**
- a) Zaharkitua ez izatean.
 - b) Erabiltzeko dagoen gaitasunean.
 - c) Bezeroen gustuko produktuak egiteko ahalmenean.
 - d) Oso aurreratua izatean.
6. **Erakuntza ona beti izango da baliagarri...**
- a) nahiz eta teknologia berri-berria ez izan.
 - b) teknologia atzeratua orekatzeko.
 - c) teknologia ere egokia baldin bada.
 - d) lehiakortasunak porrot egiten badu ere.
7. **Pertsona-teknologia lehia honetan...**
- a) teknologia pertsonaren prestakuntzari egokitu behar zaio.
 - b) teknologiak ez du pertsona menderatu behar.
 - c) elkartezinak gertatzen ari dira jadanik.
 - d) pertsona teknologiari egokitu behar zaio.
8. **Nork egin behar du berrikuntz egitasmoa?**
- a) Langileek ondo elkar hartuta.
 - b) Kanpokoan esku utzi gabe enpresako nagusiek.
 - c) Lantegiko zuzendari berritzaileenak.
 - d) Enpresak berak.
9. **Aurrerakuntzak bateratsu egin behar direla aholkatzerakoan, honako hau dio egileak:**
- a) Ez direla duela berrogeita hamar urteko teknikak erabili behar.
 - b) Ez direla teknika oso zaharrak eta berri-berriak bateratu behar.
 - c) Teknika zaharrak ala berriak erabili erabaki behar dela.
 - d) Orain berrogeita hamar urteko teknikak ere gaurkoen pare erabili behar direla.

10. **Testu honetan autoreak...**

- a) gure enpresen hutsegite nabarmenenak aipatzen ditu.
- b) enpresen norabide berrirako aholkuak ematen ditu.
- c) enpresen norabide berrirako salmenta aholkuak ematen ditu.
- d) datozen enpresa berrien lehiakortasuna zaila iragartzen du.

2.2.4. 1990/6/2

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Nafarroako pobreziari buruzko azterketan...**
 - a) ez da ondoriorik atera, ez bait da bukatu.
 - b) biztanlegoaren % 3a, gutxienez, pobretzat jo daitekeela ikusi da.
 - c) mixeria gorrian bizi direnak ijitoen eta portugesen taldeetara mugatzen direla ageri da.
 - d) Nafarroako pobrezia ez dela nabarmena ikusten da.

2. **Zer da mixeria gorrian bizitze hori?**
 - a) Pertsona bakoitzeko hilean 12.000 pezeta baino gutxiago irabaztea.
 - b) Familia bakoitzeko 12.000 pezetara ez iristea.
 - c) Pertsona bakoitzeko hilean 30.000 pezeta baino gutxiago irabaztea.
 - d) «Per capita» errentaren erditik behera egotea.

3. **Zein dira ezindu sozialak?**
 - a) Oztopo fisiko eta psikikoak dituztenak.
 - b) Lana aurkitzeko inongo aukerarik ez dutenak.
 - c) Bere kabuz lana aurkitzeko ahaleginik egiten ez dutenak.
 - d) Elkartasunezko laguntza behar dutenak.

4. **Mario Gabiriaren ustez zer eman behar zaie ezindu sozial hauei?**
 - a) Ezindu fisiko eta psikikoei bezala, laguntza.
 - b) Jendearen onarpena eta elkartasuna.
 - c) Lanpostua, batik bat.
 - d) Dirulaguntza soilik.

5. **Zerk bereizten ditu gizarteko bi taldeak?**
 - a) Erretiroa jasotzeko eskubideak.
 - b) Lanpostu ezak eta laguntza beharrak.
 - c) Lanpostu finko ezak.
 - d) Lanpostu eskasagatik laguntza beharrak.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Zergatik jotzen du larritzat HIESa dutenen egoera Mario Gabiriak?**
 - a) Jendeak arriskutsutzat jotzen dituelako.
 - b) Bakarrik eta ezkutuan daudelako heriotzera arte.
 - c) Isilpean eraman behar dutelako beren gurutzea.
 - d) Ezkutuan bizi, pertsona bakarti bihurtzen direlako.

7. **HIESa(k), Ameriketan, idazle ospetsu baten esanetan...**
- baztertuak desagerterazteko balio du.
 - behartsuak eta zokoratuak bakarrik kutsatzen ditu.
 - kaleetatik behartsuak desagerterazteko erabiltzen da.
 - behartsuak eta zokoratuak kontrolatzeko erabiltzen da.
8. **Zergatik agertzen zaigu baikor Mario Gabiria HIESaren aurrean?**
- Orratzaren bidez kutsatuak sendatzea lortu delako.
 - Medikuek emakume-etxeak hobeto kontrolatzen dituztelako.
 - Beste gaisotasun sexualak bezalakoxea delako.
 - Sexu harreman normalen bidez kutsatzea hain erraza ez delako.
9. **Zergatik zaio orain HIESari lehen baino beldur gutxiago?**
- Pentsatzen zen baino jende gutxiago kutsatu eta gaisotzen delako.
 - Hasierako izurritea gainditu egin dugulako.
 - Ehun pertsonatik bi edo hiru bakarrik kutsatzen direla ikusi delako.
 - Praktika arriskutsuak dituztenak beren burua zaintzen saiatzen direlako.
10. **Nolakoak dira praktika arriskutsuak dituztenak?**
- Bizitzak behartuta guztion kontra daudenak.
 - Bizitza gozo-gozo hartu nahi dutenak.
 - Bizitzak gogorki eraso dituenak.
 - Beren burua salbatzeko ere gauza ez direnak.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Euskadin izaten diren suteen % 90a probokatua da. Zergatik? Nor atera liteke suarekin irabazle?
- Bidaiak zertarako?
- Bizikleta da hirietako trafikoa arintzeko alternatiba.
- Gogoan dituzun hauteskundeetako giroa deskriba ezazu.

ESKUTITZA

Lapurren bisita izan duzu etxean. Telefonoa hartu eta ertzainei egin diezu dei berehala. Esan beharrekoak idatziz aurkezteko erantzun dizute, zehaztasun guztiak emanaz. Idatzi lehenbailehen eta gertatuaren berri eman.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Eta han sutondoan kontu-kontari ibiliko zen, ipuin batekin ez bazen, asmakizun batekin.

_____ nahiz _____

2. Nafarroako zenbait herritako jaiak Iruñekoak bezain zaratatsuak eta alaiak dira. Hori ukatu ezinezkoa da.

Nola ukatu _____

3. Lurraldeak murrizturik ditu, baina maitaleak ugaldtu egin zaizkio txakolinari.

_____ arren, gero eta _____

4. Eguzki bila joan eta zeharo bustita etorri beharrak amorrarazten nau.

_____ blai-blai _____
_____ amorratioa.

5. Txakolina da munduko beste hizkuntzetara ere bere izena zabaldu duen hemengo edari bakarra.

Ez dugu _____

6. Zer dira, bada, bi hilabete, herrian bizi izan ditudan hemezortzi urteren ondoan?

_____ ez dira _____

7. Badirudi eztabaida politiko honek otsaileko hego haizeak adina iraungo duela.

Ez du ematen _____

8. Ez zitzaidan aurpegiko makilajea kentzea asko kostatu, malkoek egina bait zuten lan erdia.

_____ gero _____

9. Jendearen sua baretzea zaila izango zela pentsatuz, udaltzainei dei egitea erabaki genuen.

_____ ustetan _____

10. Etxeko atea ireki nueneko han nituen emaztea eta alaba irribarrez eta algaraka.

_____ batera _____

11. Gaztetxoak kalean ikusten duena ikasten du.

_____ zer _____

12. Burusoila eta hartz nabarra naiz ni. Erakargarria eta maitabera izan nahi nuke.

_____ honek _____

13. Eritegitik itzulita ezin nuen ezertxo ere egin.

_____ gauza.

14. Mozkortuta nengoen, baina egunero edateak gorputza ahuldu eta bu-
rua fresko edukitzeko gaitasuna erakutsi zidan.

_____ ...gatik _____

15. Izugarrizko beldurra sartu zitzaidan barneraino kontu haiek entzutean!
Hura _____
16. Natura zaintzea guztion ardura da, bestela, ez bakarrik basoak, gizakia ere hondatu egingo da datozen urteetan.
_____ ez ezik _____
17. Amak ezpainak estutu, eskua jaso eta lapurtutakoa berari itzultzeko eskatu zion haurrari.

itzul _____
18. Beharbada bere barnea hustu eta lasaitzen denean etorriko da berriro ere bere onera.
Baliteke _____
19. Gaur egun nota onak behar izaten dira zenbait fakultatetan sartzeko eta bestelako laguntzaren bat ere ez da alferrikakoa izaten askotan.

_____ gain _____
20. Eguna zabaltzen denean hasten da jendea hiritzarretan auto eta zarata arteko dantzan.

_____ ekiten _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Erretzeari **utziko** diot. Urteberriarekin asmorik onenen **lorealdia** nahi dut aprobetxatu aspaldian zorretan neukan **ohitura** hori **kitatzeko**. **Zaila** eta gogorra dela daukat entzutea; nik ez dut inoiz frogatu, baina esaten dutenez, lehen egunetan itolarrian ibiltzen zara, noraezean, pentsatzeko ere ez gauza, **garunera** kerik ez zaizulako **iristen**.

Halare, erabakia hartua neukan, edo hartua neukala uste nuen, behintzat. **Arrazoitzea** omen zen biderik onena eta arrazoitzeari ekin diot. Lehen puntua: Osasuna. Ni ongi nago, indarrrik ez daukat soberan baina munduan zehar ibiltzeko adina bai. Eztulaldi haundiegirik ez dut **jasaten** eta arnasa primeran hartzen dut. Kirola egiteko gauza naiz, baita talamokoa ere. Gehiago ezin eska nezake.

Bigarren arrazoia ekonomia litzateke. Osasunarekin gertatzen zaidana gertatzen zait diruarekin. Ez daukat soberan baina bai moldatzeko beste. Gainera, tabakoa orain igo arren ez da proportzioan hain gauza garestia. Bizioa izateko merkea ere badela esango nuke. Egunean bi pakete xahutu arren hamar mila durotik behera da urtean. Huskeria bat gaur egunerako. Edozein kreditu motak ematen ditu ostikada haundiagoak.

Hirugarren arrazoia eta arrazoirik indartsuena dudarik gabe lagun hurkoari egiten omen zaion kaltearena da. Horri buelta ematea zaila zait, baina pentsatzen jarrita, hurkoak ere badu ni molestatzeko joera nabarmena eta nik isil-isilik jasaten ditut haien mania eta horrelakoak. Kexatu al naiz inoiz jendea kalean animaliekin ibiltzen delako? Inoiz ez. Kexatu al naiz pintadekin gure kaleak eta bazterrak zatartzen dituztelako? Sekula ez.

Beraz, arrazoiaren bidetik jai daukat. Zigarroak uztearena ere «por potros» egin beharko dut, pentsatu eta egin, esan eta esan dudalako soilik utzi. Baina bide horretan ere egin dezaket mila estropozu. Nire buruari eta gainerakoei ziria sartuz gozaten dutenatarikoa bait naiz, hitza arin jaten dutenatarikoa, Jainkoak eta balioak zoritxarrez aspaldian atzenduak dauzkatentatarikoa.

Ez daukat erremediorik. Ezpain bazterrean zigarroa dudala jarraitu beharko dut. Hori bai, aspaldiko ohiturari segituz ez dut inoiz kartoirik erostiko. Kartoa erosten duenak bere burua erretzailatzat du. Beti paketez pakete erosten dugunok, oraindik esperantzari zirrikitutxo bat uzten diogu libre.

A. EGAÑA
«Abstinenzia» DV, Zabalik, 153. zkia.
1990eko urtarrilaren 3a

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

JULIO CORTAZAR

Urtearen gurpilak epeka-epeka, ditiranbo nekrologikoetarako aukera eskaintzen du eta ditiranbo hauen idazketa topikoz josita agertzen da beti, hildakoak laudorio jantzienak, lanik aipagarrienak, urrats sendoenak beregan biltzen dituelarik. Hala gertatzen da hildakoaren oihartzuna mehe, eroria denetan, hala suertatzen hildakoaren oihartzun arrakastatsuak trumoi baten sendotasuna duenetan ere. Horregatik, lehen taldekoak ugariagoak direnez eta urriagoak bigarrenekoak, lehenengo topiko gastatuek harrapatu egiten dituzte eta herdoildu bigarren taldekoen merezimenduak. Horregatik, baita, egin behar zaie jaramon gutxi ditiranbo nekrologikoei.

Julio Cortázar bezalako idazle bat hiltzen denean arriskua bait dago, laudorioak mereziak dituen ala ez zalantzan jartzekoa, urteroko gurpilak harrapatzen dituen beste hainbat eta hainbaten itzalaren pareko jotzeko arriskua bait dago, eta horrelakoetan bait dira beharrezkoak orain arte bezalako preanbuluak: Julio Cortázar-ekin gaztelarak XX. mendean eman duen idazle haundienetarikoa joan zaigula adierazteko, gizonaren limite-egoerak Julio Cortázar-ek bezain ongi inork ez dituela jaso esateko, ipuingintzari maila literario bete eta autonomia eskaini diola aldarrikatzeko.

Hiru maila horiek bait dira, gure ustez, aipagarrienak Julio Cortázar-en obran, ohizko ditiranboen errosariotik ihesi. Lehenik, haren hizkera literarioak herri-erabileren eta erabilera kultoen artean lortzen duen uztarketa aipatu beharko genuke, honela Jorge Luis Borges-ekin batera Europako tradizioari —ingelesari eta frantsesari, «malgré tout»— jaramon eginez, tradizio horren uretan murgilduz, tradizio horretara gaztelera hurbildu nahiz. Baina erabilera herrikoiak —porteñoa, jergak...— ahaztu gabe. *Rayuela*-ko ikasleen jerga, pedanteria libreskoa, hitz-jokoak, *Cronopios*-eko intelektualismoa, *El perseguidor*-eko xehetasun itogarria, *Bestiario*-ko freskotasun neurtua...

Aipagarritzat jo dugun bigarren alderdia, Cortázar-ek gizonaren limite-egoerak erabiltzeko agertzen duen maisutasuna zenez, esan dezagun Kafkari zor diola maila haundi batean Cortázar-ek arnasa. Baina pragarrak maila kolektibo bat lortzen zuen bere pertsonaiei sinbolikotasuna eskainiz. Cortázar-ek ez; argentinarrak maila indibiduala eskaini nahi die bere pertsonaiei, honela Kafka-renak baino patetikoagoak, identifikagarriagoak gertatzen zaizkigularik, gertuagokoak honen pertsonaiak. *Autopista del sur* ipuin zorrotz, zauritsuan pertsonak-autoak identifikazioaren bidez lortzen duen patetikotasuna dugu adierazpiderik garbientakoa. Baina ez da kasu bakarra, Cortázar-en ipuinetan egoera hauek etengabe bait daude presente.

Hiru laudorio-gaietarik azkena, ipuingintzari eman nahi izan dion autonomia da eta, honetan, ez dugu ezagutzen Guy de Maupassant-en garaietatik ipuinari gorputz autonomia, jenero propioaren enborra nagusiago eskaini dionik. Eta jenero bereziak erritmoan, hizkeran, kontakizunen halako arnasa etereoan biltzen ditu berezitasunak. Nobelak ez bezalako erritmo etengabe, juxtua (100 metrotako korrikaldiaren eta maratoiaren artean dagoen tarte bezalatsu), hizkera zehatza, makulurik eta abaloriorik gabea, kontakizunetako limite-egoera indefinitu bezain beldurgarriek sortarazten dituzten zirrara...

Luza genezake errosarioa misterio gehiagotan: hala nola, bat Cortázar-ek itzulpenari eskaini zion ardura, eta euskaldunontzat ere baliagarria litzatekeena: «Hay por lo menos dos clases de lenguas muertas y la que manejan esos escritores (itzultzaile-mota zenbaitez ari zaigu) pertenece a la peor»; beste bat, umorearen papera Cortázar-en obran; beste bat... eta honela aipatuko genituzke intelektualismoa, anbiguitatea, errealitatearen eta

irrealitatearen arteko muga difuminatu, lainotsua. Baina gure gaurko erro-
rioak inor lotara gonbida ez dezan, hona puntu finala.

A. LERTXUNDI
«Julio Cortázar», Jakin, 307 zkia.
1984eko urt.-martxoa. 113-114 orr.

1. **Noiz agertzen da ditiranbo hauen idazketa topikoz josita?**
 - a) Inoiz ere ez.
 - b) Hildakoak merezi dituenean.
 - c) Hildakoak merezi ez dituenean.
 - d) Hildakoak merezi dituenean nahiz ez dituenean.

2. **Zergatik egin behar zaie jaramon gutxi ditiranbo nekrologikoei?**
 - a) Berdin tratatzen dituztelako merezimendua duten eta ez duten hildakoak.
 - b) Oihartzun meheko hildakoek merezimendu gehiago dutelako.
 - c) Oihartzun arrakastatsudun hildakoei eskainitako laudorioak merezigabeak direlako.
 - d) Oihartzun arrakastatsudun hildakoen merezimenduak herdoilduta daudelako.

3. **Zer arrisku dago Julio Cortázar bezalako bat hiltzen denean?**
 - a) Egiten zaizkion laudorioak topiko gastatutzat jotzekoa.
 - b) Egiten zaizkion laudorioak besteei egiten zaizkienak ez bezalakoak izatekoa.
 - c) Urteroko gurpilak beste hainbat eta hainbaten itzala harrapatzekoa.
 - d) Ditiranboak egin beharrean, preanbuluak egitekoa.

4. **Meritu hauetatik zein da idazleak Julio Cortázar-i aitortzen ez diena?**
 - a) Ditiranbo nekrologikoak idaztearena.
 - b) XX. mendeko gaztelararen erabiltzailerik onenetarikoena izatearena.
 - c) Gizonaren limite-egoerak inork ez bezala jaso izanarena.
 - d) Ipuingintza jenero literarioen mailara ekartzearena.

5. **Zein da Julio Cortázar-en hizketa literarioaren ezaugarri aipagarriena?**
 - a) Ohizko ditiranboen erosariorik ihes egin izana.
 - b) Europako tradizioari jaramon eginda, herri-erabilera baztertzea.
 - c) Europako tradizioak bezala, herri-erabilera bultzatzea.
 - d) Gaztelera landua nahiz herrikoia erreparorik gabe erabiltzea.

6. **Julio Cortázar...**
 - a) pragarra, bere pertsonaiei sinbolikotasuna eskaintzen ziena da.
 - b) pragarra, bere pertsonaiei maila indibiduala eskaini nahi diena da.

- c) argentinarra, bere pertsonaiei sinbolikotasuna eskaintzen ziena da.
 - d) argentinarra, bere pertsonaiei maila indibiduala eskaini nahi diena da.
7. **Cortázar-en ipuinetako pertsonaien patetikotasuna...**
- a) ez da Kafkaren pertsonaiena adinakoa.
 - b) eskaini dien indibidualtasunak jarri du maila horretan.
 - c) *Autopista del Sur* ipuinean baino ez da ageri.
 - d) ez da Cortázar-en ipuinetan beti presente dagoen zerbait.
8. **Zein da Anjel Lertxundik Julio Cortázar-entzat bereizten dituen hiru laudorio-gaietatik azkena?**
- a) Ipuingintza sortu izana.
 - b) Ipuina literatur jenero propio bezala hartua izateko egindako lana.
 - c) Guy de Maupassant-en garaiko ipuingintzari buruz egindako lan sendoa.
 - d) Ipuinak idazteko estilo propioa.
9. **Anjel Lertxundiren ustez...**
- a) ez dago ipuinaren eta nobelaren artean alderik.
 - b) ipuina maratoia da eta nobela 100 metrotako korrikaldia.
 - c) hizkera zehatzagoa du nobelak ipuinak baino.
 - d) hizkera zehatzagoa du ipuinak nobelak baino.
10. **Zer pentsatzen du Cortázar-ek itzulpenaz?**
- a) Misterio bat dela.
 - b) Itzultzaileek bi hizkuntza hil gutxienez darabiltzatela.
 - c) Itzultzaile zenbaiten hizkera hildako hizkuntza moten artean okerrera dela.
 - d) Ez dio axola.

2.2.5. 1990/9/29

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zer da norbere buruari barre egitea?**
 - a) Egoera txarretarako terapia egokia.
 - b) Arazo latz baten aurrean aurkitzea.
 - c) Norbere buruarekin kritiko izateko laguntza.
 - d) Autokritika egiteko modu bakarra.

2. **Zein euskal tradizio aipatzen ditu norbere buruari barre egite horretan?**
 - a) Lagunek elkarri erasotzeko ohiturak.
 - b) Bertsolaritzako joera batzuk eta duelo antzekoak.
 - c) Bertsolaritzako elkarri ahalik eta haundienak esate hori.
 - d) Iparraldeko duelo erasotzaileak.

3. **Nolakoa izan da kultur mailan egin den umorea?**
 - a) Tradiziozkoa.
 - b) Oso euskalduna.
 - c) Erraza.
 - d) Halamoduzkoa.

4. **Zer dio musikarekin loturiko umoreari buruz?**
 - a) Kantari guztiek dutela bere umore puntua.
 - b) Edozein kantariren letretan isladatzen dela umorea.
 - c) Ez dagoela umorea lantzen duen talderik.
 - d) Umore hori taldeek bakarrik egin dezaketela.

5. **Politikoak imitatu nahi izanez gero arazorik sortzen al da?**
 - a) Bai, politikaria nongoa den alde handia bait dago.
 - b) Bai, hizkuntzarena.
 - c) Bai, hizkuntzarena, euskalkien arazoa barne delarik.
 - d) Bai, hizkuntzarena, inork ez bait daki euskaraz.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Zer dio Kike Amonarrizek euskal umoreari buruz?**
 - a) Erdarazkoa baino naturalagoa dela.
 - b) Erdarazkoak adinako kalitaterik ez duela.
 - c) Gaztelarazkoak adina produkzio ez duela.
 - d) Erdarazkoak adina esparru lantzeko gaitasunik ez duela.

7. **Zer dio umore politikoaz dagoen hutsuneaz?**
- Inork ez duela esparru horretan aurrera egin.
 - Zatituegiak gaudela euskaldunok umore mota hori egiteko.
 - Politikoen aurrean ausardia falta dela.
 - Politikoen munduan sartzeko ausartegia izan behar dela.
8. **«La Trinca», Eugenio, Arévalo aipatzen dituenean, zer esan nahi du?**
- Horiek direla imitatu behar ditugunak.
 - Telebistan bakarrik egiten dutela umorea.
 - Telebistaren bidez ezagutzen dugun umorea eskasa dela.
 - Telebistaz jasotako umore erreferentzia dela nagusi.
9. **Zer dio umorea saltzeari buruz?**
- Bide bakarretik sartzen zaigula ia dena.
 - Telebistaren bidez saltzearen aldekoa dela.
 - Telebistan agertzen dena ez dela umorista.
 - Hemengoa saltzea zaila dela.
10. **Zerk markatzen du umore mota desberdina entzulegoaren arabera?**
- Euskararen jakite mailak.
 - Adinak bakarrik.
 - Kultur erreferentzia desberdinek.
 - Maila sozial desberdinek.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Egungo gizarteak zergatik aldatu ditu elikatzeko ohiturak?
- Kirol heziketaren garrantzia. Jolasa ala konpetizioa?
- Europak bere batasun kulturala eta nazio aniztasuna berreskuratu ditu.
- Ama ezkondu zait.

ESKUTITZA

Zure herriko enpresa batean ordu extra ugari egiten dela jakin duzu. Bestalde, zuk eginahalak egin arren, ezin duzu lanposturik eskuratu eta zure soldata beharrezkoa da etxerako. Idatz iezaiozu lantegi horretako nagusiari lanpostua eskatzeko, ezagutzen eta bizi duzun egoera azalduz.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Denek aitortzen dute aurrerako handia egin duela. Dena dela, ikusi egin behar.

_____ badute ere, _____

2. Emaizaren berri jakiteko zain egongo da jendea.

_____ jakin _____

3. Aurpegi berriak, landare gazteak behar ditu pelotak osasun onik izatekotan.

_____ badu.

4. Ebaki behar dituzten egurren erdiak Larretxeak eramango ditu, beste erdiak Olasagastik.

Larretxeak eta Olasagastik _____

5. Norberak ikusitakoaz askoz errazago eta trankilago hitzegiten da, bes-
teri entzundakoaz baino.

bezain _____

6. Huskeria bat nahikoa izaten da okerra gertatzeko.

_____ besterik _____

7. Presaka zirela eta lehenbailehen paperak sinatzeko esan zioten.

_____ sina _____

8. Izan ere, ezin eta toki egokiagoa da Tolosa jendea inguratzeko.

_____ ez dago _____

9. Baliteke ni zahartzen hasia egotea.

Litekeena _____

10. Ikaragarri aldatu da azken urteotan zinea, telebista eta bideoaren eto-
rrera dela eta.

_____ etorrerak _____

11. Errukia sentitu nuen gizona bere buruarekin hain haserre eta ernega-
tuta ikustean.

_____ erazi _____

12. Harriari 36 jasoaldi baino gehiagorik ematerik ez zuen izan.

_____ eman ahal _____

13. Garai batean bertso paperetan zegoen herri xehearen atsegina.

Herri xeheak _____

14. Berehala konturatu zen gizon harekin luzaroko tratua izan zezakeela
nahi bazuen.

_____ ...ez gero.

15. Euskaraz mintzatu zait eta euskaraz idatzi dit isunaren papera ertzain
batek.

_____ ezik _____

16. Nafarroako santutegirik maitatuena Xabierkoa izango da, noski!

- Ez da _____
17. Santos kupula formako kaiola batekin agertu zen Urte Zahar eguneko arratsalde hartan.

_____ zeneko _____
18. Santosentzat, mundura ateratzen zen egun bakarra izaten zen azokakoa.
Santos _____
19. Alkateak berak idatzi dit zorionak emateko!
Nork _____
20. Den-denak hemen ez dauden bitartean, inor ez da aterako.
Harik eta _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Aspaldiko kontuak dira.

Gerraurrekoak. Herri hau bi zatitan zatiagotu zuen gerra baino lehenagokoak, alegia.

Artean, mutil koxkorra nintzen **belaze** eta mendi artean. Mutil koxkorra eta ez oso **kozkortua** gainera, gerrako oroitzapenak **gandu** finean difuminatuak irudimenean gauzatzen zaizkidanerako. Loratu ez zen gerizondo japoniarra, lanparoez hil ziren **aziendak**, istripuak, soldaduak mandio eta goiko ganbaretan **barreiatuak**... Bahe horretan xehetuak markatu gaitu bititza gutirako.

Paradisu **gogor** baina irudimenezko baten **irrikiaren** gisara somatzen ditut baserriko **gomuta oparoak**. Koartila hauek, bulego batean zikindu izanagatik edo azken batean, giro hura aldatu izanak arazo honetan zerikusirik baduela deritzat, ez bait litzateke inolaz ere gauza bera izango gure anaia **nagusia** bezala, baserrian egunero hortzak botatzen geratu izan banintz. Horiek dira **oinordekoak** dituen **kalteak**.

Eta gazteena izatearen **hobariak**.

Beti izan nintzen listoena. Edo honela sinistarazi zidaten, bedaio.

Horretarako hezi ninduten, egia da. Zein gurasoak, zein anai-arrebak estudioak buka nitzan **ahalegindu** ziren. Eta ez era **makalean**. Hauei esker, inoiz eskertu diedan **legez**, naiz egun naizena, zerbait banaizela suposatzen badugu. Ausardia behar bait da horretarako ere.

Baina nolabaiteko autonomia lortzen duzunean, zure **eltzeari** zerorrek botatzen diozunean gatza, orduan hasten zara kontu zaharrak berritzen. Bere garaian **ohizkoak** iruditu zaizkizunak, orain mitikoak suertatzen zaizkizu.

Eta ez da nostalgia.

I. MUJIK A IRAOLA
Azukrea belazetan (1987)
Donostia, EREIN, 27-28 orr.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

ESKOLA DROGAREN AURREAN

1. *Egungo Egoera*

1.1. Eskola eta drogak

Eskolak, hezkuntz erakunde izanik, ez bide dirudi legezko eta legezkontrako drogen kontsumoak indibiduen etorkizuneko garapenean izan ditzakeen ondorio guztiei buruzko kontzientziarik duenik. Droga hori legezkontrakoa izateak eta eskola edifizio barruan kontsumitzeak bakarrik kezkatzen duela ematen du. Legezko drogek, berriz (alkoholak, tabakoak, botikek, etab.), ez dute batere artegatzen. Situazio kritikotarako, eskandaloa eskola murrutatik kanpora daitekeen kasuetarako alegia, bere eskueran dauka erremediorik efikazenetako bat: kanpora bidali. Gainerako kasuetan gertaturikoa ahalik eta gutxien barreiatzea izango da ardura nagusia.

Eskolari dagokion gaur egungo egoerari buruzko deskribapen hau gehiegizkoa izango da, agian, askorentzat. Baina goazen egitateetara. Zer egingen da, oro har, gure ikastetxeetan hitzaldi gutxi-asko sentsazionalista batzuez aparte? Ba al dago arazo horri buruzko hezkuntz politikarik?

Gertatzen dena da, bai legezko drogak eta bai legezkontrakoak problemak konponbide bezala eskaintzen zaizkigun kultura batean bizi garela, eta hori drogaren era desberdinetako kontsumora presionatzen ez gaituztenean, publizitatearen, talde-presioen, etab.en bidez. Gaurregun eskolara doan haur hau, droga horietakoren baten kontsumitzaile izango dugu luzarora gabe. Nork eskaintzen du substantzia horien gehiegizko kontsumo batean ez erortzeko hezkuntza egoki bat? Eta eskola, ez genuen ba esaten bizitzen irakasteko antolatua dagoela?

P. Deniker-ek diosku hitzetik hortzera eta gogoeta sakon batera gonbidatuz:

«Gazte batek bere burua drogatzen baldin badu, berori bost, hamar edo hamabost urte lehenago eman zaion hezkuntzaz interesatu beharra daukagu.»

Eguneroko gertakariak, bestalde, gero eta gehiago presionatzen dute. Egunean baino egunean gehiago dira legezkontrako drogak kontsumitu eta legezkoak abusatzen duten ikasleak, substantzia horiek kontsumitzen hasten direneko adinak gero eta txikiagoak diren bitartean.

Zerbait grabea gertatzen ari da gure hezkuntz erakundeetan, hauek beren marfilezko dorrean itxita eta eguneroko problema errealeatik urrun bizi nahi dutenean. Zertarako balio dezakete irakurketak, matematikak etab.ek, baldin gero droga izeneko edozein substantziak indibiduoaren garapena batean inausita utziko badu?

Soberan daude hemen jadanik ezagunak zaizkigun justifikazio guztiak: ez gaudela prestatuak, behar bezalako hezkuntz baliabiderik gabe aurkitzen garela, arazoa ez dagoela eskolan, errua gizartearena dela, hezkuntza gurasoei dagokiela...

Nahi adina justifikazio erants dakizkieke horiei; baina merkeegiak dira. Hemen gertatzen dena da, drogak, legezkoak eta legezkontrakoak, egunean baino egunean eskuragarriagoak zaizkigula. Baita gure eskoletara doazen haurrei ere. Eta nork babestuko ditu gisa horretako egoera baten aurrean? Nork balia eraziko die hastapenetatik bertatik bizitza sano bat egiteko duten eskubidea? Nork irakatsiko die horrenbesteko eskaintzaren aurrean muzin egin eta aurrera jarraitzen?

Egia da, drogak, jendeak ezertarako behar ez dituenean amaituko direla. W. Burroughs-ek, alor honetan esperientzia pertsonal handiko gizona izaki, zera diosku era ezin adierazkorrago batean:

«Baldin eta drogaren piramidea erasteko prest bagaude, piramide horren oinarritik beretik hasi behar dugu: kaleko drogazalearengandik, eta utzi alde batera «goikoak» direlako horien kontrako erasoak, zeren horiek ere berehalaxe ordezkariak baitaitezke. Eguneroko droga behar duen kaleko zale hori da drogaren ekuazioan inola ere ordezkari ezin daitezkeen faktore bakarra. Droga eros dezakeen drogazalerik ez dagoenean, orduan ez da egongo trafikorik ere. Baina drogaren beharrik den bitartean, beti egongo da eskura diezagukeenen bat.»

Eta horixe da eskolari dagokion egitekoa. Nekez ihardun dezake eskaintzaren kontra. Bai ordea eskeari buruz, eman dezakeen hezkuntzaren bitartez.

A. VEGA FUENTE

«Eskola drogaren aurrean»

JAKIN, 31 zkia. 1984eko apirila-ekaina, 62-64 orr.

1. **Zertaz ez bide dirudi eskolak kontzientziarik duenik?**
 - a) Drogen kontsumoaren etorkizunaz.
 - b) Indibiduen etorkizuneko garapenez.
 - c) Drogen kontsumoak indibiduen etorkizuneko garapenean izan dezakeen eraginaz.
 - d) Drogen kontsumoak etorkizunean izango duen garapenez.

2. **Zerk sortzen dio kezka eskolari?**
 - a) Drogak, legezkoa edo legezkontrakoa den begiratu gabe.
 - b) Legezko drogak.
 - c) Droga eskolan ahalik eta gutxien barreiatzeak.
 - d) Drogak eskolan sor dezakeen eskandaloak.

3. **Zein da drogaren inguruko funtsezko arazoa?**
 - a) Hitzaldi gutxi eta sentsazionalistak eman izana.
 - b) Drogari buruzko hezkuntz politikarik ez izatea.
 - c) Droga arazo-konpontzaile duen kultura batean bizitzea.
 - d) Publizitatearen eragina.

4. **Droga kontsumoari aurre egiteko...**
 - a) gizarteak izan behar du protagonista.
 - b) publizitatea eta beste faktore batzuen eragina aintzat hartu behar da.
 - c) kontsumo gizartean eskolak ez du zereginik.
 - d) hezkuntzak izan behar du abiapuntua.

5. **Eguneroko gertakariak zer adierazten dute?**
 - a) Kezka areagotu egiten dela.
 - b) Lasaiago ibil daitekeela.
 - c) Legezko drogez abusatzen duten ikasleen kopurua gero eta txikiagoa dela.
 - d) Lehen orain baino gehiago kontsumitzen zirela legezkontrako drogak.

6. **Zer da gure hezkuntz erakundeetan gertatzen ari dena?**
 - a) Drogaren eraginaren berri ez izaten segitu nahi dutela.
 - b) Ikasketa guztiak indibiduoari alferrikakoak zaizkiola drogak menderatzen duenean konturatzen hasiak direla.
 - c) Arazoa eskolan ere badagoela konturatzen hasiak direla.
 - d) Ahal duten neurrian beren ardura ere badela drogaren inguruko heziketa.

7. **Idazlearen eritziz, zelako jarrera du hezkuntz sistemak?**
 - a) Beren inguruko errealitateaz jabetu nahi ez izatearena.
 - b) Irakurketa, matematika eta abarren bidez, drogaren kontrako babesa eskaintzearena.
 - c) Hastapenetik bertatik bizitza sano baterako eskubidea.

- d) Horrenbesteko eskaintzari muzin eginda, aurrera jarraitzearena.
8. **Zer egin behar da W. Burroughs-en ustez drogaren piramidea erasteko?**
- a) Kaleko drogazalea alde batera utzi eta «goikoa»ri eraso.
 - b) «Goikoa» utzita, kaleko drogazalearengandik hasi.
 - c) «Goiko»en ordezkariari eraso.
 - d) Kaleko drogazaleari bezalaxe, «goikoa»ri ere eraso.
9. **Zergatik da lehenago Burroughs-entzat droga zalea droga eskuratzaillea baino?**
- a) Droga zaleak berehalaxe ordezkari daitezkeelako.
 - b) Droga eskuratzailleak ezin ordezkari daitezkeelako.
 - c) Droga zaleak ezin ordezkari daitezkeelako.
 - d) Droga trafikoa beti egongo delako.
10. **Zein da eskolari dagokion egitekoa?**
- a) Droga trafikoa kontra egitea.
 - b) Droga eskaintzari kontra egitea.
 - c) Ezin dezake ezer egin.
 - d) Droga eskean eragitea.

2.2.6. 1990/11/10

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zein zen orain gutxi arte elizgizonen lana espetxeetan?**
 - a) Kapelauaren eta presoan arteko lotura estutzea.
 - b) Kapelauak espetxe barnean egiten zuena.
 - c) Egunero meza ematea soilik.
 - d) Egin daitekeen guztia egiten zen.

2. **Presoaren arazo nagusienetakoa hauxe zen:**
 - a) apaizarekin harreman normala ezin mantendu izatea.
 - b) bere herriko apaizarekin harremanik ez izatea.
 - c) bere herriarekin harremanak etenak geratzea.
 - d) herrikoek presoarekin harremanik nahi ez izatea.

3. **Nola hurbiltzen dira presoarengana?**
 - a) Piskanaka elizara eta sinesmenera hurbiltzen laguntzeko asmoz.
 - b) Ezer egiteko esperantza handirik gabe.
 - c) Pertsona baztertuari laguntza emateko asmoz.
 - d) Pertsona zapuztuari bide zuzena erakusteko asmoz.

4. **Dirua ala giza-laguntza ematen zaie?**
 - a) Batik bat bigarrena.
 - b) Urrutikoei dirua, besteei laguntza morala.
 - c) Dirua ETako sakabanatuek soilik eskatzen dute.
 - d) Biak, baina gaur egun dirua da behar nagusia.

5. **Gotzaitegiaren lanaren eragina(k)...**
 - a) arduradunen jarrera aldatzera baino ez da iristen.
 - b) auzitegiraino iritsi eta han galdu egiten da.
 - c) arduradunengana eta auzitegiraino iristen da.
 - d) kasu gehienetan presoaren irteera azkartzeraino iristen da.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Zer adierazten digu Zestoako plazaren sorrerak?**
 - a) Zezenketa izan zuela helburu bakartzat.
 - b) Eginkizun zehatzetarako ez zela sortu.
 - c) Zezenketa zuela helburu nagusitzat.
 - d) Toreatzeko aproposagoa zela beste eginkizunetarako baino.

7. **Zer dio 1712ko agiri batek?**
- Hondarrez estali zutela betirako plaza.
 - Hondartzatik harea ekartzeari ekin zitzaiola.
 - Urte horretan hasi zirela korridak.
 - Hondarra botatzea zenbat kostatu zen.
8. **1733ko istiluan alkateak...**
- amaiera eman zion iskanbilari.
 - goardak bidaliz itzaiak espetxeratu zituen.
 - goardak espetxeratu egin zituen.
 - Lili-ko anderea auzitara eraman zuen.
9. **Zenbat zezen biltzen zituen Udalak XVIII. mendean jaietarako?**
- Herriko maizter guztiek ekarritako bana.
 - Hiru.
 - Sei.
 - Ezin da kopururik jakin.
10. **Zein zen artikuluan aipatzen diren maizterren egitekoa?**
- Zezenak eramatea eta elurra lortzea.
 - Zezenak ekartzea eta freskagarriak egitea.
 - Izarraitz mendian zezenak haztea.
 - Jaietarako zezen bana haztea, soilik.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- «Herri honetan sor daitekeen komunikazio bakarra edanaren inguruan sortzen da. Lagun-taldea elkartu eta taberna eta «pub»etan etengabeko jira eta buelta».

Honako hauek 20 urteko gazte baten adierazpenak dira, euskal irrati batean eginikoak.

- Politikaz geroz eta gutxiago hitz egiten da gure artean.
- Lehen aldiz maitemindu zara.
- Hona hemen gure herriko egunkari batean agerturiko iragarki bat:

«Neska bat telebistako aurkezle lanetarako

- 18 eta 25 urte tartean bazaude
- Oso itxura onekoa eta estiloduna bazara
- Zure agerpenak mirespena sortzen badu
- ... Telebistako aurkezle izan zaitezke»

ESKUTITZA

Bizikletan ibiltzeko zaletasuna duzu eta «Kurpil» elkarteko partaidea zara. Gure herriko errepideetan arriskua areagotu egin da zuentzat, azkenaldian gertaturiko istripuek erakusten duten bezala.

Idatz iezaiozu taldearen izenean Ertzaintzaren trafiko arduradunari zuen kezka, protestak eta hartu beharreko neurriak adieraziz.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Gure herriko plazetan ez da inor agertzen gizon hori bezain trebea denik.

_____ adinako _____

2. Nola herriko jaietan, hala edozein ospakizunetan, ez da bake handirik izaten gure auzo honetan.

_____ ...la _____...la

3. Ingeles apur bat ikasi. Hori da uda honetarako dudan asmo bakarra.
_____ ez dut.
4. Ez ditugu horrelako kontu gutxi entzun gure bizitzan.
Hamaika _____ gaude _____
5. Aholku hauek zuei Indiarako bidaiari lagungarri gertatzeko ematen dizkizuet.
_____ gerta _____
6. Komunikabide, egoitza eta zerbitzu aldetik ongi hornituak daude lekuok eta euskal giroa ere izaten da bertan.
_____ gain _____
7. Goizeko ordu txikietan ez zen bere arrastorik etxean; horrek sortu zituen gudan kezka eta ezinegona.
_____ ...k
8. Zaldunari ez zitzaion batere gustatu Faustok filosofokeria haietan ihardutea.
_____ gogoko _____
9. Mikaelak ez zuen begirik bildu semea oheratu bitartean.
Harik _____ loak _____
10. Neurrigabe gorrotatzen zenituzten udako belar ontze eta biltzeak.
_____ ...ari.
11. Pertsonaren zorigaitzik handiena, mundu honetan bizi eta nork bere burua ez ezagutzea da.
Ez dago _____
12. Berrito itxura zatar harekin agertuz gero, ez nioke aurpegi gozoa jarriko!
A zer _____
13. Tamainako arazoekin zaila zen bilera bakar batean denok ados jartzea.
_____ ez zen _____
_____ bat _____

14. Gizartea gero eta gehiago ari da josten lehiaketaz eta sariketaz, beraz, derrigor izan behar gero eta irabazle eta galtzaile gehiago.

_____ bait _____

15. Hunkigarria da laborariaren zeregin astuna; are hunkigarriagoa da marinelen trebezia ozeano handian bere untzi ñimiñoan.

_____ baino _____

16. Bere portaeratik ez zitekeen atarramendu onik espero. Horretan nengoen ni behintzat!

Banengoen _____!

17. Istorio zaharrak jakin nahi baditugu inguruko baserrietako aiton-amo-
nei galdetzea nahikoa dugu.

_____ ...z gero
ez daukagu _____

18. Kamara hartu eta han bota zigun zubitik ibaiaren erdira. Nahigabe handia gurea!

Hura _____

19. Seme zaharrena soldadutzatik etorri zenean, ez zen berehalakoan lan-
tegi batean sartu.

_____ kostatu _____

20. Ez da elizkoia baina, halere, Santa Zezilia eguna poz handiz ospatzen
du; horrelakoa da gure Zezilio.

_____ ba... _____
_____ ...etakoa _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Gaueko orenak iragan ziren eta, egunsentian letrak lotan zeuden pergamuan eta bere burua loak hartua gainean.

Poetak, esnatu zelarik, hotza senditu zuen. Salarantz soegin eta, lara-
tzeko sua itzalirik zegoen. Kadiratik altxatuaz salan barrena neskamearen
logelara abiatu zen. Atea emeki bultzatu, sartzean atzera zarratu eta ohera

inguratu zen. Ohe ertzean eserita, poetak manten gainera besarkatu zuen Joanaren gorputza. Neskamea, iratzartzeaz batera, ohearen bestalderantz apartatu zen, besoa luzatuaz aulki gainera saia hartu eta mantez desestali orduko jantzi zen, gero ezer esan gabe salara aldegitako.

Poetak besoak maindire endredatu artera sartu zituen eta bere esku zuri izoztuak hantxe eduki zituen luzaroan epeltasun arrastoak profita-tzeko.

Oraindik udazkena zen, baina elurra emaro egin zuen bezperan eta gau osoan zehar, taigabe eroria zen, izugarri leun, dena jeltatuaz, dena zuri-tuaz, teiltatu eta zuhaitz gainak zama astunez kargatuaz.

Poeta neskamearen logelatik irtenda, salako ate tipitik, elizarantz abia-tu zen. Irteeran sagarrondo adar bat azantzez eta hauts zuriz erortzen ikusi zuen. Arbolara hurbildu eta egurra usteldurik zuela ohartu zen.

Elizako erdi ilunetan bilgor kandela batzu izeki zituen. Sulamaren arauera horma urdina mugituaz bezala hasi zen, eta saindu irudiak silueta dezifraezinez higitzen ziren, lekuari giro arras irrealak emanaz. Horman, egu-nero behatzen zuen koadroa zegoen, haur ilegorria harririk harri erreka go-torra iragan nahian eta aingeru zuria bere gainean zain ilunabar ekaiztsuan. la entzun ere egin zezakeen eliza galeria isilean ekaitzaren burrunba, uraren orroa, aingeru zuriaren hegal hotsa.

Bat-batean, koadroko haur ilegorriak beraganantz itzuli zituen begiak, harririk harri salto egin, aingeruaren azpitik apartatu eta koadrotik jaitsi zen, ortozik, elizako harlausa hotzetara. Eta poetak artega senditu zuen bere gorputz osoa eliza hutsaren erdi erdian, haur argitsuak bere inguruan bira ematen zuelarik. Eta aingeruak koadrotik zerbait ulertezina esan zuen. Eta haurra koadrori igan zen berriro, zeharkatu nahi zuen erreka zaileko arroke-tara.

J. SARRIONAINDIA
Ipar aldeko orduak
Elkar. Donostia 1990, 21-22 orr.
(moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Hizkuntza batzuk beren eitez bikain eta beste batzuk ezgauza direla, batzuk goi-mailatakoak eta beste batzuk zarpail eta beren baitatik, hau da, berenez desegokiak: horra beste esamesa edo irudipen bat bazterretan arras zabaldua egon dena eta euskararen auzi honi ukitu izan diona. Zenbaiten us-tez, sailkapenaren aurrenengo sailean legoke euskara, beste batzuen aburuz bigarrean. Baina ez bat eta ez beste. Bitaratze honek ez du oinarri sendo-

rik, ez da zuzena. Joan mendeetako euskal apologistek (Larramendi, Erro, Astarloa eta beste) mila bikaintasun eta dohain ikusten zuten euskarari, inguruko beste hizkuntzak akasdu, ezgauza, ezerez, eta zarpailtzat jotzen zituzten bitartean; baina berek tresnatzat zarpail horiek hartzen zituzten. Eta jokabide honek gaur artio dirau.

Barkakizun zen, neurri batean, euskaldunak, beren hizkuntzaz zaletzeko, hizkuntza honen abantailak agerian jarri nahi izatea, baina lelo honekin urrunegi joaterik ez dago. Gainera, alienazio bati zabaltzen zaio atea, hots, euskara kontenplazio-objeto huts soilak bihurtzen da eta, tresna izateko, us-tez zarpail diren horiek hartzen dira. Azken finean gorespenekin euskaldunen burua tontotu eta bitartean gazta bestek kentzen digu.

Gero, erreakzioz edo, etorri ziren beste aldera jo zutenak, hala nola, Unamuno. Honek ere, Jespersen-i jarraikiz, dirudienek hizkuntza batzuk bikaintzat jotzen ditu —indoeuropar familiakoak, noski—. Beste batzuk, berriz, ezteus eta desegokitzat, eta hauen artean sartzen du euskara. Hizkuntza traketak eta marketak hauek halako ahulezia bat ezin sendatuzkoa izango lukete, eta zer egingo zaio!, horrek ez du erremediorik. Ez dute balio, ez dira gauza, eta kito.

Baina punta bateko apologistak oker bazeuden, berdin daude oker beste puntako mendratzaile hauek ere.

Ezin esan daiteke, beraz, hizkuntza batzuk berenez edo beren eitez bikain eta handi-kastako direla eta beste batzuk ezteus eta desegokiak. Tresnak diren aldetik, denak dira berdin. Honako hau, ordea, bai, egia da: inguruko baldintzapenez baldintzaturik egon direlako, moztasun edo atzerapen batekin aurkitzen direla batzuk besteen aldean, eta hori da euskarari gertatu zaiona; baina behar diren gaurkotze edo egokitzeak egin ditzakeela, ez da dudarik (berriz ere hartako baldintzak izatekotan).

Hizkuntza handiak eta hizkuntza ttipiak: horra, azkenik, beste sailkapen bat. Hau, bai, kontutan hartzekoa da oso. Hizkuntza handia eta ttipia diogunean, ez dugu sailkapen hau egiten hizkuntzaren bere baitako bikaintasunari begiratuz. Hizkuntza handiak dira mintzatzaileen kopuruagatik (edo inguratzen duten lurraldeagatik) handi direnak, hala nola txinar hizkuntza, ingelesa, espainola etab.; eta baita, mintzatzaileen kopurua oso handia ez izanarren, kultura aberats baten adierazkailu izan direnak eta bai hitz altxor joria dutenak ere.

Hizkuntza ttipia da, aldiz, gizatalde urri edo ttipi batek erabiltzen duena eta kultur tresna bezala ere, halako ekoizpen edo emaitza handirik eman ez duena.

Azken sailkapen hau, bai, kontutan hartzekoa da. Begien bistan da hizkuntzen egoera mundu honetan, guk nahi ez nahi, handi/ttipi horretatik neurtzen dela. Gauza jakina da eta egunero ikusten dena, hizkuntza ttipien mintzatzaileak hizkuntza handi-zabal horietako bat ikasi beharrean egoten direla; hizkuntza handi baten jabe direnek, aldiz, ez dute hizkuntza ttipien beharrik somatzen. Horregatik, hizkuntza zabal baten mintzatzaileak elebakar

edo monolingue izan ohi dira, hizkuntza ttipietakoak, aldiz, bilingue, hots, elebidun. (Horrek, ordea, badu bere alde ona ere: elebidunak, dirudenez, errazago ikasten bait ditu hizkuntza berriak).

Hizkuntzak, ordea, bizi ahal izateko, noraezeko du giza komunitate bat, gizatalde bat, tresna hori erabil dezantzat. Giza komunitatea da hizkuntzaren sostengu, oinarri eta hazleku. Hori ez duen hizkuntza, hila da. Komunitate jakin batean txertaturik egon ohi da gizona, eta komunitate honetatik hartu ohi du hizkuntza, eta komunitatean eta komunitatearen bidez helerazten zaio hurrengo gizaldiari. Besteri helerazte-lanak huts egiten badu, orduan etena gertatzen da eta hizkuntza hura ez da gehiago hizkuntza bizia, hizkuntza hila baizik.

Beraz, ezinbesteko edo ezin utzizko da hizkuntzaren jabe edo erabil-tzaile den gizatalde bat egon dadin, nahiz handia, nahiz ttipia, baina gizatalde trinko eta iraunkor bat. Hori gabe ez dago hizkuntzarik. Eta gizatalde horrek beharko du bere mintzaira hori atxikitzeko nahia izan (nahia, ez nahikundea xoilki).

AITA L. VILLASANTE
Euskararen auziaz
13-27 orr. (moldaturik)

1. **Euskara sailkatu nahi izatekotan, Villasanteren ustez...**

- a) izen handikoa izan den sailkapen bikoitzean ez dago euskara sartzetik.
- b) beren eitez bikainak direnen artean sartu beharko genuke.
- c) oinarri sendorik ez dutenen artean legoke.
- d) euskal apologisten jokabideari eutsi beharko genioke.

2. **Lehenengo euskal apologistek...**

- a) euskara erabiltzen zuten, gainerako hizkuntzak zarpailtzat jotzen bait zituzten.
- b) euskara goraipatu arren, erdarak erabili ohi zituzten.
- c) erdara mintzabide eta tresna bezala hartzen zuten, hizkuntza honetan hainbat dohain ikusten bait zuten.
- d) euskarari bide berriak zabalduaz, erdaraz egiteari uko egiten zioten.

3. **Gaur egun, apologisten jokabide hori...**

- a) bertan behera gelditu da.
- b) akasdun eta zarpailtzat jotzen da.
- c) erabat baztertuta geratu da.
- d) indarrean dago.

4. **«... bitartean gazta bestek kentzen digute» esaldiarekin, zer esan nahi du Villasantek?**

- a) Hizkuntz ordezkatzeari zabaltzen zaiola atea.
- b) Ingurukoek gure hizkuntzaz jabetu nahi dutela.

- c) Alegiek eta ipuinek irakaspen ederrak eskaintzen dizkigutela oraindik.
 - d) Gainerako hizkuntzetako hiztunek egindako gorespen eta laudorioak euskararen kalterako izaten direla beti.
5. **Egon ziren erreakzioen artean, Unamunok...**
- a) esaten zuen euskara bezalako hizkuntzak ez direla egokiak gaur egungo beharretarako.
 - b) indoeuropar familietako hizkuntzen artean sartzen du euskara.
 - c) euskara eta indoeuropar sustraietako hizkuntzen arteko sailkapenak ez zuela balio zioen.
 - d) Jespersen izan zuen sailkapen honen jarraitzaile.
6. **Zer da egia Villasanterentzat?**
- a) Komunikaziorako den aldetik ez dagoela euskara egokitu beharrik.
 - b) Beren barne-ezaugarriak direla eta, hizkuntza batzuk atzeratuta geratu direla.
 - c) Euskararen modernotzeak gutxiagotasunetik ateratzea bidera dezakeela.
 - d) Inguruko baldintzengatik, aldea dagoela euskara eta ondoko hizkuntzen artean.
7. **Zertan oinarritzen da <hizkuntza handiak/hizkuntza ttipiak> sailkapena?**
- a) Kopuru zein nolakotasunean.
 - b) Hitztunen kopuruan soilik.
 - c) Sortutako kultur emaitzetan.
 - d) Hizkuntzen beraien bikaintasunean.
8. **Egin izan diren sailkapenen artean, zeini lotzen zaio Villasante?**
- a) Goi-mailako hizkuntzak/behe-mailakoak.
 - b) Hizkuntza handiak/ttipiak.
 - c) Indoeuropar hizkuntzak/gainerakoak.
 - d) Gizataldedun hizkuntzak/gizataldegabeak.
9. **Testuaren arabera...**
- a) hizkuntza ttipien hiztunek elebakartasunerako joera agertzen dute.
 - b) hizkuntza ttipien hiztunak hizkuntza berriak ikasten traketsak izaten dira.
 - c) hizkuntza handi/ttipi baten hiztun izateak badu zer ikusirik besteren bat ikasi beharrekin.
 - d) hizkuntza ttipien hiztunek beren jatorrizko hizkuntza mintzatzeari utzi eta hizkuntza handiak egiteari ekin ohi diote.
10. **Hizkuntza batek bizirik iraun dezan...**
- a) nahiko du gizatalde bat egotearekin.
 - b) ez da belaunaldien arteko hausketarik sarri izan behar.
 - c) behar-beharrezko ditu hazlekua eta oinarri sendoak.
 - d) ezinbesteko du hizkuntzari eusten dion gizataldea.

2.2.7. 1990/11/17

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **San Inaziok euskaraz egiten al zuen?**
 - a) Bai, azpeitiar guztien ama-hizkuntza euskara da eta.
 - b) Badirudi ezetz, beti erdaraz idatzi zuelako.
 - c) Elkarrizketatua seguru dago baietz, froga zehatzik eman ez arren.
 - d) Ez, bera bezalako jauntxoek ez zuten euskaraz egiten.
2. **Loiolak eta Xabierrek nolako harremanak zituzten?**
 - a) Familiaren eraginez, elkarren etsaiak ziren.
 - b) Loiolatarrak Azpilikueta tarren aurka borrokatu ziren nafarren alde.
 - c) Xabierren semerik gazteenak gidari izpiritualtzat hartu zuen Inazio.
 - d) Adiskideak ziren, beren familiak etsaiak izan arren.
3. **Zer gertatu zen jesuiten eta Aita Santuaren artean?**
 - a) Aita Santuak deuseztatu behar izan zuela jesuiten lagundia.
 - b) Aita Santuak deuseztatu nahi izan zuela jesuiten lagundia.
 - c) Aita Santuak deuseztatu zuen lagundia, haren doktrinarekiko fidel-tasun ezagatik.
 - d) Elkarren aurkakoak ziren, eta krisialdiak izan zituztela beti.
4. **Gogojardunei esker...**
 - a) San Inazio kristautasunera bihurtu zen.
 - b) jarraitzaile ugari izan zituen San Inaziok.
 - c) Loiolatarrak famatuak dira gaur egun.
 - d) jesuitek Puerto Ricon izan zuten arrakastarik gehiena.
5. **Nolako harremanak dituzte jesuitek gizartearekin?**
 - a) Gizarteko maila guztietakoekin lan egiten dute.
 - b) Gizarteari dagokionez, oso eritzi kontrajarriak dituzte.
 - c) Iberoamerikan bakarrik indioekin eta Unibertsitatearekin dauzkate harremanak.
 - d) Gizarteko mailen arteko aldeak Unibertsitatearen bidez ezabatu nahi dituzte.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Zer dio elkarrizketatuak jesuiten eta irakaskuntzaren arteko loturaz?**
 - a) Jesuitak oso elitistak direla.
 - b) Belgikan eta EEBBetan jesuitek kobratu egiten dutela irakasteagatik.

- c) Dirudunentzat bakarrik ez diren eskolak ere badituztela munduan.
- d) Mirari bat dela jesuitek pobreentzako eskolak ere izatea.

7. Elkarrizketatuaren ustez, San Inazio gaur biziko balitz...

- a) erantzuna emango lioke goseari eta beste hainbat beharri.
- b) gogojardunen esperientzia sakon batetik pasako litzateke.
- c) bere garaiko izpiritu berari jarraituko lioke.
- d) Askapenaren Teologia ez luke begi onez ikusiko.

8. Zer dio San Inazio eta askatasunari buruz?

- a) San Inazio Aita Santuaren morroia izan arren, gizon askea zela.
- b) San Inaziok bere askatasun osoa eskaini ziola Aita Santuari.
- c) Gogojardunen bidez askatasuna berreskuratu nahi izan zuela.
- d) San Inaziok askatasuna eman nahi izan ziola gizakiari.

9. Zer pentsatzen du San Inazioaren mendeurrenaz?

- a) Jainkoari esker, «Loiola 91» baino garrantzitsuagoa izango dela.
- b) Oso eragingarria izango dela.
- c) Folklorean eta suzirietan geratuko dela dena.
- d) Haren bidez, euskaldunek sekulako eragina izango dutela munduan.

10. Zer dio San Inaziori buruz?

- a) Euskaldunok ez dakigula zeinen pertsonaia unibertsala den.
- b) Bere izena euskaldunen artean baino entzunagoa dela kanpoan.
- c) Euskaldunon ondarea dela, zalantzarik gabe.
- d) Mendeurrenak ez duela San Inazioaren aztarna sakonarekin zerikusirik.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Hirugarren milurtean mundu arabiarra mendebaldarren jaun eta jabe?
2. Tabako erretzaileak eta ekologia.
3. Txakurra eta katua nola, gazte bikotea hala: batak mendia nahi, besteak hondartza.
4. Nor euskaldunago: baserriko elebakarra ala kaleko euskaldun elebiduna?

ESKUTITZA

EGA azterketarako lekura hurbildu diren bi azterketari gaztelaniaz mintzo direlarik, aztertzaile batek zera aurpegiratu die: «EGA azterketara etorri, eta gaztelaniaz mintzo?»

Etixeratzean, delako aztertzaileari eskutitza idaztea pentsatu duzu; zeure eritzia arrazoituz, adieraz iezaiozu zeure ikuspuntua.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. «Zer dela eta begiratu behar dut alderdi txarretik nire etorkizuna?»

«Ba ote dut _____
_____?»

2. Hurrengo goizean, bere poza ezin gorderik, joan zen mendira Jose.

_____ ...larik _____

3. Ana Joxepak ez zeukan aitonari ezer aitortzeko gaitasunik.

_____ aitor _____

4. Maitasunak, bere agerraldirako, egun, ordu eta garaia dauzka.

_____ agertzen da.

5. Abenduan Aralar gaina zuri. Hala zuen burua Joanesek.
 _____ bezain _____
6. Dena zegoen zuri, etxe aurreko osintxoak bakarrik ikusten zen ilun eta itsusi.
 _____ ez zen ikusten

7. Gogoa bazuen. Kemena ere hala izan balu, laster helduko zen lagunengana.
 _____ adina _____

8. Arima ez zuen behin ere hain argi, bizi eta azkarra izan.
 _____ baino _____
9. Lazkaotarrak dira Murgia, Igartza eta Oinatz-Loiolako ahaide nagusien buru, ezkontzak bitarteko.
 _____ direla _____
10. Joanesen bihotzari Jesusen irudia maitagarri azaltzen zaio.
 Zein _____
11. Azkarragokoak nola zeuden bazekien: hondatuta eta bazterrak erabiltzeko nahikoa indarrak ez etxean.
 Bazekien _____

12. Oso atzeratuta daude, eta hango gizonek ez dute honelako gauzarik egundaino ikasi.
 _____ bait _____
13. Eguneroko bizitzan ezin dut nahi dudana egin.
 _____ biderik ematen.
14. Ez gara inoiz gaur bezala ibili kutsadurari ataka jartzen.
 _____ ez bezala _____
15. Aristoteles grekoz mintzatu beharrean dakoteraz mintzatu izan balitz, bere kategoriak erabat bestelakoak izango ziren.
 _____ ordeztu _____ hitzegin

16. Ekologiak, momentu honetan, instituzioak behar ditu. Baita instituzio ez direnak ere.
- _____ zein _____
17. Bai, aukeran dago lan hori zeinek egin.
- _____ jendea _____
_____ egiteko.
18. Komunikabideetan indarririk hartzen ez badu galdu egin daiteke hika bi belaunalditan.
- _____
- baliteke _____
19. Alavesak aurrera ala atzera egin duen niri galdetuz gero, aurrera doala esango nuke.
- Inork galdetuko _____
20. «Egunkaria» agertu zen. Hau aldaketa izugarria izan zen.
- «Egunkaria»ren _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Ipui bat bost minututan **izkribatzeko** beharrezkoa zaizu, hain zuzeneko luma tradizionala eta paper zuria ez ezik, hareazko erloju **nimino** bat ere, zeinak **iragan** denboraren berri ematen dizunarekin batera, bizitzaren eta **ondorioz** zeure aktibitate horren berberaren alfertasuna ere irakatsiko dizun, eta **uneoro** salatuko. Ez **jezarri**, gero, oraingo horma monotono eta monokolore horietako bati begira, zure begirada gal dadila leihotik harantz **hedatzen** den ikusmira zabal horretan non kaio eta marloiak, eta zenbait txori ez-deusago ere, bere **bozkarioaren** geometria dibujatuz doazen. Komeni zaizu, **derrigorrezkoa** ez izan arren, edozein musika entzuten egotea. Gauzak horrela, jira ezazu zure barne teleskopa zeure gorputzaren baitara, eta **galde** egiozu ea gogo onez dagoen, egarri ala goserik duenentz, egarri-gose ala bestelako **larritasun** motarik; erantzuna baiezkoa bada, hazkura orokor bat sentitzen baduzu edo, ez zaitzelara horregatik etsipenean eror, harritzekoa bait litzateke lehen saioan, ahalegin lehenean, lana bideratu ahal izatea. Kontuan izan nola **oraindik** minutu erdia ere bete ez den, altxa eta joan sukalderraino, lasai ibili, ez da aparteko ezer **gertatzen** ari. Sukaldean ontzi bete ur edan ondoren —eta lepagaina ur berberaz igurtziz gero, are eta hobeago— bisita ezazu komuna mahaian berreseri aurretik.

Hor daude marloiak, hor daude eliztxoriak, eta hor baitere —ezkerretara daukazun apalean— hiztegi **lodi** bat. Har ezazu kontu handiz, elektrizidadea balu bezala. Izkriba ezazu orrialdean **hurrengo** esaldi hau: «Ipuin bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu». **Jadanik** egina daukazu hasiera, bi minutu doi bete dira eta lehen esaldi hori ez ezik, ezkerretako eskuan duzun hiztegi horren mamitan dago falta zaizun guztia, **zinez** esaten dizut milaka hitz horien ahalmena infinitoa dela.

Jarrai egiozu orain zure **senari** eta imajina ezazu zu zeu Golem berbera zarela, letraz eginiko gizon ala emakume bat. Zu zeu osatzen zaituzten letra horiek **aurki** dezatela —sinpatiaz lehertzen diren dinamita kartutxoak bezala— bere letrakidea hiztegiaren artean. Dagoeneko beste hainbat segundu pasa dira, baina oraindik ez duzu **xahutu** zenuen denboraren erdia ere.

B. ATXAGA
Ipuin bat bost minututan izkribatzeko,
OBABAKOAK (moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

TERMINOLOGIAREN BEREGAINTRASUN APALA; HIZKUNTZ GAITASUNAREN NAGUSITASUNA

Terminologi erizpideei gaineratzen dizkiegun hutsegite edo gabezia asko eta asko ez dira berez terminologi arazo: hiztunen mintzagaitasun ahul, erasan eta kaskarra da halakoetan, neurririk handienez, benetako arazo-iturria. Terminologi aldetik gaizki dabiren askotxo ez dabil askoz hobeto euskaraz txiste bat kontatzeko, Txomin Agirreren Garoa halako freskotasan batez jendeaurrean irakurtzeko edo neskalagunari bere golkoan gorderik dauzkan sentieraprintzak emozioz azaldu edota maiteminezko giharrez idazteko. Horri gehien falta zaiona ez da «cambio de sentido», «producto interior bruto», «educación física» edo «pliego de condiciones técnicas» euskaraz nola esan behar den ikastea, hori baino askozaz oinarritzeko, xume eta orohartzaileagoa den hitz-etorria, funtsezko adierazmena eta, hitz gutxitan esanik, hizkuntz gaitasuna baizik. Hizkuntz gaitasunaren ezinbesteko «listoi» hori gaitasun dutez on da terminologi mailan egin nahi izan dezagun lan guztia: mesede egingo die eta euskara, ahoz zein izkribuz, funtzio-esparru berrietara zabaltzeko are ezinbesteko lagungarria ere gertatuko zaie hainbatean. Beti izan naiz horren aldeko —hitzez eta egitez— eta lehengo lepotik dut orain ere burua. Ez genuke zuzen jokatu, ordea, terminologiaren mordoileria askoren egile arruntak nagusiki zein hankatatik kojo egiten duen ikustera iritsiko ez bagina. Egunik egun Administrazioan euskaraz ari garenok begien aurreanegi dugu errealitate latz hori berorren ezikusian jarduteko.

Metaforaz baliatzerik banu zera esango nuke, hiztun eder bat udaberriko zuhaitz pertxentarekin konparatuz eta administrazio-terminoak zuhaitz

horren maiatz-ekainetako orri berde-bizi zabaldu berriekin parekatuz: «hiztun motelaren gaitzak» jotako zuhaitzaren hosto-gaitza ez dagoela nagusiki ez bere hosto marguletan, eta ez jakintza-ezaguerazko adar «teknikoen» faltan ere, zuhaitzaren enborrean baizik; lurrean ongi sustraitu eta gerri-buelta ego-
kia eskuratu gabeko enborrak nekez eutsiko die bere lekuan, eta nekezago berde-bizirik irauneraziko, teknolektozko ehundaka eta milaka orri-hosto ho-
riei.

Terminologiaren alorrean batzuk eta besteok antzematen ditugun ajeak, hutsarteak eta okerbideak ez dira gehienetan, hitz gutxitan esanik, ter-
minologiaren beraren esparrukoak. Eta diagnostiko okerrarekin gabilta guz-
tiok, ondorioz, terminologi mailakoak ez diren kalte-problema konpontzeko
irtenbide nagusiak berriro terminologi mailan planteatuz: eskuan ebakia egin
duenarentzat gehienok onartuko genuke, seguru asko, aspirina bat hartzea
ez dela erremedio sendoena. Hori bezain gogoz onartzeko prest egon behar
genuke, ordea, eta ez dut uste hala gaudenik, aspirina bat hartu ordez aspi-
rina bi hartzea nekez izango dela «benetako konponbidea», ez eta konponbi-
de «zertxobait hobea» ere.

Denboraren tarteak eta gaiaren bestelakoak hesi-muga sendoak ezar-
tzen baditu ere zinez komentzitua nago ni, eta Eneko Oregi ere alor honetan
gogaide izango dudan esperantza osoa ez zait falta, problemaren azken itu-
rria ez dela gerra aurrean, 1933 inguruan, Aitzol eta Lizardi aurrez aurre eta
elkarren kontra jarri zituen «euskera erre»aren auzigai hura bera baizik. Ge-
rra aurreko «euskera erre»zaleen nahi eta ezin hura ez dabil batere urruti,
azalari ez baina mamiari bagagozkio, gaurko beharretara moldatu nahian ga-
biltzan burolekto horri batzuk eta besteok eskatuko genizkiokeen ezaugarri
jator, moderno-funtzional eta aldiberean normatiboak neurri egokian konbi-
natu beharrak sortzen dizkigun buruhauste, tira-bira eta haserreetatik. Or-
duko arrazoia, esan gabe doa, funtsean Lizardiren alde zegoela uste dut zin-
zinez: «berez behar du Billabonakoa», alegia, euskaraz taxuz jardungo due-
nak. Gauzak euskara errazean, labur eta argi adierazten jakitea, bestela esan,
ez da idea hori berori perpaus luze-korapilatuagoz, hitz tekniko-gihargabeez
taxutzea baino errazagoa. Mintzagaitasun minimoaz gainera beste zerbait
gehiago behar da euskara erraz horretarako. Eta plus hori ezin, gehienetan,
terminologiako errefinamendu hutsak eskain dezake.

M. ZALBIDE

«Administrazioko Hizkera eta Terminologiaren Jardunaldiak»
212-213 orr., HAE/IVAP, Oñati-1989

1. **Idazleak dioskunez, terminologi mailan ikusten ditugun hutsegi-
teak...**
 - a) ez dira garrantzizkoak, konpon errazak dira.
 - b) denboraren denboraz konponduko dira.
 - c) hutsegite horien gakoa, neurri handian, hitzegiteko gaitasun kax-
karra izatean dago.
 - d) terminologi mailako hutsegiteak edozein hizkuntzatan izaten dira;
ez dago, beraz, zertan larriturik.

2. **Gerra aurreko «euskera erre»aren auzigaiaz zera diosku idazleak:**
- Aitzolen eta Lizardiren arteko zentzugabeko tirabira hutsa izan zela.
 - auzi hartan arrazoi osoa eta betea Aitzolek zuela.
 - gerra aurreko «euskera erre»zaleen buruhaustea, gaur egun bu-rulekto edo terminologia jatorra sortu nahiak dakarzkigun buruhausteen ahaideak direla.
 - terminologia egokia moldatzeko, Billabonan jaioa izan behar duela batek.
3. **«Berez behar du Billabonakoa» esaldiaz zera esan nahi du idazleak:**
- Billabona eta Tolosa inguruko euskara dela jatorrena eta biziena.
 - euskaraz beste zernahi egoki egin edo adierazi ahal izateko, euskaraz berezko mintzagaitasuna behar dela.
 - batek baserrian jaioa behar duela izan, terminologia egokia erabili nahi badu.
 - esaldi hori ironiaz darabil idazleak, Billabonako jendea terminologia egin ahal izateko tontoa dela esateko.
4. **Terminologiaren arloan jende asko dabil gaizki...**
- euskaraz txisterik kontatzen ez dakielako.
 - Txomin Agirreren Garoa irakurri ez duelako.
 - sentiera-printzak bere golkoan, beretzat bakarrik, gorde nahi dituelako.
 - beste zerbaitegatik.
5. **Terminologiaren aldetik egin daitekeen lana egin ahal izateko...**
- euskarari, ahoz nahiz izkribuz, baserri-giroa kentzea da garrantzizkoena.
 - oinarrizko hizkuntz gaitasuna da lehen baldintza.
 - burua hizkuntz funtzio berrietara irekitzea da oinarrizko baldintza.
 - gauzak jarotasunez adierazteko zailtasunak dituenari gai diferentiek lantzeko eskatu behar zaio.
6. **Terminologi mailan mordoilokeriak egiten dituztenak zein hankatetik dabilzan herren...**
- aztertu eta ikertu behar da.
 - ez dago asmatzerik.
 - hainbat jendek eguneroko lanean begibistan daukan gauza da.
 - ez ginateke sekula ere hori jakitera iritsiko.
7. **Terminologiaren baitan sumatzen ditugun ajeak...**
- terminologia gure artean sekula landu ez izatetik datoz.
 - terminologia zientzia guztiz konplexua izatetik datoz.
 - terminologi mailako irtenbideak bilatuz konpondu behar dira.
 - terminologiaren kanpo dute beren erroa aje horiek.

8. Gauzak euskara errazean eta argi adieraztea...

- a) edozeinek egin lezakeen gauza da.
- b) hitz edo termino tekniko eta gihargabeez azaltzea baino errazagoa da.
- c) hori egin ahal izateko, terminologiazko errefinamendu hutsak eskain lezakeena baino «plus» bat gehixeago behar da.
- d) hori egiteko, aski da mintzagaitasun minimo eta gutxieneko bat.

9. Hizkuntz gaitasunari dagokion hitz-etorria eta funtsezko adierazpena gaindituak dituenari...

- a) terminologia ez dio sortuko inolako problemarik.
- b) onuragarri gertatuko zaio Txomin Agirreren *Garoa*-ren freskotasuna dastatzea.
- c) ahoz zein izkribuz, euskara funtzio-esparru berrietara zabaltzeko ezinbestekoa gertatuko zaio terminologia.
- d) buruz eritziz aldatu egin da idazlea azken urteotan.

10. Terminologiazko mordoilokeriak baztertzeke, honelako diagnosiak eta konponbideak egin behar dira...

- a) euskara erraz eta joria alde batera utzi, eta euskara teknikoari heldu buru-belarri.
- b) eskuan ebakia egin eta sendabidetzat aspirina hartzen duenaren antzera egin.
- c) oinarritzko sendagaia den gutxieneko mintzagaitasuna landu lehen-lehenik.
- d) hizkuntzaren funtzioak zeintzu diren aztertu.

2.3. 1991KO AZTERKETAK

2.3.1. 1991/5/4

AHOZKOAREN ULERMENA I

- 1. Programazioko zein arlori buruz dihardu kazetariak artikulu honetan?**
 - a) Barne produkzioaz.
 - b) Kanpo produkzioaz.
 - c) Kanpo zein barne produkzioaz.
 - d) Informatiboez.

- 2. ETB sortzean arazorik larrienetako bat zera izan zen:**
 - a) Bikoizketa lanetarako espezialistarik eza eta zeregin horretarako trebatu beharra.
 - b) Euskararen gaitasunik eza indioen, txinoen... esanak itzultzeko.
 - c) Euskara prestatu ez egotea bikoizketak egiteko.
 - d) Ikus-entzuleek ez ulertzea bikoizturikoa, beren ohitura falta zela eta.

- 3. Bikoizketaren sinesgarritasunerako zera behar da:**
 - a) Jende espezialdua eta ofizioa ondo ikasia erabiltzea.
 - b) Ikus-entzuleentzat ulergarria den hizkuntza erabiltzea.
 - c) Behar den moduko hizkuntza erabili eta antzetzte lan egokia egitea.
 - d) Aktore onak erabiltzea bikoizketan.

- 4. Gizarteko arloen artean, euskara...**
 - a) erraz heldu da guztietara.
 - b) polito heldu da gehienetara, militar arlora batez ere.
 - c) arlo batzuetara inoiz ez da heldu, giro militarra esateko.
 - d) giro militarra bereziki ondo heldu da, bikoizketa egokiari esker.

5. **Askotan, bikoizturiko filmeen hizkera konpreniezina izatea zeri zor zaio?**
- a) Bikoizketa ahoz egiteari.
 - b) Euskara batua finkaturik ez egoteari.
 - c) Ahozko euskara entzuteko ohiturarik ezari.
 - d) Hizkera mintzatua baturik ez egoteari.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Idazlearen esanetan, bikoizketaren kalitatea kontrolatzeko eman den urratsa...**
- a) egin den lehen ahalegina da.
 - b) ez da egin den lehenengo ahalegina.
 - c) bikoizketaren arazoa erabat konpontzeko modua da.
 - d) ez da, seguruenik, ezertarako baliagarria izango.
7. **Telebistako euskara, zuzena bada ere, artifiziala delako eritzia...**
- a) hizkuntzalariena da.
 - b) eskolatzeko maila jakin bateko jendearena da.
 - c) idazlearena da.
 - d) orokorra da eta jende mota desberdin askorena.
8. **Zer lortuko da idazleak aipatzen duen proba berri honekin?**
- a) Jatorrizko bertsiora gehiago hurbiltzea.
 - b) Beste molde herrikoiago bateko euskara erabiltzea.
 - c) Euskara zuzenagoa eta zehatzagoa erabiltzea.
 - d) Euskalkietako euskarari sarrera ematea.
9. **Telesail bi hauetan egindakoaren ostean...**
- a) euskara molde horri eutsiko zaio beti aurrerantzean.
 - b) probaren emaitzak eta eritziak jasoko dira, hobetze prozesuan jarraitzeko.
 - c) azken pausua izango da hobetze prozesuan.
 - d) ez da ondoriorik aterako.
10. **Bi telesail berri horiek...**
- a) neguan hasiko dira emititzen.
 - b) udazkenean hasiko dira.
 - c) ez dakite noiz hasiko diren.
 - d) udan hasi ziren emititzen.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorta-

suna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artetik bat aukeratu eta garatu:

1. Telebista kulturbide bezala.
2. V. mendeurrena (1492-1992).
3. Aisia edo denbora libre betetzeko aukerak.
4. Turismoaren alderdi onak eta txarrak.

ESKUTITZA

Orain dela gutxi hamar mila pezetako isuna jarri dizute automobila txarto aparkatua edukitzeagatik. Hurrengo egunean, igandean, futbol zelaia-
ren inguruan paseatzen zoazela, autoak edonon aparkaturik ikusten dituzu,
batek ere isunik ez duela. Idatz iezaiozu eskutitz bat Udalari, zeure ezados-
tasuna eta protesta bizia adierazteko.

*Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik es-
kutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.*

ESALDIAK BERRIDATZI

*Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi
behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen
den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz
daiteke horri lotuta. Adibidez:*

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar di-
tuzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da,
baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Anderrek zapatak egiten ziren lantegi batean ihardun zuen luzaroan,
entzun dudanez.

_____ ...gintza... _____

2. Zergatik ez dakigula, kokoloak garelako kontua darabilte horiek.
 _____ ...tzat _____

3. Gaur ganbarako kutxa handian aurkitu dudan alkandora txikia nintze-
 nean erabili ohi nuen.
 _____ ...eko _____

4. Zerrategira iristeko, errekaen hegaletik jo beharrean, basoaren erditik
 igaro ginen.

 _____ zehar _____
5. Bere bildumako txanponik ederrenetako bat eman zuen, baina oso ba-
 liotsua zen beste bat eskuratu zuen aldi berean.

 _____ truke.
6. Kendu gauza horiek paretik! Enbarazu baino ez dute egiten hor, ma-
 haiaren erdian.
 _____ ...ok _____
 _____ bait _____
7. Lan hura egitearren niri hiru mila pezeta ordaindu zidaten; beste guz-
 tiei ere kopuru bera eman zieten.
 _____ ...na _____

8. Guztiz txarto egin dute sarrera azterketa nonbait, aretotik horrelako
 aurpegierekin irteteko.
 _____ bide _____
 _____ eta.
9. Onuragarria gerta daitekeela uste dugu bainuetxe horretan hamabos-
 taldi bat egitea.
 _____ edonori _____

10. Donostiako Zinemaldiko azken bi filme horiek biziki gomendatuko ge-
 nituzke.
 Zeuei ere _____
11. **Jockey**-a bi bider jausi zela zalditik? Bai zera! Bost bider ere esango
 nuke.

- _____ ez ezik _____
12. Pariseko moduko etorbide zabalak ez dira Euskadin erruz aurkitzen. Mundu osoan ere nekez aurki daiteke horrelakorik.
- _____, ezta _____
13. Azkenean ez zituzten zazpi landare erosi, baizik eta bederatzi.
- _____ barik _____
14. Zazpi ordu baino gehiago eman zituzten eguzki galdatan; nola ez ziren, ba, erreta etorriko!
- _____ eta!
15. Hamaika aldiz esan genien liburu guztiak guri lehenbailehen itzultzeko.
- _____ itzul _____
16. Nik horixe besterik ez nuen nahi: zeu ere hemen geratzea.
- _____ gera _____
17. E, zuek: prestatu gauza guztiak eta etorri gurekin.
- Presta _____
etor _____
18. Ekialde hurbileko gatazka oso konplexua da eta ez du irtenbide errazik.
- _____ hain _____
_____ non _____
19. Ur murrizketak orain urtebete hasi ziren. Harez gero ez dugu eduki la-saitasunik arlo honetan.
- _____ ...z geroztik _____
20. Ez zenuten bazkaltzen hasi behar denak bertan egon arte.
- Harik eta _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

«Zorigaizto handiek ez naute biziki **goibeltzen**», esan zuen Jean Bridellek, bere burua eszeptikotzat zuen mutilzaharrak. «Oso aurrean eduki dut gerra: **errukirik** gabe jauzi egiten nuen gorputzen gainetik. Naturaren edo gizonen aberekeriek **izuz** edo sumindurazko **deiadarrak** egitera bultza gaitzaketek, baina ez digute bihotzeko ziztada hori, **gauza** txiki negargarri batzuen aurrean bizkarrezurrean zehar igotzen den hotzikara hori ematen.

Seme bat galtzea ama batentzat, eta amaren galera gizon batentzat da, dudarik gabe, **jasan** daitekeen minik latzena. Gogorra, izugarria da hori, asaldatu eta **erdiratzen** du; baina sendagarria da, zauri odol-jario zabalak bezala. **Haatik**, aurkipen batzuek, gauza erdikusi, ohartu batzuek, adurraren zenbait **gora-behera** gaiztok, gugan **gogoeten** mundu samin osoa eragiten dutenek, gure aurrean sufrikario moral, konplikatu, sendagaitzen ate misteriotsua ertirekitzen dutenek, sufrikarioek zenbat eta sakonagoak non arduragabeak, zenbat eta zorrotzagoak non **harterrazak**, zenbat eta sendoagoak non gezurrezkoak bait dirudite, tristeziaren ildo baten gisakoa uzten digute gogoan, mingostasun zaporea, **kostata** kentzen dugun desenkantatu sententzia.

Seguraski beste inork **nabarituko** ez zituzkeen bizpahiru gauza ditut beti begi bistan, eta sendaezinezko **sastada** luze eta meheak balira bezalaxe nire barnean sartu direnak.

Zuek beharbada ez zenukete inpresio azkar hauek utzi didaten **zirrara** konprenituko. Inpresio bat besterik ez dizuet kontatuko. Oso zaharra da **bera**, baina atzokoa izango balitz bezain bizia. Badaiteke hunkipena nire imajinazioaren fruitua besterik ez izatea.

Jadanik berrogeita hamar urte ditut. **Artean** gaztea, zuzenbidea ikasten ari nintzen. **Betilun**, ameslari samarra, filosofia malenkoniatsu batez kutsaturik, ez nituen **atseginegi** kafe zaratatsuak, lagun builosoak, ezta neska **burugabeak** ere. Eguzkiarekin jaikitzen nintzen; eta nire gurarik maiteenetakoa bakarrik paseatzea zen, goizeko zortziak inguruan, Luxemburgeko mindegietan zehar.

Zuek ez dituzue mindegi horiek ezagutu, ezta? Azken mendeko lorategi ahantzia, emakume zaharraren irribarre **eztia** bezain lorategi polita. Hesi lodiek bereizten zituzten etorbide itxi eta erregularrak, bi hostaiazko hormaren artean zeuden etorbide lasaiak. Lorezainaren aitzur handiek **atsedenik** gabe lerrotzen zituzten adarrezko pareta hauek eta, tarteka, loresailak, kolegiarrak paseoan bezala ordenatutako arbola txikien taulenak, arrosondo galantaren sozietateak, fruitu arbolen errejimentuak ageri ziren...

G. MAUPASSANT
Oilagorraren ipuinak
Elkar 1984, 51. or.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Alde batetik Txinako estatua konfuziar filosofoen mende zegoen eta hartu-emanak egin behar batzuen orekan oinarritzen zirela uste zuten, hau da, gizartea mailakatua zegoen eta maila horiek mantentzeko aginpidea edo ordena noraezekoak ziren. Gizarte horretan gizon edo andre bakoitzak bere lekua eta zeregina zeukan. Ez zegoen berdintasunik: enperadorea, aita, semea, emaztea (edo emazteak, ohaideak), funtzionaria, nekazalea, animalia.

Beraz, pertsona bakoitzak katemaila edo «ou» bat osatzen zuen nor bere lekuan zegoela, kate eskerga horrek (gizartea) behar zen moduan aurrera egiteko.

Konfuzioaren doktrinaren arabera, enperadorea gizartearen ardatza zen eta bere aginpidea zerutikakoa zen. Aginpide horrek urmahalean jaurtitzen den harriak sortzen dituen uhinsken antzera indar egiten zuen erresuma guttiar. Guzti hau, jakina, burokrazia indartsu baten bitartez gorpuzten zen, eta funtzionarien postuak lortzeko azterketak gainditu beharra zegoen. Sistemak, berez, gizonik argienei eta eskolatuenei eman gura zien aginpidea, modu horretan gauzak ahalik eta ondoen egiteko asmoz.

Badirudi edolan ere teoria eta praktika ez zirela ezkontzen eta koipekeria ugari zegoela. Sistema sare nahastu eta ustel bat zen neurri handi batean.

Ipuinetan sarrien agertzen den pertsonaia herriko magistratua da, inperioko burokrazia mailarik apalenekoa. Ez zen gehienez ezertan edo aintzat hartzen eta nekazaleen antzera lander, onbearra izaten zen.

Konfuzionismoa bezain zaharra den beste filosofi korrante bat taoismoa da. Tao horrek «bidea» adierazten du edo «zentzu nagusia». Korrante hau beti egon zen konfuzionismoarekin jazargoan, gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen zuelako. Beraz, pentsaera horren arabera ezin du inork aginpidetik eduki besterengan. Jaiotzeak edo jatorrizko botereak dakarren agintea ezereztu egin nahi du. Zapalduen eta baztertuen alde jokatzeko zuten taoistek, hau da, emakume, ume, nekazale eta animalien alde. Filosofia honetako adibiderik lakoniko eta ederrena Txuang Tzu-ri zor diogu; beharbada munduan dagoen ipuinik labur eta era berean liluragarrienetakoa da, Borgesek hain maite zuen ipuina, hain zuzen:

«Txuang Tzu-k mitxeleta bat zela egin zuen amets. Itzartutakoan ez zekien ametsetan mitxeleta bat izan zen ala mitxeleta bat izanik Tzu zela amets egiten ziharduen».

Txuang Tzu-ren adibide horretan animalien erreinua eta gizakiena berdintsua edota, zehatzago esan, berbera izan daitekeela adierazten zaigu. Alde honetan taoismoa eta budismoa batera datoz, hots, budistek uste dute giza

izpiritua animalien haragi daitekeela aurretiko bizitzetan izandako bekatuen zorra zelanbait kitatzearen.

Abade taoistek metaforen bitartez eta ipuin miragarrien bidez egiten zuten berba. Ipuin miragarriok gehienbat Lieh Tzu eta Txuang Tzu filosofo eta literatu handienak dira, baina horren ostean abade taoistek adur berezi bat dute, aztruak dira, ikusiezin bihur daitezke eta konfuziar klasikoek irakaspideei destaina egiten diete. Ez dute maite burokrasia, ez aberatsen indarkeria, eta horregatik pertsegituak dira. Ihesi joan beharrean aurkitzen dira eta mendi mortuetako etxola landerretan bizi dira adabazainez jositako erropa maieztuak daramatzatela aldean, askotan tigreen mende. Alde batetik bestera joaten dira euren jakinduria irakasten eta bidez doazela bidelapur txarginekin egin ohi dute topez.

Sistemaren aurkako mugimendu bat «Loto Zuria» izan zen. Nekazale errebeldeek osatzen zuten eta indarrean egon zen XII. mendetik XIX. mendera arte. Taoistek irakatsitako sorgintza eta herejiaz baliatzen ziren.

X. KALTZAKORTA
Pu Songling-en ipuinak (Hitzaurrea)
Galburu sorta, Labayru 1988.

1. **Lehen, Txinako estatua Konfuziar filosofoen mende zegoenean, gizartean...**
 - a) zorrozki ezarritako mailaketa zegoen.
 - b) nolabaiteko mailaketa egon arren, beti zegoen aldatzeko biderik.
 - c) pertsona guztien zereginak eta betekizunak trukakorak ziren.
 - d) irekitasuna zegoen, gizartea zenbait baloretan oinarriturik aurkitzen zela.
2. **Konfuzionismoan...**
 - a) aginpidea behetik gorakoa da, enperadorea bere funtzionarien mende dagoela.
 - b) aginpidea goitik beherakoa da, enperadorea buru delarik.
 - c) enperadorea da ardatza, beronek izendatzen dituelarik bere funtzionariak.
 - d) gauza ahalik eta ondoren egiteko asmoz, sistemak babestu egiten ditu bere gizonik behartsuenak eta apalenak.
3. **Konfuzioren gizarte eredu...**
 - a) planteatu bezala funtzionatu ohi zuten gauzek.
 - b) teoria eta praktika maila berean gauzatzen ziren.
 - c) sistema, ustela izan arren, praktikan garbitasunez eta arrakastaz gauzatzen zen.
 - d) praktika ez zen teoriaren parekoa suertatu.
4. **Herriko magistratua...**
 - a) burokrasia saretik ate zegoen.
 - b) burokraziako erdi mailako pertsona zen.

- c) burokrata zen, beherengo mailakoa eta pobrea.
- d) nekazalea zen eta bazuen garrantzirik eta estimurik orduko burokrazi sarean.

5. Zer da taoismoa?

- a) Konfuzionismoaren pareko edo antzeko korronte bat.
- b) Konfuzionismoak bezala, gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen duen teoria edo korronte.
- c) Jaiotzetiko botereari berebiziko garrantzia ematen dion pentsamolde bat.
- d) Konfuzionismoaren aurkako korronte bat, beronen giza-mailaketa haustera datorrena.

6. Taoismoak...

- a) gizarteko apalenak eta behartsuenak defendatzen ditu.
- b) agintariei obeditu beharra predikatzen du.
- c) apalenei eta zapalduenei eman nahi die aginpidea.
- d) jaiotzetik datorren aginpidea aldarrikatzen du.

7. Txuang Tzu-ren ipuinean...

- a) Txuang Tzu mitxeleta bihurtzen da.
- b) Txuang Tzu-k ez zekien errealitatea eta ametsa ondo desberdintzen.
- c) Gizon-mitxeleta itxuraldaketa edo metamorfosia gertatzen da.
- d) Mitxeleta Txuang Tzu bihurtzen da.

8. Animalien erreinua eta gizakiena erreinu bakartzat jotzea...

- a) budismoarena da soilik.
- b) taoismoarena da soilik.
- c) Txuang Tzu-ren teoria da soilik.
- d) bi korronteena da, honetan bat datoz eta.

9. Zer pentsatzen dute abade taoistek konfuzionismoaren teoria eta ideiez?

- a) Aintzat hartzen dituzte begirunez, denean ados ez badaude ere.
- b) Ontzat ematen dituzte konfuziar irakaspenak, baina hala ere pertsekuzioak jasan behar dituzte.
- c) Buru egiten diete, erabat aurka jarritz.
- d) Ez dituzte maite burokrazia eta indarketa, konfuziarrek bezala.

10. Zer izan zen «Loto Zuria»?

- a) Konfuziarrek eta nekazale taoistek osaturiko mugimendu bat, sistemari aurka egiteko.
- b) Taoistak pertsegitzeko nekazal erakundea edo taldea.
- c) Taoisten irakaspenez baliatzen zen nekazale mugimendu bat.
- d) Hamargarren eta hamaikagarren mendeetako nekazale mugimendu bat.

2.3.2. 1991/5/18

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Beste hirietako eskaintzen aldean, New York-ek...**
 - a) inon ezin aurki litezkeen gauza guztiak ditu.
 - b) hiri batzuen alderdiak ditu, baina neurritz gain emanak.
 - c) beste hirien alderdi guztien batura suposatzen du, hein handiagoetan, baina.
 - d) alderdi guztiak neurritz, orekan ematen ditu.

2. **New York-eko arkitekturan, non ageri dira bereziki gizonaren trebetasuna eta azkartasuna?**
 - a) Zubigintzan.
 - b) Etxegintzan.
 - c) Altzairuzko egitura guztietan.
 - d) Zenbait gaztelutan.

3. **Macy's, munduko supermerkatu handiena, noiz eraiki zen?**
 - a) XIX. mendearen bukaeran.
 - b) Mende honen hasieran.
 - c) 1912 urtean.
 - d) XX. mendeko bigarren hamarkadan.

4. **Macy's supermerkatuaren zenbait ezaugarri:**
 - a) Berrehunetik gora departamentu, hamaika mila langile.
 - b) 150.000 erosle egunero, ehundaka mila artikulu salgai.
 - d) Bederatzi jatetxe, hamar mila langile baino gehiago.
 - c) Langileak 12.000 baino gutxiago, 700.000 metro karratu baino gehiago.

5. **Testu honen idazleak, New York-era lehenengoz iritsi zenean, zein inpresio atera zuen bertako zarataz?**
 - a) Atsegin egin zitzaion.
 - b) Gustatu ez arren, hiriaren beste erakargarritasunetako bat iruditu zitzaion.
 - c) Ez zela zenbaitek zioen bezain eraman ezina.
 - d) Ez zitzaion jasangarria iruditu.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Gauzez Central Park-era paseatzera bazoaz...**
 - a) ez da komeni dirurik aldean eramatea.
 - b) diru ugari eramatea da onena.
 - c) diru kopuru txiki bat eramatea da gomendagarriena.
 - d) labana bat eraman behar duzu aldean.

7. **USAn zergarik ez ordaintzea...**
- kaletik biluzik paseatzea bezain arbuigarria da.
 - agintarientzat beste edozein delituren parekoa da.
 - Al Capone-rentzat baino ez zen gertatu kartzeleratzeko zioa.
 - gauzarik gaitzesgarriena eta pertsekutuena da.
8. **New York-en hilketak, krimenak, maiztasun honekin gertatzen dira:**
- hemezortzi hilketa hamar minututik hamar minutura.
 - hamar minutuko, hilketa bat.
 - hiru hilketa hamar minutuko.
 - hamar hilketa minutuko.
9. **Hilketetako biktimizez poliziak...**
- ez du jakiten beraien identitatea; sarri, ezta hilketaren zergatirik ere.
 - inoiz ez du jakiten nortzuk diren, ezta zergatik hil dituzten ere.
 - maiz jakiten du nortzuk diren, eta beti hilketaren zergatia.
 - identitatea jakin ohi du, eta hilketaren zergatirik ez.
10. **New York-i buruzko lau adierazpen hauetatik, zein da egiazkoa?**
- Aberastasuna eta pobrezia elkarren ondoan topa daitezke.
 - Chinatown auzunerik dongeenetakoa da newyorktarrentzat.
 - Gaueko tiroketetan, inguruko jendeak ere hartzen du parte.
 - Eskaleak ardoz mozkortzen dira.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Pertsikoko Golkoko gatazkaren ostean, nola geratuko da mundua? Zer ondorio edo kalte jasango dute Mendebaldeko eta Ekialdeko Herriek?
- Zer dira ametsak?
- Garraioena bezalako grebek galera eta ondorio latzak omen dakartzate ekonomiarentzat.
- Horoskopoa.

ESKUTITZA

Garrantzizko egunkari batera jotzea erabaki duzu, idatzi nahi duzun eskutitz bat argitara diezazuten, zeure eritzia azalduaz batera jendearengan ere eragina izan gurarik. Gaia: munduan gerrarik ez duzu nahi; hartzailea(k): estatu gerrazale edo gerragileen buruzagiak.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Jaurlaritza berria bi alderdiren zein hiru alderdiren artean osa daitekeela diote politikan adituek.

_____ ez ezik _____

2. Perurenak *record* berria ezartzea lortu zuen 315 kiloko harria jasoz; nik hala entzun dut, behintzat.

_____ omen _____

3. Batzuk etorri egin dituk eta beste batzuk geratu; etorritakoak baino ez dizkiagu aintzat hartuko.

_____ ...nak _____

4. Nahi dutena esango dute, baina uste dut etxeko taldeak, oraingoan behintzat, ezin duela inondik inora ere irabazi.

 _____ ...terik.
5. Zuk eskatzen badidazu, bi bider pentsatu gabe emango dizut, horretarako zaitut eta nire adiskiderik handiena.
 _____ eskatuko ba... _____

6. Zinez, gertatzen zaizuna gertatzen zaizula, ez duzu uste izan behar inor baino gutxiago zarenik.

 _____ ...etsi _____
7. Mendi magalean ikusi genuenean, altzoa bete sagar zekarren, denak bota beharrean.
 _____ ...kada _____

8. Diotena diotelarik, beldur naiz ez ote den beste gerra handi bat gertatuko epe laburrean.
 Esanak _____
 _____ ...en beldur _____
9. Gaur lñakiri hurbildu natzaio eta lan horretan jarrai dezan amore eman diot.
 Atzo _____
10. Horretaz ez duzue batere arduratu behar; geuk egin behar dugu lan hori.

 _____ egitea.
11. Nekaturik zeuden arren, goizaldeko hiruretara arte gelditu ziren.
 _____ baina.
12. Hango erakusketa ederra ikusi nahi zuenez gero, egun batez luzatu zuen Pariseko bere egotaldia.

 _____ ...arren.
13. Agure hark zeukan ibiltzeko modua! Neure bizitzan gutxitan ikusi dut horrelakorik.
 Gutxitan _____
 _____ zenik.

14. Ahal zuten guztietan, behintzat, horrelaxe egiteko ohitura zuten, antza denez.

_____ ohi _____

15. Kontutan hartu beharko zenukeen erretolika guzti hura zuk gehiago ikasteko esaten genizula.

_____ ikas _____

16. Orduetan eta orduetan ihardun zuten ate joka; azkenean, noski, ireki egin behar izan zieten.

Hain _____ non _____

17. Hori orain gertatuko balitzait, ez nioke inortxori ere kontatuko.

Hori lehen _____

18. Sartzeaz batera, batzarkideei esan zieten jezartzeko eta bakoitzak egokien zeritzen galderak egiteko.

_____ jezar _____
_____ egin _____

19. Txerri alena! Oxala berton lurrak irentsiko bazintu!

_____ ahal _____

20. Euskal Autonomi Elkartearen gertatzen diren lan eta trafiko istripuen %20 alkohol gehiegi edateak eragiten ditu, Osasun eta Kontsumo Saileko datuen arabera.

_____ ...(e)nez _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Ni, dakizuenez, ez naiz **komunitate** honetako kide: <ordo fratrum minorum>ekoen habito beltz lakarrek **higuintzen** naute, nahiz eta onartzen dudan haiek egindako lana **orohar** onuragarria dela, batez ere gure kristandadea barbarokeriaren eta barbarokeriaren ilunpetan murgildurik datzan garai latz hauetan. Nik argitasuna maite dut. Herensugerik badagoen ala ez ezin esan dezaket segurki, baina ez bailegoen (zinez egon behar ez duelako) jotkatzen dut. Hipotesiak, jaun-andreok, baina hipotesi taiuzkoak, sendoak. Laberintorik ere ez dago, edo ez luke egon behar; beraz, ez dago. Horrexega-

tik, bibliotekako paper zaharrak **arakatzen** jarraituz ezeren argibide gehigarririk lortuko ez nuela etsita, Jaun Abadearengana zuzenean **jotzea** erabaki nuen.

—Egunon, Jaun Abadea— esan nion behar bezain adeitsu baina **irmo-ki**.

—Egunon, frai Arthur, Enperadore Txit Lasaiaren mezulari hori— erantzun zidan beti bezain **leunki**.

—Utz ditzagun gizabide **hutsalezko** itzulinguruak; gaztelu-komentu honetako laberintoaren mapa aztertu nahi dut. Emadazu, mesedez.

Ez zen haren aurpegian inolako harridura —edo **ezustekotasun**— kei-nurik isladatu, xake-jokoan **arerioak** hurrena zein pieza eta nora mugituko duen aldeaz aurretik ondo baino hobeto dakienaren **hazpegi** ikertezina erakutsiz. Zera **ihardetsi** zidan, biharamunerako eguraldi txarra zetorrela esateko erabiliko zukeen doinu **ez-axolati** berberaz:

—Ez daukat. Norbaitek **ebatsi** zuen aspaldi. Herensugeak, **apika**.

Zur eta lur gelditu nintzela esatea beharbada lotsagarri samarra gerta daiteke edozein egoera eta jarrera motaren aurrean nondik nora jo jakin beharra duen ni bezalako ikertzaile batengan. Baina halaxe da: zur eta lur gelditu nintzen. **Instant** batzuk aurreratzearen, alde batetik nire **asaldura** nabarmenegi gerta ez zekion eta bestetik hurrengo urratsa zein eman pentsatzeko astirik izan nezan, honela jarraitu nintzaion **hizketan**:

—Eta nola ez zenidaten datu **funtsezko** honen berririk eman, hona etortzeko deitu zenidatenean?

J.A. ARRIETA
Manu militari
Elkar, 280. or.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

BURUTIK KENDU BEHARKO GENITUZKEEN IRUDIPENAK

Herritik desagertua eta zeharo itzalia den hizkuntza askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dela uste izatea ameskeria hutsa besterik ez da. Inoiz kontrara ere gertatu izan dira gauzak. Esan nahi dut independentzia edo askatasuna lortu izanak, lagundu beharrean, kontra egin diola hizkuntzaren berreskuratzeari.

Hala kontatu zigun X. Kintanak esan ziola berari irlandar batek. Hitz hauek esan omen zizkion: «Guri burujabetza lortu izanak mesede baino kalte gehiago egin digu hizkuntza berreskuratze-lanean. Lehen, ingelesen menpean geundenean, gure nortasuna erakusteagatik saiatzen ginen irlandera ikasten eta erabiltzen; geroztik, independentzia dugun puntutik, arrangura hori moteldu egin da, ez gara gehiago axolatzen». Beraz, ingeles hizkuntzak segitzen du han jaun eta jabe. Eta, jakina denez, jende asko joan ohi da Irlandara, baina ez irlandera ikastera, ingelesa ikastera baizik. Gobernua saiatzen da, bai, irlandera irakaskuntzan sartzen eta irlandarrek, beti ere, han bihotzean, tokitxo bat izango dute beren hizkuntzarentzat, baina hori gorabehera, eguneroko bizitzean, ingelesak du aginpidea. Beste hitzez esanik, irlandarrek ez du bururik jaso.

Hor dago Ameriketako kasua ere. Hango Estatuetan ingelesa, espainola, portugesa eta frantsesa dira nagusi, hots, Europatik hara eramandako hizkuntzak, eta burujabetzak ez du egoera hori kolokarazi. Haatik, badira han bertako hizkuntzak, hots, amerindioen artean mintzo direnak, baina horiek eskuratzeko, lantzeko eta biziberritzeko ez da gogo handirik nabari. Eta ez da, noski, Estatu horietan askatasunik edo abertzaletasunik ez delako.

Baina badakigu zein den dagoeneko eta hitzetik hortzera atera ohi den etsenplua: Israelgo kasua, hebraieraren berpiztearena. Bai. Hauxe da, segur aski, egundaino gertatu den kasu bakarra: hilik zegoen hizkuntza eta berriz biztu ahal izan dena. Baina jakin behar da han bateratu diren indar eta aitzingibelak ohi ez bezalakoak izan direla, eta beste inon nekez gertatuko dira berriz.

Jakin behar da, alegia, Ben Yehuda hebraiera berpiztera jarri zen garaian, zer egoeratan zeuden gauzak Palestinan. Turkiak agintzen zuen han; turkoa zen hizkuntza ofiziala, baina hizkuntza ofizial hori ia inork ere ez zuen ezagutzen eta erabiltzen, salbu eta funtzionarioek. Hango jendea arabe hizkuntzaz mintzo zen. Hizkuntza honek badu, bai, literatur tradizio bat, baina garai hartan eta lurralde haietan bere kasa eta bertan behera utzia zegoen. Eskola eta irakaskuntza ere guztiz atzendurik zeuden. Horiek hola, horrelako egoera batean errazago da hizkuntza berri batentzat leku egitea. Gainera, hebraierak ahaidetasun hurbila du arabe hizkuntzaz.

Hori alde batetik. Eta gero, eta bestetik —eta hau izan da zalantza gabe indarrak eragileena— aberria sortzera zetozen juduak alde guztietakoak ziren eta bakoitza bere tokiko hizkuntzaz zetorren. Horrela ez zen posible aberria sortzea. Nahi eta ez, bat behar zen, eta asabena, hots, hebraiera hartzea erabaki zuten. Eta bai lortu ere. Hemen gaineratu behar da hebraiera hori guztiz hila ere ez zela. Hor zegoen Biblia. Hor errabinoak, hizkuntza hau beti estudiatzen zutenak; sinagogetan hebraieraz otoitzak egiten ziren, eta. Izan ziren, bada, baldintza batzuk asmo honen gauzatzea posible bihurtu zutenak.

Zer da, bada, hizkuntza? Ikur edo zeinu batzuen sistema, zeinen bidez gizonek beren ideiak, sentipenak eta nahikariak elkarri adierazten bait dizkionte. Sistema hori nolabait giza-multzo baten akordioz onartua eta erabilia da komunikabiderako. Hortik segitzen da axola handiko gauza bat. Hara: hiz-

kuntza gizarte-gertakari bat dela eta beronen azpian edo oinarrian giza-komunitate bat egotea galdegiten duela.

Giza-komunitate bat, horra noraezeko baldintza hizkuntza bizi dadin.

Luis VILLASANTE
Euskararen auziaz
1. kapituluan

1. **Herri batean, guztiz iraungi den hizkuntza bat...**
 - a) burujabetasunari esker berreskuratu egin daiteke.
 - b) berreskuratu egin daiteke independentzia osoaz.
 - c) ez da berreskuratzen, hizkuntza hori berpiztu nahi duen Herriak askatasuna lortzen badu ere.
 - d) erraz berreskura daiteke independentzia lortu ezik.

2. **Irlandan, irlandera...**
 - a) guztiz berreskuratu zen independentzia lortutakoan.
 - b) lehengo mailari eutsi zion, askatasuna gora-behera.
 - c) zertxobait indartu zen independentziari esker.
 - d) are gehiago makaldu zen independentzia lortu eta gero.

3. **Hego Ameriketako indioen hizkuntzak...**
 - a) gutxiengo batenak dira, hango Estatuaren askatasunak batere eragirik eduki ez duelarik.
 - b) aurrerakada nabaria izan zuten hango Estatuak askatasuna lortzean.
 - c) orain gogo biziz babesten dituzte hango Estatuak.
 - d) egoera larrian daude, hango Estatuaren askatasunik ez abertzaletasunik ez dagoelako.

4. **Hizkuntza baten berreskuratze prozesuan, hebraierari dagokionez...**
 - a) beste kasu guztietan legez, hizkuntzaren berreskurapenak porrot egin du.
 - b) salbuespena da, baina baldintza guztiz bereziak gertatu dira.
 - c) sarritan gertatzen diren baldintzei esker berreskuratu da.
 - d) hizkuntz berreskuratze kasu arrunta da, ohizkoa.

5. **Turkiak Palestinan agintzen zuen garaian, turkoa...**
 - a) denek zekiten hizkuntza zen.
 - b) lurralde haietan bizirik zegoen hizkuntza bakarra zen.
 - c) denek zekiten, funtzionarioek ezik.
 - d) funtzionarioek baino ez zekiten.

6. **Israelen hebraiera ezartzea erabaki zenean...**
- a) hizkuntza anitzeko egoera nahasiak lagundu egin zuen.
 - b) arazo handiak izan ziren, arabe hizkuntzaz hain desberdina izateagatik.
 - c) berebiziko arazoa izan zen hainbeste hizkuntza batera suertatzea.
 - d) arabeak hango lurraldean egoera sendoa zuen.
7. **Hizkuntza eta giza-komunitatea...**
- a) guztiz loturik daude, lehenengoak bigarrena beharrezko duelarik.
 - b) ez daude loturik; lehena gertakari bat da, eta bigarrena oinarri bat.
 - c) ez dira bereiztezinak; lehenak ez du bigarrena eskatzen.
 - d) gauza bera dira, sinonimo hutsak.
8. **Hebraieraren eta irlanderaren kasuak...**
- a) konparagarriak dira, antzekoak.
 - b) elkarren kontrakoak direla esan daiteke.
 - c) bietan etorri dira eskutik askatasuna eta hizkuntzaren aurrerakada.
 - d) bietan izan da hizkuntzarentzat kaltegarria independentzia lortzea.
9. **Palestinara aberria sortzera joan ziren juduek zein hizkuntza zekiten heldu zirenean?**
- a) Hebraiera.
 - b) Arabea.
 - c) Turkoa.
 - d) bakoitzak, zetorren herrialdekoa.
10. **Israelgo estatua sortu baino lehen, non zen hebraiera?**
- a) Zenbait erlijio-kulto eta praktikatan baino ez.
 - b) Inon ere ez. Inork ez zekien hitzik ere.
 - c) Jendeak bazekien mintzatzen, baina alfabetatu gabe zegoen.
 - d) Txikitan ikasi, baina ahaztuta zeukaten.

2.3.3. 1991/5/25

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zein izan zen hasieran jotzen zuen musika mota?**
 - a) Euskal musika tradizionala gutxi jotzen zuen.
 - b) Dantzan egiteko musika modernoa.
 - c) Dantzarako musika eta euskarazko kanta berriztuak.
 - d) Euskal dantza tradizionalak, erritmo berriak ezarriz.

2. **Nor izan zen Anje Duhalderengan eragilerik garbiena?**
 - a) Euskaldun batzuez gain, hainbat kanpotar, bereziki.
 - b) Xalbador bertsolariak eragin zion bereziki.
 - c) Batez ere Elvis Presley eta horrelakoak.
 - d) Mixel Labegerie eta Benito Lertxundi.

3. **Zergatik proposatu zion Amurizak bere bertsoak abestea?**
 - a) Xalbador bertsolariak aholkatu ziolako.
 - b) Bertsolari bezala gustukoa zuelako.
 - c) Amurizak ahotsa gaizki zeukalako.
 - d) Bertsoak grabatzeko aproposena zelako.

4. **Nolakoa da diskoan erabili duten estiloa?**
 - a) Anje Duhaldek bateria jotzen du.
 - b) Musika badago, baina hitzak du garrantzia.
 - c) Betiko estiloari jarraitu zaio Anje Duhalde.
 - d) Moldaketak egin zituzten, baina pozik daude.

5. **Nolako baldintzak izan ditu diskoa grabatzeko?**
 - a) Amurizak askatasun osoa eman dio.
 - b) Ohizko estiloa ez erabiltzeko esan zion.
 - c) Diskoa sobera ez hornitzekotan geratu ziren.
 - d) Diskoak bertso hutsez eginik egon behar zuen.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **M. Lejarretaren ustez, zein da korritzeko adin egoki bat?**
 - a) 28 urterekin, batez ere arintasunagatik.
 - b) Zaindu eta entrenatuz gero 30 urtetik gorakoa ere egokia dela dio.
 - c) 28 urterekin, adin honetan desberdin korritzen delako.
 - d) 30etik behera.

7. Zergatik hasi zen hiru bueltak egiten?

- a) Oso ondo aurkitzen delako.
- b) Tourrean oso ondo sailkatuta gelditu zelako.
- c) Aukera gehiago edukitzeko.
- d) Zer gerta zitekeen jakiteagatik.

8. Zein izaten da bere korritzeko estrategia?

- a) Lasterketa batzuetan indarrak gordetzen saiatzen da.
- b) Beti irteten da irabazteko ahaleginak egitera.
- c) Hasieran forma hartzen doa, sasoi onean egon arte.
- d) Tourra da ondoen prestatzen duena.

9. Zergatik joan zen Italiara?

- a) Txirrindularitzaren egoera kaxkarrarengatik.
- b) Gauza berriak ikasteko.
- c) Bere anaia Ismael «Alfa Lum» taldean zegoelako.
- d) «Alfa Lum» taldea ezagutzeagatik.

10. Noiz esan du utziko diola txirrindularitzari?

- a) Ez du esaten.
- b) Denboraldi hasieran.
- c) Ondo ez dagoenean.
- d) Hurrengo denboraldian.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: Idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- 1. «Eguzkia nora zapiak hara».
- 2. Gure pinudiak gaisorik.
- 3. Mendiko bizikleta, igandero gure errepideak hornitzen dituen ibilgailua.
- 4. Egunkaria euskaraz, kalean dago jadanik.

ESKUTITZA

Orain dela hilabete, zure alkateari lan eske idatzi zenion zure famili egoera larriak behartuta; atzo jaso zenuen erantzunean eskolazain lanpostua eskaintzen zaizu hiru hilabeterako. Baina ez duzu onartzen.

Idatz ezazu eskutitz horri legokiokeen eskerronezko erantzuna, lan horri uko egiteko behar diren argudioak asmatuz.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Euskal Herrian ez da Gurtegioko jendea bezain xelebrerik.

_____ adina _____

2. «Zu ere aurka al zaitut, ene adiskide hori?», galdetu zion agintariak.

_____ al zetorkion _____

3. «Nola Euskadin hala Amerikan toki onak badira» zioen poetak.

_____ ...la _____

4. Infernuari ihes egin ustean zerurako bidea hartu genuen, hiri zokoari infernu eta mendiari zero dei badiezaiekegu.

_____ ...koan _____
_____ deitzerik _____

5. Eskolara bidali, ikasitakoa bihar egunean zuentzat mesedegarri gertatzeko bidaltzen zaituztet.

_____ gerta _____

6. Gogoratzen naiz txikitan tripontzia zinela, amari eta inudeari, biei, har-
tzen bait zenien bularra.
_____ nolako _____
_____ ...larik _____
7. Egunsentia zenbait egunetan zoragarria izaten da; ez da ikusi gabe
uztekoa.
_____ merezi _____
8. Nork ez daki bide horrek urraketa handia ekarriko diola mendiari? Bai-
na, ezin ahaztu adineko jendeari mendirako aukera emango diola ere.
_____ arren _____
9. Jendea ezin hartu ahal izan zuen loak, herriko festetako musika isildu
zen arte.
Harik _____
_____ begiak bildu.
10. Honez gero ez da inorentzat sekretua mundua jira berri baten beha-
rrean dagoela.
_____ daki.
11. Pertsona baten <etsairik> handiena, buru-kritiko eta mihi-zorrotz jokatu
nahi izatea da.
Ez du pertsonak _____
12. Arabiera ikasten hasi, eta ez du, ba, aurkitu kultura handi eta aberats
bat duen herri baten hizkuntza dela!
_____ hara non _____

13. Tamainako lehiakideekin, gaitz zen lehiaketa hartan eskuhartzea.
_____ ez zen _____
14. Joan den astean auzoko herriko gazte ziraun batzuk gogor makilatu
zuten gure etxekoneko Praisku gizarajoa.
_____ jipoia _____

15. Gogor asko hartu zuten gurasoek beren semea, bai umetan, bai gaz-
tetxotan, drogatara jo ez zezan; baina dena alferrik.
Zein _____
_____ ordea.

16. Ez genuen uste nuarbetarrei sokatiran emango zien amaren semerik sortuko zenik.

_____ sor _____

17. «Ricardo Arregi» izeneko kazetaritza-lehiaketan parte hartu nahi baduzu, Andoaingo Udaletxera deitu besterik ez duzu.

_____ ...z gero, ez _____

18. Guztion ahaleginak bilduta ere, kostako zaigu euskaldunoi geure hizkuntza eta kultura aurrera ateratzea!

_____ lanak izan... _____

19. Leihotik begira nengoela, itxura eta traza txarra hartu nien atera hurbildu ziren adineko haiei; alprojarena alegia.

_____ iruditu zitzaizkidan _____

20. Sanjoanak jaiegun handiak ez dira; halere, poliki ospatu nahi izaten dira Euskal Herrian.

_____ ba... _____tzekoak

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Salbador Zapiain, «Ataño». Zigorpean.

Gerra eta gerraondoari buruzko bigarren liburua da tituluko hori. Gerrateko kronika gisa idatzi direnetan, berrogei urtetan, **alde** batekoek **baizik** ez dute izan zerbait idazteko aukera, eta diktadura **bukatzean**, ongi da beste aldekoetatik bizirik daudenek esatea. Horixe izan da «Ataño»ren asmoa.

Bigarren liburu honek ez du lehenaren emozio hura, bizitza bera joan zegoeneko; baina kartzelako **oinazeez** aparte, gauza harrigarriak kontatzen digu. Eta berez, **hein** batean, «**Espetxeko** negarrak» **zeritzanaren** jarraipena da.

Donostiako Ondarreta kartzelatik San Kristobalera (Iruñekora) eramán zuten, eta hura zen harridura gure idazlearena, honela dioelarik: «Eliza zain-
tzera atera ziren hauek, oraindik gizon hiltzen ari bait ziren»; izan ere, sinetsi
ezinik jarraituko zuen kapeilauaren **predikua**: «Jainkoak gure lan onak eta
txarrak haztailuan pisatu ditu, eta txarrak askoz **astunagoak** ziren onak bai-
no. Beraz, odol gehiago ixuri beharra, Jainkoaren haserrea **apaltzeko**».

Bizaraingo San Markos eta Txoritokieta bitartean dagoen Bordazarre-
tik, oraindik gazte, mundura irteteen bost urteko espetxea aurkitu zuen gure
idazleak; ordurarte ez zuen beste mundurik izan: etxeko sukaldea, herriko
maisua eta erretorea, bere konduktaren etika eta moral-markatzailea. Orain-
dik ez zekien, bakoitzak berari komeni zaion neurrira eman ohi duela eban-
jelioa, eta, bi liburuotan **nabari** denez, hortikakoak zituen bere gogoaren ez-
beharrak.

Han zen, San Kristobalen, 1938ko maiatzaren 22ko ihesa **gertatu** ze-
nean. Kapitulu hori du bizienetakoa. Hori eta horren atzetik datozen erasoa
eta ihesaren biharamuna. Ihesaren ondotik, afusilamenduez gain, neurri go-
gorrak hartu zituzten. Horretaz zerbait bagenekien, han ziren zenbaiti entzu-
na. **Oroitzen** naiz, besteak beste, Fernando Zuloaga eibartar **medikua** (Inazio
pintorearen iloba) preso zelarik bere ofizioa nolabait betetzen zuela, eta, ha-
lere, zeldan zituen liburu guztiak kendu zizkiotela. Bat baizik ezin omen zen
eduki, eta **hauta** zezala. Eskuartean beharrezko zitzaion «Consultorio médi-
co»ren bi tomoak eskatu, eta bat bakarrik eman, «cuando lea el primero ya le
daremos el segundo» esanez. Halakoak ziren beren ustez zibilizazioa zekar-
tenak. Ongi dio «Ataño»k: «Militar haien joera, jolasean dabiltzan umetxo ba-
tzueña huan. Zoritxarrez, umekeria gaiztoa».

Libertatean jarri zituzten garaian ere politikak dira bere kontraerak, gai-
lego bakar soil hura atera zenekoa adibidez, hainbeste denbora kartzelan
eman ondoren nora joan ez zekiela: «Nora joango nauk? Emaztea bi hurre-
kin utzita sartu ninduan; **geroztik** beste bi jaio dituk». Edo, kartzelako bikario
hark uste zuena, San Pedrotan **askatasuna** izango zutela **agintzean**: San
Pedrok, zeruko atezaina bazen, kartzelakoan ere **ikustekorik** izango zuela,
maila horretara jaisten bait zuten apostolua ere.

EGA 3-4 zkia.
1986; 212-213 orr.
(moldaturik)

IRAKURMENA

*Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erant-
zun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren
totala erantzun zuzenena izango da.*

ALEMANIA BERRIA EUROPA BERRIAN

Aurtengo martxoaren 18an antolatutako hauteskundeen emaitzek argi
eta garbi utzi dute ekialdeko alemanen gehiengoaren nahia: beren estatua-

ren desagerpena, Alemaniako Errepublika Federalarekin estatu aleman bakarra osatu ahal izateko. Ez da helburu hau defendatu ez duen alderdirik izan. Inkesta guztien aurka, hiru alderdietako aliantza demokristau-kontserbadorea atera zen garaile, botu gutxigatik gehiengo absolutua lortu ez zuelarik. Hiru alderdiok hurbiltzeko, Alemaniako Errepublika Federaleko Kohl kantzilerraren koalizioaren aldeko eritzia erabakiorra izan zen. Koalizioa oso berandu osatua zen, bere alderdi nagusia 40 urtetan erregimenaren zutabe bat izan zen, eta horrezaz gain, bere liderrik ezagunenak polizia sekretuarekin (Stasi) izandako harremanengatik dimititu behar izan zuen. Guzti hau kontutan harturik, inork ez zuen lortutako garaipen biribila espero. Ustegabeko emaitza hau aztertzean, hiru faktore dira aintzakotzat hartu beharrekoak. Alde batetik, Hungariako hauteskondeek ondoren konfirmatu zuten bezala, «sozialismo» hitzak Europako ekialdean lortutako izen txarrarengatik, demokratizatzeko antolatutako hauteskundeetan ezkerreko alderdiak desabantaila handiz abiatu dira. Bestetik eskuineko alderdiek garaipena eskuratu dute, botu emaleen begietan alternatiba garbiena, erradikalena eta, kontsumismoari dagokionean, tentagarriena delako. Azkenik, eta argudio honek Alemaniako egoera berezian pisu handia du, Alemaniako Errepublika Demokratikoak hain premiako daukan diru laguntzaren beharra errazago konponduko delakoan. Bonnen agintean beste alderdi bat izan balitz, hauteskunderen emaitzek beste norabide bat har zezaketela hipotesi posiblea da.

Hasierako poza baretu ondoren, Kohlen jarraitzaileen artean beldurra agertu da. Oskar Lafontaine, sozialdemokraten liderrak, kontserbatzaileen lasaitasuna hautsi egin zuen. «Alemaniako Errepublika Demokratikoan lehen-dabiziko hauteskundeetan garaile ateratzen denak» zioen bere porrota ezagutu eta berehala, «izugarritzko lana egin beharko du hurrengoetan galtzaile ez ateratzeko». Izan ere, Kohlek hauteskunde kanpainan zabalduetako promesak eta itxaropenak orain bete egin behar ditu, Alemaniako alde batean eta bestean. Alemaniako Errepublika Demokratikokoek lehenbailehenko batasuna, ekonomia birmoldaketa eta kontsumo gizartearen abantailak espero badituzte, Alemaniako Errepublika Federalekoek ez dute guzti hori egia bihurtzeko zerga gehiagorik ordaindu nahi, Kohlek prometitua zuen bezala. Alemaniako Errepublika Federalean giro politiko eta soziala batasunaren aldekoa bada ere, batasuna dagoeneko, eta batez ere behemilako klaseei, zama handi bihurtu zaie. Arazo hauen aurrean Kohlek moteldu egin du bere politikaren martxa. Bere hasierako plangintza, Alemaniako Errepublika Federalean abendurako konbokatutako hauteskundeak Alemania Batuko lehenbizikoak izatea, alde batera utzi du. Moneta erreforma martxorako edo apirilera pentsatuta bazegoen ere, ekainerako atzeratua izan da eta gaur egun data hori kolokan dago. Batasun politikoa, Kohlen eritziz, Alemaniako Errepublika Demokratikoko gobernu berriaren lehen egin beharra bazen ere, orain moneta erreformaren ondorioz beranduago iritsiko dela dio. Teoriaz «batasunerako bide bakarra», hau da Alemaniako Errepublika Federaleko Oinarrizko Legearen 23. artikulua irekitzen duena, defendatzen jarraitzen badu ere, ez du inork noiz aplikatuko den zehazten.

Izan ere, artikulua honek eztabaida handia sortu du Alemaniako zirkulu politikoetan. Artikulu honen arabera Alemaniako Errepublika Federaletik kanpoko edozein lurralde aleman bere parlamentuaren botazio baten bidez Alemania Errepublika Federalean sar bait daiteke, 1957tik 1959ra Frantziaren

menpean zegoen «Saargebiet»ekin gertatu zen bezala. Batasun politikoa burutzeko beste aukera, Alemaniako Errepublika Federaleko Oinarrizko Legearen 146. artikulua ematen duena da: «Oinarrizko Lege honen iraupena herri alemanak aukera librean beste konstituzio bat onartzen duenean bukatuko da». Arazo juridiko honen atzetik gatazka politiko-ideologiko bat ikus daiteke. 23. artikulua aldekoentzat Alemania Batua Alemania Errepublika Federala handia litzateke, oraingo sistema politiko, ekonomiko, sozial eta militarrekin. 146. artikulua defendatzen dutenentzat, ordea, Alemania Batuak estatu berri bat izan beharko luke edo, behintzat, Alemaniako Errepublika Federala, handia baina berritua. Orain bi zatitan banatutako herri osoak parte hartu behar duela estatu berriaren eraikuntzan diote, eta ez bakarrik Alemaniako Errepublika Demokratikoko alemanek. Helburu hau lortu ahal izateko Alemania osoko hauteskondeak, parlamentu batuaren osaketa eta, Alemania Errepublika Federaleko Oinarrizko Legea eredu eta abiapuntutzat hartuz, konstituzio berriaren eztabaida eta onarpena eskatzen dituzte. Bide honetatik joanez gero, aleman guztien arteko kontsentsuan oinarritutako estatua lortuko litzateke, eta horrezaz gain, Alemania Errepublika Federaleko Oinarrizko Legea baino hobea den konstituzioa.

L. MEES
Jakin, 1990, 58. zkia. 23-25 orr.
(moldaturik)

1. **Zein da martxoaren 18an egindako hauteskundeen emaitzen araberako ekialdeko alemanen gehiengoaren nahia?**
 - a) Estatuaren desagertzea lortu nahi dute.
 - b) Alemaniako Errepublika Demokratikoarekin estatu independente berria eratzea.
 - c) Soviet Batasunean sartu nahi dute.
 - d) Beren estatua desagertu ondoren Alemania estatu bakarra izatea.
2. **Aliantzak lortutako garaipena biribila izan zen.**
 - a) Inork espero ez zuelako.
 - b) Berandu ibili arren ia gehiengo osoa lortu zutelako.
 - c) «Stasi»arekin harremanak zeuzkan liderrak dimititu zutelako.
 - d) Kohlek hauteskondeak irabazi zituelako.
3. **Zer izan da erabakiorra eskuindarren garaipenerako?**
 - a) Sozialistak 40 urtetan erregimenaren zutabe izatea.
 - b) Kontsumismoari dagokionean erradikalenak izatea.
 - c) Ezkerreko alderdiak antolamendu exkaxarekin abiatzea.
 - d) Besteren artean, Bonnen kontserbadoreak agintean egotea.
4. **Kohlen jarraitzaileen artean beldurra agertu da.**
 - a) Orain agindutako guztiak bete egin behar direlako.
 - b) Lafontaine irabazi ez zuelako.
 - c) Alemaniako Errepublika Demokratikoa eta Alemaniako Errepublika Federalekoek ekonomia murriztu behar dutelako.
 - d) Inork ez dituelako zergak ordainduko aurrerantzean.

5. **Alemaniko Errepublika Federalean giro politiko eta soziala...**
- a) dagoeneko ez da batasunaren aldekoa.
 - b) batasunaren aldekoa da, baina hau gogorra gertatzen ari da.
 - c) beheko mailentzat astunegia denez moteldu egin behar izan da hasierako martxa.
 - d) Kohlek prometitua zuena da gaur egun.
6. **Zer gertatzen da Alemanian batasun politikoarekin?**
- a) Atzerapenak gertatu ondoren, gaur egun horretarako data kolokan dago.
 - b) Kohlen eritziz horixe da berak egin beharreko lehen gauza.
 - c) Moneta erreformaren ondorioz berandutu da.
 - d) Horretarako legea indarrean noiz jarriko den zehaztu gabe dago.
7. **Moneta erreforma egiteko data...**
- a) martxoan zehaztuko dute.
 - b) ekainean kokatuko dute ziurrenik.
 - c) botazio bidez erabakiko dute.
 - d) kolokan dago oraindik.
8. **Oinarrizko Legearen iraupenari buruz zera esan daiteke:**
- a) Alemaniako Errepublika Federaleko parlamentukideen eskuetan dago.
 - b) Alemaniako Errepublika Federaleko eta Errepublika Demokratikoko parlamentuen eskuetan geratzen da.
 - c) Alemaniako Errepublika Demokratikoko herriaren ardurapean uzten du.
 - d) Herri alemanak aukera librean konstituzio berria aukeratzen duenean amaitzen da.
9. **23. artikulua alderantziz zera diote:**
- a) Alemania batuak ez du estatu berri bat izan behar.
 - b) Errepublika Demokratikoa estatu berria izango litzateke.
 - c) Errepublika Federalaren barruan eratu behar da Alemania berria.
 - d) Errepublika Federalak eta Errepublika Demokratikoak estatu desberdinak izan behar dute.
10. **Zeintzu izango lirateke azken helburuak?**
- a) Aleman guztien adostasunaz lortutako estatua eta konstituzioa.
 - b) Konstituzio berri baten eztabaida eta onarpena.
 - c) Alemania bietan hauteskundeak antolatzea.
 - d) Alemanek estatu independente bi lortzea.

2.3.4. 1991/9/28

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zer dio Mikel Laboak Atahualpa Yupanki eta Violeta Parrari buruz?**
 - a) Kantagintzan hastera bultzatu zutela.
 - b) Eragina izan zutela beragan.
 - c) Lagun izan zituela Donibane Lohitzuneko kantaldi batean.
 - d) Euskaratu egin zituela.

2. **Euskal Herriko kanta zaharrak, garai hartan...**
 - a) tabernetan bakarrik kanta zitezkeen.
 - b) Hegoaldeko tabernetan izan ezik ez ziren ezagunak.
 - c) ez ziren ezagunak Hegoaldean.
 - d) tabernetako grabazioei esker soilik ziren ezagunak.

3. **Zer dio Mikel Laboak herri kanten diskoaz?**
 - a) Bide berri hori egokia iruditu zitzaiola berarentzat.
 - b) Ordura artekoa arbuiatzera eraman zuela.
 - c) Hastapenetan bakarrik geratu zela.
 - d) Kanta tradizionalak diskoan eman zitezkeela konturatu zela.

4. **Laboa bera zubi izan omen liteke musikari berrientzat:**
 - a) kanta tradizionalak ikas ditzaten.
 - b) berarentzat kanta tradizionalak izan ziren bezala.
 - c) *Haika mutil* bezalakoak sor ditzaten.
 - d) berarentzat musiko berriak diren bezala.

5. **Garai hartan folk munduko musika...**
 - a) entzutea zaila zen.
 - b) zen gehien entzuten zena.
 - c) besterik ez zen heltzen.
 - d) gaur baino gehiago entzuten zen.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Frogatu al da hormonak kaltegarriak direnik?**
 - a) European behintzat frogatuta dago.
 - b) Bat izan ezik gainontzekoak ez.
 - c) Ez, gorputzak berak sortzen ditu eta.
 - d) Denak dira kaltegarriak.

7. **Bi eratako hormonak bereizten dira:**
- gorputzak onartzen dituenak eta artifizialak.
 - ezin dira bereizi, 200 bat badira eta.
 - berezkoak eta artifizialak.
 - berezkoak eta abereei ziztatzen zaizkienak.
8. **Zer dio Europako Elkarte Ekonomikoaren debekuari buruz?**
- Ez dela gomendagarria.
 - Ez dela behar bezala betetzen.
 - Ez dela Estatu Batuetan bezala betetzen.
 - Betetzen dela.
9. **Antzeman al daiteke okelak hormonak dituen ala ez?**
- Zaila da; analisiak zehatzak, konplexuak eta garestiak dira.
 - Zaila da; okelaz gainera giltzurrunak eta aberearen organu guztiak aztertu behar dira.
 - Zaila da; laborategian saguek hogeita bat egun bakarrik diraute bizirik.
 - Zaila da; laborategi gutxi dago horretarako prestaturik.
10. **Zein da al baitariak aipatzen duen irtenbidea?**
- Hormonen egileak gehiago lagundu eta zaintzea.
 - Enpresa egileak ugaritzea.
 - Hormonak sortzen dituzten enpresak kontrolatzea.
 - Enpresa egileak merkatu beltzetik ateratzea.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Zerk amorrarazten zaitu gehien?
- Udan, urtero ikusten dituzu errepideetan kotxeak trastez gainezka, beren lurraldeetara doazen marokoar, aljeriar eta portugaldar familiak.
- Bilbo hiri zatarra, kutsatua baina bizi-bizia...
- Gaur norbaitek hitz goxoak esan dizkizu...

ESKUTITZA

Zure herriko kultur eta kirol elkarteko partaidea zara. Ez zatoz bat azkenaldian antolatu diren zenbait ekintzarekin, ezta elkarteak daraman norabidearekin ere. Gauzak horrela, elkartearen uztea erabaki duzu.

Idatz iezaiozu eskutitz bat elkarte-buruari zure erabakiaren berri eman eta adierazi argi eta garbi horretarako dituzun arrazoiak.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Abentura haietan ibili ginenok gogoan daukagu oraindik bizitzaren arnasak duen balioa.

_____ ez zaigu _____

2. Zure kezka guztiak adierazi ezik jai duzu sikiatrarekin.

_____ ba... _____
_____ zer _____

3. Erabaki honek ez ditu babesten handi-mandien gehiegikeriak. Jende xehearen eskubideak babesten ditu.

_____ ...nak _____
_____ baino.

4. Beti pailazo antzera dabilenak ez du arreta handiegirik merezi.

_____ egiten _____
_____ ez zaio _____

5. Bizitzak amets gutxi eskaintzen dizkio norberari. Norberak bizitzari eskaintzen dizkionak.
 _____ adina _____

6. Kontuak aurretik atera ez zituelako, ez da gutxitan harez gero damutu!
 _____ ..gatik,
 makina bat _____
7. Kurtsoa behar bezala gainditzekotan larunbatero dantzan bezala saiatzea nahikoa zenuen.
 _____ ba... _____
 _____ besterik _____
8. Ezin da beti lelo berberaz bazterrak nahasten ibili!
 _____ ..rik!
9. Egitasmo honek ez du nolana Instituzioen baietza jasoko.
 _____ emango.
10. Ez da errepide bat soilik hemen eztabaidan dagoena. Guztiona den beste zerbait ere bai.
 _____ gain _____

11. Noiztik ez dugu arratsalde lasai bat elkarrekin igarotzen?
 Zenbat _____ ?
12. Rikardok hamar milioi irabazi zituen negozio biribil hartan eta bere ki-deak beste hainbeste.
 _____ ..na _____

13. Hotza eta gorria da negua; horrelakoxea gertatu zaigu aurtengoa!
 A zer _____
14. Inon ez gintuzten baserri hartan bezala hartu, egun eta ordu askotako borrokaldi triste haien ondoren.
 _____ ez bezalako _____

15. Taberna zuloan gauero ikusten dugu hori. Burua eta ekimena galdutakoa dirudi.
 _____ horrek _____

16. Hobe zenuke trikimailu guztiak ikastea edonork ez engainatzeko.
 _____ ba... _____
 _____ engaina _____
17. Urduri eta totalka azaldu zen epailearen aurrean, tinko eta segurtasunez egin beharrean.

 _____ baizik.
18. Mendira igotzen hasi orduko zeharo nekatuta zegoen. Ulertzerik ba al dago hori?
 Nola _____
 _____ eginda _____?
19. Dirudienez, gatazka honen ondorioak ez dira bakearekin amaituko.
 Ez du ematen _____

20. Oñatira orain dela hamaika urte iritsi nintzen.
 Badira _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Eguberrietako oporretan **ezagutarazi** nion osaba Rosariori nire kezka, eta galdetu egin nion ea gaiso zegoen (amona), eta honen erantzunak **lasaitu** ninduen: amona osasunez oso ondo ikusten zuen eta.

Hain pozik nengoen, bestalde, gurasoen bidaia handiaren zain, aise joan zitzaizkidan beste ardurak. Aitaxok kartaz esaten zidan guztia nire buruan imajina bihurtzen zen: amesten nuen, eta ikusten nuen. Laster helduko zitzaidan, beraz, ordura arte falta izan zitzaidan segurtasuna, egiazko **babesa**... Pozik **adieraziko** nizkiokeen nik amonari neure pentsabideak, hainbat gauza... Eta orduan **konturatu** nintzen, gurasoak **gertuago** sentitzen hasi nintzenean, sakona eta isila zen zerbait sentitzen nuela amonagana, eta sentipen honekin nahasian, zera, **errespetu itzel** batek **banatzen** ninduela beragandik, eta ez nintzela inoiz ausartuko amonari nire bihotza **osorik** zabal-tzera.

Izeba Maritxu joana zen ordurako, eta amonak egin zidan bisita baten **ostean** lagundu nion ate nagusiraino, beti bezala, eta bitarteko basotxoaren gerizpean gindoazela, eta begiratu gabe, **herabe** galdetu nion: «Amona, zer gertatzen zaizu?».

Ez zidan begiratu, ez zen geratu ere egin, eta berean zihoala esan zidan ahots berri eta tristez: «Zure aitona galdu nuenez gero, eta oso gazterik joan zen, nire seme-alaba ederren aita eta ama, biak, izan naiz; hauetako bati **gaizki** badoakio, arazoak baditu, **neronek** sentitzen ditut kargak. Lazaro ez da aspaldi bere emazte eta seme-alabengana, bere etxera **bildu**. Uste dut **berriz** «jaitsi» beharko dudala ikustera...».

Nik amonari **sekula** entzundako esaldirik luzeena amaitu eta gero isildu zen.

Heldu ginen ate nagusira.

Eskuz nire ilea **laztandu**, hau zen bere niganako zeinu **hunkikorrena**, eta beti bezala gomendatu zidan: «Denbora ongi aprobetxa ezazu».

Hurrengo igandean ez zen etorri; bi astez egon zen kanpoan, eta itzuli zenean, eraman zuen aurpegi **kezkatu** berarekin etorri zen. Eta ez zidan konfidentziarik egin.

Amona Mertzxedesek betirako zerbait galdu zuela zirudien.

M. UGALDE
Itzulera baten historia

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

FAMILIA LEHEN ETA ORAIN EUROPAN

Ezkontza barruan sexuen arteko zereginen banaketa oraindik tradiziozko honek badirudi ez dituela asetzen europar guztiak. Ohizko ezkontzatik aparteko bikote bizitza baten bila dabilta gero eta gizon eta emakume gehiago.

Europa guztian, ezkontzaren beherakadak elkarketa libreen gorakada ekarri du. Frantzian bakarrik, eta lurralde eskandinabiarren aldean kopurua apala izaki, bikoteen %10a (milioi bat inguru, beraz) elkarketa librean bizi da. Kopuru honek %50a egiten du Paris inguruan bizi direnen eta 25 urtetik beherako gizonen artean.

Adin guztietako bikote frantziarren laurdenak haurrak ditu. Elkarketa librea gustukoago dute emakume gazteek, beren adineko gizonen baino, bizi modu berri hau berdintasunaren alderagoko iruditzen zaielako.

Europako emakume eta gizonen ez dute gehiago onartzen zoritxarreko ezkontza. Hartaz, eta 1965az geroztik, dibortzioa ugaltu egin da Europako lurralde guztietan. Baina dibortzio gehiago gertatzen da Europako iparrean

(Eskandinabia) Europako hegoan baino (Frantzia, Italia, Espainia). Irlandan ezik, debekaturik bait dago han dibortzioa, agintariek dibortziazeko bideak erraztu egin dituzte. Ohiturek aurre hartu diete legeen aldaketei.

Hortik etorri dira guraso bakarreko familiak: haurrak gurasoetako batekin bizi dira —amarekin gehienetan (%90a Frantzian, %93a Danimarkan)—. Europako Parlamentuaren arabera, guraso bakarreko familia «famili zelula» bezala hartu behar da, «inolako bereizkuntzarik gabe».

Elkarketa libreak ugaltu diren tamainan, ezkontzatik kanpora jaiotzen diren haurren kopuruak ere gora egin du. Suedian 1980an, haur suediarren %40ak ezkondu gabeko ama zuen. Egoera hau lurralde hartan oso ongi onartu du herriko erizpideak, berrikuntza sozialek haur bat zuten pertsonen alde jokatu bait dute. Frantzian, 1982tik 1986ra bitartean haur hauen kopurua %50ean igo da, 1986an 171.000 inguru direlarik, hau da jaiotza guztien %22 inguru. Erizpideen eta jokabideen aldaketa sakon baten seinale dugu.

Aitak haurraren ama uzteak, ohizko gertakizun horrek, behera egin du. Honen ondoan, beste gertakari berri bat indartzen da: aitak haurra bere bezala aitortzen duela. Frantzian, 1980an, ezkontzatik kanpora jaiotako haurren erdiak semetzat onartuak dira, 1968an %22,5a onartua zen bitartean.

Europako legegileek, salbu Eskandinabian, elkarketa librean bizi diren bikoteak ezkonduen aldean gutxietsi egiten dituzte oraindik. Baina lurralderik gehienetan ezkontzatik kanpo jaiotako haurren eta besteen arteko desberdintasunak gutxitzen saiatzen dira. Hala, Irlandan, bide honetatik doan berrikuntza bat onartu da 1986an.

Nola eratzen da «guraso bakarreko familia», gehienetan dibortziotik edo banaketatik sortutako hauen bizitza? %90ean gutxienez, haurrak gorde eta hezitzeko zeregina amaren esku utzi izan da. Haurrak mantentzeko emazteari diru bat ematera beharturik geratzen da senarra. Zenbait lurraldetan (Luxemburgo, Danimarka, Frantzia) gobernuak bere gain har dezake aitaren zeregina emakumeak beste irabazpiderik ez izaki eta haurrak hazi behar dituenean, ezinean gerta ez dadin.

Baina, antzina baino gehiago hartzen du kontutan Europako legegileak bikotearen berdintasun nahia eta emakumea lanaren munduan sartu izana. Danimarkan agintea bi gurasoen artean partituzeraino heldu dira. Daudela ezkondu gabeko ezkondu gabe, elkarrekin edo bakoitza bere aldetik bizi direla berdin, horrela aita ezkongabeen nahiei erantzunez, banatuz gero, eskubide gutxiago bait dituzte gehienetan amaren aldean. Frantzian, gero eta sarriago guraso dibortzietuek txandaka zaindu ohi dute beren haurra.

A. MICHEL
UNESCO-ren Albistaria
56. alea, 1989ko iraila.

1. **Zergatik dabil gero eta europar gehiago bikote bizitza berri baten bila?**
 - a) Sexuen arteko zereginen banaketa berriak tradiziozkoak baino asegarriagoak direlako.
 - b) Ezkontzako sexu zereginek asetzen ez dituztelako.
 - c) Ezkontza barnean sexuen arteko zereginen banaketa ohizkoa baita.
 - d) Ezkontzako sexuen arteko zereginen banaketak betetzen ez dituztelako.

2. **Elkartze libreei dagokienez...**
 - a) Eskandinabian bezain kopuru apala dago Frantzian.
 - b) Frantziako kopurua Eskandinabiakoa baino %10 gutxiago da.
 - c) Frantzian Eskandinabian baino kopuru apalagoak ditugu.
 - d) Eskandinabian apala bada kopurua, are apalagoa Frantzian.

3. **Elkarketa librea eta berdintasuna...**
 - a) lotuagoak daude, emakume gazteen ustetan.
 - b) ez datoz bat, adineko gizonen ustetan.
 - c) batuago daude gizon gazteentzat emakumeentzat baino.
 - d) emakumeen alderago dago, gizon gazteen ustez.

4. **Ezkontza-banaketak gauzatzeko legeei buruz zer dio?**
 - a) Irlandan ez ezik, Europa osoan ere erraztu egin dutela.
 - b) Ohituren atzetik ibili direla.
 - c) Ohiturei aurrea hartu dietela.
 - d) Irlandan ezik, ohiturak erraztu dituztela.

5. **Europako Parlamentuak dio inolako bereizketarik gabe hartu behar dela...**
 - a) amarekin nahiz aitarekin bizi den haurra.
 - b) guraso bakarreko haurra.
 - c) guraso bakarreko familia.
 - d) haur bakarreko (famili zelula).

6. **Zer dio ezkontzatik kanpo jaio diren haurren kopuruari buruz?**
 - a) Ezkontzatik kanpoko elkarketak bezalaxe, igoera nabarmena izan duela.
 - b) Suedian bezala igo egin dela beste lurraldeetan ere.
 - c) Elkarketa libreak ugaltu diren tamainan ez dela ugaltu.
 - d) Ezkontzatik kanpoko elkarketek egoera nahasi batera eramandu dute.

7. **Haur horiekiko nolako joera nabarmentzen da?**
 - a) Ohizkoa, aita haurra eta ama uztekoa.
 - b) Ezohizkoa, aita haurrak onartzekoa.
 - c) Ama ez bezala haurra onartzekoa.
 - d) Haurra uztekoa ohizko bihurtu da.

8. Legearen aldetik, ezkondu gabeko bikoteak...

- a) ezkonduen aldean gaizki ikusiak eta mespretxatuak daude.
- b) zeharo ahaztuak daude.
- c) ezkonduen aldean desberdintasunak jasaten dituzte oraindik.
- d) ezkonduen berdintasun egoera berean daude, Eskandinabia kasu.

9. Nola eratzen da orokorki guraso bakarreko familia?

- a) Umearen ardura amak du, eta zaindu ezin badu, Estatuaren esku geratzen da haur hori.
- b) Umearen ardura amak du eta aitak diru-laguntza eman behar du.
- c) Umearen ardura aita-amek dute eta laguntza ekonomikoa Estatuak ematen du.
- d) %90ean amaren eskuetan geratzen da haurraren heziketa eta baita diru arazoa ere.

10. Zein da artikulu honek adierazten duen idea nagusia?

- a) Europako Estatu desberdinetan famili-bizitza mota berrien bila dauden gizartearen joera nagusiak.
- b) Ezkontza-banaketek sortzen dituzten arazoak konpontzeko hartu diren neurriak zehazten ditu.
- c) Ezkondu gabeko bikoteen elkar-bizitza arautzeko hartzen ari diren neurrien joera nagusiak.
- d) Tradiziozko ezkontzen bidegabetasuna eta porrota.

2.3.5. 1991/10/5

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Espiritismoa, parapsikologia eta horrelakoak egiten dituzten taldeak/ek...**
 - a) kosmosaren misterioez arduratzen direnen sailean daude.
 - b) behin baino gehiagotan sektak osatzen dituzte.
 - c) hildakoen mundua ezagutzeko teknikak erabiltzen dituzte.
 - d) elkarrizketatuak aipatzen duen lehenengo sailean daude.

2. **Sekta suntsitzaileetan...**
 - a) partaide sartzeari zaila da, ez bait dute informazio gehiegirik ematen.
 - b) nagusiak esandakoari jarraitzen diote partaideek.
 - c) sartu aurretik, «buru jana» egiten zaie partaide guztiei.
 - d) ez da erraza talde-bururaren borondatea errespetatzea.

3. **Soziologoaren artean gehien onartzen den eritziaren arabera,...**
 - a) sinesteren bat izatea irrazionala da.
 - b) sektak sortzearen ondorioz behera egin du erlijioak azken urteotan.
 - c) fededuna gaisotzat hartzearen ondorioz behera egin du erlijioak azken urteotan.
 - d) fededunaren sinestea ukatzeak beste muturreko erantzuna ekartzen du.

4. **Sekten sorrerari dagokionean, hona bigarren teoriak dioena:**
 - a) erlijioa atzera joatearen ondorioz sortzen dira sektak.
 - b) sektak erlijioaren azken aztarnak dira.
 - c) sinesteak oinarritzat dituzten erlijioen azken aztarnak dira.
 - d) sinestemenean oinarritzen ez direlako sortzen dira sektak.

5. **Zergatik sartzen da jendea sektetan?**
 - a) Familiarekin arazoak dituelako.
 - b) Etorkizunaren eta hainbat gauzaren berri izan nahi duelako.
 - c) Gizarte tradizionaletik modernorako aldaketa ezin duelako jasan.
 - d) Sektek beren *marketing*-a hobetzeko diru ugari erabiltzen dutelako.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Elkarrizketatuak esandakoaren arabera,...**
 - a) sektak ez die laguntzarik ematen partaideei horiek dituzten arazoak konpontzeko.

- b) sektak erabateko maitasuna eskatzen diete barruan sartzen direnei.
- c) sektak gizartearekiko ezineramanak bultzatzen ditu.
- d) sekta-buruak izaten dira politikaz arduratzen diren bakarrak.

7. EEBBetako indar ekonomikoek/ak...

- a) herrialde atzeratuei laguntza ematen diete.
- b) herrialde atzeratuei laguntza ematen diete sektei aurre egiteko.
- c) sektez baliatzen dira herrialde atzeratuetako gobernuari aurre egiteko.
- d) dirulaguntzak ematen dizkiete sektei Partido Humanistaren bidez.

8. Euskal Herrian...

- a) egoera politikoak sekten indarra areagotu egiten du.
- b) egoera politikoak ez du balio sekten indarra handiagotzeko.
- c) egoera politikoak sekten indarra gutxitzeko balio du.
- d) egoera politikoak ez du balio sekten indarra gutxitzeko.

9. Sektetan daudenek...

- a) taldeak ematen dien segurtasuna nahiago dute.
- b) taldean bertan aurkitu nahi dute askatasuna.
- c) zenbat eta helduago orduan eta libreago nahi dute izan.
- d) ez dute askatasuna bilatzen, ez dutelako arazorik.

10. Sektak legez kanpo uzteari buruz, elkarrizketatuak zera dio:

- a) Euskal Herrian EEBBetan baino zailagoa dela.
- b) Euskal Herrian EEBBetan baino errazagoa dela.
- c) Haziendari ordaintzea nahikoa dela legezatzeko.
- d) EEBBetan sekta suntsitzaileak delakoak debekatuta daudela.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Seme-alabak? Ez, eskerrik asko.
2. Ezkontzea, jende askorentzako negozioa.
3. EEBBetan *strip-tease*-a debekatu.
4. Antolatutako bidaiak, trikimailuz betetako negozioa.

ESKUTITZA

Zeure ezkontzarako egun gutxi falta direnean, eskutitza jaso duzu. Eskutitz horretan hurrengo hauteskundeetarako mahaiburu izendatu zaituztela jakin erazten dizute. Hauteskundeak eta zeure ezkontza egun berean izango direnez, idatzi Hauteskunde Batzordeko lehendakariari eta azal iezaiozu zeure egoeraren berri.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Ametsak oso gogoko ditugu euskaldunok.

_____ emanak _____

2. Antza denez, ez dira hona azaldu.

_____ bide _____

3. Ni ikustean, irakaslea nintzela bururatu zitzaion ikasle horri.

_____ hartu _____

4. Bakoitza auto batean etorri zen.

_____ bana... _____

5. Baleek bizirik iraun dezaten, harrapaketak bertan behera utzi behar dira.

_____ badute.

6. Bildutako guztiok ingelesez elkarri egin arren, europarrak ginen gehienok.
 _____ ba... _____

7. Zuk esandakoa ondo dagoelakoan gaude.
 _____ esandakoari _____
8. Testu bat idazterakoan, oso garrantzitsua da hitzak ongi aukeratzea.
 _____ berebiziko _____
9. Garbi dago ekologi arloan badugula zer eginik oraindik.
 _____ doa _____
10. Nahiz eta estutasun larrian jartzeko arriskuan egon, argi eta garbi hitz egingo dizuet.

 _____ mintzatuko _____
11. Orain dela gutxi amaitu dut utzi zenidan liburua.
 _____ berria _____
12. Zuk ez duzu gu kalera botatzeko inolako ahalmenik.
 _____ ezin bota _____
13. Umil itxurak egiten zituen baina harroputza zen oso.
 _____ ...arena _____
14. Egiten dudanaren berri eman behar izateaz nazka-nazka eginda nago.
 _____ izateak _____
15. Denbora luzea beharko da zubi berria egiteko.
 Luze _____
16. Azkenengo aldiz elkarrekin izan genuen hizketaldiaz gogoratzen ari naiz.
 _____ gogora.
17. Maite nauela esanez gero, izugarri poztuko nintzateke.
 Nire _____ ba... !
18. Hura bezain iturgin treberik ez dut sekulan ikusi.
 _____ duenik.

19. Urteak ziren geure lehengusinare berri ez genuela, eta ikusi bezain laster besarkatu genuen.

_____ besarkada _____

20. Erosi dituzuen erlojuak, behin apurtuz gero, konponezinak dira.

_____ dago _____

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak eman itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz.

Neguko egun **goibel** batez heldu nintzen Villamedianara. Eguerdirako, **lainoa** erabat beheratua zegoen, eta aurreneko **txukunketak** egin eta leihotik begira jarri nintzenean, herria oihal zurixka eta **izoztu** batekin bildua iruditu zitzaidan. Bildua, bestalde, baldar xamar, agerian utziz haren zenbait zati; teilatu baten kantoia hemen, zumarraren **gailur** biluzia han, elizaren kanpandorre borobila erdirago. Errainu ilun, airean **eskegita** bezala, zati haiek lainoak berak baino hotz gehiago ematen zidaten.

Lekuz aldatzen denak beti izaten du **kemen** berezi bat, bizitza zahar eta **zamatsua** utzi dueneko lausoak ematen diona, eta nik ere banuen. Hararik ere, sentimendu horri leihotik ikusten nuenak **galerazten** zion. Ez zen halakoa nik aurkitzea pentsatzen nuen eguraldia. Bidaiatu aurretik, imajinatzeari ekin eta neure burua lur haietan ikusten nuenean, lan bakarra paisaia zehaztu beharrak ematen zidan: zenbat bide izango ote zituen, zenbat etxe; nolakoak ote ziren, **egiazki**, trapezioaren **antzeko** forma xapalak hartzen omen zituzten paramo haiek. Baina zeruarekin ez neukan auzirik. Naif **paintoreak** bezala, zeruan eguzki bat kokatzen nuen beti. Ahula, negukoa zen **partez**, baina nahikoa, **ezbairik** gabe, nire **garo** eta goroldiozko izpiritua pozteko. Eta bitartean, laino hura. Bustia, zikina.

Bi sentimenduen arteko **borroka** luzatu egin zen. Batzuetan, damu hartzen nuen bidaiatu izanaz, eta utzitako mundu zaharrera jotzen nuen guttiz ez erortzearren; gutunak egiten nituen, telefono deiak. Edo hurbilena zegoen hurira joaten nintzen, zinera, edo jendez gainezka zeuden kafetegi epeletara. Berriz bestetan, **aukeratutakoari** aurre egin behar niola eta, bufanda hartu eta Villamedianako kaleak ibiltzen nituen, ea norbait ikusten nuen edo. Baina herria hutsik zegoen, jendea gordeta. **Entzuten** nuen soinu bakarra urarena zen, zeren lainoak ixuritako ura teilatu erretenetara biltzen baitzen, eta txalo ttikitako oihartzuna sortzen baitzuen —handik txirraian eroriz— begiak itxi eta teatro batean nengoela iruditzen zitzaidan. Soinua oso **zalapartatsua** ez zenez, nire **artean** broma egin eta kortesiaz txalotzen zutela pentsatzen nuen, obrak ez zuela arrakasta haundiegirik izan.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

SALBATUKO AL DA LENINGRADO?

Pedro Handiak San Petersburg hiria sortu zuen 1703an Nevako del-tan. 1914ean Petrogrado deitu zuten. 1924etik, Leningrado du izena.

Pedro Handiak bere hiri hura hiriburu ideala, bigarren Venezia nahi izan zuen egin. Bi mendez, tsarraren ametsa betetzen saiatu ziren arkitekto belaunaldi berriak. Edertasun paregabeko hiria eraiki zuten, fantasiaz betea, arkitekturazko gune, palazio, museotan oparoa; duen plano argi eta logikoari, bertako karrika eta plazen armonia galaiari, kaien lerro arranditsuari, ubideak eta kanalak mugatzen dituzten burdinsareen diseinu kapritxozkoari esker edonor harritzen duen hiri bat. Erdigunea —bertako etheen erdiak monumentu historiko izendatuak dira— 46 km²tako azalera harrigarrian zabalitzen da.

Baina, Leningrado hiltzen-hiltzen ari da. 10-15 urteren buruan, erdigune historikoa guztiz galdurik izango da. Europa eta Errusiako arkitektoek eraiki zituzten etxe eta palaziotxo partikular haien guztien %30a guztiz hondaturik dago dagoeneko edo hutsa falta du hondatzeko.

Ikuskizun penagarria garai batean hain distiratsua zen hiriburu hark gaur eskaintzen duena: etxe asko erortzeko zorian, espaloiak zuloz eta arrapal puskaz beteak, burdinsareak txikiturik. Utzikeriari utzia dena. Adreiluak, etxaurreetako apaingarri eta estalkiak eror daitezkeela eta, ibiltariak babes-teko aldakoak eta alanbre-sareak alde guztietan. Karrika utzi batzuek, egunargitan ere, itxura beldurgarria dute, beren ate itxi eta kristal hautsiekin. Inor ez da bizi haietan.

Hondamendi honen zergatiak ugari eta era askotakoak dira. 1917an, Iraultza palazioen kontra abiatzen da. Ondorioz, neurtu ere ezinezko balioa zuten hainbat eraikuntza apartamendu amankomun bihurtzen dira. 1918an, anaiarteko gerra da. Hogeitamarreko urteetan, Stalinek kultu eraikuntza asko botatzeko agindua ematen du. Ondoren Bigarren Mundu Gerra etorriko da, blokeoa, karrika asko txikituta geratuko dira, eta hiritarrek dozenaka urte beharko dituzte haiek konpontzeko. Hirurogeigarreneko urteekin, «arkitekturaren gehiegikeria»ren kontrako kanpainak eraikuntza jator asko itxuraldatuko ditu, kaxa karratu arrunta bihurtuz.

Agintaritza sobietarreko urteek alokagai zen zabaleraren erdia sunsittuko dute, eta eraikuntza historiko eta erlijioso asko desagertaraziko ditu. Hirriaren berezko zahartzea gaineratu behar zaio horri, gaurregun egiten diren eraberriketa lanek geldierazi ezin duten prozesu bat, alegia.

Zoritzarrez, antzinako eraikuntza asko administraritzaren eskutara joan dira: eman zaien erabilerak hondamendia azkartu besterik ez du egin. Hala, San Vladimiroren katedral bikainean oraintsu arte bulegoak zeuden, Jaso-kundeko eliza berriz irrista-pista zen, eta eliza armeniarra biltegi.

Metroaren eraikitzeko lanek ez dute hobekuntzarik ekarri. Geltoki batzuk eraikitzeko —eta palazioak bezain arranditsuak dira— etxe sail osoak behar izan dira bota edo parke berdeak hondatu. Zenbait geltoki elizak zeuden tokietan eraiki dira, haiek dinamitaz erausi ondoren. Gainera, metroa eraikitzeko, teknika zaharkitu bat erabili da, lurra izoztea, alegia. Hartaz, era honetan lurra handitu egiten da lehendabizi eta ondoren era irregularrean etortzen da berriro lehen zuen tamainara. Lur azalean zeuden eraikuntzek, ondorioz, lurraren haustura berbera nozituko zuten.

Leningradok duen ezaugarrietako bat da arkitektura, kultura edo arte aldetik balioaren bat duten eraikuntzen %70ean bizilagunak daudela. Askotan luxuzko gauzez beteak dauden barneak nola zaindu osorik, barne horiek gela oso txikitan edo apartamentu amankomunetan banaturik badaude? Egoerarik penagarrienean aurkitzen dira sarrienik.

Eraberriketa enpresek barnea goitik behera desegitea nahiago izaten dute, paretak botaz, apartamentu modernoak egiteko. Gisa honetako «eraberriketak» hogeitaz egiten diren ondoren, hiriak 150 palaziotxotik gora galdu ditu, kanpoko hormak besterik gorde ez direla.

Hiriko egoera ekologikoa gisa berean penagarria da. Industriak eta garraioak airera botatzen duten gas kutsakorren maila arauak agintzen dutena baino handiagoa da. Hiria igarotzean urez hornitzen duen Neva ibaiak, eta orobat hiriko gainerako erreka eta kanalek ere, ehundaka lantegi eta fabrikako isuri araztu gabeak hartzen dituzte. Ondorioa: Nevako ura ezin da edan, eta areago igeritan egitea ere debekatu egin behar izan da. Leningradon ez dago kontrol jarraiturik airera eta uretara botatzen diren hondakin toxikoei dagokienez.

Hiri hau izango da beharbada Europa guztian, sartu gabe pasatzeko inguru-biderik ez duen bakarra. Kamioi astunen izugarritzko trafikoa dabil, beraz, karrketan barna, kalte nabarmenak sortuz. Dardarak, isuritako gasak, biztanleen axolagabezia: jakitekoa litzateke zein den, gaitz hauen guztien artean, txarrena.

San Petersburgen —jatorrizko izena itzuli nahi bait zaio berriro— ez da hiria soilik galtzera doana: Errusiak arkitekturan, kulturen eta historian izan duen dirdaiaren lekuko bat galduko da. Salbatu al daiteke oraindik?

O. NOSAREVA
UNESCOren Albistaria
1991ko martxoa, 74. zkia.

1. Zer dio testuak Leningradoko kaleei buruz?

- a) Trafikoak kalte handiak eragin dituela haietan.
- b) 46 km²-tako azalera zabaltzen direla.

- c) Itxura beldurgarria dutela.
 - d) Haietatik %30 guztiz hondatuta daudela.
2. **Zer galerazi behar izan dute hirian?**
- a) Lantegietako isuri araztu gabeak.
 - b) Ibaia bainatzeko erabiltzea.
 - c) Hiria Neva ibaiko uraz hornitzea.
 - d) Airera zein uretara botatako hondakin toxikoak kontrolatzea.
3. **Zer gertatzen zaio gaurko Leningrado hiriari?**
- a) Hamar edo hamabost urteren buruan hilko dela.
 - b) %30ean hondoa jota dagoela.
 - c) Kale askotan inor bizi ez denez gero, hondatuta dagoela.
 - d) Utzikeriaren mende eta egoera okerrean dagoela.
4. **Hiriko eraikuntza baliotsuetan inor bizi al da?**
- a) Ez, inor ez.
 - b) Bai, hiriko bizilagunetatik %70.
 - c) Ez, Administrazioaren esku daude.
 - d) Bai, jendea bizi da haietako gehienetan.
5. **Zeintzuk dira hiriak jasaten duen hondamendiaren arrazoiak?**
- a) Urte luzeetan zehar izandako hainbat gertakariren ondorioak.
 - b) Bigarren Mundu Gerrak ekarritako txikizioak batez ere.
 - c) Hiria zahartzeak eragin dituen eraberritze lanak.
 - d) Iraultzaren ondorengo agintaritza sobietarrak egindako suntsipena.
6. **Egoera horren aurrean, zer egin du Administrazioak?**
- a) Hondamenaren abiada geldierazi duten lanak hasi.
 - b) Hartutako neurri batzuekin hondamena areagotu.
 - c) Eraikuntza erlijioso asko desagertarazi.
 - d) Bulegoak, irrista-pistak eta biltegiak eraiki.
7. **Nola egin dira hiria berritzeko lanak?**
- a) Eraikuntza zaharren kanpokaldea bakarrik mantenduz.
 - b) Hogei urte behar izan dituzte horretarako.
 - c) Ehun eta berrogeita hamar jauregi baino gehiago bertan behera botata.
 - d) Eraikuntzan, luxuzko gauzez beteriko barneak zainduz.
8. **Metroa eraikitzeak zer nolako ondorio onak eduki ditu?**
- a) Lurra izoztu dute, eta horrek oreka eman die eraikuntzei.
 - b) Metroa eraikitzean, palazio arranditsuak bezalako geltokiak eraiki dira.
 - c) Geltoki batzuk dinamitaz erausi ondoren, elizak eraiki dira.
 - d) Ez da ondorio onik aipatzen testuan.

9. Zer dio testuak gaur Leningrado den hiriaren fundatzaileari buruz?

- a) San Petersburg-en jaio zela XVIII. mendearen hasieran.
- b) Harengatik, hiriari Petrogrado izena eman ziotela 1914ean.
- c) Berak fundatu zuen hiria Veneziaren pare jarri nahi izan zuela.
- d) Venezian aurkitu zuela bere hiriburu ideala.

10. Zer gertatuko zaio Leningradori etorkizunean?

- a) Ezingo da salbatu.
- b) Orain duen distira galduko du.
- c) XVIII. mendean eman zioten izena berreskura dezake.
- d) Oso zahartuta dagoenez gero, eraberriketa asko egingo dituzte haren erdigunean.

2.4. 1992KO AZTERKETAK

2.4.1. 1992/5/16

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Pio Baroja, urteetan aurrera joan ahala...**
 - a) etxea gaitzetsiz doa.
 - b) lau urtean behin egoten da etxean.
 - c) sarriago egoten da etxean.
 - d) gutxiago egoten da etxean.

2. **Oraingo literaturari buruz, hauxe dio Barojak:**
 - a) Frantzian ez dagoela idazle txarrik.
 - b) Papini izan ezik, denak kaxkarrak direla.
 - c) eritzi negatiboa duela.
 - d) oro har, momentu onean dagoela.

3. **Benaventeri buruz, zera uste du:**
 - a) haren ospeak gutxi iraun duela.
 - b) hil ondoren baino ez dela ezagun bihurtu.
 - c) lau mila liberako Nobel Saria merezi izan zuela.
 - d) Espainiako teatroan autore kaxkarren artean ageri zela.

4. **Unamunori buruz hauxe adierazten du:**
 - a) herria bere alde jartzea lortu zuela.
 - b) begiko du, haren apaltasuna dela eta.
 - c) ez zuela Herria bere alde jarri, bere gogoaren kontra.
 - d) barruan eta kanpoan ospe handia lortu zuela.

5. **Donostiari buruz, berriz...**
 - a) euskalduntasunik gabeko herria dela uste du; Bilbo, are erdaldu-nagoa.

- b) ez dela Bilbo bezain euskalduna dio.
- c) lehen erosoagoa zela uste du.
- d) euskal nortasuna duen herri on bat da, bere eritziz.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Bilboko kalearteko giroa dela eta, zera dio:

- a) berezia dela, bere-berea duela Bilbok giro hori.
- b) pozik entzuten diela asturiano eta gailegoei euskaraz.
- c) toki guztietan gertatu bezala, Bilbok ere bere nortasun berezia eskuratzen diharduela.
- d) berez, nortasunik gabekoa dela, beste edozein hiri bezalakoa.

7. Euskararen etorkizunaz, hauxe da Barojaren eritzia:

- a) atzeraka dabilen arren, euskarak bere bidea aurkituko du.
- b) nekez, baina iraungo du.
- c) hirurogeita hamar urtez iraungo du.
- d) galbidean barrena doa.

8. Euskara ez galtzeko, zelako jarrera azaltzen du?

- a) Ez da ezer egitearen aldekoa.
- b) Euskarari arma egokiagoak ematearen aldekoa da.
- c) Denbora eman behar zaiola uste du.
- d) Euskaraz latinetiko hitzak maizago erabiltzearen aldekoa da.

9. Agintariek euskarari eman liezaioketen laguntzaz...

- a) baikor ageri da Baroja.
- b) ezkor azaltzen da, jendeak ez bait du euskaltzaletasunik.
- c) euskaltzaletasuna izanik, jendeak gogoz onartuko lituzke laguntzak.
- d) arrisku bat dagoenez gero, jendeak ez luke onartuko.

10. Barojak zera uste du:

- a) euskararen Bizkunde bat etortzekoa dela.
- b) ez dela etorriko euskararen salbazioa ekarriko duen mugimendurik.
- c) edonork eman dezakeela bere eritzia balizko bizkunde horretaz.
- d) euskararen inguruko aldakuntza hori benetakoa dela.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Lan eskaintza gaurko jende gaztearentzat. Gazteen egoera eta arazoak lanpostu bat bilatzerakoan.
2. Bartzelona-92ko Joko Olinpikoak: zer eritzi duzu kirol antolamendu erraldoi horietaz?
3. *Stress*-a eta gaisotasunak; zelan aurre egin *stress*-ari?
4. Informatika zalea al zara? Zergatik? Zer deritzozu mundu horri?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz. Adibidea:

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.

_____ Etxetik irten bezain laster hasi _____
_____ zuen euria _____

1. Lasterketa amaitzeko metro batzuk baino falta ez zirenean, korrikalaria behaztopatu eta aurrez erori zen.

_____ ...tzear _____

2. Herrialde horrekin badut lotura berezi bat. Lotura horrek urtero-urtero bertara abiarazten nau.

_____ ...ekiko _____

3. Azkenean erabaki dut dirua utziko dizudala, denda hartan postal horiek zuk niri erosteko.

_____ eros _____

4. Asier jatorra zen eta nekerik gabe entzuten zitzaion; bere anaia, berriz, agure aspergarri bat zen.

_____ besterik _____

5. Aurten idazlan ugari heldu zaigu aldizkarira; denak ezin izango ditugu argitaratu.
 _____ baino _____
 _____ ditugu.
6. Museo hori, benetan, bikaina da. Zirrara handia sortzen dizu, bereziki pintore inpresionisten bildumak.
 Museo horren _____

7. Nork esan non bukatzen den Fellini-gan urrikia, non hasten bihotz gogorkeria?

 _____ arteko muga?
8. Lotsatzen banau ere, aitortu beharrean naiz ia arrastaka eraman nindutela erakusketa horretara.
 _____ arren _____

9. Laster egiaztatu ahal izango nuen bezala, nire nagitasunak eta nire beldurrek ez zuten oinarririk.

 _____gabeak _____
10. Lapurreta horren autoretzaz esaten dena egia dela uste dugu, baina ziurtasun oso-osorik ez daukagu.
 _____ delako

11. Benetan diotsut: beraiek ere gurekin etortzea nahi genuen hasiera-hasieratik.

 _____ etor _____
12. Antza denez, hiru izan dira autobideko istripu horretan zauritutakoak.
 _____ omen _____

13. Sosik gabe itzuli zen, diru guztia jarri bait zuen eta okerreko zaldiaren alde egin bait zuen postura.
 _____ batetik _____lako

14. Zoaz, zoaz lehenbailehen. Amaia eta Jontxu bostetan hartu behar dituzu, ikastolatik irteten direnean.
 _____ bila _____

15. Han geunden guztiok goitik behera harritu ginen bilerara zelan sartu zen ikustean.
 _____ ...dura _____

16. Astirik badago, joan egingo gara eta Igorri esatekoak esango dizkiogu.
 Astirik balego _____

17. Kalera ez irtetearren eta lagunei dena kontatzen ez hastearren gelditzen egun osoan etxean.
 _____ ...lako _____
 _____ ...lako _____
18. Bigarrenari hogeita lau segundu atera omen dizkio, baina hogeita sei atera dizkiola esaten duenik ere badago.
 _____ ez ezik _____

19. Altzon festak ziren, eta Erramon ez zen etxean geratuko.
 _____ egoteko ona.
20. Juan Marik laster utzi beharko zituen eskolako lanak.

 _____ beharrean.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

MANUEL LARRAMENDI, EUSKAL ZUZPERTZAILE

Haren jaiotzaren hirugarren mendeurrena dela eta, euskaldungoa Manuel Larramendi josulagun ospetsuari begira jarri da. Andoainen, Garagorri baserrian jaio zen 1690eko abenduaren 24ean. Haren gurasoak, Txomin Garagorri eta Manuela Larramendi. Beraz, amaren deitura darabil eta ez aita-

rena. Santi Onaindiak dioenez, amagandikoa ederrago zitzaiolako beharbada, baina josulagunetan sartu zenez gozotik, behintzat, hala darabil.

Manuel Larramendiri begirunea zor dio euskal kulturaz arduratzen den edonork, baina beti aintzat hartua izan arren, gorabeherak izan ditu haren ospeak idazle, euskaltzale eta euskalarien artean. Euskal Literaturaren historiaz ihardun dutenen kritikak abiapuntutzat harturik, norbaitzuk haren lanaren alderdi ahula azpimarkatu dute. Aztertzaile eta kritikari guztiek aipatzen dituzten alderdi horiek bi direla esango nuke: bata euskarari buruz baina gehienbat erdaraz idatzi izana; eta bestea, bere hiztegi handian hainbeste asmakeria sartu izana.

Euskararen ederraz liluraturik

Euskararekiko zuen atxekimendua handia zen benetan. Zoragarri eta erakargarri zitzaion eta barneko eta kanpoko etsaiak aurrean hartzen zituen, bere dialektika, hitz-jario eta argudioen etorriaz guztiak txikituz. Asmoa ona zen, noski, baina euskara ez zekiten arbuiatzaileen aurrean hizkuntza hau goraiatu beharraren goraiatu beharraz, agian, beste Axular gipuzkoar bat galdu genuen euskaldunok. Euskal idazle bikainenetariko bat bai behintzat, idatzi izan zuen apurrean ere ongi frogaturik utzi bait zuen. Ez da edonor hori baieztatzen duena, Koldo Mitxelena bera baizik. Honek dioenez, gaztelaniaz zen bezain idazle on zen euskaraz ere, baina bere lan nagusia gaztelaniaz idatzi zuen, euskarazko ataltxo batzuek zipristindurik bada ere. Haren helburua ere, aurreko eta ondorengo apologistena bezala, arrotzen aurrean euskararen dotoretasuna agertzea zen, hizkuntza honen estiloa eta erabilera fintzea baino gehiago.

Asmakeriak direla eta, mesfidantza sortzen badu ere, hiztegi hau lan eskerga, harrigarria da eta ondorengoengan ezinbesteko eragina izan duena.

Larramendiren hiztegiaren iturriak ezezagunak zaizkigu. Dirudenez ez zuen iturri oparorik izan. Ez digu berak haien argibiderik ematen. Areago oraindik, hark dioskunari bagagozkio, guztiz originala den lan baten aurrean gaude. Hutsetik hasirik gauzatutakoaren aurrean. Lehendik bazela norbaitek burututako zerbait diosku, baina hain egitura moldagabe eta traketsa izanik, eraikitakoa desegin eta berriro egin beharrean izan zela.

Euskaldunen oroimenean eta bihotzean gorderik zegoen altxorraren bila abiatu zen. Ahoz ahozko hitzetara; eskoladunei eta eskolagabeei entzun; herrietan, etxeetan nola mintzatzen zen ohartu; leku batetik bestera asko ibili hiztegiaren euskalkien aberastasuna jasotzeko. Notak hartu, aztertu, erkatu, erabilera jatorra eta traketsa bereizi, ortografiak nola izan behar lukeen antzeman, hitzen etimologia ikertu. haien sustraiak... Azken batez, han eta hemen zatika barreiatu zegoena bildu eta birmoldatu.

Lan eskerga honen gorabeherak adierazi ondoren, hain barne joridun hizkuntzaren alde lan egiteak benetan merezi zuela esanez bukatzen du.

Bidasoaz hemendik literatura landuaren aitzindari dugu Larramendi, ez berak euskaraz idatzi zuenagatik, eragin zuenagatik baizik. Euskarari oinarri teoriko-lexikografikoak jarri zizkion bere gramatika eta hiztegiaren bitartez; bide batez euskarari ohorea eman zion, bere garaiko euskaldun finak euskara lantzerantz bultzatuz. Guzti horren gainera, beharbada, euskararen etsaiei eta euskaldun faltsu alferrei jipoia eman zien gizonaren irudia gelditu zaigu.

Euskalgaiztoz aritzen ziren sermoilari alferrentzat ez du hitz gozorik. Geroko euskal idazle askok ere kezka bera agertzen digute behin eta berriro. J. A. Mogelek, *Peru Abarka* liburuaren sarreran eta Frai Bartolomek *Ikaski-zunak* saileko I. liburuaren sarreran, besteak beste. Hala ere, horretan Larramendi da, beharbada, sutuena. Bere *Corografía de Guipúzcoa* liburuan luze dihardu horretaz.

Erdarazko sermoiak buruz ikasi eta euskara moduko batera airera itzultzen saiatzen omen ziren. Halako anabasarik...! Beste batzuek, horixe ere ez, kontizu: euskaldun hutsak ziren entzuleen aurrean erdaraz egin eta kito!

L. BARAIAZARRA
KARMEL Aldizkaria
195 zkia. (moldaturik)

1. **Zer eritzi zuten Mogelek eta Frai Bartolomek euskararen erabilera traketsa egiten zuten sermoilareiz?**
 - a) Ez datoz bat Larramendirekin.
 - b) Larramendik bezala azaltzen dute beren arrenkura eurek ere.
 - c) Ez zien ardurarik ematen.
 - d) Ulerkor eta etorkor agertzen dira haiekin.

2. **Manuel Larramendiren famaz zer esan daiteke?**
 - a) Betitik diskutiezina izan dela.
 - b) Kanpotarrentzat txarra eta etxekoen artean ona izan dela.
 - c) Etxekoen artean ere ez dela beti ona izan.
 - d) Kanpokoentzat ona eta etxekoen artean bikaina izan dela.

3. **Larramendiri, bere idazlanak direla eta, zer leporatu izan zaio?**
 - a) Euskarari buruz asko idatzi zuela euskaraz.
 - b) Bere hiztegian hainbat hitzetan fideltasunik gabe jokatu izana.
 - c) Bere hiztegian fideltasun handiaz jokatu izana.
 - d) Euskarari buruz erdaraz gutxi idatzi izana.

4. **Larramendi zer moduzko idazlea izan zen?**
 - a) Euskaraz zein erdaraz bikaina zen.
 - b) Euskaraz bikaina zen; erdaraz ez hain ona.
 - c) Erdaraz bikaina zen; euskaraz, ostera, hala-holakoa.
 - d) Erdaraz bikaina zenez gero, euskaraz ez zuen ezertxo ere idatzi.

5. **Zer harreman zuen Larramendik euskara gaitzesten zutenekin?**
- Argumentu bortitzez kontra egin eta nagusitu egiten zitzaien.
 - Entzungor egiten zuen haien erasoan aurrean.
 - Ez zien jaramonik ere egiten.
 - Haien adiskidetasuna lortzen saiatzen zen, trebeki argudiatuz.
6. **Zer dakigu Larramendiren hiztegiaren iturriez?**
- Berak garbi diosku hiztegian nondik hartu dituen hitzak.
 - Aurreko idazleen lanetan oinarritu zen erabat.
 - Aurreko idazleen lanak aintzat hartu zituen, ikuturen bat eginez.
 - Lehendik zeozer bazen ere, praktikoki ezerezetik abiatu zen.
7. **Zer adierazi zuen Larramendik bere lana amaitzean?**
- Hain hizkuntza aberatsaren alde lan egitea pozgarria zela.
 - Hain hizkuntza urriaren aldeko lanketak merezi zuela.
 - Euskararen txirotasun nabaria aurkitu zuela.
 - Ez zela lan atsegina izan erdararen alde lan egitea.
8. **Nola defini dezakegu ondoen Manuel Larramendi?**
- Iparraldeko literatura landuaren aitzindari.
 - Hegoaldeko literatura ikasiaren aitzindari.
 - Herri literaturaren aitzindari.
 - Hegoaldeko euskarazko idazlerik garrantzitsuenetarikoa.
9. **Zein da Larramendiri buruz nagusitu izan den irudia?**
- Gramatika eta hiztegi gintzaren aitzindari batena.
 - Euskarazko idazle bikain batena.
 - Euskara arbuiatzen zutenak gogor salatu eta aurka egiten zienarena.
 - Erdarazko idazle bikain batena.
10. **Larramendik, bere *Corografía de Guipúzcoa* liburuan, besteak beste, zer adierazten digu?**
- Euskarazko sermoilariak goresgarriak direla, erdarazko sermoiak euskarara itzultzen dituztenez gero.
 - Mogel eta Frai Bartolome euskalgaiztoz aritzen direla.
 - Euskarazko sermoilariak hobe luketela erdaraz predikatzea, hain da traketsa euren euskara eta!
 - Euskara zatarra zerabilten sermoilariak biziki gaitzesten ditu.

2.4.2. 1992/5/23

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Bermeotarrek Izarora egiten duten bidaiak zer zentzu edo helburu du?**
 - a) Irlaren jabetza baieztatzeko balio du.
 - b) Lehen jabetza baieztatzeko zena egun jai-bidaia bihurtu da.
 - c) Irlaren jabetza antzinakoa dela baieztatzeko balio du.
 - d) Jai eta dibertsio leku aproposa delako urteroko ohitura bihurtu da.

2. **Nor borrokatu izan da irlaren jabetza lortzeko?**
 - a) Bermeo eta Elantxobe.
 - b) Bermeoko herritarrak eta frantziskotarrak.
 - c) Izarok ez du inoiz jabetzarik onartu.
 - d) Bermeo eta Mundaka.

3. **Zerekin parekatzen du idazleak Iزارo?**
 - a) Itxura izugarria duen zahar erraldoi batekin.
 - b) Oinik gabeko agure erraldoi batekin.
 - c) Zimurrez beteriko aurpegi batekin.
 - d) Itxura izugarria duen itsas animalia batekin.

4. **Zer dio frantziskotarren egonaldiari buruz?**
 - a) Komentua eraiki eta hiru urtetara alde egin zutela.
 - b) Hirurehun urte direla bertara iritsi zirela.
 - c) Hiru gizaldiz, bertan eraikitako komentuan bizi izan zirela.
 - d) Berek eraikitako komentuak hiru mendez iraun zuela zutik.

5. **Zer adierazten zuen komentu gaineko zapi zuriak?**
 - a) Arriskuan zeudela bertakoak.
 - b) Bake gizonak bizi zirela han.
 - c) Zetorren ekaitzaz abisatzen zien bermeotarrei.
 - d) Ekaitza etorri baino lehen bertatik irten nahi zutela.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Nola ageri zaigu testu honetan Francis Drake?**
 - a) Inglaterrako erreginaren itsas gudari eta pirata bezala.
 - b) Elkanori mundu guztitik jazarrika ibilitako pirata gisa.
 - c) Espainiako eta Inglaterrako inperioen babesean ihardun zuen pirata gisa.
 - d) Inglaterrako erreginaren mezulari bezala.

7. **Francis Drake-ren ekintzek nolako ondorioak izan zituzten?**
- Espainiako inperio osoa suntsitu zuten.
 - Izaro baino ez zuten suntsitu.
 - Izarok eta Gaztelugatxek nozitu zituzten.
 - Izarok nozitu bazituen ere, Gaztelugatxek ez.
8. **Zer dio trainera lasterketari buruz?**
- Antzinako ohitura zela.
 - Irlaren jabetza erabakitzeke erabili zutela.
 - Irlaren jabetza ospatzeko egin zutela.
 - Irlaren jabetzaz zeuden haserreak baretzeko egin zela.
9. **Zergatik da Bermeo irlaren jabe?**
- Bere arraunlari bati gertaturiko ezbeharraren ondorioz.
 - Arraunlari bat ito eta, halere, trainera lasterketa irabazi zuelako.
 - Itsaso haserreak Mundakako gazte bat ito zuelako.
 - Inoiz amore eman ez zuelako.
10. **Kantauri itsasoan irla gutxi dela eta...**
- kostaldea oztoporik gabekoa da itsasuntzientzat.
 - kostaldea ongi moldatuta geratu dira itsasoratzeko.
 - uraren indarrak ez du oztoporik hondartzara iristeko.
 - urak nahi bezala egokitu du kostaldea.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

- Iragarkien indarra.
- Hirugarren Mundua deiturikoa iritsiko da inoiz Lehen Munduan egotera?
- Gero eta jende gehiago joaten da oporretan leku exotikoak eza-gutzera.
- «Zenbat eduki, hainbat balio». Horrela ote da?

ESKUTITZA

Zure herri edo hiriko alde zaharra benetan zaharkitua dago eta ez da berritzeko asmorik ikusten. Gainera, zenbait kasutan etxe zaharrak bota eta lehengo estiloarekin zerikusirik ez duten etxe modernoak eraikitzen hasi dira.

Idatz iezaiozu alkateari guzti horren aurrean proposamen zehatzak egiteko.

Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 30 lerro.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

JESUS ALTUNA ANTROPOLOGOAREKIN ELKARRIZKETA

ARGIA.—Non eta noiz jaio zen lehen gizakia?

ALTUNA.—Afrika izan zen gizakiaren sorlekua: Hegoafrika eta Erdi-Sortaldeko Afrika. Horretaz ez dago gauza berririk, ikerketak orain hamar urte bezalaxe daude. Australopitekoa («Hegoafrikako tximinoa») benetako hominidoa zen ala ez zen, eztabaida handiak izan dira. Antropologoak beti, dudamuda horretan, industriari begiratu izan dio: hezurrekin batera lanabesak azalduz gero, hura gizakitzat jo izan da, eta bestela ez. Duela hogeita hamarren bat urte bero-bero piztu zen eztabaida, batzuek esaten zuten australopitekoaren zenbait hezur, letagin eta adar landuta zeudela (hau da, industria osteo-odonteokeratiko zela); beste batzuek, berriz, ezetz: hienek beren hortz-karraskez markatutakoak izango zirela. Eta azken bolada honetan, bigarren hipotesi hori nagusitu da: uste denez gutxienik, hura animalia haragijaleen lana izango zen.

Bitartean, ordea, gertatu da, orain dela hamabost urte Erdi-sortaldeko Afrikan *homo habilis* agertu zela, orain dela 2.500.000 urteko gizakia: australopitekoa bezain zaharra eta hura baino pittin bat eboluzionatuagoa, gainera.

ARGIA.—Europa deitzen dugun honetara noiz azaldu zen gizakia?

ALTUNA.—Mauer-eko *homo erectus*-aren giza-matrailak 600.000 urte izango ditu. Andaluziako *Orce-ko gizakia* zaharragoa litzateke: 900.000 urte, baina harena litzatekeen hezur zatia benetan harena ote den, zalantzak daude.

ARGIA.—Tximinoekiko ikerketa gonbaratiboek noraino garamatzate?

ALTUNA.—Egindako probetan ikus daitekeenez, tximinoak berehalaxe iristen dira halako sabai edo muga batera. Har itzazu txinpantzeak, biokimika probetan erakutsi denez, gurekin kidesan haundiena dutenak bait dira beroriek; tximinoetan jaioenak, azkarrenak dira. Hara: sar ezazu txinpantzea kaiola batean. Kaiola horren barruan jar ezazu bastoi bat. Jar iezaiozu kaiolaz kanpo jana, bastoiarekin heltzeko moduan. Sekula ez da lortu txinpantzeak jaki hura bereganatzeko bastoia har dezan —bi urteko ume batek egingo luke—. Jana eta bastoia batera ikusi behar ditu tximinoak, bestela ez zaio bururatzten.

ARGIA.—Gaurko gizakia, geldirik, «bide itxi» batean ote da?

ALTUNA.—Nik uste dut eboluzio somatika, gorputz eboluzioa bukatu egin dela. Darwinek Galapagoetan egindako ikerketetan ikusi zenez, elkarren ondoko irletako txoriek aparte samar zeuden irletakoek baino antz handiagoa zuten elkarrekiko. Eskandinabian ere, lehen, aintzira bakarra zenetik aintzira ezberdinak sortzean, arrainak elkarrengandik banantzean, hibridatu gabe, ba-koitzak bere bideari jarraitu dio (...)

Gauza bera gertatzen da gizakiarekin: zuhaitz batean bezala, eboluzioa milaka urtetan dibergentea izan da, isolatuta zeudelako. Baina gaur, isolamendua bukatzen ari da, arrazak berdintzen ari dira: joan Amerikara; begira Parisen. Horrek ez du uzten berezko eboluziorik izan dadin. Eboluzio dibergenteak egin du egin behar zuena. Bestalde, eboluzioa nekatuta bezala dago; nitxo, leku guztiak bete egin dira, leize zulorik zuloenetan ere badira animaliak —beraz eboluzioaren oinarria den mutazioa ere agortuta dago—. Beste datu bat: har ezazu Jurasiko aroa. Handik atzerakako berrehun milioi urteetan, hogeitalau intsektu mota agertu ziren, eta ornodunen klase guztiak ere bai. Handik honako berrehun milioi urteetan, berriz, ez da klase berri bat ere azaldu. Espezie eta familia batzuk bai, baina orden edo klaserik, ezta bat bera ere. Horregatik uste dut zuhaitz handi hori bere azkenetan dela. Imajina ezazu pago bat: adar handi guztiek eta adartxo gehienek beren heldutasuna iritsi dute; kimu berri gutxi, hemendik aurrera.

Beste arrazoi bat: lehen lau hankatan ibiltzen ginen. Eskua, ibiltzeko funtzioa galdu eta lanerako libratu genuen, zutik jarri arte. Zutik gaude; orain atzeraka okertzen hasi behar ote dugu? Hautaketa naturalaren printzipioaren arabera —mutazio onak jaso, txarrak baztertu—, ez dirudi horretan batere abantailarik izango genukeenik.

Eboluzio psikologikoa geratuko litzateke, progresoa. Beharbada, gaur-nak ez du oraindik eman eman behar zuen guztia. Eboluzio soziala gera liteke: elkartasun handiagoa, sozialismoa —filosofia bezala—...

ARGIA
1991-V-5/1337. zka.
(moldaturik)

1. **Lehen gizakiari dagokionez, zertan sortu dira zalantza handienak?**
 - a) Hegoafrikako tximinoa gizakitzat jo daitekeen ala ez erabakitzean.
 - b) Australopitekoaren aztarnak hezurak ala lanabesak ziren erabakitzean.
 - c) Australopitekoa haragijalea zen ala ez zehaztean.
 - d) Australopitekoa Hego ala Erdi-Sortaldekoa zen erabakitzean.

2. **Nola erabakitzen da aurkitutako hezurak animalienak ala gizakiarenak diren?**
 - a) ikerketetarako erabiltzen diren lanabes zientifikoek bidez.
 - b) duda-muda horiek aurrerakuntza gutxi izan dute.
 - c) hezurak ala lanabesak diren bereiziz.
 - d) hezurak tresnekin batera agertu diren ala ez aztertuz.

3. **Australopitekoaren kasuan zein hipotesi ari da gailentzen?**
 - a) Gizakia zenaren aldekoa.
 - b) Hominidoa ez zenaren aldekoa.
 - c) Era bateko nahiz besteko hipotesiek dira.
 - d) Hezurrei begiratuz, animalia haragijalea zenaren aldekoa.

4. **Zer dio *homo habilis* deiturikoari buruz?**
 - a) Australopitekoa baino beranduagoa izan zela.
 - b) *Homo erectus* deiturikoaren garaikidea zela.
 - c) Ezaugarri eta eboluzioz lehen gizakitzat har daitekeela.
 - d) Australopitekoaren garaikidea baina eboluzioz atzeratuagoa zela.

5. **Zein izan zen ziurrenik Europako lehen gizakia?**
 - a) *Homo habilis*.
 - b) *Orce-ko gizakia*.
 - c) *Homo erectus*.
 - d) Australopitekoa.

6. **Zer gertatzen da txinpantzeekin egindako proban?**
 - a) Bi urteko ume batek adinako trebezia adierazten dutela.
 - b) Janaria bereganatzeko bastoia erabili behar izaten dutela.
 - c) Ez dela kanpoko janaria eta bastoia eskuratzeko gauza.
 - d) Ez direla gai janaria bastoiaz eskuratzeko.

7. **Darwin-en ikerketek erakutsi zuten...**
 - a) zenbat eta hurbilagoak izan, hainbat eta berdintasun handiagoak animalien artean.
 - b) zenbat eta irla eta aintzira gehiago, orduan eta desberdintasun handiagoak animalien artean.
 - c) Eskandinabian aintzira desberdinak sortzean, animaliak elkarrengandik banandu egin ziren.
 - d) aparte zeuden irletako txoriek elkarren ondoan zeudenetakoek baino berdintasun nabariagoak zituzten.

8. **Zein da gorputz eboluzioa amaitutzat jotzeko ematen duen arrazoietako bat?**

- a) Isolamendu ezak berezko eboluzioa oztopatu egiten du.
- b) Isolamendu ezak berezko eboluzioa areagotu egiten du.
- c) Berezko eboluzioa egon dadin milaka urte gehiago behar dira.
- d) Arrazen arteko berdintzeak Paris eta Amerika ere berdindu egiten ditu.

9. **Jurasiko arotik honantz...**

- a) hogeita lau intsektu mota berri agertu dira.
- b) aurreko berrehun milioi urteetan bezala intsektu mota berriak agertu dira.
- c) ez da intsektu espezie berri bat bera ere sortu.
- d) aurreko berrehun milioi urteetan baino eboluzio emaitza kaskarra-
goak gertatu dira.

10. **Eboluzio mota guztiak ahituta ote daude?**

- a) Ez, mutazio onak jasoz eta txarrak baztertuz jarrai dezakete.
- b) Ez, hor leudeke psikologia eta gizarte mailakoak.
- c) Ez, gizakiaren garunak eman zezakeena, behintzat, hor dago.
- d) Bai, psikologia eta gizarte mailako eboluzioa filosofia bezala hartu beharko litzateke.

2.4.3. 1992/10/3

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. **Zergatik sortu zuen harridura Jon Sarasuak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan?**
 - a) Kartzelako gaien zazpi puntuko bertsoak kantatu zituelako.
 - b) Kartzelako probako hiru bertsoak doinu eta neurritz desberdinak izan zirelako.
 - c) Kartzelako gaien, hirugarren bertsoa aurreko biekiko desberdina izan zelako.
 - d) Kartzelako gaien zortziko txiki ziztrinak kantatu zituelako.

2. **Zer zuen buruan Sarasuak saioaren aurretik?**
 - a) Saio txarra egin ondoren azkeneko proban lan berezia egitea.
 - b) Saio berezia egitea hasieratik.
 - c) Saio ona egin eta modu berezian bukatzea.
 - d) Saio ona egitea txapela irabazteko.

3. **Txapeldun izan zitekeen Sarasua?**
 - a) Bertso berezi hura kantatu ezean, beharbada bai.
 - b) Saio oso ona egin ez zuelako, ez.
 - c) Bertso berezia kantatu arren, bai.
 - d) Bertso berezia kantatu aurretik txapeldun zen.

4. **Bere helburuetako bat txapeldun ez izatea zen, eta bestea?**
 - a) Txapelketa jendetsuan berak estilo berezia agertzea.
 - b) Kartzelako gaien protesta egitea.
 - c) Txapelketa kontu honi interesa ematea.
 - d) Txapelketari buruzko ezadostasuna adieraztea.

5. **Zein arrazoi ematen ditu txapela eskuratu nahi ez izateko?**
 - a) Jendearen arreta erakartzea.
 - b) Erantzunkizuna eta jendearen gehiegizko arreta.
 - c) Txapeldunak jendeari zor dion gehiegizko arreta.
 - d) Bertsolariaren anbizioa gehitzea.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. **Sarasuaren ustez, zeri begiratzen dio epaimahaiak puntuak ematerakoan?**
 - a) Bertsolariek duten kantatzeko moduari.
 - b) Bertsolarien izen eta ospeari.

- c) Bertsolariei ematen zaizkien gaiei.
- d) Horretaz ezin dezakeela ezer esan dio.

7. Sistema berrian, nola moldatu beharko litzateke epaimahaia?

- a) Bitan banatu beharko litzateke.
- b) Ez luke nork kantatu duen jakin behar.
- c) Bertan epaimahai osoak egon beharko luke, baina nork kantatu duen jakin gabe.
- d) Gizonezkoek eta emakumezkoek osatua izan beharko luke.

8. Zer egin dute komunikabideek txapelketa honetan?

- a) Bertsolaritzarako zaletasuna bultzatu.
- b) Bertsolari ezezagunak baztertu.
- c) Faboritoen multzoa gehitu.
- d) Bertsolarien arteko bereizketa areagotu.

9. Zer eman dio Sarasuari txapelketa inguruko giroak?

- a) Faboritoak saltzeko kemena.
- b) Egoera salatzeko kemena.
- c) Barregura eragiteko kemena.
- d) Baztertuak goraiatzeko kemena.

10. Faboritoak eta faborito ez direnak bereiztea...

- a) Telebistak egin ezean, norberaren kontua da.
- b) Telebistak esan ohi duen bezala, norberaren kontua da.
- c) Telebistan denak agertuz gero, norberaren kontua da.
- d) Telebistaren kontua besterik ez da.

IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan, ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatorrasuna; (2) argudioaren eraketa eta garapena; (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. 300 HITZ GUTXIE-NEZ EGIN BEHAR DIRA.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu:

1. Emakumeak zapalduta jarraitzen du gizarte honetan?
2. Bakezaletasuna Euskal Herrian.
3. Ibili munduan ingelesa buruan.
4. Eskolak bizitzarako prestatzen al gaitu?

SINONIMOAK EMAN

Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman itzazu hitz horien sinonimoak, beti ere testuinguruko esanahiari eutsiz eta kasuan kasuko atzizkia jarritz. Hitz jakin baterako sinonimo bat baino gehiago eskainiz gero, denek izan behar dute zuzenak.

Herio batean esnatu nintzen.

Eserita nengoen ohean; izerditan blai.

Gau betea zen. Arnasa baretu arterainoko nekeak pasatu behar izan nituen moteleko gelan nengoela ohartzera.

Ametsetako Diesel motorra entzun nuen gero eta urrutiragotzen. Errezeloa ere baneukan gorputzen hasia, gau osoan auto beraren motorra entzunarena etxe aurretik behin eta berriro pasatzen.

Jaiki eta gortinak bildu nituen esku batez, nik kanpora begiratu bai, baina kanpokoek ni ez ikusteko moduan.

Bospasei auto pasatu ziren burrundara argitsuz betez etxe aurrea. Gero gauak irentsi zituen haien errainu eta hotsak.

Burrundaratik nekiena baieztu zuen autoak, etxadiaren ezker aldetik irtenaz, gure etxerantz muturra jiratu zuenean: bazetorren, mantso, esnatu ninduena.

Ez zitzaidan asko kostatu «coupé» gorria identifikatzea. Chevrolet 1940. Gerald D.k urtebete lehenago inportatua. Martxa astiroan bide guztia egin eta halaxe galdu zen ilunpetan ere.

Gortinaren atzean itzarotea erabaki nuen. Bide bera egingo zuen berriro ere Chevroletak; ondotxo ezagutzen nuen noraezaren itxurako zabar martxa motel hura. Bost minuturoko jira nagia etxadiari, hala bijilagaiaren urduritasuna leher zedin bijilarien patxadarekin. Lehen jira ez da, ordea, ezer asko, pentsatzen duzu zure kirio akituek badutela, edozein modutara, putakumerik pazientzidunenaren gasolina guztia ahitzerainoko pazientzia. Pentsamendu horrek dakarkeen kuraia, halere, autoak erretako gasolina guztia baino kiskaliago egon ohi da hogeigarren bueltarako.

Banekien, maiz neu ere bijilari izana, tamaina bateraino jasan zezakeela gutxi gora-behera nire gorputz esnatu berriak. Autokoek adina ezagutzen nuenez estrategia, ohartu nintzen haien gasolinaren iraupenari nire pazientiarena nagusitu behar zitzaiola, hartara bakarrik izango nintzela garaile joko ezinbestean luze bateko lehen «round»a besterik ez zirudien hartan.

A. LERTXUNDI

Kapitan Frakasa

Donostia 1991. 32-33 orr. (moldaturik)

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Burugabekeriaren politikak bere aztarnak utzi ditu nonnahi eta, dudarik gabe, gorriak ikusi beharko dituzte sobiet ohiek, burua inoiz altxatuko baidute.

Zelenogrado da Mosku ondoko industrialderik ospetsuenetakoa. Harainoko bidaian ikuskin adierazgarria: ikaragarrizko lantegi eraikin proiektuak, burdin hezurduran bertan behera utzita; garabi itzelak, herdoilak betiko hondatuta; militar industri-alderdi erraldoia hil zorian, milioika milioi rublo inbertituta... eta, agian txarrena, bertako arduradunen pentsamolde zaharkitua. Errusian aurki dezakegun ekonomi-egoera larria biderkatu egiten da gainerrako edozein errepublikatara jauzia emanez gero. Sobiet Batasunaren batbateko erorketak sobietar ortodoxoak ez ezik, horien arerio amorratuenak ere harrapatu zituen ustekabeen. Oraingoa ez da joera zentrifugoaren beste bira bat, eztanda kontrolagaitza baizik.

Errusia eta Ukraina izanik populatuena (147 eta 52 milioi biztanle) baliabide ekonomikorik gehienak gorde dituzte eurentzat azkeneko zazpi hamarkadetan. Orain, inperioaren hondakinak pilatzen ari diren une hauetan, behargarritasunaren mamua nagusitzen ari da beste errepubliketan, solidaritate kontzeptu ederrak bere balioa galdu ei duelarik.

Ustelkeria da, bestalde, sobiet ohien dibisarik dirdiratsuenetakoa; Pedro Nagusiaren garaietatik, San Petersburgo agintari ustelkorren habia zen. Boltxebikeen aroan areagotu egin omen zen okerkeriarako joera. Egun, ikusitakoaren arabera, lehengo metodoak zehazkizun berriekin itzultzen ari dira. San Petersburgoko postsozialistak harremanetan hasi dira mendebaldeko kapitalarekin, rubloaren inflazio zamalkarian, lege eta administrazio arauak oro ezabatuta. Neva ibaiko «Holanda Berria» deritzan uhartea Frantziako turismo-enpresa bati saldu zioten San Petersburgoko agintariek. Arestian jakin ahal izan denez, enpresa horren kapitalean daude ordezkaturako zorioneko agintari horiek. «Jabegoa lapurreta bat da» zioen Proudhon-ek; bere mugaketa horrek jarraitzaile ugari sortu zituen, absolutismoan nahiz demokrazian.

Arrazoizko estatu-politikak ez luke eragozpenik ipini behar ekonomia eta finantz alderdietan, ekimen pribatua ahalbidetzeko. Horixe da normalena, baina ekonomia postsozialista horretan ez dirudi lehengoari uko egin nahi dionik; burokraziako uretan arrain bailiran murgil egiten duten koadroek lehengo lepotik jarraitzeari eutsi diote, sistema berrian garaile atera ahal izateko. Funtzionariek, hau da, informazioaren manipulazailak euren interesen aldeko erabakiak hartuko dituzte... sobiet erregimenean egin zuten bezalaxe. Aurreko sistematik bereizten dituen bakarra hau da: oraingoa irabaziak funtzionari horien sakeletara zuzenean joango direla, bide bihurri eta hizkera ulergaitz zaharrak ahaztuta.

Nikolai Shmeliiov-ek, bere «*Pashkov-en etxean*» elaberrian zera dio, edozein iraultzak milioi bat hutsune dakartzala. Boterearen banaketa eta ho-

rren ondorioz sortutako ahalmenaren arabera, Sobiet Batasun ohian laborgeratzen da Shmeliov-en kontua, izan ere, hango gizartean sustraituriko ekonomiarazoez lurrikaririk ikaragarrienaren ondorioak txiki utziko bait dituzte. Berehala iritsiko zaizkie errazionamenduko kartilak, merkantzietatik ehuneko ehunera. Inflazioak gora egingo du eta gizabanako bakoitzak bere diru-iturria bilatu beharko du *«Denen Etxetik»* helduko ez zaion soldata urria ordezkatzeko. Mugak irekiz gero tropelka aterako lirateke Leninen defendatzaile ohiak, mendebaldeko munduaren sasililurak erakarrita. Mehatxu horretan oinarritu zuen Gorbatxevек Europako Ekonomi Elkarteari zuzendutako finantz eskabidea, izan ere armarik beldurgarriena bait litzateke balizko zenbait milioi hiritar desilusionatu Europako estatu garatuetan zehar iheslari.

J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

Egunkaria

1991ko azaroaren 17a.

(moldaturik)

1. **Zer adierazten du Mosku ondoko industrialdearen ikuspegiak?**
 - a) Agintarien utzikeria eta burugabekeria.
 - b) Militar industriaren gehiegikeria.
 - c) Borrokaren ondorengo hondamendia.
 - d) Arduradunen erraldoizaletasuna.

2. **Zer gertatzen da Errusia eta Ukraina errepublikekin?**
 - a) Gorriak ikusiko dituztela, populazio ugaria dela eta.
 - b) Gainerako errepubliken gaineratik daudela ekonomia arloan.
 - c) Baliabide ekonomiko gehienak xahutu egin dituztela.
 - d) Populazio ugariari esker gainerako errepublikei gailenduko zaizkietela.

3. **Zer nabari da errepublika desberdinen artean?**
 - a) Solidaritatea hedatzen ari dela.
 - b) Aspalditik zegoen elkar-laguntza ugaltu egin dela.
 - c) Elkar-laguntza balio nagusi gisa hartu dela.
 - d) Elkar-laguntza ez dela kontzeptu ederra baino.

4. **Zer dio Pedro Nagusiaren garaiko San Petersburgo eta oraingoa alderatzean?**
 - a) Okerkeriarako joera gaur ez dela orduan adinakoa.
 - b) Agintarien ustelkeria garai hartan soilik ikusten zela.
 - c) Gaur egungo boltxebikeen metodoak garai hartakoak direla.
 - d) Okerkeriarako joera gaur, orduan adinakoa dela.

5. **Zer ikusi ahal izan da «Holanda Berria» uhartearen salmentan?**
 - a) Agintariak eroslearen kapitalaren partaide direla.
 - b) Agintariak salmentaren kapitala bereganatu dutela.
 - c) Erosleak agintariak ere erosi dituela.
 - d) Erosleak kapitalez hornitu dituztela agintariak.

6. **Datorren sistema berrian, estatu-egiturako partaideek...**
- a) ur handiegitan murgildu beharko dute.
 - b) ederki jakingo dute garaile ateratzen.
 - c) egitura berriak aurrera aterako dituzte.
 - d) ez dute jakingo sistema berrira egokitzen.
7. **Zein izango da ekonomi arazoek ekarriko duten berehalako ondorioa?**
- a) Erosi ahal izateko mugak ezarri beharra.
 - b) Janarien errazionamendua.
 - c) Lurrikarak ematen duen adinako mugimendua.
 - d) Diruaren ehunetik ehuneko igoera.
8. **Zer etorriko zaio Sobiet Batasun ohian bizi denari?**
- a) Estatutik datorkion soldata urritu egingo zaio.
 - b) Bizimodua ateratzeko era berria bilatu beharko du.
 - c) *«Denen Etxetik»* datorkion soldataren ordezt, beste bat emango zaio.
 - d) Diru iturria *«Denen Etxean»* bilatu beharko du.
9. **Europako Ekonomi Elkarteari eginiko diru eskabideak...**
- a) armen beldurra zuen oinarritzat.
 - b) ilusiorik gabeko hiritarrei laguntzeko ideia zuen.
 - c) hiritarren Gorbaxev-en aurkako mehatxua zuen oinarritzat.
 - d) Europako mendebalderanzko emigrazioaren mehatxua zuen oinarritzat.
10. **Idazleak artikulua honetan aztertzen duena honako hau da:**
- a) sistema berrian hartu behar liratekeen neurriak.
 - b) sistema berrian ohizko ohiturak jarraitzeak dauzkan arriskuak.
 - c) sistema berriko ekonomia bide desberdinak.
 - d) sistema berriaren aurrean ohizko ohituren aldaketa.

3. ERANTZUNAK & ENTZUTEZKO ULERMENENKO TESTUAK

3.1. ATARIKO PROBAK

3.1.1. 1992/4/4

1-) c	21-) b	41-) b	61-) a	81-) c
2-) b	22-) d	42-) b	62-) c	82-) c
3-) c	23-) a	43-) c	63-) d	83-) a
4-) b	24-) b	44-) c	64-) d	84-) c
5-) a	25-) a	45-) b	65-) d	85-) a
6-) b	26-) a	46-) a	66-) c	86-) c
7-) c	27-) a	47-) b	67-) d	87-) b
8-) c	28-) d	48-) d	68-) d	88-) d
9-) b	29-) d	49-) a	69-) b	89-) c
10-) a	30-) d	50-) c	70-) b	90-) c
11-) b	31-) b	51-) a	71-) b	91-) a
12-) b	32-) c	52-) d	72-) a	92-) b
13-) a	33-) b	53-) d	73-) d	93-) d
14-) b	34-) c	54-) a	74-) b	94-) d
15-) b	35-) d	55-) d	75-) d	95-) c
16-) b	36-) a	56-) b	76-) c	96-) b
17-) b	37-) a	57-) c	77-) a	97-) a
18-) a	38-) b	58-) c	78-) d	98-) b
19-) b	39-) c	59-) d	79-) b	99-) d
20-) c	40-) d	60-) d	80-) d	100-) d

3.1.2. 1992/5/9

1-) c	21-) a	41-) c	61-) b	81-) d
2-) b	22-) b	42-) a	62-) b	82-) b
3-) c	23-) d	43-) d	63-) c	83-) d
4-) b	24-) b	44-) c	64-) b	84-) c
5-) a	25-) c	45-) d	65-) c	85-) a
6-) b	26-) d	46-) d	66-) b	86-) a
7-) c	27-) c	47-) d	67-) b	87-) b
8-) c	28-) a	48-) c	68-) d	88-) b
9-) b	29-) c	49-) c	69-) b	89-) c
10-) a	30-) a	50-) c	70-) d	90-) a
11-) b	31-) a	51-) a	71-) c	91-) a
12-) b	32-) a	52-) d	72-) b	92-) b
13-) d	33-) c	53-) b	73-) d	93-) a
14-) d	34-) a	54-) c	74-) a	94-) d
15-) d	35-) d	55-) d	75-) a	95-) b
16-) b	36-) b	56-) b	76-) b	96-) a
17-) c	37-) a	57-) d	77-) b	97-) b
18-) b	38-) c	58-) c	78-) b	98-) a
19-) b	39-) a	59-) b	79-) b	99-) b
20-) d	40-) c	60-) c	80-) d	100-) b

3.1.3. 1992/9/19

1-) c	21-) a	41-) b	61-) d	81-) c
2-) a	22-) c	42-) a	62-) a	82-) a
3-) b	23-) a	43-) d	63-) b	83-) c
4-) b	24-) d	44-) a	64-) b	84-) b
5-) b	25-) d	45-) a	65-) d	85-) b
6-) b	26-) d	46-) a	66-) a	86-) b
7-) c	27-) a	47-) d	67-) b	87-) d
8-) c	28-) c	48-) a	68-) d	88-) a
9-) a	29-) b	49-) b	69-) c	89-) b
10-) b	30-) a	50-) b	70-) d	90-) d
11-) b	31-) a	51-) b	71-) b	91-) b
12-) a	32-) c	52-) c	72-) b	92-) c
13-) b	33-) a	53-) b	73-) a	93-) a
14-) c	34-) b	54-) b	74-) d	94-) a
15-) a	35-) a	55-) c	75-) d	95-) c
16-) a	36-) c	56-) c	76-) c	96-) b
17-) c	37-) c	57-) a	77-) d	97-) a
18-) a	38-) c	58-) a	78-) b	98-) b
19-) c	39-) d	59-) d	79-) c	99-) c
20-) c	40-) a	60-) a	80-) c	100-) b

3.2. 1990EKO AZTERKETA IDATZIEN ERANTZUNAK

3.2.1. 1990/5/5

AHOZKOAREN ULERMENA I

BENITO LERTXUNDIREKIN ELKARRIZKETA

GALDERA.—Lehengo zenbait diskoren antzera, azken honek mundu zeltikoa-
ren eragina duela dirudi.

ERANTZUNA.—Nik ez dut, alafede, eragin hori ukatzen. Baina, esate batera-
ko, Nafarroako bi aire edo doinu sartu ditugu, eta norbaiti (O'Caro-
lan)en musika zela aitortu diodanean ez dit inolako zalantzarik era-
kutsi. Arazoa eta tema aspaldikoa da, hainbat musikologo aritu
delarik gaiaren inguruan. Francisco de Gascuek, kasu, Britainia, Irlan-
da, Euskal Herria eta beste paraje batzuetako musika hartu zuen eta
psikologikoki konparaketa egin zuen; azterketaren ondorioz %65a in-
guru erro edo enbor berekoa zela atera zitzaioan. Hori zergatik? Ez
dakigu.

Nolanahi ere den, familia edo kidesuna badago, egon, bi kul-
tura musikal hauen artean. Hau guztiau, garaiz garaiko eztabaida izan
da. Gascuek datuok demostratu zituenean, euskaldunok jatorrizko
ezer ez dugula azaltzen hasi zen, dena kanpotik hartzen genuela, bai-
na Azkuek zorrotz erantzun zion argudiatuz batzuentzat aski dela gure
kulturan beste kulturetan gertatu den antzeko zerbait nabaritzea, gu
besteen zerbitzuan egon garela baieztatzeke. Baina zergatik ez alde-
rantziz?, galdetzen zuen Azkuek. Gauzak honela, oso bitxia da dena.
Guk eredu diskografikoa daukagu, irlandarra edo bretoia esaterako,
gurea baino lehenago; baina orduan, hemengo doinuak hartzen ba-
ditugu eta tratamentu berdina ematen badiegu, emaitza berdin-ber-
dina izaten da. Hori berezkoa da. Azken diskoan, aitzitik, kanta irlan-

dar genuino edo jator bakarra agertzen da. Garrantzitsua, bi kultura eta mundu hauetan sentsibilitate mota berdintsua dagoela da.

GALDERA.—Benitoren kantaren bigarren harrobia Zuberoa eta bertako herri-doinuak izan dira.

ERANTZUNA.—Zuberoa deskubrimendua izan zen niretzat garai batean. Bere kantagintzatik aparte, kantu mota hori oraindik bizirik zegoela somatu nuen, zenbait tokitan musikologoek esku baino geratu ez denean.

ARGIA. 1.271 zenb.
1989ko abenduren 10a
(moldatua)

AHOZKOAREN ULERMENA II

BENITO LERTXUNDIREKIN ELKARRIZKETA

GALDERA.—Herri-kantagintzan, egun, baten batzuk soilik geratzen zarete; azken profetak nolabait?

ERANTZUNA.—Gaur egun Europa osoan gertatzen ari den fenomeno da hori, ezen mundu zeltan bertan, halako profesionalizazio maila bat egon den lurralde bakarrean, desagertze prozesua jasan dute. Eta lotsagarria da, egun «Botiven» bezalako banda ikusgarria kalean jotzen aritzea diruaren truke. Benetan, ezin uler dezakedan gaia da. Eta hau Irlandan ari da gertatzen! Pentsa, honela, nola gabiltzan gainontzeko guztiok.

Hala ere, herriaren historiaz mintzo diren abestiak minoria barentzat izango dira beti. Gaur egun ere egiten da herri-musika, eta finean, gustatu edo ez gustatzean dago kakoa. Atzetik beste batzuk etor daitezke, baina...

GALDERA.—Aldaketak, ordea, nabarmenak izan dira.

ERANTZUNA.—Jokabidea asko aldatu da, musikoaren bizibidea bezalatsu. Lehen, herriak parte hartzen zuen zuzenean ekitaldiak antolatzeko, eta honela, leku bakoitzean gauzak aurrera ateratzeko moduko talde ugari aurkitzen zen. Orain, berriz, erakundeak etorri dira, eta berauek ez dituzte honelako gauzak maite, konpromezu eta kontzientzia txarrez burutzen dituztelarik. Kultura, azken finean, hitz dekoratibo bihurtu da.

GALDERA.—Zein zentzutan esaten duzu hori?

ERANTZUNA.—Instituzioetatik antolatu zuten «Herriz herri»ren ekitaldi batean, esate baterako, honako anekdota kurioso hau gertatu zitzaidan: joan nintzen Basaurira kontzertua eskaintzera, eta guztia ongi zegoen ala ez galdetu zigun bertako zinegotzi batek. Baietza jasotzean, handik

bazihoala aitortu eta bueltaren bat emango zuela adierazi zigun, baina seguru asko jende gutxi agertuko zela; izan ere, asti gutxi izan zuten ekitaldia antolatu eta prestatzeko. Honen aurrean zer esan dezakezu? Bada, hurrengoan txekoa etxera igortzeko, eridikulua egin aurretik. Zentzu honetan, boikota egin nion beste behin edizio bati.

ARGIA. 1.271 zenb.
1989ko abenduren 10a
(moldatua)

ENTZUTEZKO ULERMENA

1d	2a	3a	4d	5d
6c	7a	8a	9d	10b

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. zolu: lur, zoladura, zoru
2. lagatakoak: utzitakoak
3. arnasa: hatsa
4. lapurtuaz: ostuaz, ebatsiaz
5. erreinuko: erresumako
6. borrokan: gatazkan, guduan, lehian, sesioan
7. areagotuta: biziagotuta, gehiagotuta
8. belardietan: belazeetan, landetan, pentzeetan, zelaietan
9. sasirik: laharrik, sastrakarrik
10. bihurguneren: biraguneren, errebueltaren
11. olatu: uhin
12. hedatua: zabaldua, barreiatua
13. supituki: tupustean, bat-batean
14. sosik: dirurik, txanponik
15. Beharbada: Agian, Apika, Akaso
16. umelean: hezean
17. ozenak: nabarmenak, argiak
18. gogora: burura, pentsamendura
19. alboratzeko: baztertzeko, ahazteko
20. txango: ibilaldi, irtenaldi

IRAKURMENA

1c	2b	3d	4a	5a
6d	7c	8c	9a	10c

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Irakaslearen rol-ean sortzen diren gatazkak *ditu* lantxo honek aztergai.
2. Latinamerikan egin nuen egonaldi luzeak ematen zuen oinarririk bertako arazoez *jabe* nendin.

3. Zein izan *daiteke* txosten honen eragina Pereda presidentearengan?
4. Ameriketara joan zirenean, Xarles Iriart *zen* Mattin eta Xalbadorren gidaria.
5. Semeak tresna hura etxera ekarri (ez zuen) *bitartean*, txakurra ez zen mugitu traktorraren ondotik.
6. Isilik utzi nuen, Frantziako ministroari idazten ari zela *ematen* bait zuen.
7. Berak kantatutako bertsoak erakutsi nahi nizkion, magnetofonotik paperera xuxen kopiatuak ote ziren *esan* ziezadan (zezan).
8. Ongi *hartu* gintuzten Baionako etxe hartan.
9. Bere amaren bitxiak, punta-puntakoak ez izanagatik, banaka-banaka ahitzen ari ziren.
10. Behin batean Santiren aitak lñakiri galdetu zion *ea* ezer estrainurik nabaritzen zioten bere semea-ri.
11. Droga hartzaile egin da eta *kostako* zaio horri, behin sartu denean, hortik ateratzea.
12. Irakurri *bezain* laster, halako nazka bat eman zidan niri ere.
13. *Ez dago* nagi batzuen aitzakia dela esango duenik.
14. Horri alferkeria *deitzea* burugabekeria da.
15. Aguro joan ziren, hurrengoan etxean *utz* ez zitzaizen.
16. Tabernan ez *bezala*, azokan gizonak batera eta emazteak bestera ibili ziren.
17. Erasotzera zihoan baina lagun gehiago zetozela ikusi zuenean droga zabaltzaileak atzera *egin* zuen.
18. Argala, bizia eta alaia zen hurbildu zitzaigun *mutikoa*.
19. *Zenbat* eta gorago igotzen zen Teresa Jainkoaren bideetan, orduan eta goragotik eta argiago ikusten zuen Jainkoaren Grazia berbera zela.
20. Bere diru apur guztiak *eman izan* ez balizkigu, ez genuen onartuko gure lagunartean.

3.2.2. 1990/5/19

AHOZKOAREN ULERMENA I

EGUNA.—Eusko Jaurlaritzak kutsadurari aurre egiteko atera duen programa kritikatu duzue.

EKI.—Aldi batzuetan badirudi Jaurlaritza, Diputazioa eta beste instituzioak oso ekologistak direla, baina aurpegia emateko orduan, enpresa kutsatzaileei zigorrak ezartzerakoan, ez dute behar den gogortasunez jokutzen. Enpresa kutsatzaileen kalteak arintzeko diru publikoa erabiltzen dute. Urte luzeetan enpresa horiek naturaren jabeak izan bailiran aritu dira, beraien zikinkeria guztia bertan behera utziaz. Guk uste dugu erresposabilitate hori berenganatu behar dutela eta beren kabuz, beraien benefizioekin, aurre egin.

EGUNA.—Helduko ote da inoiz interes ekonomikoak eta ekologikoak bateratsu joango diren garaia?

EKI.—Ez dakit, gizarte honetan zaila izango da. Beti nagusituko dira interes ekonomikoak, eta besteak «ahal badugu», «baliteke» eta horrelakoetan geldituko dira. Egia esan, saiatzen dira batzuk konpontzen, oso eskandalosoak bait dira. Dena dela, Leizaraneko autobidearen proiektuak erakusten du zein den interes nagusia.

EGUNA.—Eta araudi mailan?

EKI.—Azken lege orokorrak «Urdaibai» erreserba natural bihurtzea onartu zuen, baina talde ekologistak oso kontrakoak agertu dira. Zergatik? Hemen go legea oso mantsoa delako oraindik interes partikularrekin. Bestalde, proiektu horretan, Iزارo irla ere kanpoan utzi dute eta ez da urbanizazio planekin sartzen.

EGUNA.—Erreserba naturalak egitera heldu beharra oso gogorra da.

EKI.—Denok gaude oso ados leku berezi batzuk zaindu beharrekin, ez gaude ados museo biologikoekin. Natura bizitzeko da eta ez ikusteko barrarik. Batzuek toki horiek uharteak bailiran ikusten dituzte eta horrelako erresebak egingo dizkigute. Baina beti ere filosofia berberarekin: muga horietatik kanpo edozer gauza egitea zilegi da. Leku hauek zaindu behar dira, baina planteamendu berri batekin, beren ingurugunea zabalduz, beste toki batzuen errekupeziorantz joanez.

E. ERZILLA
EGUNA
1989ko azaroaren 2a, 31. orr.
(moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

EGUNA.—Hobekuntza-proiektu asko atera dira baina emaitzak ez dira ia nabaritzen.

EKI.—Irudia errealitatearen aurretik doa, eta askoz arinago. Nabaritzen da sentimentu ekologista gero eta handiagotuz doala, benetakoa dela, baina errealitatean ez da ikusten. Ekologiak asko saltzen du, denon gogoko hitza da, bai enpresa mailan, bai politika mailan. Edozertarako, asko erabiltzen den hitza.

EGUNA.—Zer suposatzen du 1992. urteak ekologia mailan?

EKI.—Europar sartzeko ematen diren kondizio batzuk bete behar dira eta segurua asko abantaila batzuk izango ditugu. Konponketa batzuk etorriko dira, baina ez dugu esperantza handirik. Gizartea nolakoa, ingurugiroa halakoa.

EGUNA.—Gizakion eta naturaren arteko harremanak heziketa arazoa ote dira?

EKI.—Heziketa ambientala oso garrantzitsua da. Oso gutxi egiten da arlo horretan. Eskoletan heziketa honek toki gehiago behar luke, eta baita jende nagusiarentzat ere. Baina ez da bakarrik heziketa kontua. Instituzioek exenplua eman behar dute. Noizko bizikleta ibilbideak bultzatzea?, noizko oinezkoentzako esparruak? Hirietan autoen kutsadura handia da eta medio kolektiboak erabiltzera bultzatu behar da. Baina exenplua eman ez aldatzen dira ohiturak.

EGUNA.—Talde ekologistek fronte askotan borrokatu behar dute; ba al dago zuentzat lehentasuna duen arloren bat?

EKI.—Ezin diogu medio konkretu bati lehentasuna eman, guztia da garrantzitsua. Gure muga bakarrak taldearen indarrak dira. Hala ere, indar gehiago behar dugu, militantzia gehiago. Aipatu behar dira arrisku handi batzuk: Garoña-Lemoiz, tximist-orratz erradiaktiboak, komunikabide sareak, urak eta errekek... Ulertu behar da irtenbideak instituzioetatik ez direla etorriko, borrokatik baizik.

E. ERZILLA
EGUNA, azaroak 2, 31. orr.
(moldaturik)

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2a	3c	4b	5c
6a	7c	8b	9d	10c

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. nimiño: txiki, kaskar, ttipi, txiker
2. baino: besterik, baizik
3. patuak: zoriak, zorteak, asturuak, halabeharrak
4. gizateriaren: gizadiaren, munduaren
5. gaitz: oker, ezbehar, zoritxar, zorigaizto
6. gertu-gertutik: hurbil-hurbiletik, ondo-ondotik, hur-hurretik
7. izua: beldurra, ikara, laborria
8. nonahi: edonon
9. sarraskiaren: triskantzaren, txikizioaren
10. barreiaturiko: zabalduko, hedaturiko
11. arrotzak: kanpotarrak, atzerritarrak
12. bailiran: balira bezala, balira legez
13. bilakatuz: bihurtuz
14. zurrumuruak: esamesak
15. atzean: ostean, gibelean, ondotik, ondoan
16. elikatzen: betetzen, hornitzen (jaten: ez)
17. zergatia: arrazoia, zioa
18. helburu: xede, jomuga
19. asma: igar, antzeman, ezagut
20. erantzuna: ihardespena, arrapostua

IRAKURMENA:

1b	2d	3a	4a	5c
6b	7c	8b	9d	10a

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Urtez urte Gabonetako oporretan *bestarik* ez genuen ikusten gure izeba zaharra.
2. *Ea* zer nenbilen tuntunarena egiten, non neukan burua, galdegin zidan amak konplizitate irriño batez.
3. *Edozein* adierazpenek sortzen du gure artean zeresana eta eztabaida.
4. Haurtzarora ihes egin nahi izan *bagenu* bezala jolasean hasi ginen, zoriontsu izan nahiari jolasa *deitzerik* badago.
5. Babiloniako maiorazgoarekin ezkondu behar nuela eta segitzeko bere kolonia hura ematen *esan zidan amonak*.
6. Oroitzen naiz *nola* Lurruspeko kobazulora joan zen, amonaren itzalak hara bidali *zuelarik*.
7. *A zer* nolako bakea emango lukeen lanak behin betirako bukatuko *balitu!*
8. Karlista asko zegoela trenbidearen aurka nik jakin *arren, nola* ahaztu jende askori lana ematen ziola!
9. *Harik eta* arazoa egunkarietan azaldu arte/azaldu ez den arte, bazkideak ez dira konturatu elkarte hori azpijokoan zebilenik.
10. *Ez* da azterketaririk izango dagoeneko azterketa nola egin behar den ez dakienik.
11. Berari esateko hiru edo lau gauzatxo izanagatik, bere ahots lehorrak aurrea hartu zion.
12. Tabernara sartu eta *hara non* aurkitu duen semea bero-bero eginda kantuan!
13. Guk ez dakigu aspaldiko lagunak (ote) diren, *ezta* elkar ezagutzen (ote) duten ere.
14. Gauean bidera atera eta senide guztien artean *jipoia* eman zioten auzoko Patxiri.
15. *Zenbat* aldiz esan (ote) diogu jarrera aldatu behar duela, baina alferrik!
16. Ez genuen pentsatzen horrelako gizon langile eta eraginkor bati era horretako depresioa *sor* zekiokenik.
17. Kanpokoek etxeok *baino* hobeto zekiten haren ibileren berri.
18. Oraingoan ere *lanak izango* ditu Tolosak Retegiri irabazten/-teko.
19. Goiko eserlekuetatik deabruak hartutako kristauak *ziruditen* dantzan zebiltzanek.
20. *Baliteke* aurten ere Europa alderako bidaia luze eta eder hori egitea.

3.2.3. 1990/5/26

AHOZKOAREN ULERMENA I

EGUNA.—Euskal Unibertsitatea izateko jaio zen Udako Euskal Unibertsitatea. Helburu horri jarraitzen al zaio?

IÑAKI IRAZABALBEITIA.—Udako Euskal Unibertsitatearen helburua ez da euskarazko unibertsitate bilakatzea, nahiz eta hasieran horrekin egin amets. Unibertsitarien topaleku eta Euskal Herrian dauden Unibertsitateak euskalduntzeko akuilu izatea da, nagusiki, bere eginkizuna.

EGUNA.—Horretarako harreman onak al ditu unibertsitate ofizialarekin?

I.I.—Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenetik izan dira bien artean harremanak. Gehienetan, harreman horiek Udako Euskal Unibertsitatearen etorkizuna bideratzeko ahaleginen barnean kokatu behar dira. Bi gairitan izan dira trinkoenak: Goio Monreal erretore eta Iñaki Maiza Gipuzkoako Campuseko erretoreordea zirenekotan eta 1988an Jazinto Iturberekin. Ez dira harremanak ezertan hezurramitu. Bi instituzioen artean elkarlanerako harremanik ez dugula esan dezakegu, beraz.

EGUNA.—Erakunde-harremanez aparte irakasle-ikasle harremanak berez sortzen dira, noski.

I.I.—Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslegoa erabiltzen du Udako Euskal Unibertsitateak bere ikastaroak emateko. Ehuneko 30a inguru Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslegoa da. Era berean, unibertsitate ofizialak ere Udako Euskal Unibertsitateko ikasmateriala erabiltzen du. Bestalde, unibertsitatean euskaraz irakasten duen irakaslegoa Udako Euskal Unibertsitatean trebatua da. Horretaz harro izan gaitzke, %60 edo 70 Udako Euskal Unibertsitatean hasi ziren euskaraz eskola ematen. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateko irakasle ez den jende asko etortzen da, profesionaletatik, instituzioetatik eta beste ikastetxeetatik. Gizarte osoaren lana dela esan nahi du horrek, mugimendu oso zabala dela (UZEI, Elhuyar, ikastolak eta abar).

EGUNA.—Nafarroarekin harremanik ba al duzue?

I.I.—Hego Euskal Herrian dagoen beste unibertsitate publikoa Nafarroakoa da. Jaioberria denez hasierako harreman protokolarioak besterik ez dugu izan, baina bi parteok elkarlanerako prest agertu gara.

M.A.
EGUNA, 1989ko ekainaren 29a, 8. or.

AHOZKOAREN ULERMENA II

EGUNA.—Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatzen dituen Udako ikastaroez nahiko fidagaitz agertu izan da Udako Euskal Unibertsitatea.

IÑAKI IRAZABALBEITIA.—Sortu zirenean, Udako Euskal Unibertsitatearen Iruñeko ikastaroei kontra egiteko sortu zirela esan zuen zenbaitek. Praktikan ez dela horrela gertatu garbi dago. Izan ere, ikastaro hauen praxia eta helburuak desberdinak dira. Hala ere, UEUkide batzuek hasieran zituzten kezkek guztiz ulergarriak ziren garai hartan.

EGUNA.—Zertan bereizten dira?

I.I.—Donostiako udako ikastaroak turismo-mota bat erakartzeko sortu ziren nire aburuz, Donostia kultur hiriburu bihurtzearen lelo horren barruan. Kultur edukinik bazuten, noski, baina nire ustez bigarren mailan gelditu ziren. Itxuraz, egun kultur edukinak turismo promozioa gaintu egin du. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak beste unibertsitate batzuen antzera udako ikastaroak antolatzeko eskubidea du. Donostiako ikastaroak zilegi dira, beraz. Udako Euskal Unibertsitatearen sorrerak beste eskakizun batzuetan ditu oinarriak. Udako Euskal Unibertsitatea premia jakin eta zehatzarekin sortu zen: Euskal Unibertsitatea izatea, Euskal Herri osoa hartuko duen unibertsitate euskalduna. Helburu nagusi horri jarraituz egin du lan orain arte.

EGUNA.—Hizkuntzak ere bereizten ditu, noski.

I.I.—Donostiako ikastaroetan erdara da nagusi, %80-90a erdaraz egiten da. Euskaraz egiten dena, euskararen ingurura mugatzen da, zoritxarrez. Itxura egiteko bakarrik dela dirudi, gainera. Udako Euskal Unibertsitatean, berriz, dena euskaraz egiten da.

EGUNA.—Udako Euskal Unibertsitatea bera ere ez al da euskararen inguruko gaietara gehiegi mugatzen?

I.I.—Hasieran bai. Orain egiten dena besterik da, ordea. Unibertsitate gaiak lantzen dira euskaraz orain. Euskara lan tresna da. Udako Euskal Unibertsitateara gaiak interesatzen zaizkiolako joaten da gaur egun jendea, ez euskaraz egiten delako.

M. A.
EGUNA, 1989ko ekainaren 29a, 8. or.

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2c	3a	4c	5b
6c	7b	8c	9a	10b

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. lapurtzen: osten, harrapatzen, ebasten, kentzen
2. hiltzen: akabatzen, garbitzen
3. bastoi: makila
4. azaldu: agertu
5. esplikatu: azaldu, irakatsi
6. iskinan: bazterrean, muturrean
7. sekula: inoiz, eguñdo
8. urduri: artega, asaldaturik
9. askoan: luzean
10. gonbaratzen: alderatzen, erkatzen
11. ondotik: inguruan, atzetik
12. jaramonik: kasurik
13. txorakeriak: lelokeriak, tentelkeriak
14. noski: jakina
15. entenitzen: ulertzen, aditzen
16. kopeta: bekokia
17. itsusi: zatar, motz
18. mataderorako: hiltegirako
19. segitu: jarraitu
20. mantxo-mantxo: poliki-poliki, astiro-astiro

IRAKURMENA:

1c	2a	3d	4a	5b
6c	7d	8d	9b	10b

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. *Horrenbeste* lan zuen egunean zehar etxean amari laguntzen, mandatuak egin eta jolasten, *non* ezin (bait) zen beste ezerekin akordatu.
2. Eskukada bat gatz sutara jaurti eta keinu egingo zion amandreak Martini, *ingura* zedin (zekion).
3. *Martin* amandreak inguratzeko keinuaren zain egoten zen.
(amandreak inguratzeko keinua egin zain egoten zen)
(amandreak inguratzeko keinua egitearen zain egoten zen)
(amandreak inguratzeko keinua noiz egingo egoten zen)
4. Afari hura Martinek nahi *baino* beranduago amaitu zen.
5. Amandreak esana zekien Mari hura baino lagun *hoberik*, Martin bera salbu, ez zuela.
6. Martin amandreak norako asmotan aldegin zuen esango *ziolakoan* abiatu zen.
7. Eta zu nor zaren, *jakin* (al) liteke?
8. Urrunean berrogei zaldizko *inguru* ikus zitezkeen.
9. Heriotzaren hurbiltasunak ez du gizon jakintsua ikaratzten, zuzperten *baizik*.
10. Ez da izenik *zertan* izan izateko.
11. Badaiteke igandea *zelako* gogo handirik ez izatea egunerokoan idazten hasteko.
12. Beste era batetan distrai daitekeela pentsatu *behintzat* pentsatzen du noiz edo noiz.
13. Euskara laneko hizkuntza bihurtzea *nahi* bada, lanerako tresna eroso eta adierazkor izan behar du.
14. Urte hauetan, guk nahi adina aurreratu ez den *arren*, asko egin da alor honetan.
15. Gehiago aterkiaren beharrik izango ez genuelakoan geunden.
16. Gauzak zerbait aldatzen ez *badira*, komeri txarrak dauzkagu.
17. Gure herriaren historiaren berri *izanda* hitzegin behar dugu.
18. Utziko al dio Olasagastik Larretxeari pentsatutakoa *egiten*?
19. *Behin* milioi bana jarri ondoren, indarrak neurtuko dituzte.
20. Guk ezin asma *dezakegu* zer asmo dituzten, aztiak ez gara eta.

3.2.4. 1990/6/2

AHOZKOAREN ULERMENA I

MARIO GABIRIA: «BORROKA SOZIALA BORROKA EKOLOGISTA BEZAIN PREMIAZKOA DA»

GALDERA.—Oraindik orain Nafarroako pobreziaren kontrako ikerketa lan batean aritua zara. Zeintzuk dira ondorioak?

ERANTZUNA.—Oraindik ere bukatzeko dago. Baina ondorioak hauexek dira: lehenengoa, ezin izan dugula ikerketa horretan sakondu; eta bigarrena, Nafarroan pobrezia nahiko haundia dagoela. Nik esango nuke, bizilagunen %0,7a gutxi gora-behera baztertua dagoela —ijitoak, portugesak...—, eta guztira %3a edo —15.000 inguru— mixeria gorrian bizi dela.

GALDERA.—Mixeria gorriarekin zer esan nahi duzu? Zein da talde horretan sartzeko erizpidea?

ERANTZUNA.—Pertsona bakoitzeko hilean hamar-hamabi mila pezetara ez iristea. Europan, «per capita» errentaren erditik behera daudenak sartzen dituzte. Nafarroakoa, egun, 60.000 pezetakoa edo da. Beraz, Europako definizioaren arabera, hileko eta pertsonako 30.000 pezetatik behera jasotzen dutenak sartu behar. Dena den, ikerketa hau egiterik ez dugu izan, Nafarroako Gobernuak ez bait dizkigu errenta aitopeneke eta bestelako datuak erakutsi.

Gure asmoa ez zen datuak biltzea soilik. Ondoren, behartsuek lanpostua aurkitzeko edo beraiek sortzeko teknikak aztertu nahi ginituen.

Ia ezin dute, ordea, beren kabuz lanposturik sortu, behartsuenak eskolagabeak bait dira. Osasun arazoak eta ere izaten dituzte. Oker geunden, beraz. Horregatik, elkarlanean hasi gara Emausko Traperoekin eta baztertuei lanbidea eskaintzen saiatzen diren antzeko erakunde batzuekin.

Hitz berri bat ere sortu dugu: ezindu soziala. Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialak bezalaxe, gure ustez, badira ezindu sozialak ere. Lana inoiz aurkituko ez dutenak dira, %1a, agian. Gure ustez, horiei besterik gabe dirulaguntza eman beharrean, elkartasunezko enpreetan lanpostua eskaini beharko litzaieke.

André Gorz, «Nouvel Observateur»eko idazlearekin bat gatzorretan. Hark dio, jendeari dirulaguntza ematen baldin bazaio, gizartea bi taldetan banatzen dela. Lanpostua, Aseguru Soziala eta erretiroa jasotzeko eskubidea dituztenak lehen mailako bizilagunak dira.

Laguntzei esker bizi direnak, berriz, nahiz eta diru asko jaso, bigarren mailakoak izango dira beti, laguntza horrek berak bereizten bait ditu.

HABE aldizkaria
1989ko azaroaren 15a, 163. zenb.

AHOZKOAREN ULERMENA II

MARIO GABIRIA: «BORROKA SOZIALA BORROKA EKOLOGISTA BEZAIN PREMIAZKOA DA»

GALDERA.—Arrisku-taldeetakoek nola bizi dute gaur egun HIESaren arazoa?

ERANTZUNA.—Guk ez dugu «arrisku talde» hitza erabiltzen, «praktika arriskutsuak» baizik. Egoera negargarria da. Isiltasuna da nagusi. Jendea baskardadean hiltzen ari da, inork jakin gabe, ezkutuan. Oso egoera larria da. Eusko Jaurlaritzak ari da piska bat arazoaz jabetzen eta herri-mugimenduari laguntza ematen, gaisorik daudenak babesteko pisuak ireki daitezten. Baina, Susan Sontag idazle ospetsuak dioen bezala, HIESa Ameriketara behartsu eta zokoratuak garbitzeko era bihurtzen ari da. Eta, hemen, xiringaren inguruan ibilitakoak ari dira sufritzen.

Arazorik larriena zera da, duela sei, zortzi edo hamar urte kutsatutakoak ari direla gaisotzen. Horrenbesteko tartea dagoenez, ezin jakin hemendik bospasei urtera zer gertatuko den. Dena dela, ni baikor samarra naiz. Nire ustez, orratzaren bidez kutsatutakoak azaldu ondoren kasu gutxi izango dira. Sexu eta azaleko gaitzetan espezialdutako lehengo medikuekin hitzegi nahi nuke, emakume-etxeen inguruan kontsulta zutenekin, arazo honetan sakontzeko. Nik uste dut sifilisak eta gonorreak beren mugak zituzten bezala, HIESa ere ez dela hain erraz kutsatzen sexu-harremanen bidez. Kutsatzeko, sekulako astakeriak egin behar dira, askotan, batere konturik gabe ibili eta defentsa-sistema gaizki eduki.

HIESa ez da izango hasieran uste genuen izurrite hura. Askok beldurtu ginen orduan. Garai hartan piska bat baztertu egin nuen borroka ekologista HIESak gizadiaren iraupena arriskutan jartzen zuelakoan. Baina orain ez dut horrela pentsatzen. Beste lurraldeetako txostenetan, eta hemengoetan ere bai, irakurtzen ari gara ehun pertsonatik batzuk kutsatzen direla eta beste batzuk ez, eta kutsatu direnen artean, batzuk gaisotzen direla eta beste batzuk ez. Lehen zioten baino gutxiago gaisotzen dira.

Horregatik, ni itxaropentsu nago haiekin, osasuna zaintzen baldin badute, behintzat. Okerrena da praktika arriskutsuak dituztenak ez direla bizitzak gozo-gozo hartu dituenetakoak eta beren buruaren kontra ari direla.

HABE aldizkaria
1989ko azaroaren 15a; 163 zenb.

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2a	3b	4c	5b
6b	7a	8d	9a	10c

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. utziko: lagako 2. lorealdia: susperraldia, bizkorraldia 3. ohitura: usadio, aztura 4. kitatzeko: kentzeko, baztertzeko 5. Zaila: Nekeza, Gatxa, Gaitza 6. garunera: burmuinera 7. iristen: heltzen, ailegatzen 8. Arrazoitzea: Argudiatzea 9. jasaten: pairatzen, sufritzen 10. moldatzeko: konpontzeko 11. xahutu: hustu, garbitu, amaitu 12. durotik: hogerlekotik 13. zatartzen: itsusitzen, itxuragabetzen 14. ziria sartuz: adarra joz, tentatuz 15. arin: azkar, laster 16. zoritxarrez: tamalez, damurik 17. atzenduak: ahaztu(xe)ak, utzi(xe)ak, baztertuak 18. bazterrean: ertzean 19. esperantzari: itxaropenari 20. zirrikitutxo: tartetxo

IRAKURMENA:

1d	2a	3a	4a	5d
6d	7b	8b	9d	10c

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Eta han sutondoan kontu kontari ibiliko zen (nahiz) ipuin batekin *nahiz* asmakizun batekin.
2. *Nola ukatu* Nafarroako zenbait herritako jaiak Iruñekoak bezain zaratatsuak eta alaiak direnik! (di-rela)
3. Lurraldeak murrizturik izan dituen *arren, gero eta* maitale gehiago ditu txakolinak.
4. Eguzki bila joan eta *blai-blai* eginda etorri beharrak ematen dit *amorrazioa!*
5. *Ez dugu* txakolina beste edaririk beste hizkuntzetara ere bere izena zabaldu duenik.
6. Herrian bizi izan ditudan hemezortzi urteren ondoan bi hilabete *ez dira* ezer.
7. *Ez du ematen* eztabaida politiko honek otsaileko hego haizeak baino gehiago iraungo duenik.
8. Malkoek lan erdia egina zutenez *gero* ez zitzaidan asko kostatu makilajea kentzea.
9. Jendearen sua baretzea zaila izango zen (zelako) *ustetan* udaltzainei dei egitea erabaki genuen.
10. Etxeko atea irekitzeaz (irekitzearekin) *batera* han nituen emaztea eta alaba irribarrez eta algaraka.
11. Gaztetxoak kalean *zer* ikusten duen (ikus) hura ikasten du.
12. Burusoila eta hartz nabarra naizen *honek* erakargarria eta maitabera izan nahi nuke.
13. Eritegitik itzulita ez nintzen ezertarako *gauza*.

14. Mozkortuta egonagatik, egunero edateak gorputza ahuldu eta burua fresko edukitzeko gaitasuna erakutsi zidan.
15. *Hura* barneraino sartu zitzaidan beldurra kontu haiek entzutean!
16. Natura zaintzea guztion ardura da, bestela basoak *ez ezik* gizakia ere hondatu egingo da.
17. Amak ezpainak estutu, eskua jaso eta lapurtutakoa *itzul* ziezaiola eskatu zion haurrari.
18. *Baliteke* bere barnea hustu eta lasaitzen denean berriro ere bere onera etortzea.
19. Gaur egun zenbait fakultatetan sartzeko, nota onak izateaz *gain* beste laguntzaren bat ere ez da alferrikakoa izaten.
20. Eguna zabaltzen denean *ekiten* dio jendeak hiritzarretan auto eta zarata arteko dantzari.

3.2.5. 1990/9/29

AHOZKOAREN ULERMENA I

KIKE AMONARRIZ: ARPA JOTZEA ARRAS BEHARREZKO

GALDERA.—Zeure buruari barre egiten al diozu?

ERANTZUNA.—Egunero. Ze, ispiluaren aurrean neure aurpegia ikustea... Uste dut bere buruari barre egiteko gauza ez denak problema latza duela. Zeure buruari barre egiteak joera kritikoa ematen dizu, eta autokritikarako bidea ere bai.

GALDERA.—Baina gure gizarte honek barre egiten al dio bere buruari?

ERANTZUNA.—Badago tradizio bat. Bertso munduan eta izugarrizko karakterizazioa dago. Badago elkarri erasotzea, eta gero lagun bezala jarraitzea. Uste dut Iparraldean bazela dueloak egiteko era bat. Bi lagun haserretzen zirenean, elkartu egiten ziren jendearen aurrean, bata besteari zeinek haundiagoak esateko, eta handiena esaten zuenak irabazten zuten. Gaur egun falta zaiguna, eta uste dut bide bakarra telebista dela, umorearen bidez gure gizartearen karakterizazioa lortzea da. Geure buruari barre egiteko ahalmena garatu beharko genuke.

GALDERA.—Lehen esan duzu telebistan egin den umore-saio bakarra paila-zoek egiten dutela. Zer gehiago falta zaio euskal umoreari?

ERANTZUNA.—Oraindik ere euskal kultur mailan landu den umorea, nolabait esatearren, erraza izan da. Herri-antzerkian azaltzen da umorea; bada tradiziorik, Soroatik hasi, Erramun Azkarate... Gerra ondoren ere herrietan sortzen ziren herri-antzerkiak... eta umorearen inguruan egingandako antzerki kostunbristak ziren.

Horrek antzerkian izan du segidarik. *Gastibeltzaren Karabinak* nolabait umorezko obra bat da, baita *Contactos Cabaret* ere. Maila horretan zerbait landu da. Musika mailan oraindik falta da umorezko talde bat. Guk ezagutzen ditugu erdaraz eta katalanez «La Trinca» eta «Puturru de Fua» bezalako taldeak. Hemen izan dira kantu batzuk. Kantari bakoitzak badu umorearen inguruan egindako kanta bat edo beste, baina orain arte umorea letretan bakarrik isladatzen da. Ez da izan talde umoristiko-satirikorik, eta hor daukagun aportazio ia bakarrenetako bat orain Irigoien anaiek argitaratu duten *Tximinoa gizondu* da. [...]

Adibidez, imitatzailerik ez dago. Zergatik? Ez dagoena da nor imitatu. Politikariak euskaraz imitatu nahi badituzu, eta euskararen bi-

dez jakin nahi baduzu halako politikaria nor den, oso zail gertatzen da. Jendea ohituta dago politikari hori erdaraz entzuten, eta euskaraz entzuten badio ere beste era batean entzuten dio, zeren politikoez erabiltzen duten euskara eta erabiltzen duten gaztelera oso diferentek bait dira. Horrezaz gain, dialektologia gogotik ikasi beharko litzateke, politiko batetik bestera alde haundiak daudelako. Esan nahi dudana da, hizkuntzaren problematika umorean ere isladatzen dela.

HABE aldizkaria
1989ko otsailaren 15a

AHOZKOAREN ULERMENA II

KIKE AMONARRIZ: ARPA JOTZEA ARRAS BEHARREZKO

GALDERA.—Umorea ez garatze hori, zer da, hizkuntzaren arazoa ala jendearena berarena?

ERANTZUNA.—Kontxo! Hemen beti esaten digute umoretsuak andaluziarrak direla. Baina hori erdal kontestu batean esaten digute. Gertatzen da erdal kulturaren munduan produkzio umoristiko gehiago egin dutela «baskoek» baino. Horrek badauka bigarren buelta bat; hemen erdaraz bizi den jendeak ez duela ezagutzen euskaraz sortzen den umorea, eta beti esaten dena: nahiz eta euskarak maila urbanoa irabazten jardun, oraindik ere, euskararen espazio naturala baserri eta herri txikietan dagoela, eta hor erabiltzen den umore tipoa ez dela erdaraz erabiltzen dena, erdaraz beste esparru batzuk ere harrapatu dituelako.

Beste topiko bat ere bada hemen. Hemen esan izan da, egoera politikoa dela eta ez dela, zenbait gauza ezin direla esan. Nik ez dut uste hori horrela denik.

Egia da, eta komunikabideetan ikusten da problemak badirela, adibidez, politikoekin sartzeko eta; nik arazo gehiago ikusten dut inor ez dela pausu hori ematen ausartu.

GALDERA.—Artikulu batean esaten duzu umorea saldu egiten dela.

ERANTZUNA.—Hori horrela da. Guk jaso ditugun umore ereduak ia denak telebistatik jaso ditugu. Zuk umorista esaten duzunean jendeari burura Eugenio, Arévalo, «La Trinca» eta horrelakoak etortzen zaizkio. Baina hori telebistatik sartzten den umore tipo bat da. Eta badirudi zu ez bazara umore tipo horretara egokitzen, ez duzula umorerik.

GALDERA.—Umorea dela eta nolakoa da hemengo entzulegoa?

ERANTZUNA.—Aldatzen ari da. Euskara esparru berriak irabazten ari da, hizkuntza egokitzen ari gara esparru berri horietara. Herri txikiak en-

tzulegoak era bateko erreferentzia kulturalak ditu, eta entzulego horrek eskatzen duen umore tipoa era batekoa da neurri handi batean. Eman dezagun, 30 urtetik gorakoekin gertatzen dela hau. Gazteagoak eskolatuagoak dira, beste erreferentzia kultural batzuk dituzte eta beste era bateko umorea onartzen dute.

HABE aldizkaria
1989ko otsailaren 15a

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1c	2b	3c	4c	5c
6c	7a	8d	9a	10c

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Aspaldiko: Antzinako, Iraganeko 2. Artean: Oraindik, Oraino, Oraindino 3. belaze: belardi, zelai, pentze 4. kozkortua: hazia, heldua 5. gandu: lurrun, laino, behelaino, lainabera 6. aziendak: abereak 7. barreiatuak: sakabanatuak, zabalduak 8. gogor: latz, bortitz, garratz 9. irrikiaren: nahiaren, desioaren 10. gomuta: oroitzapen, gogorapen 11. oparoak: aberatsak, beteak, joriak 12. nagusia: zaharrena 13. oinordekoak: premuak, maiorazgoak 14. kalteak: desabantailak 15. hobariak: irabaziak, abantailak 16. ahalegindu: saiatu 17. makalean: ahulean, epelean 18. legez: bezala, moduan, eran, gisan 19. eltzeari: lapikoari, bertzari 20. ohizkoak: usadiozkoak, betikoak |
|---|

IRAKURMENA:

1c	2d	3c	4d	5a
6a	7a	8b	9c	10d

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Aurrerako handia egin duela denek aitortzen *badute ere*, ikusi egin behar.
2. Emaitzaren berri *jakin* zain egongo da jendea.

3. Aurpegi berriak, landare gazteak behar ditu pelotak osasun onik izango *badu*.
4. *Larretxeak eta Olasagastik* erdibana eramango dituzte ebaki behar dituzten egurrak.
5. Besteri entzundakoaz ez da norberak ikusitakoaz *bezain* erraz eta trankil hitzegiten.
6. Huskeria bat *besterik* ez da behar izaten okerra gertatzeko.
7. Presaka zirela eta lehenbailehen paperak *sina* zitzala esan zioten.
8. Izan ere, *ez dago* Tolosa baino leku egokiagorik jendea inguratzeko.
9. *Litekeena* da ni zahartzen hasia egotea.
10. Telebista eta bideoaren *etorrerak* ikaragarri aldatu du azken urteotan zinea.
11. Errukia senti *erazi* zidan gizona bere buruarekin hain haserre eta ernegatuta ikusteak.
12. 36 jasoaldi izan ziren harriari *eman ahal* izan zizkionak.
Harriari 36 jasoaldi baino gehiagorik ezin *eman ahal* izan zi(zki)on.
13. *Herri xeheak* atsegin zituen bertso paperak garai batean.
14. Berehala konturatu zen gizon harekin luzaroko tratua izan zezakeela nahi izanez *gero*.
15. Mintzatu ez *ezik* isunaren papera idatzi ere egin dit euskaraz ertzain batek.
16. *Ez da* Nafarroan Xabierkoa baino santutegi maitatuagorik izango, noski!
17. Urte Zahar egunekoa zen Santos kupula formako kaiola batekin agertu *zeneko* arratsalde hura.
18. *Santos* azoka egunean bakarrik ateratzen zen mundura.
19. *Nork* eta alkateak idatzi dit zorionak emateko!
20. *Harik eta* den-denak hemen egon arte, inor ez da aterako.

3.2.6. 1990/11/10

AHOZKOAREN ULERMENA I

JOSE GOGORTZA, ESPETXE ARLOKO KONTUETAN GIPUZKOAKO GOTTZAIAREN ORDEZKOA

GALDERA.—Zer lan egiten duzue espetxeetan?

ERANTZUNA.—Guk Gotzaitegitik lan osoa eskaintzen diogu espetxeari. Orain urtebete konturatu ginen kartzelan kapelau bat egonik ere, meza eman eta ahal zuen guztia egin arren, lotura bat falta zela. Presoak barruan bazterturik dituzte eta ikusi genuen kanpoarekin lotura falta zela. Adibidez: Legazpiko preso bat agertzen da Martutenera, eta honnek bere herriarekiko lotura mantendu nahiko du, harreman normal bat, baina apaizak, hangoa ez denez, ezin dio halakorik eskaini. Honela, herriarekin lotura bat mantendu behar zela konturatu ginen, bertako berriak, jendea... Asmoa bailara bakoitzean talde bat osatzea da eta hirutan ezik, beste guztietan lortu dugu.

GALDERA.—Baina kartzela barruan, zein da zuen lana?

ERANTZUNA.—Gu kartzelan pertsonarengana joaten gara. Gaur egun ez gara, lehen bezala, jendea elizara hurbil dadin inguratzen pertsonengana. Presoa kartzelan dagoen pertsona zapuztua da eta beregana goaz, ezer espero gabe. Herri bateko neska edo mutil bat gaizki bada, gure taldearengana jo eta bertako norbait etortzen zaio bisitara. Gainera, diruz ere laguntzen dugu, batez ere ETAko jendearen gurasoei. Beno, hauek sakabanaketa dela eta denok dakigu oso urrun daudela eta bidaiak oso garestiak izaten dira. Baina hori baino askoz gehiago laguntza morala da. Barruan dagoen presoari entzun egiten diogu, kezkatu bere egoeraz. Gainera, batzutan norbait baztertua badago eta arduradunek atzetik Gotzaitegia dagoela ikusten badute, jarrera aldatu egiten dute. Berdin auzitegian, norbaiten kasua geldirik badago, geu joan eta orduan, agian, beste hainbaten artean galduta edo ahaztuta zuten kasua azkartu egiten dute.

ARGIA
1.284 Zenb. 1990-III-18

AHOZKOAREN ULERMENA II

Iñaki Azkunereren *Zezenak Euskal Herrian* obrari esker Zestoak aspalditik bizi izan duen zezenzaletasunaren berri franko jakiteko moduan gaude. Mila aldiz errepikatutako datu historiko bat, herri honen zezenzaletasunaren neurria ematen diguna: herriko plaza <zezen korridatarako eta beste egink

zunetarako» zabaldu zen 1666an. Toreatzeko propio, beraz. Garai hartan ez zen hain harrigarria izango, hala ere, Soralezeko plaza bera ere horretarako- xe egin zen eta.

Badakigu 1712an bazirela korridak Zestoan, urte hartako agiri batean esaten bait da 24 erreal ordaindu zituztela plazan hondarra botatzeagatik. Orain hondarra Zumaiako hondartza batetik ekartzen dute.

Hondarra zela eta istilu ederra izan zen 1733an. Orduan harea ibaitik ekarri ohi zuten, eta Teresa Berdugok, Liliko andereak, goardak bidali zituen lanean ari ziren itzaiengana. Jose Zuloaga alkateak, berriz, gartzelan sartu zituen goarda haiek eta auzia Valladolideraino iritsi zen baina, edozein modutan, lehengo eran jarraitu zuten zestoarrek.

XVIII. mendean, eta lehenago ere bai seguru asko, Udalak errentan jarri zituen hiru baserri, herriko festetarako zezenak izatearren.

Maizterrek zezen bana eraman behar izaten zuten jaietarako. Horrezaz gain, beste lan bat ere izaten zuten maizterrok: korrida egunetan elurra jaitsi beharra Izarraitz aldeko elurtegietatik, gero freskagarriak egiteko.

F. IBARGUTXI
ZABALIK. EL DIARIO VASCO. 90-9-5

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2c	3c	4a	5c
6c	7d	8c	9b	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. orenak: orduak
2. egunsentian: goiztirian, egunabarrean, goizaldean
3. soegin: begiratu, behatu
4. itzalirik: amataturik, iraungirik
5. barrena: zehar
6. emeki: leunki, bigunki
7. atzera: berriz, berriro, ostera
8. ertzean: izkinan, kantoian, barrenean
9. iratzartzeaz: esnatzeaz
10. endredatuen: nahasien, nahaspilatuen, banatuen
11. arrastoak: aztarnak, zantzuak, hondarrak
12. taigabe: etengabe, eten barik, amaigabe
13. hurbildu: gerturatu, inguratu, hurreratu
14. izeki: piztu, biztu
15. mugituaz: higituaz
16. arras: zeharo, erabat, guztiz
17. gotorra: sendoa, mardula, indartsua
18. itzuli: bihurtu, jiratu
19. ortozik: oinutsik, hankutsik
20. artega: urduri

IRAKURMENA:

1a	2b	3d	4a	5a
6d	7a	8b	9c	10d

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Gure herriko plazetan ez da inor agertzen gizon horrek *adinako* trebetasunik duenik.
2. Herriko jaiak dire*la*, edozein ospakizun de*la*, ez da bake handirik izaten gure auzo honetan.
3. Uda honetarako ingeles apur bat ikastea beste asmorik *ez dut*.
4. *Hamaika* horrelako kontu entzunak *gaude* gure bizitzan.
5. Aholku hauek Indiarako bidaian lagungarri *gerta* dakizkizuen ematen dizkizuet.
6. Komunikabide, egoitza eta zerbitzu aldetik ongi hornituak egoteaz *gain*, euskal giroa ere izaten da bertan.
7. Goizeko ordu txikietan etxean bere arrastorik ez izateak sortu zituen gugan kezka eta ezinegona.
8. Zaldunak ez zuen batere *gogoko* izan Faustok filosofokeria haietan ihardutea.
9. *Harik* eta semea oheratu (zen) arte Mikaela ez zuen *loak* hartu.
10. Neurrigabeko gorrotoa zenioten udako belar ontze eta biltze*ari*.
11. *Ez dago* pertsonarentzat zorigaitz handiagorik, mundu honetan bizi eta nork bere burua ez eza-gutzea baino.
12. *A zer* (nolako) aurpegia jarriko niokeen berriro itxura zatar harekin agertuz gero (agertuko balitz).
13. Tamainako arazoekin *ez zen* erraza bilera bakar batean denok *bat* etortzea.
14. Derrigor izan behar gero eta irabazle eta galtzaile gehiago, gizartea gero eta gehiago ari *bait* da lehiaketaz eta sariketaz josten.
15. Laborariaren zeregin astuna *baino* hunkigarriagoa da marinelaren trebezia ozeano handian bere untzi *ñimiñoan*.
16. *Banengoen*, bada, ni bere portaeratik ez zitekeela atarramendu onik espero!
17. Istorio zaharrak jakin nahi izanez *gero ez daukagu* inguruko baserrietako aitona-amonei galdetu besterik.
18. *Hura* nahigabea kamara hartu eta zubitik ibaiaren erdira bota zigunean!
19. Seme zaharrena soldadutzatik etorri zenean, (ederki) *kostatu* zitzaion lantegi batean sartzea.
20. Elizkoia ez *bada* ere Santa Zezilia eguna poz handiz ospatzen duten horietako*a* (dutenetako*a*) da gure Zezilio.

3.2.7. 1990/11/17

AHOZKOAREN ULERMENA I

INAZIO TELLETXEA SAN INAZIO LOIOLAKOAZ MINTZO

G.—Loiolakoak dituen idatzi guztiak erdaraz eginak dira, baina euskara al zen Loiolakoaren ama-hizkuntza? Jauntxoek garai hartan euskaraz egiten al zuten?

E.—Nola pentsa liteke aurkakoa lau mende joanda ere azpeitiarren ama-hizkuntza euskara denean? Egia da euskarazko idatzirik ez dela aurkitu: bere aiton-amonen, gurasoen, anaien testamentuak gazteleraz daude. Beste horrenbeste gertatzen zen udal agiriekin, foru legeekin, etab. Euskaldunak ez dira etxean edo lagun artean hizkuntza bat eta gainerako arloetan beste bat erabili ohi duten bakarrak.

G.—Zeintzu ziren Frantzisko Xabierrekiko harremanak?

E.—Xabierren familia Nafarroako erregearen alde zegoen eta honen aita pertsonaia bat izan zen. Honen ondorioz, Loiolatarren eta Azpilikueta-
rren, hau da, Xabierren familiaren jarrera aurkakoa zen.

Xabier, semerik gazteena, Parisen ikasle eta geroago maisu zena, Inaziok txundituta utzi zuen eta aita izpiritualtzat hartuko zuen. Xabierrek Indietan egin zuen lan Portugalgo patronatuaren menpe, baina horrelakoek eta antzinako familien arteko etsaigoak ez zuten bien arteko adiskidetasunean eraginik izan.

G.—Nolakoak izan dira Jesusen Lagundiak Aita Santuarekin izan dituen harremanak?

E.—Lagundiaren ezaugarrien artean Aita Santuarekiko harremanak eta honen dotrinarekiko fideltasuna aurkitzen dira. Entziklopedia garaian, Lagundiaren aurka sortutako giroak hainbat erreinutatik bidaliak izatea ekarri zuen; azkenean, Aita Santuak, jasandako presioen ondorioz, Lagundia bertan behera uztea erabaki zuen. Juduen kanporaketa kritikoki aztertu badugu, zergatik ez dugu jesuitekin beste horrenbeste egiten? Aurkakotasunak eta krisialdiak izango ziren, baina eginda-koek ez zuten horrelako zigorrik merezi.

G.—Loiolak idatzitako «gogojardunek» ba al dute gaur egun eraginik?

E.—San Inazio kristautasunera bihurtzea bere bizitzako gertaerarik azpimarragarriena da. Horregatik izan ez balitz, egun ez litzateke inor ez berataz ez Loiolatarrez gogoratuko. Bihurtu aurretik, Iñigo kristau arrunt

bat zen. Gero bilakaera bat izan zuen eta haren izpiak argi egin zien askori. Iñigok nahi zuena zera zen: beste askok berak emandako urratsa ematea.

Bera bizi zelarrik, zazpi mila gogojardunlari inguru bihurtu zirela uste da. Gogojardunek gaurkotasuna duten galdetzen didazu. Duela gutxi Puerto Ricoko gogojardun-etxe batean izana naiz eta urte osoan jendez gainezka egoten dela esan behar dizut. Loiolan bertan ere, urte osoan izaten dira gogojardunak eta beste hainbat lekutan ere bai. Iñigok Jainkoa aurkitu zuen eta bere burua eskaini zion. Bide horrek beti balio du.

G.—Badirudi jesuiten artean aldeak daudela: badira pobreekin lan egiten dutenak eta baita aberatsekin dabilzanak ere. Ez al dago kontraesanik?

E.—Jesuiten artean hasieratik izan dira pobreekin, aberatsekin eta erdikoekin lan egin dutenak eta denak sartzan dira Lagundian. Batzuk printze, Aita Santu edo kardinalekin ibiltzen ziren, beste batzuk berriz, parai-var, mexikar edo peruarrekin, irokiarrekin edo Paraguayn. Iberoamerikako Unibertsitatean lan egiten duen jesuita bat ezagutu dut, baita tarahumarekin bizi den misiolari bat ere. Lagundia sortu zenetik denetik egon da, batzuk kardenalak izan dira eta beste batzuk atezainak, Garate anaia bezalaxe.

I. TELLETXEA

*«Mendeurrenak izpirituaren birmoldaketa eragiten ez badu, suziritan galduko gara»
HABE, 182. zkia. (moldaturik)*

AHOZKOAREN ULERMENA II

G.—Jesuitak irakaskuntza elitistarekin daude lotuta; nola ulertzen da hori, Loiolakoak pobrezia aldarrikatzen bazuen?

E.—San Inaziok Erroman lehen eskola zabaldu zuenean atentzioa eman zuen atean zintzilikatutako ohar batek: dohainik. Gero hainbat lekutatik ikastetxeak sortzea eskatu ziotenean, berak dohainik irakasten saiatzeko eskatu zien Lagundikoei, bera behartsuen alde zegoelako.

Gaur egun jesuitek ikastetxe asko dituzte munduan zehar, baina nork ordaintzen ditu gastuak? Estatuak zentro hauek subentzionatzen ez dituen bitartean, Belgikan edo EEBBetan gertatzen den bezalaxe, kobratu egin behar. Ez dago beste irtenbiderik. Unibertsitatea oso garestia da eta estatuak berak matrikulak garestiagotu egin ditu. Hala ere, Lagundiak baditu munduan zehar pobreentzako hainbat zentro. Ba al dakizu zenbat mirari egin behar izaten dituzten Indiako Gujerat misioan bizi diren jesuitek?

G.—Gaurko gizartean biziko balitz, zein izango litzateke Inazioren jarrera? Zer eritzi izango luke «Askapenaren Teologiaz»? Aita Santuaren alde egongo litzateke?

E.—Alferrikako galdera da. Hasteko, San Inaziok zerbait planteatu baino gehiago, Izpirituak zuzendua izan zelako, eta bere fideltasun horren ondorioz, «bide bat» aurkitu zuen, baina ez bakarra. Gaur egun ere izpiritu horri jarraituko lioke, nahiz eta ez dakidan izpiritu horrek norantza eramango lukeen, gaur egun ere bide asko dagoelako. Berdin jokatuko al luke? Nik uste dut ezetz. Ez ditugu hark egindakoak imitatu behar, haren izpiritua baizik. Ez dakit zer pentsatuko lukeen Askapenaren Teologiari buruz, dakidan gauza bakarra da berak erantzuna eman ziola Erromako goseari, prostituzioari, ezjakintasunari eta beste hainbat beharri. Eta batez ere, gizakia askatu nahi izan zuela honen askatasuna oztopatzen edota baldintzatzen duten lokarrietatik. Gogojardunen esperientzia sakon batetik pasa denak badaki zer den askatasuna berreskuratu nahi izatea. «Har ezazu, Jauna, neure askatasun osoa» dio Inaziok. Bera, Jainkoaren morroi izan arren, gizonik askeena izan zen. Aita Santuaren alde egongo litzatekeen? Zuk ez dakizu zenbat sufritu zuen bere bizitzako azken urteetan bera maite ez zuen Aita Santuarekin. Hala ere, begiak itxita jarraitu zion. Nik uste dut gaur egun beste horrenbeste egingo lukeela. Edo uste al duzu benetako katolikoa izaterik dagoela Aita Santuaren aurka jarritz?

G.—Zer deritzozu «Loiola 91»ri?

E.—San Inazioren mendeurrena «Loiola 91» baino askoz ere gehiago da, Jainkoari esker. Loiolako Inazio —ea euskaldunok horretaz konturatzen garen— hedadura unibertsala duen pertsonaia da. Mendeurren honek egundoko eragina izango du. Bilkura aipagarriak, ihardunaldiak, hitzaldiak, gogojardunak eta milaka inizatiba aurrera eramango dira. Duela gutxi Mexikon izan naiz San Inazioari buruz sei hitzaldi ematen Jesusen Lagundiko ikasie ohien elkarteak gonbidatuta, eta esan beharra dago hogeita hamar mila lagunek osatzen dutela elkarte.

Oraindik badaude San Inazio goresten eta errespetatzen dutenak. Beste askori berdin izango zaie. Baina mundua gure txoko txiki hau baino zabalagoa da. Eta San Inazioren izena munduan zehar entzungo da. Loiolako Inazio gizadi osoaren ondarea da, gutxienez honen zati handi batena. Geure buruari galdetu beharko diogu geure ondareztat hartzeko eskubidea badugun, ala erreinua kenduko diguten besteri emateko, Ebanjelioak dioen bezala. San Inazioren mendeurrenak izpirituaren birmoldaketa bat eragiten ez badu, folkloean eta suzirietan geldituko gara; San Inazioren aztarna sakonarekin zerikusi handirik ez duen zerbait.

I. TELLETXEA

*«Mendeurrenak izpirituaren birmoldaketa eragiten ez badu, suzirietan galduko gara»
HABE, 182. zkia. (moldaturik)*

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1c	2d	3a	4b	5a
6c	7c	8d	9b	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. izkribatzeko: idazteko
2. nimino: ttipi, txiki
3. iragan: igarotako, joandako
4. ondorioz: beraz, hortaz
5. uneoro: momentuoro, beti
6. jazarri: eseri, jarri
7. hedatzen: zabaltzen, luzatzen (barreiatzen EZ)
8. bozkarioaren: pozaren, alaitasunaren
9. derrigorrezkoa: ezinbestekoa, nahitaezkoa
10. galde: itaun
11. larritasun: premia, estutasun (urduritasun EZ)
12. oraindik: oraino
13. gertatzen: jazotzen, agitzen
14. lodi: mardul, potolo, handi
15. hurrengo: segidako, honako, ondoko
16. Jadanik: Dagoeneko
17. zinez: benetan, egiaz
18. senari: zentzuari
19. aurki: idoro, kausitu, ediren
20. xahutu: gastatu, agortu

IRAKURMENA:

1c	2c	3b	4d	5b
6c	7d	8c	9c	10c

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. *«Ba ote dut nire etorkizuna alderdi txarretik begiratzeko arrazoirik?»*
2. Hurrengo goizean, bere poza gorde ezin *zuelarik*, joan zen mendira Jose.
3. Ana Joxepak aitonari ezin *aitor* ziezaiokeen ezer.
4. Maitasuna bere egun, ordu eta garaietan *agertzen da*.
5. Joanesek Aralar gaina abenduan *bezain* zuri zeukan burua.
6. Dena zegoen zuri, etxe aurreko osintxo baina *ez zen ikusten* ilun eta itsusi.
7. Gogo *adina* kemen izan balu laster helduko zen lagunengana.
8. Arima inoiz *baino* argi, bizi eta azkarragoa zuen.
9. Lazkaotarrak dira Murgia, Igartza eta Oinatz-Loiolako ahaide nagusien buru, ezkontzak *direla* medio (bide/eta/...).
10. *Zein* maitagarri azaltzen zaion Joanesen bihotzari Jesusen irudia!
11. *Bazekien* Azkarragoak hondatuta zeudela eta bazterrak erabiltzeko nahikoa indarririk ez zutela etxean.
12. Hango gizonek ez dute egundaino honelako gauzarik ikasi, oso atzeratuta *bait* daude.
13. Eguneroko bizitzak ez dit nahi dudana egiteko *biderik ematen*.
14. Inoiz *ez bezala* gabiltza gaur kutsadurari ataka jartzen.
15. Aristotelesek grekoz mintzatu *ordez* dakoteraz *hitzegin* izan balu, bere kategoriak erabat bestelakoak izango ziren.
16. Ekologiak, momentu honetan, instituzioak *zein* instituzio ez direnak behar ditu.
17. Bai, *jendea* aukeran dago lan hori *egiteko*.
18. Komunikabideetan indarririk hartzen ez badu, *baliteke* hika bi belaunalditan galtzea.
19. *Inork galdetuko* balit Alavesak aurrera ala atzera egin duen, aurrera doala esango nioke.
20. *«Egunkaria»*ren agerpena aldaketa izugarria izan zen.

3.3. 1991KO IDATZIZKO AZTERKETAK

3.3.1. 1991/5/4

AHOZKOAREN ULERMENA I

ETB-KO BIKOIZKETA LANAK AZTERGAI

Euskal Telebistaren programazioa hiru arlo nagusitan bana dezakegu: informatiboak, barne produkzioa eta kanpo produkzioa. Lehenengo biak oraingoz alde batera utzita, hirugarrena hartuko dugu, hau da, eginda erosi eta geure telebistan emateko euskaratu eta ahotsa jarriz bikoizten diren programak. Era honetakoak dira marrazki bizidunak, dokumentalak, telesailak eta filmeak.

Euskal Telebista sortu zenean, bat-batean bikoizketak egiteko jendea prestatu eta ofizioa ikasi beharra izan zen arazorik handienetakoa. Horrez gainera, ikus-entzuleen aldetik ere, ohitura falta izugarri nabari zen, eta denok ikusten genituen oso arraro indioak, txinoak, beltzak edo beste era bateko pertsonaiak euskaraz mintzatzen: abokatu, aberats jendea (JR...), Manhattanango edo beste hiri batzuetako lapur, punky, emagalduek, etab.

Bikoizketaren helburu nagusia filmea sinesgarri egitea da, ikus-entzulearengana berez-berez heltzeko modukoa izatea, hain zuzen. Baina hori oso zaila da. Eragozpenak bi iturburu nagusi ditu kasu honetan: alde batetik euskara egokia erabiltzea eta, bestetik, dramatizazioa, pertsonaiei ondo lotzea.

Euskara dela eta, argi dago gizarteko zenbait arlotara ez dela sekula heldu, militar giroa kasurako. Horrek une askotan asmatu beharra ekarri du eta, jakina, ahaleginak denak eskertzekoak eta borondate onekoak izan direla jakin arren, ezin esan denak onak edo egokiak izan direnik.

Horrez gainera, bikoizketa ahoz egiten da, eta telebista ahozko komunikabidea da, baina inoiz ez da ahozko hizkera batua finkatu, eta hortik

etorri da askotan filmeen hizkera ulertu ezin izatea, edota entzule bakoitzaren ohituretatik urrun gelditzea.

I. ETXEBARRIA
ETBren bikoizketa kontroleko sailekoa
EGUNA 1990-8-2.

AHOZKOAREN ULERMENA II

ETB-KO BIKOIZKETA LANAK AZTERGAI

Baina zortzi bat urte dira Euskal Telebista martxan jarri zenetik eta, askoren ustez kalitatea hobetu egin bada ere, oraindik oinarrizko arazo eta kezka bertan daude.

Lehenago beste ahalegin batzuk egin ziren, baina duela bi urte Euskal Telebistak bikoizketa lanaren jarraipena egiteko, kalitatea kontrolatzeko departamentua sortu zuen. Horretan lanean dihardugu harrez gero, eta ibilbide horretan pausu batzuk eman ditugu. Badakigu denok honelako lanak inoiz ez direla bukatzen; horregatik, urrats berri bati ekin diogu azken aldian.

Gure belarrietara heltzen diren eritzietatik hurrengo ondorioa ateratzen da: telebistako euskara, eta filmeetakoa bereziki, zuzena eta ulergarria bada ere, hotz, artifizial geratzen da, bizitasunik gabea. Eritzi hau, berez, ez da lurralde batekoa edo eskolatze maila jakin bateko jendearena, Euskal Herri osoan eta gizarte maila guztietako jendearen artean zabaldua baino. Guzti hau kontutan hartuta, proba bat egitea erabaki genuen. Proba hori bi tele-sailetan egin da: *Ron eta Ron, abenturak eta kalenturak* eta *Ederra eta piztia*. Bakoitza bikoiztetxe batean bikoiztu da, emaitza ere desberdina delarik. Dena dela, bi sailak oso diferenteak dira azaltzen duten giro, testuinguru, mezu eta edukiaren aldetik.

Proba honen berezitasuna euskararen tratamenduan datza. Lehen aipatutako eritziari aurre egin nahian, herri hizkera biziaren kutsua emateko ahalegin bat egin da. Ahalegin honek espero diren emaitzak lortu dituen denborak esango du, entzulegoarengan nolako oihartzuna duen aztertzean.

Dena dela, esan bezala, hau ez da proba bat baino, eta ez egokiena ere, agian. Baina hobetu nahia denon buruetan dagoen zerbait da, eta proba eginez beharbada helburu batzuetara iritsiko gara.

Proba den aldetik jarraipena behar du, lortu nahi diren helburuak bete diren ala ez aztertzeko. Jarraipen lan honetan, Euskal Herri osoko arlo desberdinetan lanean ari den jendea, berrogeita hamar pertsonari, sail bakoitzaren kopia bana bidali zaie inkesta batekin batera, eritziak jaso eta konklusio batzuk atera ahal izateko. Pertsona horiek telebista-irratietan dabilzanak dira, eta bai idazle, irakasle, bertsolari eta Unibertsitateko ikertariak ere. Hauen eritzietatik zenbait ondorio jakingarri ateratzea espero da. Ez da, hala eta guztiz ere, nahikoa izango, telebista ikuslegoak osotasunean

hartuta esparru zabalagoa hartzen bait du. Uztailaren 13an hasi zen emititzen *Ron eta Ron, abenturak eta kalenturak* eta abuztuaren amaiera aldera *Ederra eta piztia*. Ondoren, ikusle arrunten artean egin beharko da azterketa, ea etxean telebista ikusten duenak aldaketarik somatu duen, ala errazago sartu zaion belarrian filme horietan entzun duena (...)

I. ETXEBARRIA
 ETBren bikoizketa kontroleko sailekoa
 EGUNA 1990-8-2.

ENIZUTEZKO ULERMENA:

1b	2a	3c	4c	5d
6b	7d	8b	9b	10d

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. goibeltzen: tristetzen, atsekabetzen
2. errukirik: kupidarik, urrikirik
3. izuz: ikaraz, beldurrez
4. deiadarrak: garrasiak, oihuak
5. jasan: paira, sufri
6. erdiratzen: urratzen, erdibitzen
7. Haatik: Hala ere, Hala eta guztiz ere, Alabaina
8. gogoeten: pentsamenduen, hausnarketen
9. harterrazak: eskuragarriak, esku-eskukoak
10. kostata: nekez
11. nabarituko: igerriko, somatuko
12. sastada: labankada, puntada, zulakada
13. zirrara: hunkidura, aztoramendua, inpresioa
14. Jadanik: Dagoeneko, Jada
15. Artean: Oraindik
16. Betilun: Triste, Goibel
17. atseginegi: gustukoegi, maiteegi
18. burugabeak: txoriburuak, kaskarinak
19. ezta: gozoa, samurra
20. atsedetik: etenik, deskantsurik

IRAKURMENA:

1a	2b	3d	4c	5d
6a	7b	8d	9c	10c

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Anderrek zapatagintzan ihardun zuen luzaroan, entzun dudanez.
2. Kokolotzat hartu gaituzte horiek, zergatik ez dakigula.

3. Txikia nintzeneko alkandora aurkitu dut gaur ganbarako kutxa handian.
4. Zerrategira iristeko, errekaeren hegaletik jo beharrean, basoan *zehir* igaro ginen.
5. Bere bildumako txanponik ederrenetako bat eman zuen beste oso baliotsu baten *truke*.
6. Kendu gauzok paretik, enbarazu baino ez *bait* dute egiten hor, mahaiaren erdian!
7. Hiruna mila pezeta ordaindu ziguten lan hura egitearren.
8. Guztiz txarto egin *bide* dute sarrera azterketa, horrelako aurpegierekin irten dira *eta*.
9. Uste dugu *edonori* gerta dakiokela onuragarria bainuetxe horretan hamabostaldi bat egitea.
10. *Zeuei ere* biziki gomendatuko genizkizueke Donostiako Zinemaldiko azken bi filme horiek.
11. *Jockey*-a bi bider *ez ezik* bost bider ere jausi zela esango nuke.
12. Pariseko moduko etorbide zabalak ez dira Euskadin erruz aurkitzen, *ezta* mundu osoan ere.
13. Azkenean zazpi *barik* bederatzi landare erosi zituzten.
14. Nola ez ziren erreta etorriko, zazpi ordu baino gehiago eman zituzten eguzki galdatan *eta*!
15. Hamaika aldiz esan genien liburu guztiak *itzul* ziezazkigutela.
16. Nik zeu ere hemen *gera* zintezan besterik ez nuen nahi.
17. *Presta* itzazue gauza guztiak eta *etor* zaitetze gurekin.
18. Ekialde hurbileko gatazka *hain* da konplexua *non* ez duen (ez bait du) irtenbide errazik.
19. Ur murrizketak hasi zirenez *geroztik* ez dugu eduki lasaitasunik arlo honetan.
20. *Harik eta* denak bertan egon arte ez zenuten bazkaltzen hasi behar.

3.3.2. 1991/5/18

AHOZKOAREN ULERMENA I

Munduan bada hiri kilikagarririk. Pertsonak bezala, bakoitzak badu beste guztiek ez duten zerbait berezirik.

New York-en, ordea, beste guztietan aurki litezkeen alderdirik on eta txar guztiak eridenean dituzu. Eta neurri handietan, ikaragarrietan, miresgarrietan.

Munduko bost bazterretatik itsatsitako kulturak, askazi guztietako jendeak, hamaika bizimodu harrigarri.

Ona eta txarra, edifizioetan, ohituretan, jendeetan, bizioan eta ontasunean.

Non aurkitu munduan Manhattan-go edifizioak bezain gorak? Elkarren gainka ari direla dirudite, zeure begien aitzinean lehertu beharrean.

«Twins» eta «Empire State Building»-eko gailurretan zaudela, behera begira eta zorabioa egingo zaizu. Fifth Avenue-n barna zoazela gora begira eta txindurritxo zarela ohartuko zara.

Baina, beharbada, gizonak etxe egiten baino buru argiagoa erakutsi du zubi egiten. Manhattan Queens, Brooklyn eta New Jersey-rekin elkartzeko itsaso gainean egin dituzten zubiek altzairuzko gazteluak dirudite.

«Macy's ikusi ez baduzu, ez duzu New York ikusi». Horrelaxe dio munduko supermerkatu handiengan hizki handiz idatzitako iragarkiak. Macy's 1902an egin zen. 7 jatetxe ditu; badira 80 hizkuntzaz nahi duzuna itzuliko dizuten zerbitzariak; egunero 150.000 bezero hartzen ditu; 400.000 artikulu salgai ditu, 160 departamentu, 11.000 langile eta 650.000 metro karratu.

New York-en ezin liteke asper, kontrasteak, gauza harrigarriak une orotan sortzen bait dira. Oso dotore jantzita, eskuan «manager» maletatxo garestia duela, gizon prestua espaloian barna doa, patinen gainean... oso serio.

Aspertuko bazina, baina, Broadway-en dituzu nahi adina zinematoki eta antzerki toki, filmerik zaharrenak eta berrienak ematen.

Aholkutxo bat: eduki ezazu beti sakelan kotoin pixka bat, noiz behinka belarrietan sartzeko. New York-en arrabotsa, azantza, harramantza handi bait dira. Lehen aldiz New York-era nintzenean, eraman ezina iruditu zitzaidan.

G. GARATE
New York, New York, hitzaurrea
(moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

Zoaz Central Park-era eta giza mota eta ohitura guztiak ikusiko dituzu; bost kontinenteetako jendea, paseatzen, musika jotzen, maitasunean estu-estu eginda musu-laztanka, antzerkitxoak egiten. Otoi, eraman itzazu beti gutxienez 15 dolar. Bat-batean bizkarrean labana suma bazeneza, eman la-sai 15 dolarrok. Ez dizute ezertxo ere egingo. «Eskerrik asko» esan, bai. Dirurik ez bazeneza, ordea, labanaz azala urratuko dizute: «Hurrengoan ekar itzazu sos batzuk. Alferrik lan egitea ez zaigu atsegin».

Ikusi al duzu «Chinatown», Roman Polanski-ren filme miresgarria? Chinatown-ek ez du izen txarrik New York-en. Egiatzko txinarrak bizi dira han. Haur irri goxoak, ongi jantziak, begi zeharkatu politekin ikusi nahi badituzu, zoaz hara.

Ezberdintasunik latzenak eta anarkiarik itsugarriena New York-en. Itxurazko anarkia, ordea, ongi moldatua. Nork berak nahi duena egin lezake, nahi duen erara bizi liteke, zergak txintxo ordainduz gero. USAn horixe duzu bekaturik handiena: estatuari dagokiona ez ematea. Bazoazte Bosgarren ibilbidean barna larrugorri. Denak pozik. Jantzia erosi, ordea, eta hiriari zor diotzun ehuneko hamarra pagatu ez eta polizia guztiak lepo gainera etorriko zaizkizu. Al Capone, diotenez, kristau anitzik hil bazuen ere, espetxera zergak ordaindu ez zituelako sartu zuten.

New York-en aberastasunaren eta jende edukitsuaren ondoan, miseria gorria. Eskaleak ere bai. Sarri eta edozein tokitan. Wall Street-en ere hurbilduko zaizkizu diru eske. Ez dakit nik nora joan behar dutela eta dirua behar omen dute. Ez dira oso urrutira joango: garagardo edatera. USAn garagardo moz kortzen da jendea. Ardoa garestiegi duzu.

Bestalde, New York «ganster»en, mafiaren eta hilketen hiria da. Hau entzuten ari zaren bitartean, kristauren bat hila izan da New York-en edo emakumeren bat bortxatua edo lapurreta handiren bat egin. Estatistikek diotenez, hamar minututik hamar minutura hiru krimen egiten dira, edo bestera esanda, 18 orduan.

Egunero irakurriko duzu egunkarietan halako eta holako tokietan hilak izan direla urlia eta sandia. Gehienetan poliziak ez du jakingo nor izan den eta maiz zergatik hil duten ere ez.

Tiroka hasten direnean egun argiz, maiz errugabeak ere hilak edo zaurituak izaten dira, inguruan zer gertatzen ari den deus ere ez dakitenak.

G. GARATE
New York, New York, hitzaurrea
(moldaturik)

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1c	2a	3b	4b	5d
6c	7d	8c	9a	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. komunitate: elkarte, anaiarte, elkargo
2. higuintzen: nazkatzen, nardatzen
3. orohar: orokorki, orotara, guztira
4. arakatzen: miatzen, ikuskatzen, aztertzen
5. jotzea: abiatzea, zuzentzea, joatea
6. irmoki: zorrotz, zorrozki
7. leunki: samurki(ro), goxo(ki), emeki
8. hutsalezko: hutsezko, funtsgabeko
9. ezustekotasun: ustekabe, sorpresa
10. arerioak: aurkariak, aurkakoak, etsaiak
11. hazpegi: aurpegiera, zeinu
12. ihardetsi: erantzun, arrapostu
13. ez-axolati: arduragabe, axolagabe
14. ebatsi: ostu, lapurtu
15. apika: agian, beharbada, ausaz
16. zur eta lur: harriturik, txundituta, zurturik
17. instant: une, momentu, lipar
18. asaldura: aztorapena, urduritasuna, artegatasuna
19. hizketan: berbetan, solasean
20. funtsezko: oinarrizko, garrantzitsu, behinen

IRAKURMENA:

1c	2d	3a	4b	5d
6a	7a	8b	9d	10a

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Jaurlaritza berria bi alderdiren artean *ez ezik*, hiruren artean ere osa daitekeela diote politikan adituak.
2. Perurenak *record* berria ezartzea lortu *omen* zuen, 315 kiloko harria jasoz.
3. Etorri *direnak* baino ez dizkiagu aintzat hartuko.
4. Nahi dutena esango dute, baina uste dut etxeko taldeak, oraingoan behintzat, ez daukala inondik inora ere irabazterik.
5. Zuk *eskatuko bazenit*, bi bider pentsatu gabe emango nizuke, horretarako zaitut eta nire adiskiderik handiena.
6. Zinez, gertatzen zaizuna gertatzen zaizula, ez duzu zeure burua gutxietsi behar.
7. Mende magalean ikusi genuenean, *altzokada* bat sagar zekarren, denak bota beharrean.
8. *Esanak* esan, epe laburrean beste gerra handi bat gertatuko ote *den beldur* naiz.
9. *Atzo* lñakiri hurbildu nintzaion eta lan horretan jarrai zezan amore eman nion.

10. Horretaz ez duzue batere arduratu behar, geuri dagokigu lan hori *egitea*.
11. Goizaldeko hiruretara arte gelditu ziren, nekaturik zeuden *baina*.
12. Egun batez luzatu zuen Pariseko bere egotaldia, hango erakusketa ederra ikustearren.
13. *Gutxitan* ikusi dut agure hura bezala ibiltzen *zenik*.
14. Ahal zuten guztietan, horrelaxe egin *ohi* zuten, antza denez.
15. Kontutan hartu beharko zenukeen erretolika guzti hura zuk gehiago *ikas* zenezan esaten genizula.
16. *Hain* luzaroan ihardun zuten ate joka, *non* azkenean ireki egin behar izan bait zieten.
17. *Hori lehen* gertatu balitzait, ez niokeen inortxori ere kontatuko.
18. Sartzeaz batera, batzarkideei esan zieten *jezar* zitezela eta bakoitzak egokien zeritzen galderak *egin* zitzala.
19. Txerri alena! Lurrak irentsiko *ahal* zaitu bertan.
20. Osasun eta Kontsumo Saileko datuek diotenez, Euskal Autonomi Elkartean gertatzen diren lan eta trafiko istripuen %20 alkohol gehiegi edateak eragiten ditu.

3.3.3. 1991/5/25

AHOZKOAREN ULERMENA I

ANJE DUHALDE AMURIZAREN KANTARI

EGUNKARIA.—Hogeita hamar urtez goitiko esperientzia hitz gutxitan laburtzea ez da erraza, baina nondik heldu zaizu, zerk eragin dizu zaletasun hori?

A. DUHALDE.—Nahiz eta etxean musikari berezirik egon ez, betidanik izan dut musikaren tirria. Pantxoak parada eskaini zidan «El Fuego» plaza taldean baterian aritzeko. Ordu haietan, euskal musika tradizionala biziki guti aipatzen zen, eta «El Fuego» izan da dantzaldi giro berezi horretan musika tradizionala sartzen hasi zen lehen taldea, erritmo berri batzuekin eta euskaraz kantatzen.

EGUNKARIA.—Zeintzu izan dira zure inspirazio iturriak?

A.D.—Nire inspirazio iturrietan aipa nitzake Mixel Labegerik eginiko kantu batzuk eta Benito Lertxundi entzun nuelarik osoki euskaraz kantatzen kantari famatu baten hitzak; bestalde, beti gustatu izan zaizkit Chuck Berry, Elvis Presley, «Rolling Stones», baina horien parean, herriko musikariek, Xalbador bertsolariak bereziki, betidanik eragin handia izan dute niregan eta nire musikan.

EGUNKARIA.—Bertsoarekiko amodioa ezagutzen dizugu. Hala ere, musikari bati ez ote dio bertsoak mugarik ezartzen, bertso gintzan, hitza bait da nagusi eta ez musika?

A.D.—Beti musikatu ditut bertsolariak, eta batez ere Xalbadorren bertsoak. Xalbador izan bait da euskara idaztera ekarri nauen inspirazio handiena. Hala ere, ez nuen pentsatu disko oso bat bertsoz osatzea. *Nahas-mahas* grabatzen ari nintzelarik Amurizak deitu ninduen. Ahotsarekin arazoak zituen eta nire kantatzeko era gustukoa zuenez, bere bertsoak kantatzea proposatu zidan. Antolaketa txiki bat egin genuen: musikaz ez sobera hornitu diskoa eta hitzari lehentasuna eman; askatasun osoa eman dit moldatzeko. Azkenik, nik egindako lanaz pozik dagoela uste dut. Ez da egin ohi dudana estiloa.

X. GOENAGA
EGUNKARIA

1990eko abenduaren 9a (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

EGUNKARIA.—Ardoa bezala, Marino zaharrago eta hobeago...

MARINO LEJARRETA.—Gaur egun ziurtasun handiagoa daukat nire aldetik eta orain hasi naiz Tourrean gauza onak egiten, baina beste karrera batzuetan lehen hobeto egoten nintzen. 28-30 urte bitartean jendeak errendimendu ona ematen du. Dena den, oso erlatiboa da, orain dela urte batzuk, 30 urtetik gora ematen bait zuten txirrindulariek beren errendimendurik onena. Niri dagokidanez, 28 urte nituela desberdina nintzen, beste era batera korritzen nuen. Nire ustez, ondo zaindu eta entrenatuz gero, gogoekin egonez gero, 30 urtetik gora gauza gehiago egin daitezke arinago baino.

EGUNKARIA.—Zergatik korritzen dituzu hiru bueltak?

M.L.—Hasiera batetan, hiru bueltak eginez gero zer gertatzen zen ezagutzearen izan zen. Tourrean ondo sailkatuta gelditu nintzenez, errepikatzea erabaki nuen eta oso ondo aurkitu izan naiz.

EGUNKARIA.—Tourra prestatzeak ez al dakar beste karrera batzuk alde batera uztea?

M.L.—Forma hartzen hasten naizenean, ez ditut normalean indarrak gordezten, karreraren bat izan ezik. Ez badut erantzuten sasoi onenean ez nagoelako izaten da. Egia esateko, karrera guztietan irabazteko ahaleginak egiten ditut.

EGUNKARIA.—Zer dela eta joan zinen Italiara?

M.L.—Sasoi hartan txirrindularitzan zegoen egoera ez zen batere ona. Hori dela eta Italiatik etorritako eskaintza bati nire baiezkua eman nion, esperientzia ona izango zela uste bait nuen. Nire anaia Ismaelekin batera «Alfa Lum» taldera joan nintzen eta Italian egindako urteetan gauza asko ikasi ditut bai txirrindulari moduan eta bai pertsona moduan ere, nahiz eta hasieran ohizkoak diren arazoekin ibili.

EGUNKARIA.—Txirrindularitzak ahalegin asko eskatzen ditu. Sekula burutik pasatu al zaizu kirol hau uztea?

M.L.—Bai. Denboraldi hasieran, ondo ez zaudenean momenturik eskasena izaten dira eta gauza asko etortzen zaizkizu burura. Ondo jartzen zarenean, ostera, burutasun horiek baztertu egiten dituzu eta aurrera jarraitzeko gogo gehiagorekin ekiten diozu.

R. BASALDUA
EGUNKARIA

1990eko abenduaren 26a (moldaturik)

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1a	2b	3c	4b	5a
6b	7d	8b	9a	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

- | |
|--|
| <ol style="list-style-type: none">1. alde: alderdi2. baizik: beste, baino3. bukatzean: amaitzean4. oinazeez: sufrimenduez, nekeez5. hein: neurri6. Espetxeko: Kartzelako, Presondegiko7. zeritzanaren: izenekoaren8. predikua: hitzaldia, sermoia9. astunagoak: pisuagoak10. apaltzeko: ezititzeko, gozatzeko11. nabari: ageri, bistan, bistako12. gertatu: jazo13. Oroitzen: Gogoratzen14. medikua: sendagilea, osagilea15. hauta: aukera, hautets16. eman: igaro, egon, pasa17. geroztik: ordudanik, ondoren18. askatasuna: libertatea19. agintzean: hitzemandean20. ikustekorik: zerikusirik |
|--|

IRAKURMENA:

1d	2b	3d	4a	5b
6d	7d	8d	9c	10a

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Euskal Herrian ez da Gurtegiko jendeak *adina* xelebrekeria egiten duenik.
2. Bera ere aurka *al zetorkion* galdegin zion agintariak bere adiskideari.
3. Nola Euskadin hala Amerikan toki onak badire/*a* zioen poetak.
4. Infernuari ihes egiten geniolakoan zerurako bidea hartu genuen, hiri zokoari infernu eta mendiari zeru *deitzerik* baldin badago.
5. Eskolara bidali, ikasitakoa bihar egunean mesedegarri *gerta* dakizuen bidaltzen zaituztet.
6. Gogoratzen naiz txikitan *nolako* tripontzia zinen, amari eta inudeari, biei, hartzen zenie/*larik* bularra.
7. Egunsentia zenbait egunetan zoragarria izaten da; *merezi* du ikusteak.
8. Bide horrek mendiari urraketa handia ekarriko diola edozeinek dakien *arren*, adineko jendeari mendirako aukera emango diola ere ezin ahaz daiteke.
9. *Harik* eta herriko festetako musika isildu zen arte, jendeak ezin izan zituen *begiak bildu*.
10. Honez gero, mundua jira berri baten beharrean dagoela edozeinek *daki*.
11. *Ez du pertsonak* <etsai> handiagorik, buru-kritiko eta mihi-zorrotz jokatu nahi izatea baino.

12. Arabiera ikasten hasi, eta *hara non* aurkitzen duen kultura handi eta aberats bat duen herri baten hizkuntza dela!
13. Tamainako lehiakideekin, *ez zen* erraza lehiaketa hartan eskuhartzea.
14. Joan den astean auzoko herriko gazte ziraun batzuk egundoko *jipoia* eman zioten etxekoneko Praisku gizarajoari.
15. *Zein* gogor hartu zuten gurasoek beren semea, bai umetan, bai gaztetxotan; alferrik, *ordea*!
16. Ez genuen uste nuarbetarrei sokatiran emango zien amaren semerik *sor* zitekeenik.
17. «R. Arregi» izeneko kazetaritza-lehiaketan parte hartu nahi izanez *gero*, *ez* daukazu Andoaingo Udaletxera deitu besterik.
18. Guztion ahaleginak bilduta ere, *lanak izango* ditugu euskaldunok geure hizkuntza eta kultura aurrera ateratzen!
19. Leihotik begira nengoela, itxura eta traza txarreko(ak) *iruditu zitzaizkidan* atera hurbildu ziren adineko haiek; alprojak, alegia.
20. Sanjoanak jaiegun handiak ez *badira* ere, poliki ospatzekoak izaten dira Euskal Herrian.

3.3.4. 1991/09/28

AHOZKOAREN ULERMENA I

ARGIA.—Talde berrien «aita» moduan hartu zaitu hainbatek.

MIKEL LABOA.—Aztertu beharreko kontua da hori. Nik izan ditut nire eraginak. Euskaraz kantatzen hasi aurretik Atahualpa Yupanki eta Violeta Parra kantatzen aritzen nintzen. Atahualparekin berarekin ere kantatu izan nuen Donibane Lohitzunen. Garai hartan gure kanta zaharrak ez ziren ezagunak Hegoaldean. Ximun Haranek grabatutako zinta bat ekarri zidan orduan lagun batek. Pelotari honek edonora joanda ere magnetofonia eramaten zuen, tabernetan kantatzen zena biltzeko asmoz. Gerora disko bihurtu zen herri-kanten bilduma entzun bezain azkar konturatu nintzen bide hura zegokidala eta ez ordura artekoa. Hauetxek izan ziren nere hastapenak. *Haika mutil* bezalako kantu tradizionalak niretzat zubi bat izan ziren bezala, ni ere beste horrenbeste izan ninteke musiko berri hauentzat.

Garai hartan zaila zen denetatik entzun ahal izatea. Folk munda zen gehienbat heltzen zena: Bob Dylan, Joan Baez...

Gaur egun, zentzu horretan, eraginak handiagoak dira, era askotakoak.

ARGIA
1990eko irailaren 23a
1.306 zenbakia

AHOZKOAREN ULERMENA II

JESUS LLONA LARRAURI ALBAITARIAREKIN HIZKETAN

GALDERA.—Abereei ematen zaizkien hormona guztiak kaltegarriak direla uste du jendeak. Baina gauzak ez omen daude batere garbi, esate baterako Europako Elkarte Ekonomikoan debekatuta dauden bitartean, Estatu Batuetan zilegi dira. Zer dela eta?

ERANTZUNA.—Oraingoz, ez da frogatu hormonak kaltegarriak direnik, beta-zimaterola izan ezik, eta baztertuta dago horregatik.

Hormona batzuk berezkoak dira, gorputzak berak sortzen dituenak. Gaur egun berrehun bat ezagutzen ditugu. Hormona horiek abereei ziztatzeko zaizkienean, oso zaila izaten da antzematea. Besteak, osterak, artifizialak dira, ingenieritza genetikoak sortutakoak. Hauek dira, hain zuzen, osasun arduradunak kezkatzen dituztenak, esnea ugaritzen duen BST, esaterako.

Dena dela, desdramatizatu egin beharko litzateke gai hau, medikuntzan bertan ere erabiltzen bait dira. Hala ere, debekatuta daude

abereetan eta ez dira gomendagarriak. Nire ustez, kontsumitzaileen garaipen handia izan zen Europako Elkarte Ekonomikoan hormonak debekatzea. Baina oraindik ere hor ditugu, trikimailu handiak izaten bait dira. Europan okelaren ehuneko hirurogeia hormonatuta dago gutxi gora-behera eta Estatu Batuetan ia guztia.

GALDERA: Ezin al daiteke antzeman hormonak dituzten ala ez?

ERANTZUNA: Oso zaila da frogatzea, oso analisi zehatzak egin behar dira eta. Okelaz gainera, txiza eta giltzurrunen gaineko glandulak ere aztertu behar dira. Laborategian ere zaila da antzematen. Hogeita bat egunetik beherako saguekin egin behar dira analisiak. Horregatik, oso gutxitan egiten dira horrelako ikerketak. Europan bertan ere oso tar-teka egiten dituzte, oso garestiak bait dira.

Nire ustez, aurretik egin beharko litzateke kontrola, hau da, hormonon egileak zaindu. Badakigu enpresa multinazionalak direla horretan dabiltzanak. Baina oso zaila da hormonon eta anabolizatzaileen merkatu beltza gelditzea. Oso gai korapilatsua da eta ez zaio behar bezala heltzen.

HABE aldizkaria
1990eko azaroaren 1a

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2c	3a	4b	5b
6b	7c	8b	9a	10c

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. ezagutarazi: jakinerazi, adierazi
2. lasaitu: baretu, trankildu, naretu
3. babesa: geriza, itzala
4. adierazitako: agertuko, azalduko
5. konturatu: ohartu, jabetu, erreparatu
6. gertuago: hurbilago, hurrago, parajeago
7. errespetu: begirune, lotsa, dedu
8. itzel: sekulako, beldurgarri, handitzar
9. banatzen: aldentzen, urruntzen
10. osorik: erabat, osotoro, guztiz
11. ostean: ondoren, ondorik
12. herabe: ahalke, lotsa
13. gaizki: txarto, oker
14. neronek: neuk, nihaurk
15. bildu: joan, batu
16. berriz: atzera, berriro
17. sekula: egundo, inoiz
18. laztandu: ferekatu
19. hunkikorrena: bihozkorrena, sentikorrena
20. kezkatu: arduratsu, arduratu, artatsu

IRAKURMENA:

1d	2c	3a	4b	5c
6a	7b	8c	9b	10a

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Abentura haietan ibili gineno *ez zaigu* ahaztu oraindik bizitzaren arnasak duen balioa.
2. Zure kezka guztiak adierazten *ez badizkiozu* ez duzu *zer* eginik sikiatrarakin.
3. Erabaki honek babesten dituenak ez dira handi-mandien gehiegikeriak, jende xehearen eskubi-deak *baino*.
4. Beti pailazoarena *egiten* dabilenari *ez zaio* arreta handiegirik zor.
5. Norberak bizitzari eskaintzen dizkion *adina* amets eskaintzen dizkio bizitzak norberari.
6. Kontuak aurretik ez ateratzeagatik, *makina bat* aldiz damutu da harez gero.
7. Kurtsoa behar bezala gainditu nahi *bazenuen* larunbatero dantzan bezala saiatu *besterik* ez zenuen.
8. Ez dago beti lelo berberaz bazterrak nahasten ibiltzerik!
9. Egitasmo honi ez diote nolanahi Instituzioek baietza *emango*.
10. Errepide batez *gain* guztiona den beste zerbait ere badago hemen eztabaidan.
11. *Zenbat* denbora da arratsalde lasai bat elkarrekin igarotzen ez dugula?
12. Rikardok eta bere kideak *hamarna* milioi irabazi zituzten negozio biribil hartan.
13. *A zer* nolako negu hotza eta gorria gertatu zaigun aurtengoa!
14. Inon *ez bezalako* harrera egin ziguten baserri hartan, egun eta ordu askotako borrokaldi tristea haien ondoren.
15. Taberna zuloan gauero ikusten dugun *horrek* burua eta ekimena galdutakoa dirudi.
16. Hobe trikimailu guztiak ikasiko *bazenu* edonork *engaina* ez zaitzan.
17. Epailearen aurrean ez zen tinko eta segurtasunez azaldu, urduri eta totelka *baizik*.
18. *Nola* uler daiteke mendira igotzen hasi orduko leher *eginda* egotea?
19. *Ez du ematen* gatazka honen ondorioak bakearekin amaituko direnik.
20. *Badira* hamaika urte Oñatira iritsi nintzela.

3.3.5. 1991/10/5

AHOZKOAREN ULERMENA I

HABE.—Zuk zein alderditatik «aztertu» dituzu sektak?

VICTOR URRUTIA.—Ni, berez, ez naiz gai honetan aditua. Nik azken boladan ezagutzen ditugun ohizko erlijio-motaz kanpoko beste erlijioei buruz idatzi dut, erlijio marginaletan buruz. Kontestu horren barruan sartzen ditut nik sektak.

HABE.—Zer esan nahi duzu «erlijio marginalak» diozunean?

V.U.—Hiru eratako sailak daude hor. Talde batzuk gorputzaren zainketaz arduratzen dira, giza ahalmena sendotzeaz eta baita beste gizakiekin komunikatzeaz ere. Horrela autorrealizazioa lortu nahi dute. Norberaren burua eta besteak ezagutzeko teknikak erabiltzen dira. Komunikazioa talde barruan emanda, talde-kontzientzia eta bakoitzak bere burua hobeto ezagutzea lortu nahi da. Yoga egiten da, taldekako terapiak, ekialdeko filosofiekin, hinduismoarekin, taoismoarekin, budismoarekin... lotuta dauden gogoeta transzendentak eta abar. Espiritismoa, parapsikologia, telepatia egiten dituzten taldeak ere sail honetakoak dira. Bigarren sailean, kosmosaren misterioarekin zerikusia duten taldeak daude. Objeto Hegalari Ezezagunak, estraterrestreak aipatzea..., eta zer zerikusi dauka honek erlijioarekin? Ba, horiek salbatu egingo gaituztela pentsatzea. Eta hirugarren sailean sektak daude.

HABE.—Noiz sortu ziren sektak?

V.U.—Sektak beti izan dira. Kristautasuna bera ere, hasiera batean, sekta zen. Baina 2.000 urtetan zehar ireki egin da mundura, botere-elementuak txukundu egin ditu, ideologia unibertsalizatu egin da, eta neurri horretan sekta izatetik eliza izatera pasatu da. Gurean, batez ere, sekta suntsitzaileei buruz hitz egiten da. Sekta hauek elkarte itxiak dira, sekta-buruak agintzen du, eta berak esaten duena egin behar dute beste partaide guztiek, ez da partaideen borondatea errespetatzen, «buru-jana» egiten zaie... Baina ez da erraza sekta bat sekta suntsitzaile noiz bihurtzen den esatea, gaitza bait da sektaren beraren barne-egiturari buruzko informazioa lortzea.

HABE.—Zergatik sortzen dira sektak?

V.U.—Azken ehun urteotan erlijioak behera egin du. Fededuna gaisotzat hartu izan du jendeak. Gizakiak berezkoa du sinesteren bat izatea. Zuk hori ukatzen baduzu, erantzuna irrazionala izango da, hortxe daude sektak. Hau da erlijioa aztertu duten soziologoaren artean gehien onartzen den tesietako bat. Bada beste tesirik ere: sinesmen-sisteman oi-

narritzen den erlijioa atzeratuz doa, eta sektak dira azken arrastoak. Ni neu lehen eritziaren aldekoa naiz.

HABE.—Baina zeren bila dabil sektan sartzen dena?

V.U.—Zerbaiten bila dabil. Bere bizitzak ez du zentzurik, eta zentzu horren bila dabil. Sektan sartzen denak bere buruaz itauntzen du, bere arazoez, geroaz... Horregatik sartzen dira sektetan hainbeste gazte eta nerabe, garai horretan bizitzan zer izango diren itauntzen bait diote beren buruei. Horrelako itaunak egiteko garaian familiarekin, gizartearekin eta abarrekin arazoak baldin baditu, arazoei aurre egiteko heldulekurik aurkitzen ez badu, ez dutela maite ikusten badu... sektetan sar liteke. Egungo gizarteak horrelako itaunen aurrean babesik gabe uzten du gaztea, ez du gizarteratzeko biderik sortzen. Gaur egun gazte jende asko dabil egin nahi duen hori egiteko biderik ezin aurkituan. Gizarte tradizioaletik gizarte modernora pasatzean balore batzuk galdu egiten dira eta beste batzuk bilatzen, baina bide hori egiten ari dena noraezean ibiltzen da, eta sektak horretaz baliatzen dira. Gainera, sektak izugarritzko marketing-a erabiltzen dute arazoak dituzten pertsonak jasotzeko.

HABE 180 zkia
7-9 orr
Elkarrizketa.

AHOZKOAREN ULERMENA II

HABE.—Eta zer eskaintzen du sektak?

VICTOR URRUTIA.—Babesa, taldearen babesa, maitasuna. Baina atzean burua dago, talde-buruaren prepotentzia, partaideen askatasunik eza, zapalkuntza... Sektetan ezin zaio talde-buruaren eritziari kontra egin, egitura hierarkizatua dute, arau zehatzak bete behar dira. Sektak ez dio gizabanakoari berak dituen arazoei aurre egiten laguntzen, ez du gizartearekin dituen ezineramanak konpontzera bultzatzen, aldendu egiten du gai politikoetatik, nahiz eta batzuetan, Partido Humanistak esaterako, politikarako erabiltzen duen horrelakorik. Eta ez dugu esan zer gertatzen den herrialde atzeratuetan baina, herrialde atzeratuetan, sektak bertako gobernuei aurre egiteko erabiltzen dituzte EEBBetako indar ekonomiko handiek.

HABE.—Politika aitatu duzu. Gurean badirudi jendea gehiago arduratzen dela politikaz. Zuk uste duzu Euskal Herriko egoera politikoak balio duela gazte jendea eta, sektetan ez sartzeko?

V.U.—Ez dut horri buruz datu zehatzik, baina ez dut uste hemengo egoera politikoak sekten indarra ez areagotzeko balio duenik.

HABE.—Sektetako jarraitzaile batzuek uste dute beren talde hori guztiz ona dela.

V.U.—Askatasunak beti esfortzua eskatzen du. Gizakiak, zenbat eta helduago, askeago izan behar du. Sektetan daudenek uko egiten diote esfortzu horri, indar gehiago du beraiengan segurtasunik ezak askatasun-egarririk baino. Askatasuna gogorra da, aukeratzea eskatzen bait du. Nahiago dute taldean egon, besteek konpon ditzatela nire arazoak.

HABE.—Zuk egunkari batean diozu sektek gora egingo dutela...

V.U.—Jendeak ez du uste sektak arriskugarriak direnik, ez du hori gizartearen arazo bezala ikusten, eta, erlijioarekin zerikusia duen edozerk bezala, gizartearen indar gutxi dutenez...

HABE.—Eta zail al da sekta bat legalizatzea?

V.U.—Hemen ez, behintzat. Arazoa lehen aitatu dizudana da, nola frogatzen duzu sekta bat sekta suntsitzailea dela? EEBBetan ez dituzte legez kanpoko bihurtzen jendeari «buru-jana» egiteagatik eta horrelakoen-gatik, Haziendari iruzur egiteagatik baino. Baina, hemen, ezta hori ere.

HABE 180 zkia., 7-9 orr.
Elkarrizketa.

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1d	2b	3d	4c	5b
6a	7c	8d	9a	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. goibel: ilun, triste
2. lainoa: lanbroa, gandua
3. txukunketak: garbiketak, apainketak
4. izoztu: jelatu, hormatu, leitu, gogortu
5. gailur: adaburu, punta, gain
6. eskegita: zintzilik, dilindan
7. kemen: indar, adore
8. zamatsua: astuna, nekagarria
9. galerazten: oztopatzen, eragozten
10. egiazki: benetan, zinez
11. antzeko: moduko, gisako, irudiko
12. pintoreak: margolariak
13. partez: aldetik
14. ezbairik: zalantzarik, dudarik
15. garo: ira(tze)
16. borroka: gatazka, liskarra
17. aukeratutakoari: hautatutakoari
18. Entzuten: Aditzen
19. zalapartatsua: zaratatsua, ozena
20. artean: barruan, baitan, golkoan

IRAKURMENA:

1a	2b	3d	4d	5a
6b	7a	8d	9c	10c

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Ametsetara oso *emanak* gara euskaldunok.
2. Ez *bide* dira hona azaldu.
3. Ni ikustean, irakasletzat *hartu* ninduen ikasle horrek.
4. Horiek auto *banatan* etorri ziren.
5. Harrapaketak bertan behera utzi behar dira baleek bizirik iraungo *badute*.
6. Bildutako guztiok ingelesez elkarri egiten *bagenion* ere, europarrak ginen gehienok.
7. Zuk *esandakoari* ondo deritzogu.
8. Testu bat idazterakoan, *berebiziko* garrantzia du hitzak ongi aukeratzeak.
9. Esan gabe *doa* ekologi arloan badugula zer eginik oraindik.
10. Nahiz eta estutasun larrian jartzeko arriskuan egon, argi eta garbi *mintzatuko* natzaizue.
11. Amaitu *berria* dut utzi zenidan liburua.
12. Zuk *ezin bota* gaitzakezu kalera.
13. *Umilarena* egiten zuen, baina harroputza zen oso.
14. Egiten dudanaren berri eman behar *izateak* nazka-nazka eginda nauka/nazka ematen dit.
15. *Luze* joko du zubi berria egiteak.
16. Azkenengo aldiz izan genuen hizketaldia datorkit *gogora*.
17. Nire poza maite nauela esango *balit!*
18. Ez dut sekulan ikusi iturgin horrek adinako trebezia *duenik*.
19. Urteak ziren geure lehengusinareen berri ez genuela, eta ikusi bezain laster *besarkada* bat eman genion.
20. Erosi dituzuen erlojuak, behin apurtuz gero, ez *dago* konpontzerik.

3.4. 1992KO IDATZIZKO AZTERKETAK

3.4.1. 1992/5/18

AHOZKOAREN ULERMENA I

PIO BAROJAK ESAN DIGU

Etxe barren itzalean aurkitu dugu Baroja, bizkor, argi eta berriketazale.

Urteek etxekoi egin dute: lau urte hauetan ez omen da ia kanpora ir-
ten. Horregatik edo, harriturik dago oraindik Madrilgo geltokian ikusi duen
jendearen emanarekin. Txingurritegia zirudien noski.

Halako triste-antza nabaritzen du bazterretan. Bai Beran ere, herriko
jaietan bertan, zer dela eta ez badaki ere... Beharbada, eta gure ahoz ari gara
orain, kontrabandoak beheraldia duelako egun hauetan.

Hizketa nora gabe dabil, atzera eta aurrera. (...) Baina oraingo litera-
turari lotzen gatzaizkio.

BAROJAK.—Behera doa berrogei urte hauetan. Frantzian ez dago inor neurritz
gainerik. Joan den mendean, berriz, zenbat! Eta Inghaterran, Erru-
sian, Ipar Amerikan. Orain ez dago ezer. Italian, Papiniren gisako jen-
de kaxkar eta itxuragilea. Izengoitia daraman literatura hori erdipur-
dikoa izaten da. Idazle handiek, Cervantes batek esaterako, ez zuten
horrelako txartelen beharrik. Europak, literaturan, beheraldia du; hala
iruditzen zait, behintzat. Zerbaitengatik izango da.

MITXELENAK.—Eta Espainian?

BAROJAK.—Gauza berririk gutxi. Carmen Laforeten lanek umekeri-antxa ba-
dute; ez dira inoren barrena inarrosteko gai. Cela, berriz, oihulari eta
zalapareroa da. Bat aspertu egiten du horrek azkenean.

MITXELENak.—Benavente?

BAROJAK.—Bere izena, hil orduko, desegiten hasia da. Eta hori jendea lili-ratua zeukalarik! Beti aurren ageri zen Espainiako teatroan. Bazekien bere lanbidea, niri kursi xamarra iruditzen bazitzaidan ere. Gizon bezala, bazituen horrek ere... Nobel saria eman, eta 4.000 libera gastatu nahi ez Suediara joateko.(...)

MITXELENak.—Zure gizaldiko idazleetan, euskalerritarrak?

BAROJAK;—Ez nituen oso gogoko; Salaberriak ezin zuen inor ikusi. Bueno-k ez zuen bekaitzik, ongi idazten zuen, argiro. Ez zuen euskal usain handirik. Maeztu arrunta zen zeharo, nire ustez.

MITXELENak.—Eta Unamuno?

BAROJAK.—Eroxka, eta harroa, harrorik bada. Mundu zabalari hitz egin, ustez, eta kanpokoek ez ezagutzen. Eta hura azken zoroa... Gauzak bere gogora eskuratuko zituelakoan zegoen, herria menderatua bait zeukan ustez. Harrokeriaz eta beldurrez beterik, edozein gizon arruntek egingo zukeena ez zuen jakin egiten. Herria bereganatuko zuela sinetsi, eta herria oso-osorik etsai bihurtu. Salamancako harriak ere kontra jaiki zitzaizkion. Etsita hil zen, hori ikusirik.

MITXELENak.—Zer egin du Donostiak 70 urte hauetan, galdu ala irabazi?

BAROJAK.—Erosotasunean irabazi. Gogoazabaldur bide zaio, agian, baina ez du orain deus ikusgarririk. Herri on bat da, berexotasunik gabea. Donostia, egin den bezala, euskalduntasuna desegiteko tresna bat da. Bilbo, oraindik erdaldunago.

AHOZKOAREN ULERMENA II

MITXELENak.—Euskal Herria eta euskal gauzak nola ikusten dituzu?

BAROJAK.—Gogoko izan dut beti, urrutiko sorterrri-minak eraginda bezala, Euskal Herria eta euskaldun jendea, baina batez ere baserria. Bilboko kaleak beste nonnahikoen antzekoak dira, eta zer axola dio inori asturiano edo gailego bat bezala mintzatzen den euskaldunak? Gauza horiek hiltzen ari direla uste dut, ordea. Datorren mundua arruntagoa izango da, eta lelo berberak izango ditugu alde guztietan.

MITXELENak.—Euskararen etorkizuna?

BAROJAK.—Atzeraka dabil, nora jorik ez duen errekararen gisa. Suntsitu beharra da. Bostehun urtez edo, iraungo du, baina galduko da. Neke du hizkuntza ilun batek hizkuntza argi bati gogor egiten. Duela 70 urte,

etsia nago, gehiago egiten zen euskaraz Donostiako kalean. 200 urte barru, ez du inork egingo.

MITXELENak.—Ezer egin behar ote genuke, gal ez dadin?

BAROJAK.—Hori barrenak eskatzen dio gizonari. Euskarak ez du ia ezertarako balio, ordea. Gauza bitxi bat bezala da, etxean gorde eta datozenei erakusten zaien horietakoa. Nire eritziz, euskararen agonia ikusi dugu, azkeneko 50 urteotan. Hor geldituko da 100, 150, 200 urtez, jakintsuentzat. Latinezko erdarak errazagoak dira. Iskilu eskasak ditu euskarak borrokarako.

MITXELENak.—Onik aterako al luke euskara agintarien laguntzak?

BAROJAK.—Ez zait iruditzen agintariak horrelakorik egin lezaketenik. Gogor egingo lieke jendeak agintariei, arriskua izanagatik, euskaltzetasunik baldin balu. Euskaldunik asko da, euskaraz jakinik, egiten ez duenik. Herri hauetan ere ahultzen ari da.

MITXELENak.—Badirudi, hala ere, askoren gogoak aldatzen ari direla.

BAROJAK.—Aldakuntza hori benetakoa den jakin behar, ala itxurakeria hutsa. Hori jakinaren gainean ongi dagoenak bakarrik esan dezake. Bizkonde antzeko zerbait, nik ez dut ikusten.

MITXELENak.—Joan den mendeko bi gerrateetan euskaldunik gehienek karlistengana jo zuten. Zergatik ote?

BAROJAK.—Apaizarengatik edo, familiarengatik edo. Apaizaren eta karlistaren ondoan bizia garbiagoa izango zelako usteagatik edo. Nekazariak, alde guztietan, ez dira berrizale. Frantsesek ere, luzaroan, gorroto izan zuten horrelaxe Errepublika.

K. MITXELENA
Euskal Idazlan guztiak I, EEE

ENTZUTEZKO ULERMENA

1c	2c	3a	4c	5a
6d	7d	8a	9b	10b

IRAKURMENA:

1b	2c	3b	4a	5a
6d	7a	8b	9c	10d

ESALDIAK BERRIDATZI. ERANTZUNAK

1. Lasterketa amaitzeaz zegoenez, korrikalaria behaztopatu eta aurrez erori zen.
 2. Herrialde horrekiko loturak urtero-urtero bertara abiarazten nau.
 3. Azkenean erabaki dut dirua utziko dizudala denda hartan postal horiek *eros* diezazkidazun.
 4. Asier jatorra zen eta nekerik gabe entzuten zitzaion; bere anaia, berriz, agure aspergarri bat *bestarik* ez zen.
 5. Aurten aldizkarira heldu zaizkigun lanak *baino* gutxiago argitaratuko *ditugu*.
 6. *Museo horren* bikaintasunak zirrara handia sortzen dizu, bereziki pintore inpresionisten bildumak.
 7. Nork esan non dagoen Fellini-gan urrikaren eta bihotz gogorkeriaren *arteko muga?*
 8. Lotsatu *arren* ere, aitortu beharreen naiz ia arrastaka eraman nindutela erakusketa horretara.
 9. Laster egiaztatu ahal izango nuen bezala, nire nagitasuna eta nire beldurrak oinarririk *gabeak* ziren.
 10. Lapurreta horren autoretzaz esaten dena egia *delako* ziurtasun oso-osorik ez daukagu.
 11. Benetan diotsut: beraiek ere gurekin *etor* zitezen nahi genuen hasiera-hasieratik.
 - 12*. Hiru izan *omen* dira autobideko istripu horretan zauritutakoak.
 13. Sosik gabe itzuli zen, *batetik* diru guztia jarri *zuelako*, eta bestetik okerreko zaldiaren alde egin *zuelako* postura.
 14. Zoaz, zoaz lehenbailehen. Amaia eta Jontxuren *bila* joan behar duzu bostetan, ikastolatik irteten direnean.
 15. Han geunden guztioi harridura handia sortu zigun bilerara zelan sartu zen ikusteak./ Han geunden guztion harridura handia izan zen bilerara zelan sartu zen ikustean.
 16. *Astirik balego*, joan egingo ginatke eta Igorri esatekoak esango genizkioke.
 17. Kalera irten nahi ez *zuelako* eta lagunei dena kontatzen hasi nahi ez *zuelako* gelditu zen egun osoan etxean.
 18. Bigarrenari hogeita lau segundu atera dizkiola esaten duenik *ez ezik*, hogeita sei atera dizkiola esaten duenik ere badago.
 19. Altzon festak ziren, eta Erramon ere ez zen etxean *egoteko ona*.
 20. Juan Mari laster egongo zen eskolako lanak utzi *beharrean*.
- OHARRA: (12*) Antza denez + omen: gaizki.

3.4.2. 1992/5/23

AHOZKOAREN ULERMENA I

IZARO IRLA: LAINOA ETA ISTORIO ILUNAK

Madalen eguna egun handia dela Bermeon ukazinezko kontua da. Aspaldidanik bermeotarrek txangoa egiten dute itsasoz egun horretan, eta Izaro irla, Elantxobe eta Mundakara joaten dira. Tradizioak dioenez, Izaro bermeotarren eremua dela baieztatzeko egiten zen bidaia hau. Antzina horrela zen, baina gaur egun jai eta dibertsio giroko bidaia da.

Izarok, Bermeo eta Mundakak borrokatu izan duten azken lur puska honek, zutik dirau itsasoaren etengabeko erasoari eutsiz. Urtero bertara joaten diren kostaldeko gizonak jabetza erritua errepikatzen saiatzen badira ere, Izaro beti egon ohi da infernutik hurbil eta kostaldetik urrun. Bermeotik, bizkarra zigortuta daukan erraldoi baten aurpegia baino ez da ikusten. Bertara joanda, aurpegiaren zimurrak amildegi eta leize bihurtzen dira: milaka urtez urak, izotzak eta kresalak agure honen itxura ikaragarria landu egin dute, hura gizakiaren oinak zapalduko ez duen eremua dela gogorarazteko.

Halere, izan dira Izaroko bizkar gainean beren etxea ezarri nahi izan dutenak. Ez zitzaizkien gehiegi axola hango ekaitzak, lanbroak, hezetasuna eta haizea; Jainkoak agindutakoa betetzen zutelakoan joan ziren irla mada-rikatu hartara. Komentua eraiki zuten, harriz eta hesiz bete zuten erraldoiaren bizkar minberatua eta babesa eraiki ondoren hirurehun urtez bizi izan ziren bertan fraile frantziskotarrak.

Alferrik izan zen: Foruara joatea erabaki zuten fraile haiek hiru mendez han egon eta gero. 1729. urtea zen fraileen azken txalupa irlatik irten zenean, inoiz ez itzultzeko. Arrantza eginez eta hegaztien arraultzak janez bizi izan ziren eta behin baino gehiagotan ekaitzak isolaturik utzi ondoren, zapi zuria komentua goikaldean jarriaz Bermeoko herritarrei laguntza eskatu beharrean gertatu ziren. Hainbat sufrimendu jasan ondoren behingoz ohartu ziren galdua zutela erraldoiarekin hasitako borroka.

K. GOITIA
EGUNKARIA
1991ko uztailearen 23a

AHOZKOAREN ULERMENA II

IZARO IRLA: LAINOA ETA ISTORIO ILUNAK

Francis Drake, Elkano ospetsuaren atzetik munduari bira eman zion pirata ere izan zen Izaron. Inglaterrako Erreginak inoiz izan zuen itsasgizonik

trebeena, Espainiako inperioari ahal zuen sarraskirik handienak egiten ibili ondoren, Bizkaiko zoko honetara ere iritsi zen. Izaro zeharo suntsitu zuen eta Gaztelugatxe ere ez zen pirataren erasotik libre geratu. Deabrua bera baino gaiztoagoa zen gizon hark ezin izan zuen ahaztu infernuko zati hau. Erreginak eskertuko zion egindako kaltea eta pirataren mamua, beharbada, ez da Izarotik urrun ibiliko.

Urteak joan ahala, gizakiak behin eta berriro saiatu dira beraiena ez zena eskuratzen. Bi herri, Bermeo eta Mundaka hasi ziren Izaroren jabetza aldarrikatzen. Inork amore ematen ez zuenez, trainera lasterketa egitea erabaki zen. Itsasoak, haserreturik, Bermeoko traineran zihoan gazte bat ito zuen eta horregatik du Bermeok gaur irlaren jabetza.

Kantauri itsasoan ez dago irla ugari, uraren indarrak oztopo gutxi izan du kostaldea bere gustura moldatzeko orduan. Izaro izan da itsasoari aurre egin dion harri gogorrezko gaztelu bakarra, erraldoi burugogor soila. Eta horregatik izan da Izaro borondate gogorreko gizonen mirestu izan duten sinbologia, konkistatu nahi izan duten eremua. Baina Izaro bakartia da, eta bakarrik jarraitzeko bere burua istorio ilunez estali du.

K. GOITIA
EGUNKARIA
1991ko uztailaren 23a

ENTZUTEZKO ULERMENA:

1b	2d	3a	4c	5a
6a	7c	8b	9a	10d

IRAKURMENA:

1a	2d	3b	4c	5c
6d	7a	8a	9d	10b

3.4.3. 1992/10/3

AHOZKOAREN ULERMENA I

Denak harrituta utzi zituen Gipuzkoako Bertsolari txapelketan Jon Sarasuak: kartzelako lehen bi bertsoak oso onak bota zituen, zazpi puntukoak. Azken bertsoa, ordea, aurreko hariarekin erabat hausten zuen zortziko txiki ziztrin samarra, zentzurik gabea izan zen.

EGUNKARIA.—Kartzelako gaian egin zenuena, hau da, bertsoa doinu eta neurritz aldatuta, eta hariari ere jarraitu gabe kantatzea, aurretik pentsatutako zerbait izan al zen?

SARASUA.—Txapelketa hasi aurretik, pentsatua neukah azkeneko bertsoan hori egitea eta hori buruan nuela joan nintzen. Neukan beldurra zen, saio txarra egin ondoren, hori egitean, jendeak kasketa moduan hartuko zuela. Nire asmoa saio ona egitea eta azkeneko bertso hori botatzea zen.

EGUNKARIA.—Somatu al zenuen txapela irabazteko arriskua?

SARASUA.—Ez nuen saio oso ona egin, ona bai, baina ez oso ona. Egia esan, kartzelako gaian egin nuen bertso hori, txapelketaren kontu guzti honekin konforme ez nengoelako egin nuen. Nik uste dut bi aldetatik atera zaidala ondo. Kartzelako hirugarren bertsoa aurreko bien bidetik bota izan banu, agian, orain txapelarekin nengoke. Hori niretzat akabua izango litzateke; niri momentu honetan ez zait interesatzen txapeldun izatea.

EGUNKARIA.—Zergatik ez duzu txapeldun izan nahi?

SARASUA.—Erresponsabilitate handia delako eta ez duelako merezi jendeak zure lanari hainbestearainoko arreta jartzeak, momentu honetan ez duelako anbizio hori. Kalterako izango litzateke bertsoan lasai egiteko, baita bigarren edo hirugarren izatea ere. Beraz dena ondo atera zait; batetik, saio polita atera zait eta, gutxi gora-behera nahi nuen lekuan geratu naiz. Ni prest nengoen eta, gainera, hala pentsatzen nuen, zortzigarren geratuko nintzela. Saioaren aurretik mentalizatua nengoen zortzigarren geratzeko.

AHOZKOAREN ULERMENA II

EGUNKARIA.—Puntuazioari zer deritzozu?

SARASUA.—Saio osoa ez nuen entzun, beraz, ezin dezaket ezer esan, baina argi daukat epaimahaiaren sistema aldatu egin behar dela. Puntuazioaren ehuneko handi bat segun eta kantaria nor den ematen da. Bertsolariei egiten zaien «marketing»arekin zerikusi zuzena du ere. Uste dut elkartean laster proposatuko dugula sistema aldatzea. Benetan lehia ondo egin nahi bada sistema aldatu egin behar da, horrela ez du balio.

EGUNKARIA.—Nolakoa izango litzateke sistema berri hori?

SARASUA.—Hori eztabaidatu egin beharko da, baina esango nuke mistoa izan behar duela. Hau da, batetik epaimahaia bertan egotea eta bestetik, epaimahaiaren zati batek ez jakitea nork kantatu duen. Gaur egun saio bera pertsona batek edo beste batek egin, diferentzia hogeitamar puntutakoa izan daiteke, eta txapelketa honetan horrela izan da. Hori esateko beldurrik ez daukat. Nik uste dut aldatu egin behar dela eta orain izan daiteke momentu egokia. Txapelketa pasatu da eta gogoeta egiteko unea da.

Bestalde, txapelketaren inguruan sortu den «morbo» ikaragarri horretaz kexu naiz, eta uste dut komunikabideek bultzatu egin dutela. Faboritoen kontu guzti horrekin, nik badakit bertsolari batzuk minduta egon direla, baztertuta sentitu direlako. Beste batzuk gehiegi goraiatu dira arrazoi handirik gabe. Guzti horren aurkako erreakzioa ere izan da nik azken bertsoan hori egitea eta barre egitea. Sortu den «morbo» horrek, indartu egin zidan hori egiteko erabakia.

Azken batean, egun bat da eta edozeinek irabaz dezake; kontua da faboritoena subjeliboa dela erabat, baina telebistan agertzen bada, objetibo bihurtzen dela.

Oso gustura hartu dut Peñagarikanok irabazi izana.

EGUNKARIA
1991ko abenduaren 24a (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA:

1c	2c	3a	4d	5b
6b	7a	8d	9b	10a

SINONIMOAK. ERANTZUNAK

1. esnatu: iratzarri, itzartu
2. Eserita: Jezarrita, Jarrita
3. baretu: lasaitu, sosegatu
4. urrutiragotzen: urruneragotzen
5. Errezeloa: Susmoa, Mesfidantza
6. aurretik: aitzinetik
7. burrundara: burrunba, zarata, urruma
8. errainu: argi-izpi
9. baieztu: segurtatu, ziurtatu, baietsi
10. astiroan: geldoan, mantsoan
11. nagia: alferra
12. patxadarekin: lasaitasunarekin
13. akituek: nekatuek, unatuek
14. ahitzerainoko: bukatzerainoko, amaitzerainoko, agortzerainoko
15. kuraia: adorea, kemena
16. kiskaliago: erreago
17. tamaina: neurri
18. garaile: irabazle
19. ezinbestean: nahitaez, derrigorrez
20. besterik: baino, baizik

IRAKURMENA:

1a	2b	3d	4d	5a
6b	7b	8b	9d	10b

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hizkuntza, Unibertitate eta Ikerketa Saila

1. GLOTODIDAKTIKA-LANAK

a) *Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. N. Gardner (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. J.A. Mujika (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. I. Olaziregi (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. M. Sainz-I. Olaziregi (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (29).
- TREBATZEN. OHORAKO GONKO ZIKLOAREN HIZKUNTZ ARIKETAK. M. Sainz (23).
- EUSKALKIZ EUSKALKI. R.M. Pagola (19).
- EUSKARAREN ONHARRIZKO HIZTEGIA: MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. J.M. Etxebarria, J.A. Mujika (31).
- ONHARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. I. Olaziregi (34).

b) *Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. I.M. de Lezea-Kukubiltxo (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. I.M. de Lezea (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. I.M. de Lezea (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. L. Iriondo (10).
- KONTU KONTAKI. L. Iriondo (20).
- AMONAREN IPUINAK. E. Genua (12).
- IPUIN GEHIAGO. A. Lertxundi - J. Lucas - Kainu - Maskarada (13).
- JOLASEAN. I. Urbieto (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. I. Urbieto (21).

c) *Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)*

- EUSKALTZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1990-91-92KO AZTERKETAK (40).

d) *Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurreako). G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHORAKO 2. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (26).

- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduak OHoko 5. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testuak OHoko 2. eta 5. mailarako). J. Sierra - I. Olaziregi (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduak OHoko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduak eskolaurre-amaierako). I. Olaziregi - J. Sierra (30).
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz, erdaraz, frantsesez eta ingelesez). J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. J. Sierra - I. Olaziregi (36).
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHoko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (37).
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. J. Sierra - I. Olaziregi (38).
- PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8º de EGB). J. Sierra - I. Olaziregi (39).

2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKUNABIDEA ETA ADITZA. A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. J.M. Irazola (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. I. Artola - J.M. Berasategi - G. Narzabal - I. Olaziregi (3).

3. ZABALKUNDE LANAK

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. M.K. Kamino (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. M. Usabiaga (23).
- EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986. (14).
- EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. M. Usabiaga (27).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea (IRALE programa)*

- IRALE. 1992-93ko AURKEZPEN-TXOSTENA (29).

c) *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1992.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).
- ESKOLA HIZTUN BILA (28).
- ESKOLA ANTZERKIA 2 (30).
- ESKOLA ANTZERKIA 3 (31).

d) *Beste txostentxo batzuk*

- EUSKARA GAUR EGUNeko HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (24).
- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (txostena) (25).

NOTA: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.



EUSKO JURLAJATZA

GOBIERNO VIERO

ARGITALPEN-ZERBITZU
NAGUSIA

SERVICIO CENTRAL
DE PUBLICACIONES



EGA

EK15020246

Salneurria: 1.378 (B.E.Z. bar)